eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

# Hizkuntza-aldakortasuna euskaran

## Nafarroa ipar-mendebaldeko bi udalerritan egindako azterketa

**OIHANA LUJANBIO BEGIRISTAIN**

**DOKTORE-TESIA**

**UPV/EHU, Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila**

**Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego programa**

**Gasteiz, 2016**

**ZUZENDARIAK:**

**JOSE IGNACIO HUALDE, University of Illinois at Urbana-Champaign**

**KOLDO ZUAZO, UPV/EHU**

**(cc) 2016 Oihana Lujanbio Begiristain (cc by-nc-sa 4.0)**

Orain 'euskara' deitzen dugun etengabeko kreazio honen ibilbidea egin duen hiztun katea, baliteke gizakiak ezagutu dituen epe historiko asko pasatako komunitate historikoa izatea. Etenik gabeko hiztun kate honek ekoiztutako katedral neurrigabe bat daukagu egunero mihian dantzan, beti aldatzen doan sorkuntza eskerga (Sarasua 2013: 40).

Every person (…) has an accent. Your accent carries the story of who you are—who first held you and talked to you when you were a child, where you have lived, your age, the schools you attended, the languages you know, your ethnicity, whom you admire, your loyalties, your profession, your class position: traces of your life and identity are woven into your pronunciation, your phrasing, your choice of words. Your self is inseparable from your accent. Someone who tells you they don't like the way you speak is quite likely telling you that they don't like you (Matsuda 1991: 1329).

The analyses and observations in this textbook are meant as inspiration for your creativity and for mapping out your own research. Contemplate your own particular background, personal history, and social circumstances -where you are in the world, where you are in your life, and who is sitting at your kitchen table. You may be sitting on a sociolinguistic gold mine. Choose the most promising vein, then let it take you wherever it will (Tagliamonte 2012: 357).

# ESKERRAK EMATEA

Lan hau egin ahal izateko, hainbat eta hainbat lagunen laguntza baliatu dut urteetan zehar. Haiek gabe bide hau egitea ezinezkoa izango zen eta atera den emaitzak haien alea du bere baitan.

Hasteko, hizkuntzaren aldaketan zaletzeko abiapuntua eman didaten irakasleak eta ikertzaileak eskertu nahi ditut, Euskal Filologia ikasten ari nintzela eta ondorengo urteetan hortik sortu baitzait gai hau ikertzeko harra. Horien artean dira Gotzon Aurrekoetxea, Iñaki Camino, Irantzu Epelde, Jose Ignacio Hualde, Orreaga Ibarra eta Koldo Zuazo. Eta behin ikerketan hasita, soziolinguistika bariazionistaren metodologia ulertzen eta erabiltzen ikasten lagundu didaten ikerketa eta liburu egileak laguntza handikoak izan ditut. Horien artean, bereziki aipatu nahi ditut Bill Haddican, Daniel E. Johnson eta Sali A. Tagliamonte irakasleak. Haddicanek eta Johnsonek estatistikari buruzko nire galderak berehala erantzun dituzte, argi eta zehatz gainera. Tagliamonte bariazionismoa deitzen den soziolinguistikaren adarreko metodologia bere idatzietan hain argi azaltzeagatik laguntza handikoa izan da neretzat. Milesker, benetan!

Mikroaren aurrean jarri eta nerekin solasaldia izateko, eta beren hizkera grabatzeko prest agertu diren hiztunak bereziki eskertu nahi ditut, beraiekin izandako elkarrizketa, atsegina izateaz gain, langai bihurtu da-eta. Beraien denbora eta prestutasuna ezinbestekoa izan da ikerketa hau egin ahal izateko.

Jose Ignacio Hualde eta Koldo Zuazo bidea zuzentzen aritu diren bidelagun bikainak izan dira. Esker bereziak eman nahi dizkiet ibilbide osoan zehar emandako sostengu akademiko eta humanoagatik.

Larraitz Garmendiari eskerrak, proiektuaren hasierako iluntasunari argia eman eta grabazioak egiten egindako lanagatik. Amaia Apalauza eta Kontxi Arraztio ere eskertu nahi ditut, Araitz-Beteluko hiztunengana iristeko zubi izan direlako eta beren lana erabiltzen eskuzabal utzi didatelako.

Bide hau egiteko aukera eman didan Soziolinguistika Klusterra aipatu nahi dut eta nola ez, diruz lagundu nauten erakundeak: Eusko Ikaskuntzak eman zidan lehenengo bultzada Angel Apraiz bekarekin (2010-2011), eta EHUk bidea egin ahal izateko lau urteko babesa, Euskara eta Eleaniztasun Errektoreordetzako Euskarazko Tesiak egiteko dirulaguntzarekin. Espainiako Gobernuko Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioko dirulaguntzak (FFI2012-33190 proiektua) ere lagundu du bide honetan.

Eskerren atal hau ezin bukatu garrantzitsuenak aipatu gabe, etengabeko gasolina-emaileak izan diren Hegoi, Urtzi, familia eta lagunak, beti ondoan izan zaituztedanak. Milesker!

## AURKIBIDEA

**Taulen zerrenda** ..... **ix**

**Irudien zerrenda** ..... **xii**

1. **Sarrera** ..... **1**

2. **Hizkuntza-aldakortasuna eta soziolinguistika** ..... **3**
   - 2.1. Soziolinguistika kontzeptuaz ..... 3
   - 2.2. Soziolinguistikaren ikuspegia lan honetan: hizkuntza-aldakortasuna 5
   - 2.3. Hizkuntza-aldakortasuna euskal herrian ..... 8

3. **Oinarri metodologikoak** ..... **12**
   - 3.1. Hizkuntza-aldagaiak ..... 12
   - 3.2. Gizarte-eragileak eta hizkuntza-eragileak ..... 14
   - 3.3. Analisi kuantitatiboa eta kualitatiboa ..... 15
     - 3.3.1. Analisi estatistikoa: kontzeptuen azalpena ..... 16
     - 3.3.2. Programa estatistikoa: *Rbrul* ..... 18
   - 3.4. Laginketa ..... 20
   - 3.5. Corpusa eta elkarrizketa-metodoa ..... 23
   - 3.6. Printzipio unibertsalak eta lekuan lekuko egoera ..... 25
     - 3.6.1. Generoa ..... 25
     - 3.6.2. Herrien aukeraketa ..... 28

4. **A hipotesia: Goizuetako euskaran aldaketa ez da oso handia** ..... **29**
   - 4.1. Sarrera ..... 31
   - 4.2. Metodologia ..... 32
     - 4.2.1. Lagina ..... 32
     - 4.2.2. Grabazioak ..... 34
   - 4.3. Hizkuntza-aldagaiak ..... 35
     - 4.3.1. Aferesia bai / ez ..... 36
     - 4.3.2. /j/ edo /x/ hotsak ..... 37
     - 4.3.3. *-ikan / -ik* bukaerak ..... 38
     - 4.3.4. Geroaldiko *-en / -go* ..... 39
     - 4.3.5. Kausazko *-ko(t)z / -ko* ..... 40
     - 4.3.6. *Izan / egon* lekuzko perpausetan ..... 40
     - 4.3.7. **Edun / eduki* ..... 41
     - 4.3.8. *Arrunt / oso* ..... 42
     - 4.3.9. *Bakotxa / bakoitza* ..... 42
     - 4.3.10. *Bede, benpe / behintzat* ..... 42

4.3.11. *Biño / baño* ..... 43
4.3.12. *Deus / ezer* ..... 43
4.3.13. *Eskuara / euskara, euskera* ..... 44
4.3.14. *Eztikit / eztakit* ..... 44
4.3.15. *Gunun / giñun* ..... 45
4.3.16. *Patu / jarri* ..... 46
4.3.17. *Zerbette / zeoze* ..... 46
4.3.18. Erdarazko esaldiak eta makulu-hitzak ..... 47
4.3.19. Hikaren erabilera ..... 48
4.3.20. Hizkuntza-aldagaien maiztasuna ..... 48
4.4. Gizarte-eragileak eta hizkuntza-eragileak ..... 49
4.4.1. Hiztuna ..... 49
4.4.2. Adina ..... 49
4.4.3. Generoa ..... 50
4.4.4. Ikasketa-maila ..... 51
4.4.5. Goizuetan bizitzeko nahia ..... 52
4.4.6. Erdialdeko euskararekin harremana ..... 52
4.4.7. Aferesia gertatzen den aditza ..... 53
4.4.8. Aferesiaren aurretik bokala edo kontsonantea dagoen ... 53
4.4.9. *Y / j* hotsak agertzen diren hitzak ..... 54
4.4.10. *Y* edo *j* egiteko joera duten hitz-multzoak ..... 54
4.4.11. Aldagai lexikoa ..... 54
4.5. Emaitzak ..... 56
4.5.1. Aferesia bai / ez ..... 58
4.5.2. *Y* eta *j* hotsak ..... 63
4.5.3. *-ikan / -ik* bukaerak ..... 66
4.5.4. Geroaldiko *-en / -go* ..... 70
4.5.5. *Izan / egon* lekuzko perpausetan ..... 74
4.5.6. **Edun / eduki* ..... 76
4.5.7. Kausazko *-ko(t)z / -ko* ..... 78
4.5.8. Lexikoa ..... 80
4.5.9. *Arrunt / oso* ..... 85
4.5.10. *Bakotxa / bakoitza* ..... 86
4.5.11. *Benpe, bede / behintzat* ..... 88
4.5.12. *Biño / baño* ..... 89
4.5.13. *Deus / ezer* ..... 91
4.5.14. *Eskuara / euskara, euskera* ..... 91
4.5.15. *Eztikit / eztakit* ..... 93
4.5.16. *Gunun / giñun* ..... 94
4.5.17. *Patu / jarri* ..... 96
4.5.18. *Zerbette / zeoze* ..... 97
4.5.19. Erdarazko esaldiak eta makulu-hitzak ..... 98
4.5.20. Hikaren erabilera ..... 101

4.6. Ondorioak ..... 105
4.6.1. Hizkuntza-aldagaietako ondorioak ..... 105
4.6.2. Gizarte- eta hizkuntza-eragileetako ondorioak ..... 110
4.6.3. Kualitatiboki aztertutako aldagaietako ondorioak ..... 116
4.7. Laburpena ..... 118

5. **B hipotesia: Araitz-Beteluko euskaran aldaketa handiagoa da ..... 119**
5.1. Sarrera ..... 121
5.2. Metodologia ..... 122
5.2.1. Lagina ..... 122
5.2.2. Grabazioak ..... 124
5.3. Hizkuntza-aldagaiak ..... 125
5.3.1. Artikuluaren kontrakzioa deklinabidean *(semeak / semek)* 126
5.3.2. *e / a (mendie / mendia)* ..... 130
5.3.3. *o / u* adizkietan *(dozo / duzu)* ..... 135
5.3.4. *-di, -ti / -dik, -tik* bukaerak *(nondi / nondik)* ..... 136
5.3.5. *Izan* aditzaren erroa *(ga / gea, dena / dana)* ..... 138
5.3.6. **Edun* aditzaren erroa *(dot / dut / det)* ..... 139
5.3.7. Pluraleko 3. pertsonako nork morfema *-e / -te (due / dute)* 141
5.3.8. Lexikoa ..... 141
5.3.9. *Guzi / guzti* ..... 142
5.3.10. *Ongi / ondo* ..... 143
5.3.11. Erdara eta makulu-hitzak ..... 143
5.3.12. Hizkuntza-aldagaien maiztasuna ..... 144
5.4. Gizarte-eragileak eta hizkuntza-eragileak ..... 145
5.4.1. Hiztuna ..... 145
5.4.2. Adina ..... 146
5.4.3. Generoa ..... 147
5.4.4. Ikasketa-maila..... 147
5.4.5. Herria ..... 148
5.4.6. Artikuluaren kontrakzioan, hitza *e* edo *o* bokalaz amaitzen den ..... 149
5.4.7. Inguruneak *e / a* hizkuntza-aldagaian ..... 149
5.4.8. Berezitasunak *e / a* hizkuntza-aldagaian ..... 150
5.4.9. *o / u* adizkiak atzizkia duen edo ez ..... 150
5.4.10. *-ti / -tik* hizkuntza-aldagaiaren atzizkia ..... 150
5.4.11. *-ti / -tik* bukaeren ondoren bokala edo kontsonantea dagoen ..... 151
5.4.12. Pertsona *ga / gea* hizkuntza-aldagaian ..... 152
5.4.13. *Dena / dana* aditza edo izenordaina den ..... 152
5.4.14. Aldagai lexikoa ..... 152

5.5. Emaitzak ..... 153
5.5.1. Artikuluaren kontrakzioa ..... 155
5.5.2. *e / a (mendie / mendia)* ..... 158
5.5.3. *o / u* adizkietan ..... 162
5.5.4. *-ti / -tik* bukaerak ..... 166
5.5.5. *Izan* aditzaren erroa *(gea / ga, dena / dana)* ..... 170
5.5.6. **Edun* aditzaren erroa *(dot / dut / det)* ..... 174
5.5.7. Pluraleko 3. pertsonako nork morfema *-e / -te* ..... 177
5.5.8. Lexikoa ..... 179
5.5.9. *Biño / baño* ..... 185
5.5.10. *Ezer / deus* ..... 188
5.5.11. *Guzi / guzti* ..... 191
5.5.12. *Ongi / ondo* ..... 193
5.5.13. *Zerbatte / zeoze* ..... 194
5.5.14. Erdarazko esaldiak eta makulu-hitzak ..... 197
5.6. Ondorioak ..... 201
5.6.1. Hizkuntza-aldagaietako ondorioak ..... 201
5.6.2. Gizarte- eta hizkuntza-eragileetako ondorioak ..... 207
5.6.3. Kualitatiboki aztertutako aldagaietako ondorioak ..... 215
5.7. Laburpena ..... 217

6. **Ondorio orokorrak ..... 219**

7. **Aurreko ikerketekin konparaketa ..... 227**

8. **Lanaren mugak eta aurrera begirakoak ..... 240**

**Bibliografia ..... 242**

**Eranskinak ..... 254**

## TAULEN ZERRENDA


3.1. taula: hizkuntza-aldakortasuna aztertu duten ikerketa batzuen laginak..... 22
4.1. taula: Goizuetako gazte eta adinekoen kopuruak (2010eko Udal Errolda)..... 32
4.2. taula: Goizuetako lagina..... 32
4.3. taula: Goizuetako hiztunen kodeak..... 34
4.4. taula: Goizuetako hizkuntza-aldagaiak, maiztasunekin..... 48
4.5. taula: Goizuetako lagina, hiru adin-taldetan banatua..... 50
4.6. taula: ikasketa-maila bakoitzaren barneko tituluak..... 51
4.7. taula: Goizuetan aztertu diren gizarte- eta hizkuntza-eragileak, erantzun posibleekin..... 55
4.8. taula: korrelazionatuta dauden gizarte-eragileak hiztunka..... 56
4.9. taula: korrelazionatuta dauden gizarte-eragile bakoitzaren azalpen-maila..... 57
4.10. taula: aferesiaren analisiaren emaitza..... 59
4.11. taula: aferesiaren erabilera aztertutako aditzetan..... 60
4.12. taula: aferesiaren analisia, *adina* eta *ikasketa-maila*ren arabera..... 60
4.13. taula: aferesiaren batezbestekoa eta desbideratzea adina eta generoaren arabera..... 61
4.14. taula: *y* eta *j* hotsen analisia..... 63
4.15. taula: *y* eta *j* hotsen erabilera aztertutako hitzetan..... 64
4.16. taula: *y* eta *j* hotsen analisia, adina eta erdialdekoekin harreman-mailaren arabera..... 65
4.17. taula: *-ikan / -ik* hizkuntza-aldagaiaren analisia..... 66
4.18. taula: *-ikan* aldaeraren batezbestekoa eta desbideratzea adina eta generoaren arabera..... 67
4.19. taula: *-en* aldaeraren analisia..... 70
4.20. taula: *-en* analisiaren emaitza, adinaren arabera..... 71
4.21. taula: *izan / egon* hizkuntza-aldagaiaren analisia..... 74
4.22. taula: *izan / egon* hizkuntza-aldagaiaren analisia adina eta ikasketa-mailaren arabera..... 74
4.23. taula: **edun / eduki* hizkuntza-aldagaiaren analisia..... 76
4.24. taula: **edun / eduki* hizkuntza-aldagaiaren analisia adina eta ikasketa-mailaren arabera..... 76
4.25. taula: *-koz / -ko* hizkuntza-aldagaiaren analisia..... 79
4.26. taula: *-koz / -ko* hizkuntza-aldagaiaren analisia adina eta ikasketa-mailaren arabera..... 79
4.27. taula: hizkuntza-aldagai lexikoen erabilera..... 81
4.28. taula: lexikoaren analisia..... 81
4.29. taula: lexikoaren analisia ikasketa-maila eta erdialdekoekin harreman-mailaren arabera..... 82
4.30. taula: erdarazko esaldien eta makulu-hitzen erabilera, adinaren arabera..... 99
4.31. taula: erdarazko esaldien eta makulu-hitzen erabilera, adinaren arabera (adina hiru multzotan)..... 99

4.32. taula: erdarazko esaldien eta makulu-hitzen erabilera, hiztunaren arabera..... 99
4.33. taula: hitanoaren erabilera adinekoen artean..... 102
4.34. taula: hitanoaren erabilera gazteen artean..... 103
4.35. taula: Goizuetako hizkuntza-aldagaien maiztasuna eta bertako aldaeren aldaketa (%) 109
4.36. taula: Goizuetan bizitzeko nahia, hiztunaren arabera..... 115
5.1. taula: Araitz-Beteluko gazte eta adinekoen kopuruak (2013ko Udal Errolda)..... 122
5.2. taula: Araitz-Beteluko lagina..... 122
5.3. taula: Araitz-Beteluko hiztunen kodeak..... 124
5.4. taula: Araitz-Beteluko deklinabide kasuak singularrean eta pluralean..... 127
5.5. taula: *Berezitasunak* hizkuntza-eragilearen aukerak, bildutako hitzen zerrendarekin 133
5.6. taula: **edun* aditzaren orainaldiko adizkiak..... 140
5.7. taula: Araitz-Beteluko hizkuntza-aldagaiak, maiztasunekin..... 144
5.8. taula: Araitz-Beteluko lagina, hiru adin-taldetan banatua..... 146
5.9. taula: ikasketa-maila bakoitzaren barneko tituluak..... 147
5.10. taula: Araitz-Betelun aztertu diren gizarte- eta hizkuntza-eragileak, erantzun posibleekin..... 153
5.11. taula: korrelazionatuta dauden gizarte-eragileak hiztunka..... 154
5.12. taula: Araitz-Betelun korrelazionatuta dauden gizarte-eragile bakoitzaren azalpen-maila..... 155
5.13. taula: artikuluaren kontrakzioa hizkuntza-aldagaiaren analisia..... 156
5.14. taula: artikuluaren kontrakzioa ikasketa-mailaren arabera..... 156
5.15. taula: kontrakzio gabeko aldaeraren emaitza, herriz herri..... 158
5.16. taula: *e / a (i* eta *u* ondoren) hizkuntza-aldagaiaren analisia..... 159
5.17. taula: *e / a (i* eta *u* ondoren) ikasketa-mailaren arabera..... 161
5.18. taula: *e / a (i* eta *u* ondoren) hizkuntza-aldagaiaren emaitza, herriz herri..... 162
5.19. taula: *o / u* hizkuntza-aldagaiaren analisia..... 163
5.20. taula: *o / u* hizkuntza-aldagaia ikasketa-mailaren arabera..... 163
5.21. taula: *o / u* hizkuntza-aldagaiaren emaitza, kopuru absolutuetan, hiztunka..... 165
5.22. taula: *o / u* hizkuntza-aldagaiaren emaitza, herriz herri..... 165
5.23. taula: *-ti / -tik* hizkuntza-aldagaiaren analisia..... 166
5.24. taula: *-ti / -tik* hizkuntza-aldagaiaren emaitza, hiztunaren arabera..... 168
5.25. taula: *-ti / -tik* hizkuntza-aldagaiaren emaitza, herriz herri..... 168
5.26. taula: *-ik / -iken* aldaeren emaitzak, hiztunaren arabera..... 169
5.27. taula: *ga / gea* aldaeren emaitzak, hiztunaren arabera..... 170
5.28. taula: *ga / gea* hizkuntza-aldagaiaren analisia..... 171
5.29. taula: *ga / gea* hizkuntza-aldagaiaren emaitza, herriz herri..... 172
5.30. taula: *dena / dana* hizkuntza-aldagaiaren emaitza, hiztunaren arabera..... 172
5.31. taula: *dena / dana* hizkuntza-aldagaiaren analisia..... 173
5.32. taula: *dena / dana* hizkuntza-aldagaiaren emaitza, herriz herri..... 174
5.33. taula: *dot + dut / det* hizkuntza-aldagaiaren analisia..... 175
5.34. taula: *dot / dut* hizkuntza-aldagaiaren analisia..... 175
5.35. taula: *dot, dut* eta *det* aldaeren emaitzak, hiztunaren arabera..... 176
5.36. taula: *dot, dut, det* hizkuntza-aldagaiaren emaitza, herriz herri..... 177
5.37. taula: *-e / -te* aldaeren emaitzak, hiztunaren arabera..... 178
5.38 taula: *-e / -te* hizkuntza-aldagaiaren analisia..... 178
5.39. taula: hizkuntza-aldagai lexikoen erabilera..... 179

5.40. taula: hizkuntza-aldagai lexikoen erabilera, hiztunka..... 180
5.41. taula: lexikoa hizkuntza-aldagaiaren analisia..... 181
5.42. taula: lexikoa hizkuntza-aldagaia ikasketa-mailaren arabera..... 181
5.43. taula: lexikoa hizkuntza-aldagaiaren analisia (*biño / baño* aldagaia gabe)..... 182
5.44. taula: *biño / baño* aldagaiaren erabilera hiztunka..... 185
5.45. taula: *biño / baño* hizkuntza-aldagaiaren analisia..... 187
5.46. taula: *ezer / deus* aldagaiaren erabilera hiztunka..... 188
5.47. taula: *guzi / guzti* aldagaiaren erabilera hiztunka..... 191
5.48. taula: *ongi / ondo* aldagaiaren erabilera hiztunka..... 193
5.49. taula: *zerbatte / zeoze* aldagaiaren erabilera hiztunka..... 195
5.50. taula: makulu-hitzen erabilera Araitz-Betelun..... 198
5.51. taula: erdarazko esaldien eta makulu-hitzen erabilera, adinaren arabera (I)..... 198
5.52. taula: erdarazko esaldien eta makulu-hitzen erabilera, adinaren arabera (II)..... 199
5.53. taula: erdarazko esaldien eta makulu-hitzen erabilera, hiztunaren arabera..... 199
5.54. taula: hizkuntza-aldagaiak adinaren arabera izan duten joeraren arabera..... 201
5.55. taula: Araitz-Beteluko hizkuntza-aldagaien maiztasuna eta bertako aldaeren aldaketa (%)..... 206
5.56. taula: hizkuntza-eragileen adierazgarritasun-maila eta maiztasuna..... 214
6.1. taula: bi udalerrietako hizkuntza-aldagaietan, bertako aldaera zenbat aldatu den (%).. 219

**IRUDIEN ZERRENDA**

2.1. irudia: soziolinguistikaren azpidiziplinak..... 3
4.1. irudia: Goizuetako biztanleria (Wikipedia. Kontsulta-data: 2016/02/01)..... 31
4.2. irudia: aferesiaren erabileraren proportzioak, adina eta generoaren arabera..... 61
4.3. irudia: aferesiaren erabilera adina eta generoaren arabera..... 62
4.4. irudia: aferesiaren erabilera adina eta ikasketa-mailaren arabera..... 62
4.5. irudia: aferesiaren erabilera generoa eta ikasketa-mailaren arabera..... 63
4.6. irudia: *y* aldaeraren erabilera adina eta ikasketa-mailaren arabera..... 65
4.7. irudia: *-ikan* aldaeraren erabileraren proportzioak, adina eta generoaren arabera.. 67
4.8. irudia: *-ikan* aldaeraren erabilera adinaren arabera (aldagai jarrai bezala) aztertuta 68
4.9. irudia: *-ikan* bukaeraren erabilera adina eta generoaren arabera..... 68
4.10. irudia: *-ikan* bukaeraren erabilera ikasketa-mailaren eta ikasketa-maila eta generoaren arabera..... 69
4.11. irudia: *-en* aldaeraren erabilera ikasketa-mailaren arabera..... 72
4.12. irudia: *-en* aldaeraren erabilera eta adina eta generoaren arabera..... 72
4.13. irudia: *-en* aldaeraren erabilera ikasketa-mailaren eta adinaren arabera..... 73
4.14. irudia: *-en* aldaeraren erabilera ikasketa-mailaren eta generoaren arabera..... 73
4.15. irudia: *izan* aldaeraren erabilera adinaren arabera..... 75
4.16. irudia: *izan* aldaeraren erabilera ikasketa-mailaren arabera..... 75
4.17. irudia: **edun* aldaeraren erabilera generoaren arabera..... 77
4.18. irudia: **edun* aldaeraren erabilera ikasketa-maila eta generoaren arabera..... 77
4.19. irudia: **edun* aldaeraren erabilera adina eta generoaren arabera..... 78
4.20. irudia: *-koz* bukaeraren erabilera adina eta generoaren arabera..... 80
4.21. irudia: bertako lexikoaren erabilera, hizkuntza-aldagaika..... 83
4.22. irudia: lexikoaren erabilera hiztun adindun eta helduengan..... 84
4.23. irudia: lexikoaren erabilera hiztun gazteengan..... 84
4.24. irudia: *arrunt* adberbioaren erabilera generoaren eta adinaren arabera..... 85
4.25. irudia: *arrunt* adberbioaren erabilera generoaren eta erdialdekoekin harreman-mailaren arabera..... 86
4.26. irudia: *bakotxa* adberbioaren erabilera adinaren eta generoaren arabera..... 87
4.27. irudia: *bakotxa* adberbioaren erabilera adinaren (hirutan) eta generoaren arabera 87
4.28. irudia: *benpe* adberbioaren erabilera adinaren eta generoaren arabera..... 88
4.29. irudia: *benpe* adberbioaren erabilera adinaren eta generoaren arabera, hiztunka 89
4.30. irudia: *biño* adberbioaren erabilera generoaren eta adinaren arabera..... 90
4.31. irudia: *biño* adberbioaren erabilera adinaren eta ikasketa-mailaren arabera eta adinaren eta erdialdekoekiko harremanaren arabera..... 90
4.32. irudia: *euskara* moldeko hitzen erabilera *euskera* moldekoekin konparatuta, adinaren arabera eta generoaren eta adinaren arabera..... 92
4.33. irudia: *eskuara* eta *euskara*-ren erabilera *euskera*-rekin konparatuta, adinaren arabera 93
4.34. irudia: *eztikit* moldeko adizkien erabilera generoaren eta adinaren arabera..... 94
4.35. irudia: *gunun* moldeko **edun* aditzaren erabilera, adinaren eta generoaren arabera... 94
4.36. irudia: *gunun* moldeko **edun* aditzaren erabilera, adinaren eta generoaren arabera, hiztunka..... 95
4.37. irudia: *gunun* moldeko **edun* aditzaren erabilera, adinaren (hiru multzotan) eta

generoaren arabera..... 95
4.38. irudia: *gunun* moldeo **edun* aditzaren erabilera, ikasketa-mailaren eta hirutan banatutako adinaren arabera..... 96
4.39. irudia: *patu* moldeko aditzaren erabilera, adinaren eta generoaren arabera, eskuinekoan hiztunka..... 97
4.40. irudia: *zerbette* moldeko adberbioaren erabilera, hirutan banatutako adinaren eta generoaren arabera, eskuinekoan hiztunka..... 98
4.41. irudia: bertako hizkuntza-aldaeren erabilera adinaren arabera (%)..... 106
4.42. irudia: bertako hizkuntza-aldaeren erabilera adinaren arabera (%), adina hiru multzotan banatuta..... 106
4.43. irudia: bertako hizkuntza-aldaeren erabilera ikasketa-mailaren arabera (%)..... 112
4.44. irudia: bertako hizkuntza-aldaeren erabilera erdialdekoekin harreman-mailaren arabera (%)..... 112
4.45. irudia: bertako hizkuntza-aldaeren erabilera generoaren arabera (%)..... 114
5.1. irudia: artikuluaren kontrakzioa aldagaiaren emaitza hiztun adindun eta helduengan.. 157
5.2. irudia: artikuluaren kontrakzioa hizkuntza-aldagaiaren emaitza hiztun gazteengan 158
5.3. irudia: *e / a (i* eta *u* ondoren) hizkuntza-aldagaiaren analisi emaitza hiztunaren arabera 161
5.4. irudia: *o / u* hizkuntza-aldagaiaren emaitza hiztun adindun eta helduengan..... 164
5.5. irudia: *o / u* hizkuntza-aldagaiaren emaitza hiztun gazteengan..... 164
5.6. irudia: *-ti / -tik* hizkuntza-aldagaiaren emaitza hiztun adindun eta helduengan..... 167
5.7. irudia: *-ti / -tik* hizkuntza-aldagaiaren emaitza hiztun gazteengan..... 167
5.8. irudia: *ga / gea* aldaeren emaitzak, hiztunaren arabera..... 170
5.9. irudia: *dena / dana* hizkuntza-aldagaiaren emaitza, hiztunaren arabera..... 173
5.10. irudia: *dot, dut, det* aldaeren emaitzak hiztun adindun eta helduengan..... 176
5.11. irudia: *dot, dut, det* aldaeren emaitzak hiztun gazteengan..... 177
5.12. irudia: bertako lexikoaren erabilera (%), hizkuntza-aldagaika..... 182
5.13. irudia: lexikoaren erabilera hiztun adindun eta helduengan..... 183
5.14. irudia: lexikoaren erabilera hiztun gazteengan..... 184
5.15. irudia: *biño, beño / baño* aldaeren erabilera hiztun adindun eta helduengan..... 186
5.16. irudia: *biño, beño / baño* aldaeren erabilera hiztun gazteengan..... 186
5.17. irudia: *ezer / deus* aldagaiaren erabilera hiztunka..... 189
5.18. irudia: *ezer* aldaeraren erabilera generoaren eta ikasketa-mailaren arabera..... 190
5.19. irudia: *ezer* aldaeraren erabilera generoaren eta adinaren arabera..... 190
5.20. irudia: *guzi / guzti* aldagaiaren erabilera hiztunka..... 191
5.21. irudia: *guzi* aldaeraren erabilera generoaren eta adinaren arabera..... 192
5.22. irudia: *guzi* aldaeraren erabilera generoaren eta ikasketa-mailaren arabera..... 192
5.23. irudia: *ongi / ondo* aldagaiaren erabilera hiztunka..... 194
5.24. irudia: *zerbatte / zeoze* aldagaiaren erabilera hiztunka..... 195
5.25. irudia: *zerbatte* aldaeraren erabilera generoaren eta adinaren arabera..... 196
5.26. irudia: *zerbatte* aldaeraren erabilera generoaren eta ikasketa-mailaren arabera.. 197
5.27. irudia: makulu-hitzen erabilera adinaren eta generoaren arabera..... 200
5.28. irudia: bertako hizkuntza-aldaeren erabilera adinaren arabera (%)..... 203
5.29. irudia: bertako hizkuntza-aldaeren erabilera ikasketa-mailaren arabera (%)..... 209
5.30. irudia: bertako hizkuntza-aldaeren erabilera generoaren arabera (%)..... 211
5.31. irudia: bertako hizkuntza-aldaeren erabilera herriaren arabera (%)..... 212
5.32. irudia: Araitz-Beteluko herrien kokagunea..... 213
5.33. irudia: Goizuetako eta Araitz-Beteluko aldaeren erabilera, adinaren arabera (%).. 218

# 1. SARRERA

Zerk eragiten du hizkuntzaren aldaketa? Zergatik eusten diete leku batzuetan gehiago bertako ezaugarri linguistikoei eta beste batzuetan gutxiago? Euskara batuak zenbaterako eragina du gure eguneroko hizketan? Hizkuntzaren aldaketaren inguruko galderak liluragarriak iruditzen zaizkigu; era berean, gaia arrunt konplexua dela ikusten dugu eta bere osotasunean ezin dugula aztertu. Nonbaitetik hasi nahi, ordea, eta bizi-bizirik dauden gure herrietako hizkerak hartu ditugu ikergai. Dioten bezala, elefantea jateko modurik onena zatika jatea baita.

Munduko gainerako hizkuntzak bezala, euskara etengabeko doitze eta eraldatze prozesuan bizi da, bai hizkuntzaren barrengo indarren eraginez, eta baita hizkuntzaren inguruko indarren eraginez ere. XX. mendean eraldatze-prozesu horretan elementu garrantzitsu bat sartu da: euskara batuaren sorrera, ofizialki 1968an. Euskara batua sortu eta erabili egin dugu, eta onura nabarmenak ekarri ditu horrek. Alde batetik, batua euskara irakasteko eta euskara esparru formaletan erabiltzeko ezinbesteko tresna bihurtu da. Horrela, euskaldun berrien kopurua asko hazi da eta euskara arlo guztietan erabiltzeko moduan dago: irakaskuntzan, administrazioan, hedabideetan, literatura idatzian, Interneten... Eta beste aldetik, euskaldunok elkar hobeki ulertzeko bide bat dugu, erdarara aldatu behar izan gabe (horiekin batera, beste onura garrantzitsu batzuk bildu ditu Zuazok 2008: 200-201). Azken batean, euskarak egunerokoan behar dituen hainbat funtziotarako tresna beharrezkoa dugu euskara batua.

Batua esparru horietan denetan baliatzeak orain arte erabili izan ditugun hizkeretan eragina du. Euskal hizkerak baturantz aldatzen ari direla dirudi, baina euskal hizkera guztiek ez dituzte joera berberak erakusten. Hori da gure hipotesia, bederen. Eta joera diferente horiek aztertu nahi ditugu, aldaketaren ulermenean pauso bat eman nahian. Horretarako, ezaugarri zehatz batzuk biltzen dituzten bi udalerri hartu ditugu aztergai: Goizueta eta Araitz-Betelu. Biak dira euskaldunak, euskararen ezagutza handikoak, eta ez oso handiak. Eta biek Nafarroa ipar-mendebaldean egonda, erdialdeko euskararekin harreman handia dute. Aldi berean, herriok desberdinak dira egoera demografikoari dagokionez (gainbehera handia dago Goizuetan eta

Araitz-Betelun gaur egun ez) eta norberaren hizkeraren berezitasunaz oharmen desberdina dutela uste dugu (gehiago ohartzen dira Goizuetan Araitz-Betelun baino). Hizkera horiek zaharrek eta gazteek nola erabiltzen dituzten aztertuko dugu, hain zuzen.

Euskararen aldaketa aztertzeko garaian, badago beste elementu garrantzitsu bat: beste hizkuntzen eragina. Hizkuntza bat baino gehiago bizi dira elkarrekin Euskal Herrian, oso maila diferenteetan erabiliak herriaren eta komunikazio-egoeraren arabera. Gure kasuan, Hego Euskal Herriko udalerriak ditugunez aztergai, gaztelania hartuko dugu kontuan.

Tesi honetan soziolinguistika bariazionistaren metodologia ekartzen dugu euskal hizkuntzalaritzaren arlora, azken urte hauetan beste ikertzaile batzuek egin duten bezala (Haddican 2005, Aurrekoetxea 2008, Ensunza 2015, besteren artean). Metodologia hau aukeratzeko arrazoia izan da aldaketa zehaztasunean aztertu nahi izatea, aldaketa hori hobeki ulertzeko. Aldaketa dagoela sumatu arren, bere norabidea eta indarra argi ikustea ez da erraza izaten. Tresna hauek gabe, intuizioa besterik ez dugu aldaketa neurtzeko garaian, eta subjektibotasunari tresna objektiboago bat gehitu nahi izan diogu metodologia honen bidez. Tesian zehar erakusten denez, gure aurkikuntza nagusia da intuizioaren bidez aukeratutako hizkuntza-aldagaietan asmatu dugula, aldaketan baitaude oro har eta, estatistikaren bidez, aldaketa horien garrantzia eta indarra sakonago aztertu ahal dela. Ikusi dugu gure iker-eremuan aldaketa badagoela euskara baturantz eta erdialdeko euskararantz, baina ez beti espero zen norabidean eta erritmoan. Emaitza hauek gaur egungo euskararen dinamika hobeki ulertzen laguntzen digute.

Lan hau sei ataletan banatua dago. Sarrera honen ondotik, hurrengo atalean, soziolinguistika eta hizkuntza-aldakortasuna kontzeptuez arituko gara, eta horiek lan honetan duten lekua zein den zehaztuko da. Horrekin batera, hizkuntza-aldakortasuna Euskal Herrian zein egoeratan dagoen azalduko da. 3. atalean, berriz, lanean zehar erabiliko den oinarri metodologikoen berri emanen da. 4. eta 5. ataletan, Goizuetako eta Araitz-Beteluko hizkuntza-aldagaiak eta hizkuntza- eta gizarte-eragileak zein diren azaldu ondoren, datuen analisia eginen dugu, emaitzak aurkeztuz. Bukatzeko, 6.a ondorio orokorren atala izango da eta 7.ean lanaren mugak eta aurrera begirakoak bilduko dira.

# 2. SOZIOLINGUISTIKA ETA HIZKUNTZA-ALDAKORTASUNA

## 2.1. SOZIOLINGUISTIKA KONTZEPTUAZ

Soziolinguistika oso ikergai zabala da. Bere erroak dialektologian, hizkuntzalaritza historikoan eta hizkuntza-kontaktuan ditu, soziologia eta psikologiaren eragin nabarmenarekin (Koerner 1991). Tradizionalki, ikerketaren helburuen arabera, bi termino erabili izan dira: *soziolinguistika* eta *hizkuntzaren soziologia*. Aurrenekoak ikerketaren fokoa hizkuntzan dauka, hizkuntza aztertzen du bere testuinguru sozialean eta bigarrenak hizkuntzaren interpretazio soziala azpimarratzen du (Tagliamonte 2006: 3-4). Definizio zabal bat emanez, soziolinguistikaren ikergaia hizkuntzaren, kulturaren eta gizartearen arteko elkarreragina da. Aztergai den hizkuntza-alderdiaren arabera, soziolinguistika azpidiziplina ugaritan banatzen da (Tagliamonte 2012: 1). Soziolinguistikaren azpidiziplinak modu argian erakusten ditu 2.1. irudiak. Sailkapen horretan, aipatutako soziolinguistika eta hizkuntzaren soziologiaz gain, gizarte-antropologiaren eta gizarte-psikolinguistikaren ikuspegia kontuan hartzen dira (Fishman 1988, itzulpena eta irudia Zarraga eta beste 2010):




2.1. irudia: soziolinguistikaren azpidiziplinak.

Azken batean, hizkuntza bat ikertzeko ikuspegi asko egon daitezke; hizkuntzan aldaketa eragin dezaketen alderdiak bezainbeste. Soziolinguistika Klusterraren *Soziolinguistika Eskuliburuan* honela azaltzen da soziolinguistikaren sorrera: *"Gizartearen edo gizarte-*

*testuinguruaren eta hizkuntzaren arteko harremanen azterketan, oso helburu eta jomuga ezberdinak agertu ziren hasiera-hasieratik. Ikertzaileen jatorrizko zientziek eta soziolinguistikara bultzatu dituzten interesek markatu dituzte ikerketen helburuak"* (Zarraga eta beste 2010: 32).

Hizkuntzaren bariazio eta aldaketaren ikuspegitik bakarrik, hizkuntzaren aldaketan eragiten duten eragileak asko izan daitezke eta ertz askotakoak. Wolfram eta Schilling-Estes ikertzaileek (2006) aurkeztutako zerrendan, adibidez, azalpen linguistikoekin batera, gizartearekin eta historiarekin lotutako azalpenak agertzen dira, eta hauei kulturari buruzkoak gehitzen ahal zaizkie, Tagliamontek egin bezala (2012: 353).

Euskararen gainean egindako beste analisi batean (Azurmendi eta Martinez de Luna 2011: 332-333), euskararen erabilera baldintzatzen duten eragile nagusiak lau dira: hezkuntza, hizkuntza-gaitasuna, euskal identitate etnolinguistikoa eta euskaraz ez dakienaren aurrean, erdaraz hitz egiteko joera. Era berean, hizkuntzaren erabileran eragiten duten faktore horiek hiru mailatan kokatu dituzte, elkarreraginean daudenak (Martinez de Luna, Suberbiola, Basurto 2009: 163-167): maila indibiduala, maila mikrosoziala eta maila makrosoziala.

Ikusten den bezala, hizkuntza-aldaketa ikergai konplexua da, ikuspegi askotatik begiratu daitekeena. Eragileak asko izanda ere, ikertzaile batzuek azpimarratzen duten ideia da, hizkuntza bat edo beste erabiltzea, hizkera bat edo beste erabiltzea, hiztunaren hautua dela. Hainbat aldagaik baldintzatua, baina aukera: *"Speakers cannot avoid making choices, for things can always be formulated differently"* (Coulmas 2005: 7). Soziolinguistika definitzeko garaian ere ideia hori darabil Coulmasek: *"Sociolinguistics is the linguistics of choice"* (2005: 9). Hiztunak aukera hori egiten duenean, ikerketan ari garenok egin beharreko galderak omen dira aukerak zertarako eta zerk eraginda egiten diren: *"For the analysis of communication practices (…) two questions must be asked: what are the intentions of an individual when making a particular choice? [and] what are the external factors influencing the specific decision?"* (2005: 136-137).

Hautu horiek hizkeren barnean gertatzen ahal dira, eta baita hizkuntzen artean ere[1].

1 Noski, hautuez ari garenean kontuan izan behar da kasu askotan hautu hori oso bideratua egon dela, ez bada derrigorrez ezarria izan. Izan ere, hizkuntza gutxitua erabiltzeagatik, adibidez, zigorra izan da ondorioa.

Paralelotasunak badaude hizkeren artean egiten diren aldaketen eta hizkuntzen artean egiten direnen artean. Hizkuntza bat edo hizkera bat erabiltzen badira hezkuntzan, hizkuntza edo hizkera horrek estatus jasoagoa izango du eta arlo batzuetan hori erabiltzeko joera ager daiteke. Paralelotasun horiek ez dira beti gertatzen, ordea. Adibidez, batzuetan, maila batean onuragarri gerta daiteke aldaketa, eta bestean ez: *"In monolingual communities, adolescents deviate from the adult form, but in many cases their deviant choices are innovative and reinvigorate the language. In multilingual communities, however, adolescent minority-language speakers' deviant choices often amount to a choice against the language of their elders"* (Coulmas 2005: 64).

Euskararen kasuan ere hori gertatu dela esan dezakegu: hizkeren artean dauden aldaketa batzuek hizkera aberasteko balio dezakete (bertako formak gutxiesten ez direnean, bederen). Adibidez, euskara batuak badu bere lekua euskalkiekin batera. Euskararen eta erdaren artean egiten diren hautuak, ordea, euskararen kalterako izan ohi dira, gehienetan.

## 2.2. SOZIOLINGUISTIKAREN IKUSPEGIA LAN HONETAN: HIZKUNTZA-ALDAKORTASUNA

Soziolinguistika oso arlo zabala da, beraz, eta gure ikuspegia zein izanen den argitzea dagokigu hemen. Ikerketa honetan erabiliko den soziolinguistikaren ikuspegia hizkuntzaren aldaketari begira ariko da, alegia "soziolinguistika hertsia" deitu izan dena da lan honetako eremua. Aldaketa hori nola gertatzen den da aztertu nahi duguna, eta horretarako hizkuntzaren testuinguru sozialak hartuko ditugu kontuan.

Trudgillek soziolinguistika motak azaltzeko azalpen hau eman zuen 1977an Vienan[2]: *"Some sociolinguistics, like Labov's, was aimed at answering questions (...) such as why are human languages like they are, how and why do languages change, and so on. Other people, (...) were doing research which was aimed at answering questions (...) such as why are human societies like they are, and why is human social interaction like it is. I also pointed out that some work had mixed objectives – to find out more simultaneously about both language and*

2 Hautsak harrotu omen zituen azalpenak, soziolinguistika aplikatuaren balioa gutxiesten ari zelakoan, nahiz eta berak horrelakorik adierazi nahi ez izan (Trudgill 2002: 2).

*society and their interrelationships and interactions, and to consider, for example, the effects of human interaction on the nature of human language"* (2002: 2). Ikerketa honetako lana azken taldean kokatzen da, bitariko helburua duen horretan, azterketa soziolinguistikoaren bidez gizartearen eta hizkuntzaren arteko lotuneak ikertu nahi baitira.

Egunero erabiltzen dugun hizkuntza sistema egituratu bat da, egituratua egon arren, aldatzen ari dena. Aldaketa hori ikertzeko gure lanean "hizkuntza bariazioa eta aldaketa" (*language variation and change*) deitzen den ikerbidearen metodologia erabiliko da, aldaketa ikertzeko tresna egokiak eskaintzen dizkigulako. Hemen *hizkuntza-aldakortasuna, soziolinguistika bariazionista* edo *bariazionismoa* terminoak erabiliko dira metodologia hori adierazteko. Soziolinguistika bariazionistaren aitzindaria den William Laboven esanetan (1980: 728), aldaketa hizkuntzak berezkoa (*inherent*) duen zerbait da. Eta ikerbide honek aldaketa hori nola gertatzen den aztertu nahi du.

Ikerketa-lerro hau hizkuntzalaritzatik sortu zen, nahiz eta hasiera batean diziplina horretan onarpen zabalik ez izan. Orain erabat onartuta dagoen alorra da, baina hasieran, 1960ko hamarkadaren bukaeran, interesarekin batera kritikak ere jaso zituen, proposatzen zuen ikuspegia orduko ideiekiko desberdina baitzen (Paolillo 2002: 191-192): *"The corpus-driven empirical approach it adopted was unfamiliar in mainstream linguistics, and the statistical generalizations it offered challenged then-dominant conceptions of language. Nonetheless, the variationist approach offered answers to a number of questions in sociolinguistics and historical linguistics, and researchers in those areas increasingly adopted it."*

Hizkuntzalaritzaren teorian hizkuntza-aldaketa ez da kontuan hartu izan, ezta hizkuntzatik kanpoko eragileak ere, nahiz eta gauzak aldatzen ari diren. 90eko hamarkadatik hona bariazionismoa eta hizkuntzalaritza teorikoaren arteko "ezkontzak" loratzen ari dira, bi ikuspegiek funtzio osagarriak dituztela sinestuta (Tagliamonte 2012: 21-22). Bestelako elkartzeak ere ugariak dira diziplina honetan ere, bariazionismoaren ikuspuntua zabaltzen dutenak. Esaterako, soziolinguistika bariazionista etnografiarekin eta jarreren azterketarekin uztartu duena (Poplack 1980: 582).

Soziolinguistika bariazionistak hiru osagai nagusi ditu: linguistikoa, soziala eta estatistikoa (Tagliamonte 2012: 1). Bere izaera beste modu batean ere adierazi izan da, izan ere, batetik, enpirikoa da, hizketa errealaren corpusetan oinarritua eta, bestetik, metodo estatistikoak erabiltzen ditu. Hirugarren osagai bat beharrezkoa du, ordea, hizkuntza-joerak ulertzeko: interpretazioa. Azalpen egokiak hortik aterako dira, alegia, estatistika interpretazio osagai indartsu batekin erabiltzen denean: *"Explanation in sociolinguistics can only happen when statistics are used in conjuction with a strong interpretive component, grounded in real-world language use"* (Tagliamonte 2012: 8).

Hizkuntzaren aldaketan eragiten duten hizkuntza-eragileak eta gizarte-eragileak aztertu ohi dira diziplina honetan. Gizarte-eragileekin batera, hizkuntzaren barruko eragileak ere garrantzitsuak dira, aldaketaren prozesua azaldu egiten dutelako (Tagliamontek 2012: 71-99). Hizkuntzak baditu berezko mekanismoak aldatzera daramatenak eta aldaketa ezin da ongi ulertu horiek kontuan hartu gabe. Hizkuntza-eragileak kontuan hartzen ez badira, azterketa ez da osoa, ez da erabat zuzena. Noski, hemen ere ikuspegi desberdinak daude, eta batzuek bi eragile motak aztertzen dituzten bezala, badira hizkuntza-eragileetan edo gizarte-eragileetan gehiago interesatzen direnak (Tagliamonte 2006: 4). Hizkuntzan gehiago zentratzen direnei kritikak egiten dizkietenak daude, batetik (Cameron 1990, Eckert 2000), eta arloaren izaera bikoitza azpimarratzen dutenak, bestetik (Milroy eta Gordon 2003: 8). Labovek (2001: 498) bi eragileen garrantzia azpimarratzen du, bakoitzaren desberdintasunak azalduz: *"linguistic change in progress is heavily constrained by the physical environment in which it takes place, and by structural factors that limit the course of change. At the same time (...) the forces that motivate change, and are responsible for incrementation and transmission across generations are largely social in nature"*.

Ondorengo atalean, hizkuntza-aldakortasunaren ikuspegi hau Euskal Herriko ikerlanetan zenbateraino erabili den aztertuko dugu.

## 2.3. HIZKUNTZA-ALDAKORTASUNA EUSKAL HERRIAN

Euskal Herrian hizkerei eta euskalkiei buruz egindako lan gehienak lan dialektologikoak izan dira. Lan dialektologikoen baitan biltzen direnak dira geografiaren arabera (maila diatopikoan) euskararen aldaketa aztertu duten lanak. Herri bakoitzeko aldakortasunari begiratzea baino, dialekto eta hizkuntza arteko mugak zehaztea edo euskalkien sailkapen berria egitea izan dute helburu (Ensunza 2015: 7). Horietan ikuspegi soziolinguistikoa ere erabili dute batzuk, eta beste batzuk ikuspegi horren beharra azpimarratu dute. "Ikuspegi soziolinguistikoa" diogunean, gizarte-eragileen araberako (maila diastratikoa) eta erregistroen araberako (maila diafasikoa) aldaketa aztertu dutenak biltzen ditugu. Euskal Herrian, gizarte-eragileak aztertzen dituzten lanak hasi dira loratzen azkenaldian. Beraz, gaur egun, ikuspegi soziolinguistikoaren barnean, gizarte-eragileak ditugu aztergai batez ere euskarari buruzko lanetan, eta gizarte-eragile horien artean, adina gehienetan.

Euskarari buruz egin diren lan dialektologikoak asko dira: Louis Lucien Bonapartek abiatutako azterketetatik hasi eta gaur eguneraino lan oparoa egin da. Eta esan bezala, ikuspegi soziolinguistikoa duten lanak ugaritzen ari dira azken hamarkadetan. Hain zuzen ere, lan dialektologikoak egin dituzten ikertzaileek horraranzko bidea egin dute maiz. Euskal ikerketan ibilbide hori modu batean edo bestean egin dutenak dira Aurrekoetxea (1995, 2008, 2009, Ormaetxearekin batera 2006), Camino (1997, 1998a, 1998b, 2004, 2009a, 2009b), Gaminde (1998, 2003), Ibarra (1994, 1997, 2000, 2006, 2008a, 2008b), Ormaetxea (2002, 2006) eta Zuazo (1998a, 1998b, 1998c, 2000, 2005, 2008, 2012) ikertzaileak, besteren artean. Apalauzak hizkuntza-aldakortasunak eta dialektologiak elkarrekiko duten loturari buruz esandakoak ederki bildu ditu bere doktore-tesian (2010: 79-97).

Aurrekoetxeak zuzendutako EUDIA taldearen baitan egin diren azterketak azkenaldian norabide horretan egindako lanaren erakusle dira. *"EUDIA ikerketa-taldea euskararen bariazioa ikertzeko sortutako taldea da eta euskararen aldaketa edo bariazioa ikertzea du helburu"* (http://www.ehu.eus/eu/web/eudia/aurkezpena). Euskal Herriko hainbat herritako aldakortasuna aztertu dute, adinari begirakoa batez ere: Aurrekoetxeak Diman egin du azterketa (2004, 2006, 2008), Perezek Beran (2006), Ormaetxeak Otxandion (2008), Santaziliak Luzaiden (2009), Unamunok Gizaburuagan (2010), Ariztimuñok Tolosan eta

Ataunen (2010) eta Ensunzak Gernika-Lumon (2012, 2014)[3] eta Busturialdean (2015). Azentu bariazioaz ere egin da lan bat (Gandarias 2012). Era berean, ikerketa-talde horretatik kanpo egin dira lanak ikuspegi soziolinguistikoarekin beste herri batzuetan, hala nola Oiartzunen (Haddican 2003, 2005, 2007), Zaldibian (Garmendia 2001b, 2008), Goizuetan (Lujanbio 2012, 2014) eta Bilbon (Etxebarria 1985 eta 2000, Gaminde 2010), azken honetan, Gaminderen kasuan ikergai gazteen hizkera hartuta, eta Etxebarriaren kasuan, Bilboko gaztelania[4]. Azterketa hauen artean badira oso lan sakonak (tesiak, adibidez) eta baita lan laburragoak ere, baina arlo honetako lanak ugaritzen ari direla argi dago.

Gaminderekin bat egiten dugu hizkuntza-aldakortasuna aztertzeko ikuspegi aldaketa bat behar dela dioenean, eta aldaketa hori hizkuntza biziaren seinalea izan daitekeela: *"Ideietan egin behar dugu lehen aldaketa eta onartu hizkuntza guztiak aldatuz doazena espazioan zehar ez eze, denboran zehar ere. Aldaketa horiek ez dute degenerazioa edo galera inplikatu behar ezinbestean; aitzitik, hizkuntzaren bizieraren zantzutzat interpreta daitezke. Ikusmolde aldaketa honekin batera bariazioari eragiten dioten faktore sozialak hartu behar ditugu gogotan"* (2010: 2). Euskararen aldaketa aztertzean, adinaz gain, generoa ere izan du aztergai Gamindek eta ikusi du eragina duela kasu batzuetan (2009, 2010, Gaminde eta Romero 2011, Gaminde eta beste 2012). Zubilaga eta Gaminde 2010 lanean, adibidez, aztergai duten ezaugarri linguistikoan (/t/ren palatalizazioa) emakumeak kontserbatzaileago agertu direla ikusi dute.

NORANTZ egitasmoak ere hizkeren aldaketa aztertzea du helburu, Ipar Euskal Herrian hain zuzen. IKER taldekoek azaltzen duten bezala, *"NORANTZ proiektuaren helburua da gaur egungo Iparraldeko euskaldunen gramatika oinarriak, joera handienetan, zer bidetarik doazen ikustea, eta datubase batean bildurik erakustea, gisa horretan euskal hizkeren gramatikaren bilakaeraren behagune baten zimenduak finkatuz"* (http://www.norantz.org). Ahozko corpus honetako datuetan oinarrituta egin da hasperena galtzeari buruzko azterketa bat ere (Jauregi eta Epelde 2013).

3 Ikerketa-talde horretatik kanpo, Rodriguez-Ordoñezek (2013) ere egin du Gernikako euskarari buruzko lanik ikuspegi soziolinguistikotik.
4 Bilbon euskara eta gaztelaniaren arteko kode-aldaketa ere aztertu da berriki (Lantto 2012, 2015).

Euskara batuaren eta euskalkien gaia beste ikuspegi batetik aztertu du Amorrortuk, hauekiko dauden jarrerei lotuta (2000, 2001) nahiz identitatearekin lotuta (2003). Haddicanek ere euskara batuaren sorrerari buruzko azalpen interesgarria ematen du (2005: 14-44). Lan eta proiektu landuez gain, batuak eta euskalkien gaia euskal hiztun-komunitatearen ahotan ere badago; hala adierazten dute hainbat artikulu nahiz forotan irakurritako iritziek. Sustatun 2012an argitaratutako artikulu batean eta irakurleek emandako erantzunetan, adibidez, euskara estandarraren eta euskalkiaren lekuaz eztabaidatzen da (http://sustatu.eus/1317660424). Hara hemen handik hartutako zati batzuk:

*Bizkaitarrak: "Gipuzkoan beharbada ez dozue arazorik eukiko zuen euskalkiagaz, baina Bizkaian oso oso herri euskaldunak ez direnetan batua bizkaierari terrenoa jaten dabil, eta etxe berean ikusi zeinkez gurasoak bizkaieraz eta umeak batuaz. Herririk euskaldunenetan, Ondarroan kasu, beti jakin izan dabe eurena zaintzen".*

Fermin Etxegoienek: *"Hiztunarentzat inportantea baita, oso, estetikoki osatu, koherente, jator agertzea euskaraz ari denean. Eta batzuek euskalkian ari direnean baino ez dute halakorik lortzen. Helburua, noski, badakigu zein den; euskara batuan aritu ahal izatea euskara jatorrean arituko bagina bezala. Euskalkiak zein hizkuntza aldaera partikularrak progresiboki desitxuratuz? Ezinbestean! Halere, izan dadila uztarketa-prozesu geeldo, luuuze, denontzat aberasgarri, ahalik eta 'ez traumatikoen'...".*

Xabier Euzkitzek: *"Neure koadrilakoei sekulako grazia egingo liekeen euskara guztiz desegoki lukek Bermeon edo Ibarlan ulertuko ez balute. Eta hori, adiskide Fermin, eguneroko arazoa duk euskarazko hedabideetan, estetika guztiez haratago".*

Euskalkiak eta batua elkarren osagarri direla da uste orokorra, baina elkarren arteko talkak ere badaude, beraz. Fenomeno horretaz hitz egiten dute Urla (1995) eta Haddicanek (2005) ere: *"An additional testament to the success of Batua's construction as a standard is evidence that, in recent years, dialectal forms have emerged as ways of marking oppositional identities, especially among young people. That is, as Batua has come to be used in schools, mainstream media and government, those varieties in opposition to which Batua has been constructed seem to be emerging as a way of marking opposition to these institutions or meanings associated with these institutions (cf. Urla 1995)"* (Haddican 2005: 43).

Euskara batuak hainbat esparrutan lekua hartu du (Rekalde eta Iñigo 2004, Euskaltzaindia 1979 eta 1995) eta esparru horiek noraino zabaldu behar diren zalantzak sortu izan dira: *"Euskara Batua dela euskara ona eta jasoa sinestuta, herri euskaldunetako jardun jaso guztietara hedatu da. Herri barruko batzar eta hitzaldietan, herri barruko elizetan, herri barruko bulego eta lantegietan, herri barruko irrati eta telebistetan Euskara Batua nagusitu da joan den urteotan"* (Zuazo 2001: 69).

Erregistro idatzian euskalkia nola erabili argitzeko, landu dira euskalkian idazteko irizpide batzuk, eta sarean daude (http://www.badihardugu.com/argitalpenak/Euskalkian_idazteko_irizpideak/irizpideak.pdf).

Euskara batua tresna berri bat dugu eta, tresna guztiak bezala, hau ere erabiltzen ikasi behar dugu. Tresna berri hori aurretik genituenekin batera erabiltzen hasi gara eta, horrela, betiko tresnek egokitze-prozesu berri bati ekin diote. Azken batean, euskaldunentzat ere eredu estandarra izatea beharrezkoa da, baina eredu hori ez dago beti erabili beharrik: egoera-komunikatiboaren eta gauden leku geografikoaren arabera, bertako euskalkia erabiltzea izan daiteke egokiena (Zuazo 2000). Uriak euskara batuaren eta euskalkien arteko banaketa funtzionalari buruz egin diren gogoeten bilduma ederra egin du bere tesian (2009: 38-43).

Garbi dugu euskalkiek eta batuak beren lekua behar dutela, euskararen aberastasun eta osasunerako. Gure ikerketan, aztergai diren udalerrietako hizkerek euskara batuaren, erdialdeko euskararen eta erdararen artean, zein leku duten aztertuko da.

# 3. **OINARRI METODOLOGIKOAK**

Hizkuntza-aldakortasunaren ikerketa egiteko ez dago modu bakarra. Eta Laboven esanetan, hobe horrela (1972b: 119): *"It is not necessary for everyone to use the same methods – indeed, it is far better if we do not"*. Dena den, ikerketa bakoitzak, hasi aurretik, erabiliko duena zein izanen den erabaki behar du eta hemen erabiliko dena zehaztea da ondorengo lerroen helburua. Hurrengo puntuetan azalduko dira gure lanean erabilitako metodologiaren oinarri nagusiak.

## 3.1. HIZKUNTZA-ALDAGAIAK

Soziolinguistikaren arlo honek eguneroko hizkera aztertzen du (*"everyday speech"*, Sankoff 1980: 54), erabiltzen den benetako hizkuntza (*"real language in use"*, Milroy 1992: 66). Norbait hitz egiten sumatzerakoan, aldaketak egiten dituela nabaritzen dugu: gauza berbera esateko modu diferenteak erabiltzen ditu, orain bat, gero bestea. Horiek dira hizkuntza-aldagaiak, soziolinguistika bariazionistak aztertzen dituenak. Hizkuntza-aldagaia gauza berbera esateko dauden moduak dira (bi edo gehiago) (Labov 1972b, *in* Sankoff 1980: 55). Ez dira sinonimoak bakarrik; gramatikaren aldetik ere erlazio zehatza izan behar dute hizkuntza-aldagaiko aukerek.

Hasierako ikerketetan, aztergai ziren aldagaiak fonologikoak ziren, maiztasun handiena dutelako. Ondoren, ikuspegia zabaldu eta sintaxia eta lexikoa ere aztertu izan dira. Hizkuntza-aldagaia gramatikaren edozein mailatan egon daiteke, fonetikatik hasi eta sintaxiraino (Wolfram 1993: 195, *in* Tagliamonte 2006: 75). Hala ere, gramatikaren beste arlo horiek aztergai izateko baldintza batzuk bete behar dituzte: *"The linguistic variable must also have another important characteristic. It must co-vary, i.e. correlate, with patterns of social and/or linguistic phenomena. (...) A linguistic variable is more than simply a synonym, and more complex than simply two ways of saying the same thing. It must also have qualities of system and distribution as well"* (Tagliamonte 2006: 76).

Analisi estatistikoa egiteko, hizkuntza-aldagaia corpusean agertzen den adibide guztiak kontatzeaz gain, agertu zitekeen eta agertzen ez den aldi bakoitza ere kontuan hartu behar da. Hori da "erantzukizunaren printzipioak" dioena (*"accountability principle"*). Alegia, ez dira interesatzen zaizkigun aldagaiak bakarrik aztertu behar, beren ordezkoak ere kontuan hartu behar dira; *ongi* hizkuntza-aldagaia aztertzen ari bagara, *ondo*, *untsa* eta baliokide diren beste hizkuntza-aldagaien agerpen kopurua ere kontuan hartu behar dugu. Zein da hizkuntza-aldagaia agertzeko dagoen aukera-kopurua? (Tagliamonte 2012: 10-12). Aldagai potentzial guztiak kontuan hartuta bakarrik aztertu ahal izanen dugu nola funtzionatzen duen hizkuntza-aldagai horrek. Aldagai guztiak kontuan hartuta eman ahal izanen dugu hizkuntza-aldagai bakoitza zenbat aldiz eta zein testuingurutan agertzen denaren berri. Gure ikerketan ere elkarrekin ordezka daitezkeen hizkuntza-aldagaiak aukeratu ditugu, funtzio berbera dutenak.

Aukeratutako hizkuntza-aldagaiek asko erabiliak izan behar dute, maiztasun handiko ezaugarriak direlako azterketarako egokienak (emaitza estatistiko fidagarrienak emanen dituztenak). Tagliamonteren arabera (2006: 78-85), hizkuntza-aldagaiak aukeratzeko garaian, hiru ezaugarri hauek, bederen, izan behar dira kontuan: maiztasuna, behar adinako bariazioa egotea (ez egotea ez % 100etik, ez % 0tik gertu) eta arazo soziolinguistikoekin zerikusia izatea.

Hizkuntza-aldagai bakoitza zein testuingurutan eta zein modutan ager daitekeen kontuan hartzea ezinbestekoa da hizkuntza-aldagaia egoki aztertu nahi badugu. Alegia, ingelesez *"circumscription"* deitzen dena egitea. Gure ikerketan ere testuinguru horren berri emanen dugu eta banaketa berezia duten kasuak azalduko dira (aditz batzuekin bakarrik agertzea, adibidez)[5]. Era berean, ez ditugu kontuan hartu hizkuntza-aldagaiaren maiztasuna modu okerrean kontatzea eragin dezaketen gertaerak, hauexek hain zuzen (Tagliamonte 2006: 88-98):

- Aldatzen ez diren hitzak, beti forma berean agertzen direnak. Adibidez, aztertutako udalerrietan beti esaten da *hemen, amona* eta abar.
- Aipamen metalinguistikoak. Adibidez, Goizuetako hiztun batek (*ea2*) *"Leitzan 'dozo'*

5 Gure lanean aztertu diren hizkuntza-aldagaiez eta bakoitzeko testuinguruez jakiteko, jo *4.3.* eta *5.3.* ataletara.

*saten dute"* esan duenean, edo "*guk 'esan' saten dun bezala, Baztan alde hortan 'erran'* (*ga3*).

- Ezta besteek esandako zerbait errepikatzean[6], ikasitako kantak edo esaerak direnean ere.
- Testuinguru anbiguoak. Adibidez, bukatu gabeko esaldiak edo hitzak, neutralizazioak...
- Ikertzen dugun funtzioa ez duten formak.

Hizkuntza-aldagaiak transkripzioetan bilatzen ditugu, bilaketa egiten laguntzen digun programa baten bidez: *Simple Concordance Program 4.09*. Era honetako programa informatiko asko daude, behar ditugun itemak edo adibideak bilatzen laguntzen dutenak. Dena den, batzuetan behar ez direnak ere bilatzen ditu eta, hizkuntza-aldagai batzuetan, ez du asko laguntzen. Horregatik, kasu batzuetan, guk egin dugu bilaketa testuan zehar.

Bilatutako adibideak taula batean zerrendatu dira, eta bertan bakoitzak aztergai diren gizarte-eragile eta hizkuntza-eragileetatik zein betetzen dituen adierazi da. Horrela, zerrenda bat sortzen dugu hizkuntza-aldagai bakoitzeko. Errazago ikusteko, adibide bat dago 1. eranskinean, ikasketa-maila altuko adineko emakume batek aferesia nola erabili duen adierazten duena, hain zuzen. Honekin, analisia egiteko prest ditugu hizkuntza-aldagaiak.

## 3.2. GIZARTE-ERAGILEAK ETA HIZKUNTZA-ERAGILEAK

Gizarte-zientzietan erabiltzen diren matematikako bi kontzeptu erabiltzen dira lan bariazionistetan, hizkuntza-aldagaiak eta gizarte- nahiz hizkuntza-eragileak adierazteko: menpeko aldagaia eta aldagai askea. Interesatzen zaigun hizkuntza-aldagaia menpeko aldagaia da, aldagai askeen eraginez aldatuko dena. Aldagai askeek aldaketan eragina dute eta hizkuntzatik kanpoko eragileak (gizartezkoak, egoerazkoak, psikologikoak...) nahiz hizkuntza barruko eragileak (hitzaren kategoria gramatikala, funtzioa, esaldiko kokagunea...) izan daitezke. Esate baterako, Cedergren eta Sankoff-ek (1974) *que* lokailua aztertu zuten Montrealeko frantsesean. Ikerketa honetan, menpeko aldagaia lokailuaren agerpena da (bai / ez) bariazioa erakusten duen egitura sintaktikoan, adibidez: *au début je pense (que) ça a été*

6 Salbuespen batekin: kontuan hartu dira erdaraz esandako adibideak. Adibidez: *"Ixillik eon behar, ta hark saten tzun 'si' o 'no' san bar"* (*ea2*).

*plutôt un snobisme*. Hizkuntza barruko aldagai aske bezala, aurreko eta ondorengo ingurune fonologikoak aukeratu zituzten. Hizkuntza kanpoko aldagai aske bezala, aldiz, hiztunaren generoa eta klase soziala hartu zituzten kontuan.

Normalean, azterketa bariazionistetan, aldagaia (*"variable"*) hizkuntza-aldagaiak izendatzeko erabiltzen da, menpeko aldagaiak. Aldagai askeak, berriz, eragile edo faktore (*"factors"*) izenarekin agertzen dira (Tagliamonte 2012: 9). Ikerketa honetan horrela izendatuko ditugu: hizkuntza-aldagaiak, batetik, eta gizarte- nahiz hizkuntza-eragileak, bestetik.

Ikerketa honetan gizarte-eragileengan jarri nahi da arreta berezia. Jakinik ere hizkuntza barruko eragileek zeresana dutela hizkuntzaren aldaketan, gizarte-eragileek eragiten duten aldaketa da hemen bereziki aztertu nahi dena. Hizkuntza bera egoera soziolinguistiko desberdinetan aztertu nahi dugu, egoera desberdin horiek hizkuntza mantentzean edo aldatzean zein eragin duten ikusteko. Ezagutza hori izanda, ulermenean aurrera egin dezakegulako eta, akaso, gauzak beste era batera egiteko aukera izango dugulako, dagoena hobetuz. Horregatik paratuko dugu lupa alde sozialean.

Hizkuntza-eragileek aztergai ditugun hizkuntza-aldagaietan eragin handia izan dezakete, baita ere, eta eragin hori ez dugu kontuan hartu gabe utzi nahi, azterketa egokia izango bada. Hizkuntza-eragileek eragina izan dezaketela uste dugunetan, beraz, hizkuntza-eragileak ere aztertuko dira. Gure ikerketako hizkuntza-eragileen eta gizarte-eragileen gaineko azalpenak 4.4. eta 5.4. puntuetan eman dira.

## 3.3. ANALISI KUANTITATIBOA ETA KUALITATIBOA

Bi analisi moten onurak baliatuko dira gure lanean (Juaristi 2003). Batez ere analisi estatistikoan oinarritzen den soziolinguistika bariazionistaren metodologia erabiliko dugunez, estatistikatik aterako ditugu emaitza gehienak. Analisi estatistikoa egin ahal izateko baldintza batzuk bete behar dira, ordea: batetik, hizkuntza-aldagaiek gutxieneko maiztasun batez agertu behar dute gure corpusean. Horretaz gain, beste baldintza bat bederen izan behar dute hizkuntza-aldagai horiek: beren aldaerak hiztun guztiek edo gehienek erabili behar dituzte. Alegia, pertsona bakoitzak edo gehienek hizkuntza-aldagaietako bi edo hiru aukerak bere

hizkeran erabili behar ditu, adibidez, *eginen* eta *egingo*, *arrunt* eta *oso*... eta abar. Horrela egiten dutenean, hizkuntza-aldagaiaren erabilera orekatua dela esanen dugu, eta ez dela orekatua besteetan.

Hizkuntzaren datuak askotan ez dira horrelakoak, ordea, eta datu irregularrekin eragiketa estatistikoek erroreak eman ditzakete. Horrelakoetan analisi kualitatiboagoa beharrezkoa izango da eta hori erabiliko dugu analisi estatistikorako nahikoa datu ez dugunean. Analisi kuantitatiboa eta kualitatiboa elkarren lagungarri ikusten ditugu Aurrekoetxeak bezala: *"Azterketak kuantitatiboa edo kualitatiboa izan behar duen galdetu da behin baino gehiagotan. Eta honetan ere formazio eta ikusmolde desberdinek eragin handia dute. Baina nire ustean batak ez du bestea kentzen. Azterketa kuantitatiboa kualitatiboari laguntzeko tresna baino ez da eta; hain zuzen ere arbolak basoa ikusten uzten ez duenean erabili behar den tresna"* (Aurrekoetxea 2009: 46).

### 3.3.1. **Analisi estatistikoa: kontzeptuen azalpena**

Ikerketa-ildo honek hizkuntzaren aldaketa zeren arabera gertatzen den jakin nahi du, aldaketaren kaosean dagoen sistema aurkitu (Tagliamonte 2012: 2). Beren esanetan, aldaketa ez delako ausaz gertatzen den zerbait, badu sistematikotasunetik ere. Horregatik, kuantitatiboki neurtu daiteke gertatzen den aldaketa.

Hizkuntzaren analisirako tresna estatistikoak erabiltzea egokia da aukera dagoenean hizkuntza-aldagai bat edo bestea erabiltzeko, eta hautu hori faktoreren batek eragina izan daitekeenean (Sankoff 1988: 2). Estatistikak hainbat galderaren erantzuna argitzen laguntzen du, besteren artean: zein aldagai dira esanguratsuak estatistikoki (eta ez zorteak eraginda)? Zeinek eragiten du gehien edo gutxien?

Estatistikan aritua ez denarentzat, lanean zehar erabili diren kontzeptu batzuk ezezagunak izanen dira. Gure lanean erabiliko diren kontzeptu estatistiko nagusien azalpena emanen dugu segidan, bereziki 4. eta 5. ataletan azalduko diren analisi estatistikoen emaitzak ulertzeko baliagarri izanen direnak. Azalpen gehienak Daleszynskak (2015) Rbrulentzat egindako gidan oinarrituta daude:

-*0'05eko adierazgarritasuna*. Gizarte zientzietan onartu ohi den arrisku maila onartuko dugu estatistika erabiltzerakoan: ehuneko 5ekoa edo 0'05ekoa. *"Typically, the significance level, as it is also called, for social science research is 0'05, by which it is meant that we accept a five percent risk of incorrectly rejecting the null hypothesis. This is usually symbolized* p ≤ *0'05, where p stands for probability"* (Paolillo 2002: 114).

-*Input probabilitatea*: eredu estatistikoaren iragarpen orokorra adierazten du. Menpeko aldagaia erabiltzeko dagoen probabilitatea da, gelaxka bakoitzerako iragarritako balioen batezbestekotik ateratzen dena. Inputaren balioa ezagutzea beharrezkoa da faktoreen eragina inputaren arabera ulertzen delako. *"The input (...) value represents the reference point from which significant differences are measured"* (Paolillo 2002: 167).

-*Desbideratzea*: ereduak guk emandako datuetara nola egokitzen den neurtzen du desbideratzeak, edo gure datuak zenbateraino desbideratzen diren ereduaren aurreikuspenetatik.

-*Eragilearen pisua (e.p.)*: eraginaren tamaina adierazten duen neurria da (*factor weight)*. Eragile baten eta menpeko aldagaiaren arteko erlazioaren indarra adierazten du 0-1 balioen artean. *E.p.* 0'5 baino txikiagoa bada, aldagaien artean korrelazio negatiboa dago, eta 0'5 baino handiagoa bada, korrelazioa positiboa da. Balioa zenbat eta gehiago urrundu 0'5etik, korrelazioa indartsuagoa da. Adibide bat emateko, 4.10. taulan (4. atala), adibidez, erdialdekoekin harreman-maila apala dutenek 0'73ko *e.p.* dute eta beraz, aferesia erabiltzearekin lotura handia dute. Erdialdekoekin harreman-maila apala dutenek, berriz, aferesia ez erabiltzearekin lotura dutela erakusten du 0'26 balioak.

-*Log-odds* deitutakoek e.*p.*ren gauza bera adierazten dute, baina 0 da erreferentzia balioa. Beraz, *log-odds* zenbakia positiboa bada, korrelazioa ere positiboa da, eta alderantziz. *Log-odds* balioak gainerako zientzietan erabiltzen direnak dira eta gaur egun horiek baliatzea da joera. Probabilitatea adierazteko bide bat dira azken batean (Field eta beste 2012); *e.p.* bariazionismoan erabili izan dena eta oraindik ere erabiltzen dena da. Gure analisian bi balioak emango ditugu, bat edo beste erabili duenarentzat konparagarri izateko.

-*N*: adibide kopurua guztira, aldagaiaren bi aldaeren adibide guztiak kontatuta. *e.p.* eta % ematen direnean, aukeratutako aldaeraren arabera aurkezten dira datuak (hori da aplikazio-

balioa). Adibidez, aferesiaren kasuan, aferesia erabili deneko ehunekoa emango dugu, eta aferesia erabiltzearekin eragile bakoitzak duen lotura.

### 3.3.2. **Programa estatistikoa: *Rbrul***

Hizkuntza aztertzean estatistika erabiltzea egokia ote den edo ez zalantzan jarri izan da. Orain, eztabaida gehiago da zein estatistika tresna den onena. 70eko hamarkadan bariazionismoa sortu zenetik hainbat proba eta eragiketa egin da, beti helburu berberarekin: hizkuntzaren aldakortasunaren ereduak, modeloak, deskribatzea. Soziolinguistek tresna horiekin egin izan dituzten eragiketak *"variable rules analysis"* dira. Hortik datoz programa informatiko ezagunenen izenak, *Varbrul, Goldvarb, R-Varb* eta *Rbrul* (*"variable rules analysis"* eragiketei buruzko azalpen gehiagorako: Tagliamonte 2006, Cedergren eta Sankoff 1974, http://www.danielezrajohnson.com/rbrul.html, https://en.wikipedia.org/wiki/Variable_rules_analysis).

70eko hamarkadatik bariazionismoak *"variable rule program"* (*Varbrul*) erabili izan du, eta programa honek bere baitan *"generalized linear model"* (*glm*) eragiketa estatistikoa erabiltzen du. Estatistika ere aurreratu da garai haietatik, ordea, eta hainbat ikertzaile tresna berri hauek erabiltzen ari dira. D. E. Johnsonek (2010) *Rbrul* programari buruz egindako eskuliburuan azaltzen du estatistika metodoen bilakaera zein izan den:

> In the last ten years, statistical methods have been developed which are appropriate for the kind of data sociolinguists usually work with: unbalanced data sets with internal correlations deriving from the tokens' being grouped by the two crossed factors of speaker and lexical item. Fitting regression models of this type is computationally difficult. Indeed, only since the release of Bates et al.'s *lme4* package in 2006 has it been possible to fit mixed-effect models with crossed random effects to data with binary responses (...).
>
> One thinks of the 1970's, when the new techniques of logistic regression and VARBRUL sparked a quantitative revolution in sociolinguistics. We may stand today on the brink of a less profound, but still important advance. For while there is no denying the myriad results obtained over the years by fixed-effect variable rule methods, mixed-effect models promise better accuracy and reproducibility in many, if not most, sociolinguistically-relevant contexts (*azpimarra nirea da*).

Hizkuntzalaritzaren arloan, gero eta ikertzaile gehiagok erabiltzen dute *"mixed-effects models"* bere datuak estatistikoki aztertzeko, soziolinguistikan bereziki. Estatistikoki, oso tresna zorrotza eta zehatza da. *"The new mixed-effects models provide the researcher with an*

*even more powerful and principled way of dealing with different kinds of predictors typically encountered in sociolinguistic datasets"* (Tagliamonte eta Baayen 2012: 143).

*Mixed-effect models* direlakoekin, aldagai aleatorioak ere aztertu daitezke (*"random variables"*). Eta hori garrantzitsua da hiztunaren barne-aldakortasuna kontuan hartu nahi badugu. Hiztuna aldagai aleatorio bezala sartuz gero, hiztunkako joerak kontuan hartzen dira eta populazio osorako ondorio faltsuak ateratzea saihesten da. *"A mixed-effects model with individual as a random effect offers the analyst a statistical validation of the significance of the social and linguistic factors in the model over and above the effect of individual."* (Tagliamonte eta Baayen 2012: 146). Ildo beretik, estatistikako tresna berrien onurez hitz egiten digute autoreek artikulu honetan, eta horiek erabiliz ikerketa bariazionista asko aberasten dela baieztatzen dute (Tagliamonte eta Baayen 2012: 135).

Soziolinguistikako joerekin bat eginez, tesi-lan honetan *mixed-effects models* deitutako erregresio mota erabiliko dugu. Horrela eginda, hiztunak eta hizkuntza-eragile batzuk aleatorio bezala aztertuta, emaitzak egokiagoak eta zehatzagoak izango dira. *Rbrul* lan-tresna erabiliko dugu horretarako.

Hasiera batean *Goldvarb* (Moreno Fernández 1994) eta *R* programen bidez aritu ginen azterketa egiten (Baayen 2008, Field eta beste 2012). Azkenean, *Rbrul* aukeratu dugu (Johnson 2009, 2010), ordea, errazagoa egin zaigulako. *Rbrul R* estatistika programa librean oinarritzen da. Azken batean, *Rbrul*ek *R*-ren gainean egiten du lan, baina ez da R erabiltzen ikasi behar; bariazionismoarentzat egokitutako interfazea da. Labur esanda, *Rbrul*ek bariazionismoarentzat interesgarri den tresna estatistiko hori ere erabiltzen du: *mixed-effects models*. Gure lanerako hauek dira abantaila nagusiak: batetik, *Rbrul*en emaitzak fidagarriagoak dira. Beraz, *mixed effects models* deitutako erregresio motarekin aurreko tresna estatistikoek ez zituzten onura batzuk ditugu. Batetik, aldagai aleatorioak hartzen ditu kontuan eta, bestetik, aldagaien arteko elkarreraginekin (*"interactions"*) lan egin dezake. Soziolinguistikaren adar honetan ohikoak izaten dira elkarreragin horiek eta tresna honek eragiketak egin ditzake horien artean ere. Adibideak beti bildu ez direnetan ere (*"knockout"* delakoekin) lan egin dezake. Gure lanerako behartu ez garen arren, beste abantaila batzuk ere baditu: adibidez, hizkuntza-aldagai jarraiak ere aztertzen ditu. Hau da, hizkuntza-aldagaiak ez

du zertan binarioa izan programa hau erabiltzen baduzu eta azentu kontuetarako edo aldagai fonetikoak aztertzeko izan daiteke baliagarria (Johnson 2010).

*Rbrul* erabiltzeko, lehenik *R* programa librea instalatu behar da ordenagailuan eta gero, *R* ireki eta bi agindu hauek idatzi: *source("http://www.danielezrajohnson.com/Rbrul.R")* eta ondoren *rbrul()*. *Rbrul* tresnari buruzko informazio gehiagorako bere egileak idatzi dituen artikulu eta eskuliburuak sarean daude: http://www.danielezrajohnson.com

## 3.4. LAGINKETA

Lagina osatzeko metodo asko erabili dira hizkuntza bariazioa aztertzerakoan. Urteen joanean, soziologiaren lagin errepresentagarria eta dialektologiaren inkesta teknikak eraldatuz joan dira ikerketa soziolinguistikora egokitzeko (Tagliamonte 2006: 18). Hasierako ikerketa soziolinguistikoetan errepresentagarritasunak garrantzia handia zuen. Estatu Batuetako New York, Washington eta Detroit hirietan egindako ikerketetan adibidez. Harrezkero, indarra galtzen joan da joera hori eta *laginketa zentzuduna* (*"judgement sampling"*) bihurtu da arloan adostasun gehien bildu duena (Chambers 2003: 33). Laginketa mota hori honela definituko genuke: zorizkoa ez den laginketa mota bat da, aditu baten iritzian oinarrituta aukeratua. Hortik ateratako emaitzek desbideratze maila bat izango dute, aztergai den lagina eta biztanlego osoa ez delako erabat berdina. Laginketa zentzudunak behatzailearen paradoxa saihesten laguntzen du, eta baita hiztun egokiak aurkitzen ere (Tagliamonte 2006: 27-28).

Laginketa egiteko orduan, egoera bakoitzean garrantzitsuenak diren aldagai soziolinguistikoak hartzen dira kontutan. Garrantziaz gain, beste faktore bat ezinbestekoa da: datuen eskuragarritasuna. Errolda izan ohi da datu horiek eskuratzeko iturria, eta gure lanean ere hori erabili dugu. Ikerketa honetan aldagai hauek hartu dira kontuan lagina sortzeko: adina, generoa eta ikasketa-maila.

Adina eta generoa irakurritako bibliografia guztian aztertu dira. Ikasketa-mailarekin lotutako aldagaia ere kontuan hartu ohi da, baina ez beti. Aldagai sozioekonomikoa da Laboven eskolako ikerketetan kontuan hartzen den beste ezaugarri garrantzitsua, baina ez dugu aztertu, aztertutako Udal Erroldek ez dutelako lanbideei buruzko informaziorik biltzen.

Soziolinguistikaren arlo honetan erabili ohi den laginketa zentzuduna erabili dugu gure ikerketan ere. Aztertu ditugun herri guztietan lagin errepresentagarria lortzea izan da helburua eta, aldi berean, gure ikerketarako beharrezko ezaugarriak dituzten hiztunak bildu dira. Ezaugarri horiek ondorengoak dira: herrian bertan jaioak izatea eta urte gehienetan bertan bizitakoak izatea. Honetarako arrazoia ahalik eta talde homogeneoena biltzea izan da, hiztun-tipologia mugatzeko[7]. Bestetik, adina, generoa eta ikasketa-mailaren arabera, herrian dagoen banaketa errespetatu da lagina aukeratzerakoan. Horrela, herriko gizon-emakumeak, gazte eta adinekoak eta ikasketa-maila bakoitzekoak errepresentatu dira.

Azterketa bariazionistetan ohikoak diren ezaugarriez gain, beste hauek ere kontuan hartu ditugu gurean: batetik, herrian jaio eta bizitakoak izatea (bizitzaren zati handiena); bestetik, euskaldunak izatea; eta azkenik, hiztunen artean, herrikoak eta baserrietakoak egon zitezen ahalegindu gara. Alfabetatzeari dagokionez, kontuan hartzekoa da aldea dagoela adinaren arabera, euskaraz ikasi baitute eskolan gazteek eta gaztelaniaz adinekoek (euskaraz alfabetatu gabeak dira adineko gehienak). Ohikoa da aztertzen ari garen gizartean garrantzitsuak diren aldagai sozial bereziak kontuan hartzea. Adibidez, Holmquist-ek (1985) Kantabriako herri batean egindako ikerketan, abereak izatea ala ez aldagai garrantzitsua zen.

Laginketaren atala bukatzeko, gure laginaren neurria azalduko dugu: zenbat hiztun aztertu behar dira lagina egokia eta errepresentagarria izateko? Lagina zehaztean eman diren gomendioen bilduma txiki bat eginen da jarraian horretarako.

Autore batzuk azpimarratzen dute ezinbestekoa dela laginaren neurriaren eta ikertzailearen ahalaren artean oreka egotea (Tagliamonte 2006: 33): *"It is better to design your sample to be smaller and better circumscribed that to end up with lots of data but not enough funds (or energy) to use it. The size of the sample must necessarily be balanced with the available time and resources for data handling"*. Ideia beretsua dakarte Chambers eta bestek ere (2002: 21): *"An important guideline for fieldworkers at the planning stage is that a close analysis of a small amount of data is better than an unfinished grandiose project"*.

7 Era berean, esan behar da modu honetan ez dela biztanlego osoa kontuan hartzen, kanpoan jaiotako edo kanpoan denbora luzez bizitako jendea ere egon badelako. Aztergai diren udalerrietan gutxiengoa da hori, dena den.

Kantitatea zehazteko, aztertuko dugun aldagai kopurua hartu behar da kontuan. Horren arabera jarri ahalko ditugu gutxienekoak, Guyren arabera (1980, *in* Chambers eta beste 2002: 29): *"The question depends most directly on the number of independent variables (...). How many subjects should fill each cell? The simple answer is: the more the better (...). As a rule of thumbs, five persons per cell is often adequate, assuming the cells are well-defined in terms of local social categories".* Bost pertsona dira, Guyren esanetan, gizarte-aldagai konbinaketa bakoitza ordezkatzeko egokia den kopurua. Arloko ikerlarien arabera, ikerketaren izaera eta helburuak, lagin errepresentagarria izatea eta aldagai-kopurua hartu behar dira kontutan lagina sortzerakoan (Wölk 1976: 43-45, *in* López Morales 1983: 29-30). Gure kopurua zehaztu aurretik, hizkuntza-aldakortasunaren ikerketetan erabili diren laginen neurria aztertu dugu.

Azterketa bariazionistetan populazio handiagoak izaten dira aztergai normalean. Horregatik, aztertutako lagina biztanlego osoaren ehuneko txiki bat izan ohi da, % 0'1era iristen ez dena askotan. Adibidetako, bariazionismo ikerketa batzuetan aztertu dituzten portzentaiak bildu dira ondorengo taulan:

| ITURRIA | BIZTANLE-KOPURUA | LAGINA | |
|---|---|---|---|
| | | *N* | % |
| W. Labov. 1966. *The social stratification of English in New York City* [Lower East Side] | 100.000 | 81 | 0,081 |
| P. Trudgill. 1974. *The social differentiation of English in Norwich* | 118.610 | 60 | 0,05 |
| G. Perissinotto. 1975. *Fonología del español hablado en la ciudad de México* | 7.000.000 | 110 | 0,0016 |
| H. López Morales. 1983. *Estratificación social del español de San Juan de Puerto Rico* | 485.084 | 105 | 0,02 |
| J.A. Samper. 1990. *Estudio sociolingüístico del español de las Palmas de Gran Canaria* | 216.250 | 87 | 0,04 |
| J.C. González Ferrero. 1991. *La estratificación sociolingüística de una comunidad semiurbana: Toro (Zamora)* | 6.609 | 39 | 0,6 |
| M.A. Calero. 1993. *Estudio sociolingüístico del habla de Toledo* | 36.417 | 37 | 0,1 |

3.1. taula: hizkuntza-aldakortasuna aztertu duten ikerketa batzuen laginak.

Taulan ikusten denez, ikerketa batetik bestera asko aldatzen dira kopuruak. Labovek, lagina ongi estratifikatua egonez gero, biztanleen % 0'025eko lagina aski zela adierazi zuen. Gure kasuan, biztanle kopuru txikiko herria izan dugu ikergai eta, ehuneko hori aztertuz gero, kopuru ezinezko bat ikertu beharko genuke; 0'2 lekuko, alegia. Antzera gertatzen zaigu taulako beste edozein portzentaia aplikatuta ere. Balio altuena den % 0'6 aztertuz gero ere, bost hiztun bakarrik izanen lirateke aztergai, denera. Beraz, hemen ere lekuko-kopurua ikerketaren izaerari egokitzea izango da onena.

Gure ikerketako udalerriak biztanle gutxiko herriak direnez, ohiko azterketa bariazionistetan aztergai izaten den laginaren proportzioa igo egin dugu emaitza egokia lortzeko. Horrela, herri bakoitzean populazio osoaren % 2a aztertu da gutxienez, eta adinekoen eta gazteen % 4'5 inguruan. Zehazki, 789 hiztun daude Goizuetan (2010eko Udal Errolda) eta 921 Araitz-Betelun (587 Araitzen eta 334 Betelun, 2013ko Udal Erroldaren arabera) eta udalerri bakoitzean 19 hiztun elkarrizketatu dira. Honela, hiztun-tipologia nagusietan lortu dugu Guy-ren bost pertsonako multzoa: udalerri bakoitzean, bosna hiztun daude adineko emakumezko, adineko gizonezko, emakumezko gazte eta gizonezko gazteen artean kasu gehienetan (helduak adinekoen multzoan sartuta, beti ere).

Ikerketa soziolinguistikoek hiri nahiz herriak aztertzeko baliagarri direlakoan eginen dugu ikerketa (Camino 2009: 265): *"Hizkuntzaren aldetik erkidego bat, dela nekazari girokoa dela hiritarra, nola egituratzen den ezagutzea da ikerketa soziolinguistiko baten helburua, hau da, hizkuntza-jarrerak gizarte-egitura nola islatzen duen kuantitatiboki neurtzea"*.

## 3.5. CORPUSA ETA ELKARRIZKETA-METODOA

Corpusa eskuratzeko grabazioak eta horien transkripzioak erabili dira. Elkarrizketak egin aurretik, aztergai dugun inguruaz informatu gara. Izan ere, galdera egokiak egiteko, garrantzitsua da aztertuko den ingurua ezagutzea: *"The finest sociolinguistic data comes from fieldworkers who are aware of their consultants' local interests, values and general social norms (...). The optimal situation for conducting fieldwork is in the fullest sociocultural awareness of your target community"* (Tagliamonte 2006: 34-35).

Mota honetako ikerketa soziolinguistikoetan erabiltzen den elkarrizketa-modua erabili da hemen ere. Elkarrizketa gidatua izan da eta gidoiaren helburua eguneroko hizkera informala biltzea, elkarrizketatzaileen eta elkarrizketatuen arteko solasa erraztea eta elkarrizketatuen datuak eskuratzea izan da. Elkarrizketa-egilea eta hiztuna bakarrik egotea bilatu da, eta lortu da gehienetan (salbuespena izan da grabazioren batean familiako bat inguratu bada). Hizkera erosoa, arrunta eta librea lortzeko galderak egin dira, norberaren eta herriko bizimoduaren gainekoak.

Elkarrizketa soziolinguistikoetan egin ohi den bezala, gai orokorretatik hasi gara (jaiolekua, bizilekua, eskola, lana...) eta iritzia eskatzen duten galderak bukaerarako utzi ditugu: non bizi nahiko luketen, herria nola hobetuko luketen, hikari buruzko iritzia eta euskal hizkerei buruzkoa (beraien hizkerarekiko iritzia barne). Horrela, hiztunaren bizipenak kontatzen dituzten testu biziak bildu dira. Galdetegiaren bukaeran, elkarrizketa sozio-etnografikoetan egin ohi den bezala, hizkuntza bera bihurtu da elkarrizketagai. Bukaeran daude hizkuntzari buruzko galderak nahita, hiztunaren arreta hizkuntzara joaten bada ere, horrek elkarrizketa guztian eragin ez dezan. Transkripzioak ez dira bukaerako zati horretatik atera, ezta hizkerei buruz galdetu dugun zatitik ere (elkarrizketaren bukaeran zegoen zati hori ere).

Langai izan dugun corpusa Goizueta eta Araitz-Beteluko grabazioetatik atera da, beraz. Zehatz esateko, grabazio bakoitzetik 30 minutu transkribatuta osatu da corpusa. Hor bilatu, kodetu eta aztertu dira hizkuntza-aldagaiak. Udalerri bakoitzean 19 hiztun ditugunez, guztira ia 20 orduko corpusa dugu.

Transkripzioari dagokionez, transkripzio fonemikoa erabili da (*/edan/*) eta ez fonetikoa (*[eðan]*), sortzea eta irakurtzea errazten duelako. Helburu berarekin, ortografia eta puntuazio modu estandarrak erabili dira eta, beraz, *h*-a gorde da, Goizuetan eta Araitz-Betelun hasperena ahoskatzen ez bada ere. Azken batean, bi hauen arteko oreka bilatu da: hizkuntza analisiak egoki egiteko nahikoa zehaztasun edukitzea eta irakurtzeko eta transkribatzeko erlatiboki erraza izatea (Tagliamonte 2006: 54). Erabili diren transkripzio-irizpideak Etxaberen lanean (2010: 29-30) oinarritu dira (ikus 2. eranskina). Grabaketak *Samson C01U (USB Studio Condenser)* mikrofonoa eta ordenagailu eramangarriaren bidez egin dira, bertan *Praat* programa erabilita (Boersma eta Weenink 2009).

## 3.6. PRINTZIPIO UNIBERTSALAK ETA LEKUAN LEKUKO EGOERA

Munduan zehar ikerketa asko eta eskala handikoak egin dira metodologia bariazionista erabiliz. Lan horietatik atera diren ondorioetako batzuk dira, hizkuntza aldatzeko printzipio unibertsalez gain, lekuan lekuko kontestu sozialek garrantzia dutela (Labov 1963: 274). Hori dela eta, aldaketaren deskripzioak beren testuinguruan bakarrik uler daitezke; historia, garaiko egoera eta gizarteko gertakariak kontuan hartu beharrekoak dira hizkuntza-aldaketa aztertzerakoan.

Oraindik asko dago ikertzeko aldaketaren mekanismoak ulertu nahi badira. Izan ere, leku bakoitzak bere ekologia du, bere ezaugarriak ditu, eta horrek eragin handia du hizkuntza-fenomenoetan, hizkuntza-aldagaien aldaketatik hasi eta kode-aldaketaraino, besteak beste (Tagliamonte 2012: 350). Euskal Herrian, gainera, elebitasuna orokorra da eta, hizkeren arteko eraginaz gain, erdararen eragin indartsua dago. Ikerketa soziolinguistiko gehienak gizarte edo komunitate elebakarretan egin dira eta, ageri denez, egoera ez da berdina gehienek egunerokoan hizkuntza bakarra hitz egin edo hiztun guztiak elebidunak izan. Erdararen (gure kasuan, gaztelaniaren) eta handik jasotako mailegu berrien erabilera ere aztertuko da ikerketa honetan.

Joera orokorrak eta unibertsalak egon daitezkeen bezala, zenbait gauza ezin da leku guztietarako aurreikusi. Izan ere, hiztun-komunitate bakoitzak bere bizipenak ditu, historiari dagokionez, gerrateei edo migrazioari dagokionez, adibidez. Ezin dugu jakin aldaketa bat nola ari den gertatzen hizkuntza-sistema bere testuinguruan ezagutu gabe, aurretik eta gaur egun gertatu dena jakin gabe. Horregatik, ikerketa honetan hizkuntza-sistema batzuk aukeratu ditugu eta horietan sakondu eta elkarren arteko konparaketa egin ahal izateko.

### 3.6.1. **Generoa**

Lekuan lekuko egoera aztertzea garrantzitsua da generoari dagokionean, adibidez, lekuaren arabera joera desberdinak ikusten baitira. Orokorrean, mendebaldeko teoria soziolinguistikoan ohikoa da emakumezkoek prestigiozko ereduari gehiago jarraitzen diotela esatea. Egindako lan soziolinguistikoen arabera, bi printzipio orokor daude generoari

dagokionez: hizkuntza-aldaketarik ez dagoenean, gizonezkoek emakumezkoek baino forma ez-estandar gehiago erabiltzen dituzte. Aldaketa dagoenean, ordea, emakumezkoak izaten dira berritzaileenak (Labov 1990: 205).

Emakumea berritzailegotzat jotzeko hainbat arrazoi eman izan dituzte autoreek: prestigiozko eredua errazago hautematea, arauek eta estatusak sortutako presioak kezka handiagoa eragitea emakumeei eta hizkuntza beren autoritatea eta gizarte-posizioa baieztatzeko bitarteko garrantzitsua izatea emakumeentzat, besteak beste (Chambers eta beste 2002: 353). Portaera horren gainean eman diren iritzi ezberdinak ere bildu ditu Labovek (2001: 276-278). Batetik, hipotesi ezagunenetakoak dira haurrei hizkuntza irakasteko ardura izan dutela emakumezkoek: *"It is possible to interpret the linguistic conformity of women as a reflection of their greater assumption of responsibility for the upward mobility of their children – or at least of preparing the symbolic capital necessary for that mobility"*. Bestetik, emakumeek prestigio-normari jarraitzea botere ekonomikoaren faltarekin lotu izan da. Beste ikuspegi batetik, emakumeek hizkuntza gaitasun altuagoa dutelako estiloa aldatzeko aukera zabalagoa dutela esan izan da. Azkenik, hizkuntza gaitasuna sexuaren arabera ezberdin izateko arrazoiak sozialak direla azpimarratu izan da (biologikoak baino gehiago). Honekin lotuta *sexua* terminoa erabili ordez, *generoa* erabiltzea proposatzen da, generoaren araberako rol-portaerekin lotuago ikusten baita emakumezkoen eta gizonezkoen hizkuntza-portaera[8].

Emakumezkoek aldaera ez-estandar gutxiago erabiltzeko arrazoiak ez daude erabat argi, ordea: *"Explanations as to why women characteristically use fewer nonstandard variants and a wider range of styles than men of the same social class in the same circumstances remains a challenge"* (Chambers eta beste 2002: 354-355). Generoaren desberdintasunak ez baitaude begibistan askotan. Eta emakumezkoak gizarte-estatusaren ezaugarriei gehiago jarraitzen diela dioen baieztapenak ez du nahikoa oinarririk bildutako emaitzen arabera, Laboven esanetan (1990: 206). Badira ideia orokor hori zalantzan jartzen dutenak, generoak ez baitu beti eta leku guztietan modu berean funtzionatzen, ezta hizkuntzari dagokionean ere. Gaur egun mendebaldeko gizartean joera batzuk agertzen badira ere, beste garai batzuetan bestela jokatzen zuten. Adibidez, Milroy eta Gordon (2003: 178) ingelesezko 1520-1681eko testu

8 Guk ere *generoa* terminoa erabiliko dugu lanean zehar.

batzuetan "multiple negation" aztertzen ari direla, interpretazio globalak egiteko orduan tentuz ibiltzearen beharra azpimarratzen dute: *"Both male and female usage is considered for the highest social ranks and, interestingly, women lag behind men in promoting a change that is oriented toward prescriptive norms (...). This findings confirm the need for caution in offering global interpretations of effects of locally embedded social variables such as status and gender".*

Erizek (1997) ere generoak hizkuntza-aldaketarekin duen lotura aztertu dutenen iritzi asko bildu ditu eta, irakurketa interesgarria eginez, antzeko ondorioetara iritsi da. Laburtuz, leku batean eta bestean ikusi diren joerak kontuan hartuta, emakumeek eta gizonezkoek hizkuntzarekiko duten jarrera ez dela beti berdina esaten du. *"Honenbestez, aztertu diren adibideek, Euskal Herriko zein kanpokoek, gizarte-taldeen hizkuntz jokaera aztertzerakoan sexuaren aldagaia muntaduna dela adierazten digute, baina ez gehiago. Emakumeei eta gizonei beti zeregin bera leporatzen dieten Bourdieu edo Comiti bezalakoen baieztapen orokorrak ez datoz bat, beraz, errealitateko gertaeren aniztasunarekin"* (Erize 1997: 286-292). Eta Labovekin ados dagoela esaten du ondorio nagusia ateratzean: *"ondorio orokor zuzena ez da aldaketaren erantzunkizuna emakumeei egoztea, sexua hizkuntzaren aldaketan maiz berebiziko garrantzia duen aldagaia dela baizik".*

Labovek gaian sakontzen segitu du eta lan berriagoetan generoaren paradoxa deitu duena azaldu du (2001: 261-293): *"Women conform more closely than men to sociolinguistic norms that are overtly prescribed, but conform less than men when they are not"* (2001: 293). Labovek bereizketa egiten du "goitik" egiten den aldaketaren eta "behetik" egiten denaren artean. Goitik egindako aldaketei dagokienez, emakumezkoak aldaera estigmatizatuak gutxiago eta prestigiozkoak gehiago erabili ohi dituela dio: "*For stable sociolinguistic variables, women show a lower rate of stigmatized variants and a higher rate of prestige variants than men"* (2001: 266). Behetik datozen aldaketei dagokienez, emakumezkoek aldaera berriak gehiagotan erabiltzen dituzte: "*In linguistic change from below, women use higher frequencies of innovative forms than men do"* (2001: 292). Gizonek lideratutako aldaketak ere badaudela dio, baina gutxitan gertatzen direla eta kate-aldaketak ez dituzte eragiten, emakumezkoenek bezala.

Gure ikerketan, aztertutako udalerrietan zer gertatzen den ikusiko dugu. Horretarako, hemen ere mendebaldean gaudenez, emakumea berritzaileago izatearen hipotesitik abiatuko gara, eta emaitzek horrekin bat egiten ote duten ikusiko dugu.

### 3.6.2. **Herrien aukeraketa**

Euskal Herriko tokian tokiko hizkerak aldatzen ari direla gauza jakina da, baina gure ustez, aldaketa hori ez da berdina leku guztietan. Hori hala den edo ez ikusteko bi udalerriren arteko konparaketa eginen da lan honetan.

Udalerriak aukeratzerakoan eremu desberdinak konparatu ahal dira eta aukerak handiak dira: Ipar Euskal Herria eta Hego Euskal Herriaren arteko alderaketa egin daiteke, euskalki desberdinak dituztenak konpara daitezke, eremu euskaldunagoak eta erdaldunagoak... Konparaketa bakoitzean egoera desberdinak kontuan hartu beharko dira: administratiboki dagoen aldea, euskalkien arteko aldea, erdaren eragina eta abar.

Ikerketa bat egiteko, ezinbestean, aukera batzuk egin behar dira. Gure ikerketan, kanpoko eragileei dagokienez, ahalik eta diferentzia gutxien izango dituzten bi herri bilatzen saiatu gara. Horrela, diferentziarik balego, zeren araberakoa den errazago jakin ahal izateko. Goizueta eta Araitz-Betelu dira udalerri horiek, antzekoak direnak ezaugarri orokorretan: oso herri euskaldunak dira, txikiak, nafarrak, eta Gipuzkoarekin muga egiten dutenez, hangoekin harreman asko dutenak. Aldi berean, herriok desberdinak dira egoera demografikoari dagokionez (gainbehera handia dago Goizuetan eta Araitz-Betelun gaur egun ez) eta norberaren hizkeraren berezitasunaz oharmen desberdina dutela uste dugu (gehiago ohartzen dira Goizuetan Araitz-Betelun baino). Horregatik, bertako hizkerari dagokionez, egoera desberdina egotea aurreikusten dugu: hain zuzen, Goizuetan aldaketa gutxiago egotea espero dugu adinekoetatik gazteetara Araitz-Betelun baino. Hipotesiei buruzko azalpen gehiago eman dira 4. eta 5. atalen hasieran.

## 4. A HIPOTESIA: GOIZUETAKO EUSKARAN ALDAKETA EZ DA OSO HANDIA

Lan honetan geure buruari egindako ikerketa-galdera da ia baturanzko berdintze bidea antzekoa ote den herri euskaldun guztietan (Aurrekoetxea 2004: 52). Eta gure hipotesia da ezetz; Euskal Herriko tokian tokiko hizkerak aldatzen ari dira, baina ez neurri berean leku guztietan. Euskara batuak, erdialdeko euskarak eta gaztelaniak eragindako aldaketak txikiagoak dira leku batzuetan besteetan baino.

Egoeren kasuistika mugatzeko asmoz, ikerketa Nafarroako eremu euskaldunera mugatu dugu, eta errealitate hori kontuan hartuta, orokortasun batzuk atera ditugu. Gure ustez, aldaketak handiagoak dira baldintza jakin batzuk betetzen direnean eta txikiagoak bestela. Baldintza horiek ondokoak dira (1. aukera mantentzaileagoa da gure hipotesiaren arabera): alde batetik, galtze edo mantentze demografikoa egotea. Eta beste aldetik, bertako hizkeraren gaineko kontzientzia (positiboa) izatea edo ez izatea.

Bi udalerri aukeratu ditugu gure hipotesia baldintza horien arabera diferentea ote den ikusteko: Goizueta eta Araitz-Betelu. Udalerri hauek antzekoak dira gauza batzuetan: oso herri euskaldunak dira (% 90etik goiti), txikiak, nafarrak dira, antzeko orografia menditsua dute, Gipuzkoarekin muga egiten dute eta hangoekin harreman estua dute. Era berean, desberdinak dira goian zerrendatutako baldintzak kontuan hartzen ditugunean. Hau da, Goizuetan galera demografikoa dago eta bertako hizkeraren berezitasunaz ohartzen dira eta, orokorrean, gustokoa dute berezitasun hori[9]. Eta Araitz-Betelun, berriz, mantentze demografikoa dago gaur egun eta bertako hizkeraren berezitasuna ez da nabaria bertako hiztunentzat. Beraz, gure hipotesia da dialektoaren egoera desberdina izango dela bi herrietan: giza-talde guztien euskara antzekoa izango da Goizuetan eta, aldiz, Araitz-Betelun belaunaldien arteko jauzia nabarmena izango da. Atal honetan Goizuetan gertatzen dena aztertuko da.

Hipotesi nagusi horietaz gain, gizarte-eragileka hipotesi gehiago ditugu (gizarte-eragileen

9 Bi udalerrietan egindako elkarrizketen bidez aztertu dugu hiztunek beren hizkeren berezitasunari buruz zer pentsatzen duten. Gipuzkoa aldean nabaritzen diete bi lekuetakoei hizkeraz nafarrak direla, baina Araitz-Beteluko hiztun batzuek diote ez dakitela zertan. Tolosaldeko hizkeraren antzekotzat dute beraiena, eta Larraunekotik desberdina. Xehetasun gehiagorako, ikusi herri bakoitzeko galdetegiak 3. eta 4. eranskinetan (Goizuetako galdetegiaren 6. atalean eta Araitz-Betelukoan 8.ean daude gai honi buruzko galderak).

azalpen gehiagorako jo 4.4. puntura):

1. Adinari dagokionez, gazteak adinekoak baino Goizuetako hizkerako forma gutxiago erabiliko dituela aurrikusten dugu. Bestela esanda, hiztuna zenbat eta gazteago izan, orduan eta Goizuetako hizkerako forma gutxiago erabiliko dituela. Hori pentsatzeko arrazoia da gazteek euskara batuarekin (eskolan, ikus-entzunezko komunikabideetan etab.) eta erdialdeko euskararekin (eskolako irakasleak...) harreman gehiago izan dutela; zaharrek, aldiz, gaztelaniaz ikasi dute eskolan eta euskara batuarekin harremana beranduago izan dute ikus-entzunezkoen bidez batez ere. Adina bi modutan aztertuko da: multzotan banatua (gazteak eta adinekoak) eta aldagai jarrai bezala (20-90 urte).

2. Generoari dagokionez (emakumezkoa, gizonezkoa), hau da hipotesia: emakumezkoak Goizuetako hizkerako forma gutxiago erabiliko dituela gizonezkoak baino. Hipotesi honen oinarrian dago, orain arteko azterketa soziolinguistikoetan, mendebaldean ohikoa dela gizonezkoak gordetzaileago eta emakumezkoak berritzaileago agertzea.

3. Ikasketa-maila: ikasketa-maila altua duenak Goizuetako hizkerako forma gutxiago erabiliko ditu maila apalagoa duenak baino. Zenbat eta maila altuagoa, orduan eta Goizuetako forma gutxiago. Ikasketa-maila hiru kategoriatan banatu da (altua, ertaina eta apala), ondorengo eragileak bezala. Hipotesi honetarako oinarria da ikasketa-maila altuagoa duenak kontaktu gehiago izan duela euskara batuarekin edo erdialdeko euskararekin, irakasleen nahiz ikasleen bidez. Adinekoen kasuan, eskola graduatua baino gehiago ikasi dutenak kanpora atera dira ikastera, gehienetan Gipuzkoa aldera.

4. Goizuetan bizitzeko nahia (apala, ertaina, altua): kanpoan bizitzea nahiago duenak Goizuetako hizkerako forma gutxiago erabiliko ditu Goizuetan bizi nahi duenak baino. Emaitza progresioan joanen da. Hipotesi honen oinarrian Labovek (1972a) Martha's Vineyard-en ikusitakoarekin lotura ikusten dugu. Martha's Vineyard-eko biztanleak bertako hizkerako ezaugarriak erabiltzen dituztenean, beraiek irla horretako biztanleak direla adierazten dute (1972a: 36). Azken batean, Goizuetan gertatzen ari diren aldaketekiko erreakzioa hizkuntzan agertuko dela da hipotesia, bertako hizkerari leialago izanez.

5. Erdialdeko euskararekin harremana (altua, ertaina, apala): erdialdekoekin harreman-maila altua duenak Goizuetako hizkerako forma gutxiago erabiliko ditu harreman-maila apala

duenak baino. Emaitza progresioan joanen da. Hipotesi honen oinarrian dago erdialdekoekiko harreman horren bidez hiztuna bere hizkeratik kanpoko aldaerak ezagutzen eta bereganatzen joaten dela.

Hipotesiak azaltzean, parentesi artean jarri diren erantzun posibleen hurrenkerak garrantzia du; aurrena dagoenak aldakortasun gehiago izango duela espero dugu.

## 4.1. SARRERA

Ikerketa-lana hasteko, hobekien ezagutzen dugun hizkera aukeratu dugu, gure herriko hizkera hain zuzen. Eta hipotesia da bertako euskara ez dela asko aldatu azken hamarkadetan. Goizuetak Gipuzkoarekin egiten du muga eta bertakoak asko ateratzen dira inguruko herrietara, ikastera (14 urte arte ikasi daiteke bertan) eta lanera. Horretara, Hernani aldera (Gipuzkoa) eta Leitzara (Nafarroa) jotzen dute batez ere, errepidez 25 eta 20 km-tara daudenak, hurrenez hurren.

Goizuetan urte gutxitan biztanleria asko jaitsi da. 1975ean 1.347 zen biztanle-kopurua eta 2014ean 747. Beraz, 40 urtetan 600 pertsona gutxiago daude erroldatuta Goizuetan. Beherakada oso handia da eta Wikipediatik hartutako irudia dugu bilakaeraren erakusgarri:




4.1. irudia: Goizuetako biztanleria (Wikipedia. Kontsulta-data: 2016/02/01).

Hurrengo ataletan, Goizuetako hizkeraren aldaketa aztertzeko ze metodologia erabili den azalduko da. Ondoren, zein gizarte-eragile eta hizkuntza-aldagai aztertu diren azalduko da eta, bukatzeko, lanaren emaitzak eta ondorioak agertuko dira.

## 4.2. METODOLOGIA

### 4.2.1. **Lagina**

Azterketa bariazionistetan ohikoa den laginketa zentzuduna erabili dugu gure ikerketan ere. Generoa, adina eta ikasketa-mailaren arabera aukeratu ditugu hiztunak, Goizuetako gizon-emakumeak, gazteak eta adinekoak, eta ikasketa-maila bakoitzekoak egoki errepresentatzeko:

| Adina | Generoa | Biztanleak |
|---|---|---|
| gazteak (10-34) | emakumeak<br>gizonezkoak | 188 |
| adinekoak (60-84) | emakumeak<br>gizonezkoak | 215 |
| **Guztira** | | 403 (% 4'7) |

4.1. taula: Goizuetako gazte eta adinekoen kopuruak (2010eko Udal Errolda).

Laginketa egin dugun garaian Goizuetan 789 biztanle ziren (2010eko Goizuetako Udal Errolda), eta horietatik 10-34 eta 60-84 adin-multzoak aztertu ditugu. Adin-multzo horretako biztanleak 403 dira, eta hori hala izanda, 19 goizuetarrek gazteen eta adinduen % 4'7ko lagina osatu dute[10]. Honela banatu dira kopuruak, adina, generoa eta ikasketa-mailaren arabera: 9 gazte eta 10 adineko; 9 emakume eta 10 gizon; ikasketa-maila altuko 4, maila ertaineko 9 eta maila apaleko 6. Bi taulatan aurkezten ditugu datu horiek:

| Aldagai soziolinguistikoak | Generoa / Adina | | | |
|---|---|---|---|---|
| Ikasketa-maila | emakumezkoak | | gizonezkoak | |
| | gazteak | adinekoak | gazteak | adinekoak |
| Ikasketa-maila altua | 2 | 1 | 1 | 0 |
| Ikasketa-maila ertaina | 2 | 1 | 4 | 2 |
| Ikasketa-maila apala | 0 | 3 | 0 | 3 |

| Generoa | |
|---|---|
| emakumezkoa | 9 |
| gizonezkoa | 10 |
| **Adina** | |
| gaztea | 9 |
| adinekoa | 10 |
| **Ikasketa-maila** | |
| altua | 4 |
| ertaina | 9 |
| apala | 6 |

4.2. taula: Goizuetako lagina.

10 Ikerketa honetako herrietako laginak aukeratzeko jarraitutako metodologiaz gehiago jakiteko, jo *3.* puntura.

Eta ikusi dugu laginketako proportzioak ongi bete direla gure laginean. Izan ere, bai adin-tarteei, generoari eta ikasketa-mailari dagokionez ere, Udal Erroldatik lortutako datuak eta aukeratutako laginekoak parekoak dira gehienetan. Hala ere, ohar batzuk egin behar dira hiztunak aukeratzean egondako aldaketa batzuk azaltzeko. Batetik, adinari dagokionez, 20 urtetik goitikoak lehenetsi ditugu, adin hori hartu dezakegulako pertsonaren identitateko elementuak (hizkuntza barne) finkatuago dauden garaitzat. Adinekoen multzoan, berriz, lagineko adin-tartea 60-84 bazen ere, 88 urte dituzten bi emakume ditugu hiztunen artean. Eta bestetik, ikasketa-mailari dagokionez, laginean zehaztutakotik aldaketa hau egon da: adineko emakumeen artean, ikasketa-maila ertaineko bi hiztun izan ordez, ikasketa-maila ertaineko eta ikasketa-maila altuko hiztun bana elkarrizketatu ditugu.

Hiztunen anonimotasuna babesteko eta datuak errazago erabiltzeko, hiztunen izenak letra eta zenbaki bidez kodetu ditugu: GEGA1O (Goizuetako emakumea, gaztea, ikasketa-maila altukoa, ezaugarri horiek dituen 1. hiztuna, Oihanak elkarrizketatua), GGZE3L (Goizuetako gizona, adinekoa, ikasketa-maila ertainekoa, ezaugarri horiek dituen 3. hiztuna, Larraitzek elkarrizketatua) eta abar. Era berean, hiztun bakoitzari zenbaki bat eman diogu, 1etik 19ra.

Kode horietan informazio osoa heldu da; batzuetan, ordea, hobe da izendatze soilagoa erabiltzea, grafikoetan adibidez. Hiztun bakoitzaren generoa eta adina adierazten dute laburdura horiek: *ea* laburdurak 'emakumezko adinekoa' esan nahi du, *eh*-k 'emakumezko heldua[11]' eta *eg*-k 'emakumezko gaztea'. Gauza bera gizonezkoei dagokienez, *ga, gh, gg* laburdurekin. Horrela, 1.GEZA1O erabili ordez, *eh1* ('emakumezko heldua 1') erabiliko dugu grafikoetan, 2.GEZE1O erabili ordez, *ea2* ('emakumezko adinekoa 2'). Hona hemen zerrenda, kode osoak eta kode laburrak biltzen dituena:

| Kode osoa | Kode laburra |
|---|---|
| 1.GEZA1O/L (O edo L) | *eh1* |
| 2.GEZE1O/L | *ea2* |
| 3.GEZB1O/L | *ea3* |
| 4.GEZB2O/L | *ea4* |
| 5.GEZB3O/L | *eh5* |
| 6.GGZE1O/L | *ga1* |
| 7.GGZE2O/L | *gh2* |

11 Adinean tarteko maila hau (heldua) hartu da kontuan hizkuntzaren aldaketa aztertzeko egoki ikusi denean. *4.3.* atalean eman dira azalpen gehiago.

| | |
|---|---|
| 8.GGZB1O/L | *ga3* |
| 9.GGZB2O/L | *ga4* |
| 10.GGZB3O/L | *gh5* |
| 11.GEGA1O/L | *eg1* |
| 12.GEGA2O/L | *eg2* |
| 13.GEGE1O/L | *eg3* |
| 14.GEGE2O/L | *eg4* |
| 15.GGGA1O/L | *gg1* |
| 16.GGGE1O/L | *gg2* |
| 17.GGGE2O/L | *gg3* |
| 18.GGGE3O/L | *gg4* |
| 19.GGGE4O/L | *gg5* |

4.3. taula: Goizuetako hiztunen kodeak.

### 4.2.2. **Grabazioak**

Metodologiari buruzko atalean azaldu dugun bezala, mota honetako ikerketa soziolinguistikoetan erabiltzen den elkarrizketa-modua erabili da hemen ere. Alegia, elkarrizketa gidatua izan da eta gidoiaren helburua elkarrizketatzaileen eta elkarrizketatuen arteko solasa erraztea eta elkarrizketatuen datuak eskuratzea izan da (xehetasun gehiagorako, jo 3.5. atalera). Goizuetan erabilitako galdetegia 3. eranskinean dago.

Grabaketak 2008ko martxoan eta apirilean eta 2010eko azaroan eta abenduan eginak dira. 2008an Oihanak bakarrik egin zituen elkarrizketak, 2010ean Larraitzek ere bai. 2010ean bi aldiz elkarrizketatu ziren hiztunak, beraz, behin Oihanak eta beste behin Larraitzek.

Kanpoko solaskidearen lana egiten lagun prestua eta prestatua izan dugu; Larraitz Garmendia Munduate zaldibiarra. Zaldibian eta Ordizian elkarrizketak egiten aritua da, bertako hizkera aztertzeko ikerketa dialektologiko eta soziolinguistikoetan (Garmendia 2001a, Etxabe eta Garmendia 2003, Garmendia eta Etxabe 2004). Bere herriko hizkera erabili du elkarrizketak egitean. Larraitzek grabatutako adibide batzuk testuan zehar agertuko dira, 4.3. atalean batez ere.

Bi elkarrizketatzaile erabiltzearen helburua zen bertakoa (eta ezaguna) eta kanpokoa (eta ezezaguna) den elkarrizketatzailearen aurrean hiztunek desberdin hitz egiten ote duten aztertzea. Aurreko lan batean (Lujanbio 2012), gizarte-eragile baten bidez, erdialdeko hiztun batekin hitz egitean hiztunak duen jokaera linguistikoa aztertu zen: 14 hizkuntza-aldagaietatik

11tan erdialdeko edo euskara batuko aldakia gehiago erabili dute kanpoko solaskidearekin, herrikoarekin baino. Azkenean tesi-lanean ez da gizarte-eragile hori kontuan hartu, ordea, kanpoko solaskidearekin 15 minutu grabatu zirelako, eta ez zela nahikoa iritzi geniolako. Honela, azterketa estatistikoa egiteko bertako elkarrizketatzaileak egindako grabazioak erabili dira, 30 minutu baino luzeagoak direnak. Transkripzio batzuk 5. eranskinean daude.

## 4.3. HIZKUNTZA-ALDAGAIAK

Atal honetan, Goizuetan gaur egun hizkuntza-aldakortasunean dauden hizkuntza-aldagaiak aztertuko dira. Hizkuntza-aldakortasuna dagoela diogunean, hiztun berberek gauza bat modu batean baino gehiagotan esan dezaketela adierazi nahi dugu. Hizkuntza-aldagaiak aukeratzean, agerpen-maiztasuna hartu da kontuan, zenbat eta maiztasun gehiagoko ezaugarria izan, orduan eta fidagarriagoa delako emaitza. Horretaz gain, euskalkien ezaugarriei buruzko ezagutzan, hiztunekin egindako elkarrizketa batzuetan eta ikerlariaren intuizioan oinarrituta egin da hautua.

Aukeratu ditugun hizkuntza-aldagaiek Aurrekoetxeak (2008) oinarri dialektala deitu duena osatzen dute. Oinarri dialektalak Goizuetako hizkerak berezkoa duen hizkuntza-aldaera adierazi nahi du (Aurrekoetxea 2008: 17):

> *Oinarri dialektologikoa* hizkera bateko hiztun zaharrenek ekoizten duten edo erabiltzen duten corpusak osatzen du. Hiztun hauek ekoiztuko lukete hizkera horri dagokion corpusik eta *puruena*, berezkoena. Era honetako ikerketetan garrantzi handikoa da kontzeptu hau. Izan ere hizkera bakoitzaren *jatorrizko* formak eta lexikoa zein den zehazteko balio du eta belaunaldien arteko hizkuntza desberdintasunak ikertzean belaunaldi bakoitzak erabiltzen duen corpusa neurri handi batean tipologia batean sartzeko erraztasunak ematen ditu.

Goizuetako hizkeraren kasuan, *oinarri dialektala* deitzen denaren osagai dira nafarrerako eta erdialdeko euskaran agertzen diren hizkuntza-aldagaiak. Adibide bat paratuko dut aferesiarekin. Aferesia hitz hasierako hotsak galtzea da. Nafarreran ohikoak dira galtze horiek, azentu indartsuaren eraginez eta Goizuetan aditz askori gertatzen zaien bilakaera da: *karri, man, san, kusi...* Aferesi gabeko formak, gainerako euskal hizkeretan erabiltzen direnak,

*ekarri, eman* etabar dira, eta Goizuetako hiztun zaharrenek bi formak (*eman / man, ikusi / kusi*) erabiltzen dituzte. Beraz, Goizuetako oinarri dialektalean aferesidun eta aferesi gabeko formak daude. Euskalki diferenteetako ezaugarriak batera erabiltzea da Goizuetako hizkera zubi-hizkera egiten duena.

Gure ustetan, euskara batua eta erdialdekoa lekua hartzen ari dira nafarrerari, edo behintzat, hori gertatzen ari dela pentsatzeko arrazoiak badaude, norabide horretaranzko presioak handiak direlako. Horregatik, gainbehera doan hizkuntza-aldaeran jarri dugu arreta, nafarrerakoa den hizkuntza-aldagaian. Oinarri dialektaleko edo nafarrerako ezaugarria hizkuntza-aldagaiaren hasieran jarri dugu, hau da, hizkuntza-aldagaia osatzen duten aldaera parean aurrena. Adibidez, aferesia bai / ez, geroaldiko *-en / -go*, etab.

Soziolinguistikaren bibliografian hizkuntza-aldagai gutxi batzuk aztertzea izaten da joera: Chambers eta beste 2002, Labov 1966 eta 2001, López Morales 1983, Martínez 1983, Holmquist 1985, Samper 1990, Calero 1993, Villena 2001, Haddican 2007... Goizuetako gure ikerketan 20 hizkuntza-aldagai aztertuko ditugu, bertako hizkerak euskara batutik edo erdialdeko euskaratik aukera diferentea egiten duten 17 ezaugarri (bi fonologiko, bost morfologiko eta hamar lexiko) eta bestelako hiru ezaugarri. Ondorengo lerroetan azalduko dira bakoitzaren bereizgarriak.

### 4.3.1. **Aferesia bai / ez**

Lehentxeago azaldu dugun ezaugarria da, hitz hasierako hots-galera, alegia. Nafarreran ohikoak dira galtze horiek, azentu indartsuaren eraginez eta Goizuetan ere arruntak dira. Aferesiarekin batera, aferesirik gabeko formak erabiltzen dira Goizuetan, forma osoak, erdialdeko euskaran eta euskara batuan agertzen direnak. Ikerketa honetan, Goizuetako hizkeraren ezaugarri berezi gisa aferesidun hitzak hartuko ditugu, adinekoek horiek gehiago erabiltzen dituztela uste dugulako. Maiztasun handikoak izateagatik, zazpi aditz hauek aukeratu ditugu azterketarako: *ekarri / karri, eman / man, esan / san, etorri / torri, ibili / bili, ikusi / kusi, izan / zan.* Aferesia izan dezaketen hizkuntza-aldagai gehiago ez ditugu aintzat hartu, ez zaigulako besterik bururatu maiztasun handikoa dena eta bi aldaeren nahikoa erabilera orekatua duena.

Hizkuntza-aldagai honetan gerta daitekeen neutralizazioa saihesteko, ez dira kontuan hartu ingurune batzuk, hain zuzen ere, aferesia gerta daitekeen hitzaren (*ikusi / kusi*) aurretik, aferesiaren hizki beraz bukatutako hitza duten inguruneak. Adibidez, "*ni_ikusi nozo?*" moduko esaldiak. Gainerako hizkuntza-aldagaietan bezala, garbi entzuten ez direlako zalantzazkoak diren adibideak ere ez dira kontuan hartu.

Hona aldakortasunaren adibide gisa, bi hiztunek, gizon gazte batek eta adineko emakume batek, esandako esaldiak. Tagliamontek (2006) *super-token* deitutako adibideak dira, aztergai dugun fenomenoa modu diferenteetan esaldi berberean agertzen baita:

Adibidez guk ESATEN du "/x/arri"ri "patu" SATEN du (16.GGGE1O).

Horkok TORTZEN tzian, aranaztarrak eta iantziarrak o, hoitakok ETORTZEN tzian (4.GEZB2L).

Adibideetan ikusten den bezala, gazteek nahiz adinekoek, emakumeek nahiz gizonek erabiltzen dituzte bi aldagaiak. Emaitzetan ikusiko dugu gizarte-eragile hauen eta gainerakoen arabera erabilera berdintsua den edo ez.

Aferesiaren kasuan, gizarte-eragileek duten eraginaz gain, hizkuntza-eragile batzuen eragina ere aztertu da, zein aditz den batetik (*Aditza* hizkuntza-eragilea), eta aurretik dagoen hitza bokal edo kontsonantez amaitzen den (*AurretikBokalKontsonante* hizkuntza-eragilea).

### 4.3.2. *'y'* edo *'j'* hotsak

*'y'*, /j/ hotsa, nafarreraren ezaugarria da eta *'j'*, /x/ hotsa, erdialdeko euskararen ezaugarria. Hizkera formalean ere /x/ erabiltzea da joera nagusia, nahiz eta euskara batuak /j/ erabiltzea proposatu. Goizuetan oso gutxitan entzuten da /x/, hitz jakin batzuetan bakarrik, eta horregatik, /j/ hartu dugu ikerketa honetan Goizuetako hizkeraren ezaugarritzat. /x/ gehienak elizarekin lotutako lexikoko euskal hitzak dira edo gaztelaniatik mailegatutakoak, *jainkoa* edo *majoa* bezala. Hala ere, kontestu batzuetan (kontestu formaletan edo kanpoko jendearekin hizketan, adibidez), /x/ erabiltzeko joera egon daiteke eta hori da ikerketa honen bidez aztertuko duguna. Hona hemen adibide berezi bat:

Ta orduntxe JEN... YENDEA (6.GGZE1O).

Badirudi hiztunak bere burua zuzendu duela, /x/ hotsa duen hitza esatera iritsi baino lehen. Adineko gizona da, kasu honetan, adibidea eman diguna, baina emakumeek edo beste

gizarte-eragileetako ezaugarriak dituen edozein hiztunek erabiltzea posible dela uste dugu.

Hizkuntza-aldagai honetan, normalean /j/ hotsarekin ahoskatzen diren hitzak (*yan, yendea, yon...*) eta /x/ hotsaz erabiltzeko joera dutenak (*jai, jainko, jangoiko* eta *jatorra*), biak izanen dira aztergai. Bi multzoetako hitzak ahoskatu daitezke /j/ edo /x/ hotsarekin, bakarra, badirudiela joera diferenteak daudela bakoitzean. Multzo bateko edo besteko hitza izateak hots bat edo beste ahoskatzearekin lotura ote duen aztertuko dugu emaitzen eta ondorioen atalean. Hitzen eragina banaka aztertuko dugu *Hitza* hizkuntza-eragilearen bidez, eta multzoka *JoeraYoera* hizkuntza-eragilearen bidez. Multzo horien eta hizkuntza-eragileen berri zehatzagoa izateko, jo 4.4. atalera.

Azterketa honetan ez dira kontuan hartu, beraz, Goizuetan bi hotsetako batekin bakarrik erabiltzen diren hitzak, hau da, aldakortasunik erakusten ez dutenak. Horien artean daude maileguak (*ya, ayuntamentua, erlijio, juntatu, keja, majo, juxtu...*), izen bereziak (*Juan, Lujanbio...*), esamoldeak (*jajai!*) eta hikako formak (*bayaiz, yuen...*), nahiz eta bestelako ezaugarri batzuk ere izan daitezkeen.

### 4.3.3. ***-ika(n) / -ik***

Goizuetako hizkeran, *-ik* bukaera duten kasuekin eta partitiboarekin *-ikan* atzizkia erabiltzen da, *-ik* atzizkiarekin batera. Honela, *nondik, noiztik, zergatik* eta *norengatik* kasuekin ere agertu daiteke *-ikan* (*nondikan, noiztikan, zertikan, neregatikan*), eta baita modu atzizkiarekin ere (*ixilikan)*. Ikerketa honetan, Goizuetako hizkeraren ezaugarritzat *-ikan* hartu dugu, zaharrek ere erabiltzen dutelako eta hori delako Goizuetako hizkerari kolorea ematen dion ezaugarrietako bat.

Ez dago argi *-ikan* ezaugarriaren jatorria zein den. Goizueta inguruko erdialdeko hizkeretan erabiltzen da (Hernanin, Astigarragan eta Oiartzunen) eta baita Nafarroako eskualde batzuetan ere: Bortzirietan eta Sunbilan erabiltzen da, eta baita Malerrekan, Bertizaranan eta Oronozen ere, azken hauetan *-iken* formarekin bada ere (Zelaieta 2008: 162). Bidasoa ibaian goiti iritsi den ezaugarria dela dio Zelaietak. Larraunen eta Araitz-Betelun ez da halakorik entzun Apalauzaren esanetan eta berak ere Gipuzkoatik heldu dela uste du: *"Irudi konplexua du, beraz, ezaugarriak; baina, gaurko erabilerari erreparatuz, badirudi Gipuzkoako*

*iparraldetik Bidasoa aldera eta Goizueta-Leitzara, handik Basaburu Txikira, eta handik Basaburu Nagusira eta Imotza zabaldutako ezaugarria dela"* (2010: 356-357).

Esana dugun bezala, Oiartzunekin harreman estua izan du Goizuetak, eta hor ere indartsu dago *-ikan* bukaeraren erabilera (Zuazo 1997: 412). Ezaugarri honen berritasuna aipatu zuten Ainhoa eta Idoia Frailek (1996: 76) *nondik* eta *zerik* kasuen berri ematerakoan, hurrenez hurren: "...*-ik* atzizkia dugu nagusi. Maila txikixeagoan, eta hiztun jakin batzuen ahotatik berriz, beranduagokoa den *-ikan* atzizkia heldu zaigu" eta "...*-(r)ik*, eta berriagoa den *-(r)ikan* (...). Kasu bakanagoetan *-ikan*".

Badirudi goizuetarrak bertako ezaugarritzat hartzen duela *-ikan* eta gure ustea da zaharrek baino gehiago erabiltzen dutela gazteek. Ezaugarri honen erabileran egin duen aldaketaren berri hemen ikus dezakegu: Goizuetako hizkerari buruz egin den deskribapen osoenean, Goizuetan eta Aranon ablatiboko *-tik*, *-tikan* eta partitiboko -(*r)ik*, -(*r)ika* eta -(*r)ikan* daude, baina *-gatik* bakarrik motibatiboan (Zubiri eta Perurena 1998: 70, 117, 120, 122). Gaur egun *-gatikan* ere erabiltzen da. Beraz, gure ustez, indarra hartzen ari den ezaugarria da, nahiz eta euskara batuan ez erabili. Horregatik, berezia da hizkuntza-aldagai hau, *y/j* aldagaiarekin batera, euskara batuaren joeretatik aldentzen delako. Hona emakume gazte batek bi aldaerak esaldi berean esanez emandako adibide on horietako bat:

DENETIK dao pixko bat, DENETIKAN (13.GEGE1L).

*-ikan* eta *-ik* bukaerez gain, *-ika* ere erabiltzen da, gutxiago bada ere. Emaitzak kontatzerakoan, *-ikan* bukaerakoekin batera sartu ditugu. Bildu ez ditugun *-ik* bukaeradun formak *-ikan*-ekin aldakortasunean ez daudenak dira; *-i* hizkiz bukatutako hitzekin osatutako adberbioak (*yantziak* > *yantzik*) eta *-i* hizkiz bukatutako hitzen plurala eta ergatiboa (*zaldiak* > *zaldik*).

### 4.3.4. **Geroaldiko *-en / -go***

Goizuetarrek geroaldian erdialdeko euskararen nahiz nafarreraren atzizkiak erabiltzen dituzte. Ekialdeko ezaugarria da geroaldian *-en* erabiltzea aditzoinak *-n* bukaera duenean. *-go* berriz, erdialdeko eta mendebaldeko euskararen ezaugarria da eta hizkera formalean normalean erabiltzen dena, nahiz eta euskara batuak *-en* ere onartu. Ikerketa honetan, *-en* eta

*-in* bukaerak hartu ditugu Goizuetako hizkeraren ezaugarritzat eta, zehazki, zortzi aditz hauek aztertu dira: *egin, eman, eragin, eraman, esan, egon, izan, jakin.* Adibidetzat, gizon eta emakume gazte hauen esaldiak ekarri ditugu:

...baton batzuk muittu IZAIN tziala (…) aber emakumek ateriko ez baliake, ze IZANGO zen mozorron taldetaz (11.GEGA1O).

...SAIN nizuke, pes gutxitzen YONGO litzakela /x/endea, biztanlegoa pes gutxitzen YOIN tzela (16.GGGE1L).

*-go* lekua hartzen ari den aldaera dela uste dugu; emaitzetan ikusiko dugu gure usteak betetzen diren.

### 4.3.5. Kausazko *-ko(t)z / -ko*

Goizuetarrek kausazko esaldietan, beste morfema batzuez gain (*bait-, -eta*), *-ko(t)z* eta *-ko* erabiltzen dituzte. *-ko(t)z* nafarreran eta Ipar Euskal Herrian ere erabiltzen da eta *-ko* erdialdeko euskaran eta euskara batuan, besteak beste. Badirudi gaur egun joera dela mendebalderagoko ezaugarriek ekialdekoak ordezkatzea, eta *-ko(t)z* hartu dugu Goizuetako hizkeraren ezaugarritzat, oinarri dialektaleko ezaugarria delako, alegia, zaharrenek erabiltzen dutena. Gazteek *-ko(t)z* oso gutxitan erabiltzen dutela uste dugu eta beraz, Goizuetan ordezkatzea arrunt aurreratua dagoela. Emaitzetan, gazteen eta adinduen artean, eta baita beste ezaugarri soziolinguistikoen artean ere, ze diferentzia agertzen den aztertuko da. Oraingoan ez dugu *super-tokenik* aurkitu, gure corpusean gazteek *-ko* bakarrik erabili dutelako eta adinekoek, erabili dutenetan, *-ko(t)z* beti edo *-ko* beti. Hona adineko bi emakumeren adibide bana (esan behar da lehenak 60 urte inguru dituela, eta bigarrenak 80ak pasata):

...ta ordun nolabatte nahi zuten ni kontrolatua euki, gaztea NITZALAKO (1.GEZA1O).

Oaiñ, gustora in zandu du beti, e? Miño, hala ohitzen, ohittuk GIÑALAKOTZ (2.GEZE1O).

### 4.3.6. *Izan / egon* lekuzko perpausetan

Lekuzko perpausetan *egon* aditza erabiltzea gaur egun areagotzen ari den joera da. Hizkera arruntean *'etxean nago'* maizago entzuten da *'etxean naiz'* baino. Jatorrian, lekuzko perpausetan *izan* aditza erabiltzea Ipar Euskal Herriko euskararen eta nafarreraren ezaugarria

da, lehen Hegoalde guztian gehiago erabiltzen bazen ere. Badirudi joera dela mendebalderagoko ezaugarriek ekialdeko hauek ordezkatzea, eta ezaugarri honekin hori ari dela gertatzen ematen du. Horregatik, Goizuetan bertako ezaugarritzat joko dugu lekuzko perpausetako *izan* aditza. Gazteek *egon* aditza gehiagotan erabiltzea espero dugu, eta adinekoek, berriz, *izan*. Adibide gisa, adineko gizon baten, adineko emakume baten eta emakume gazte baten esaldiak bildu ditugu hemen:

Denak han DAUDE, DIAN pixarrak, gutxi biño (8.GGZB1O[12]). Goizutan yende asko EZTA, biño zahar asko DO (8.GGZB1L).

Euskal Irratin BADA, pues EOTTEN da, lehemeziko IZATEN da elkarrizketa bat, eta gero BADA oain programa bat arrunt politta (1.GEZA1O).

Ez, EZTIA hola... Bueno, BADAUDE igual lau-bost etxe (14.GEGE2L).

Lekuzko perpausetan aztertu da aldagai hau, beraz, *nola* eta *zertan* galderei erantzuten dieten esaldiak ez dira kontuan hartu. Aukera egitean, batzuetan erraza izan da *non* galderari erantzuten ez diotenak bereiztea, eta beste batzutan ez. Adibideak hain argiak izan ez direnetan ere, ez ditugu kontuan hartu. Ondorengo kasuan, adibidez, ez dakigu aditza "Luinen" lekuarekin doan, edo "apopillo" adberbioarekin, eta ez da kontuan hartu: *Luinen EOTTEN tzen apopillo [e]do, EOTTEN tzen* (4.GEZB2O).

### 4.3.7. ***Edun / eduki***

*Eduki* aditza erabiltzea erdialdeko eta mendebaldeko euskararen ezaugarria izan da eta *edun* erabiltzea nafarrera eta Ipar Euskal Herriko ezaugarria. Hemen ere, mendebaldeko ezaugarria ekialdekoari lekua kentzen ari dela dirudi. Hau da, *eduki* edo *edun* aditzak erabiltzeko aukera dagoenean, *eduki*-ren aldeko hautua da gaur egun nagusitzen ari den joera. Hizkera arruntean *'bizikleta bat daukat'* gisako adibideak maizago entzuten dira *'bizikleta bat dut'* tankerakoak baino. Horrela bada, Goizuetan berriagotzat jo ditugu *eduki* aditza daramaten adibideak (*bizikleta bat daukit*), eta Goizuetako hizkeraren ezaugarritzat *edun* aditza daramatenak (*bizikleta bat dut*).

12 2008ko grabazioa da, ez gainerakoak bezala 2010ekoa.

### 4.3.8. ***Arrunt / oso***

*Oso* erdialdeko eta mendebaldeko euskararen ezaugarria da eta *arrunt* nafarrerarena eta Ipar Euskal Herriko euskararena. Euskara batuan ere *oso* erabiltzen da, normalean, *arrunt* onartzen badu ere. Goizuetarrak *arrunt* Goizuetako hizkeraren osagai bezala hartzen du, Gipuzkoan ez dutela erabiltzen badaki eta, beharbada, hitz markatutzat du. Horregatik, ikerketa honetan ere *arrunt* hartu dugu bertako hizkeraren aldaeratzat.

Mendebalderagoko ezaugarriek ekialdeko hauek ordezkatzea da joera gaur egun, eta ezaugarri honekin hori ari dela gertatzen ematen du. Dena den, gazteek ere erabiltzen dute *arrunt* (adibidea topatzea kosta bazaigu ere), eta adinekoek *oso* ere bai, gizon banaren adibide hauetan ikus daitekeen bezala:

Euskerak ARRUN zea zabala do, eremu zabala do, nere ustez (17.GGGE2O).

Artoa nahikoa, baserri ona zen. Ongi han bizittu giñan. OSO ongi (6.GGZE1O).

### 4.3.9. ***Bakotxa / bakoitza***

*Bakoitza* erdialdeko euskararen ezaugarria da, eta euskara batuan erabiltzen dena. *Bakotxa* Euskal Herri osoan zehar agertzen da, baita, esate baterako, Nafarroa Beherean ere, eta ez du eremu bereizi argirik osatzen. Goizuetan batez ere *bakotxa* erabiltzen dela uste dugu eta hori hartu dugu bertako aldaeratzat.

Gure ikerketan, aldakortasun gehiago aurreikusten diegunek *bakoitza* gehiagotan erabiltzea espero dugu.

### 4.3.10. ***Benpe(ñen), bede / behintzat***

Hizkuntza-aldagai honek ere nafarrera eta Ipar Euskal Herriko ezaugarri baten eta erdialdeko eta mendebaldeko euskararen ezaugarri baten arteko lehia erakusten du. Zehazki, *bederen* (Goizuetan *bede*) eta *behintzat* aldaeren arteko lehia da hori. *Benpe(ñen) (behinik behin*en forma moztua*),* Goizuetako ezaugarri gisa, *bede*rekin batera paratu dugu; alegia, bien agerpenak batera kontatuko dira. Kasu honetan ere, *behintzat* ari da hartzen beste bien lekua, eta *behintzat* da gazteek gehien erabiltzen dutena, salbuespen gutxi batzurekin. Salbuespena hiztun bakarra izan da, gizonezkoa, eta *benpe* erabili du gure corpuseko kasu guztietan:

Uain ikusten dut ongi diola, yende askok hemen bizi nahi dula iduitzen tzit, gaztek BENPE, gazte askok hemen bizi nahi dula (16.GGGE1L).

Guk euskera batua tarten sartzen du gehio, ta zaharrak dena goizutarraz hitzeitten dute, askok BENPE bai (16.GGGE1O).

### 4.3.11. ***Biño / baño***

Nafar euskarakoa da *biño* eta erdialdekoa *baño.* Euskara batuko *baña* ere bilatuko da eta *baño* aldaerarekin batera kanpoko aldaeratzat hartu da. Goizuetan, normalean, *biño / miño* erabiltzen da, eta hori da bertako ezaugarritzat hartu duguna. *Baño* (eta *baña*) gazteen artean erabiltzen zela iruditu zaigu, ordea, eta aztertu nahi izan dugu. Hurrengo *super-token* honetan ikusiko dugunez, ikasketa-maila altuko neska gazte honek, adibidez, *biño* eta *baño* erabili dute gure elkarrizketetan:

BAÑO, herriko heldu eta baserritarran arten? Eztakit. Eztut uste diferentzi haundiikan eongo denikan. Eztakit, ezno seuru BIÑO. Eztakit (…) MIÑO goizutarraz, bai. Eta ezautzen ttut, gañera, yende asko goizutarrak, o ba, kuadrillakok o familikok o ingurukok, kanpokokin askotan erdi batuaz ta dena hitzeitten dutela. BAÑO nik uste goizutarraz hitzeittea eztela, san nahi dut, berdin-berdin ulertzen ahal gittoztela (11.GEGA1O).

### 4.3.12. ***Deus / ezer***

Nafarrera eta Ipar Euskal Herriko euskara vs. erdialdeko eta mendebaldeko euskararen arteko lehiaren erakusle den hirugarren eta azken ezaugarria dugu gure lexikoaren zerrendan. Goizuetan *deus* da normalean erabiltzen den ezaugarria, eta hori hartu dugu Goizuetako hizkeraren aldaeratzat. *Ezer* erabiltzea oso arraroa da eta ez da Goizuetako hizkeraren oinarri dialektalaren zati. Dena den, mikrofono baten aurrean zer gertatzen den aztertu nahi izan dugu eta horregatik aukeratu dugu.

Aurkeztuko ditugun hurrengo bi hizkuntza-aldagaiek ere Ipar Euskal Herriarekin ikustekoa dute, baina ez dituzte bi eremu garbi bereizten. Alegia, ez dituzte mendebaldeko eta ekialdeko eremua bereizten.

### 4.3.13. ***Eskuara / euskara, euskera***

Gehienetan, *eskuara* modukoak (*Eskual Herria, eskuarazalea*...) Lapurdiko eta Nafarroa Behereko ezaugarritzat jotzen dira eta Nafarroa Garaian Baztanen ere erabiltzen da. *Euskera* modukoak (*Euskal Herria, euskerazalea*...), berriz, Bizkaiko eta Gipuzkoako ezaugarritzat hartzen dira. Badirudi *eskuara* aldaera leku gehiagotan erabiltzen dela, Legutianon, Lekeition (*eskuera)* eta Urdiainen, adibidez. Dena den, Goizuetan *eskuara* erabiltzea ekialdearekin (Baztan, Lapurdi, Nafarroa Beherea) lotu dugu. Esan behar da Goizuetako gazteengan ez dugula *eskuara*ren sailekorik topatu eta helduenek ia beti darabiltela, adineko emakumeen artean gazteenaren kasuan izan ezik (60 urte ingurukoa):

Dena erderaz. Dena dena dena. EUSKERA etzen oaindikan sumatu re itten (1.GEZA1O).

Hemendik aurrerako aldagaiak lexikoko aurreko ezaugarriak baino eremu txikiagoan erabiltzen dira.

### 4.3.14. ***Eztikit / eztakit***

*Jakin* aditza ezezko eta galderazko perpausetan *-iki-* erroarekin agertzen da Goizuetako hizkeran *(eztikit)*. Erdialdeko euskaran eta euskara batuan *-aki-* erroa da erabiltzen dena *(ez dakit).* Goizuetako aldaeratzat jo ditugu *eztikit* adizkiaren sailekoak, horiek direlako adinekoek nahiz gazteek gehien erabiltzen dituztenak, gure ustez. Egoera formalagoetan gazteek erro hori ez erabiltzeko joera izan dezaketela uste dugu, hizkera formalaren eragin handiagoa dutelako. Dena den, adinekoek ere erabili dezakete *-aki-* erroa, 80 urtetik goitiko emakume honek egin duen bezala:

Miño EZTAKIT, ixtorikan EZTIKIT (4.GEZB2L).

Baiezko perpausan gertatzen dena ez dugu aztertu, egoera konplexuagoa delako; baiezkoetan normalean *-aki-* erroa agertzen dela uste dugu (*badakit* esaten da adibidez, ez **badikit*), baina *dikianez, dikizunez, dikizutenez* ('dakidanez', 'dakizunez'...) adizkien sailekoak ere erabiltzen dira. Seguru asko azentuak lotura du honekin, eta silaba azentuduna denean *-aki-* agertzeko joera dago: *bad<u>á</u>kit,* baina *d<u>i</u>kiánez, d<u>i</u>kizuténez, ézt<u>i</u>kit, zér d<u>i</u>kit ba...*

### 4.3.15. ***Gunun / giñun***

Goizuetako hizkeran *gunun* adizkiaren saileko aldaerak erabiltzen dira batzuetan *giñun* adizkiaren sailekoen lekuan. Zehatzago esateko, *edun* aditzaren sailean, iraganaldiko pertsona pluraletan *-u-* erabiltzen da *-i-*ren lekuan, alegia, *gunu-, zunu-, zunute-* formak erabiltzen dira eta ez *giñu-, ziñu-, ziñute-*.[13]

Ezaugarri horren eremuaren berri Edu Zelaietaren lanean izan dugu. Zelaietaren arabera, Goizueta inguruko Nafarroako eskualdeetan erabiltzen da, eta hizkuntza-aldagai honetan, Goizueta Bortzerriak, Sunbilla eta Doneztebe-Donamaria eremuarekin batera doa (2008: 148):

> **edun* aditzaren iraganeko sailean, Bortzerrietan maiz aski aditzen diren *zunun* 'zenuen' eta *gunun* 'genuen' forma asimilatuak Sunbillan, Donezteben eta Donamarian ere bildu ditugu. Erran beharra da, halarik ere, herri guzietan ez dugula erabileraren maila bera sumatu: (i) Bortzerrietan aukera nagusiak dira, (ii) Sunbillan ohikoak ditugu eta (iii) Doneztebe-Donamarian batzuetan soilik agertzen dira. Guk dakigula behintzat, bi adizki hauek ez dira bertze inon erabiltzen. Nafarroako mintzorik gehienetako *ziñun* eta *giñun* Donezteben eta Donamarian gailen dira eta, Baztanen, Bertizaranan eta Malerrekako gainerako herrietan aukera bakarrak ditugu.

Gipuzkoako inguruko beste herrietan nola egiten duten ere bilatu dugu. Oiartzunen *genun / giñun, zenun* eta *(t)zenuten* adizkiak erabiltzen dituzte (Fraile eta Fraile 1996: 111). Hondarribiko eta Irungo euskaran, badirudi aldaketa egon dela: *banugun* ('genuen'), *zuzun* ('zenuen') motako adibideak eman izan diren arren, gaur egun *tzusún* ('zenuen'), *tzisjan* ('zenuten') motakoak erabiltzen dira (Sagarzazu 2005: 82).

Gure ustez, Goizuetan ere badago aldaketa eta gazteek gutxiago erabiltzen dituzte *gunun* adizkiaren sailekoak. Hala ere, bertako aldaeratzat jo ditugu Goizuetan. Emakumezko gazte batek *gunun* adizkia aipatu du herritarren eta baserritarren hizkeraren artean diferentziarik badagoen galdetu diogunean. Adizkiaren erabilera azaldu du; metahizkuntza da hori eta ez dugu hizketa naturaleko adibidetzat hartu:

---

13 Goizuetan erabiltzen ez direlakoan hasiera batean ez dira *genu-, zenu-, zenute-* aldaerak bilatu. Ondoren badaezpada bilatuta, hiru esaldi aurkitu dira aldaera horiek darabiltzatenak, adineko emakume baten ahotan bat (*"zertikan **ezpaigunun**, **ezpaigenun** behar bezela atenditzen"*, 4.GEZB2O hiztuna), gizonezko heldu baten ahotan besteak (*"hoitabost [urte] o hola izin nittun, itxe hori in **genun**. (…) Eta hori guk in **genun**",* 6.GGZE1O hiztuna). Ikerketan hiru adibide horiek ez dira kontuan hartu.

Igual, GIÑUN (...). Pues, *lehengon mendira yon giñan ta…* nik zer dikit*, ikusi GIÑUN*. Launakin GIÑUN sango nuke. Miño, itxen, GUNUN. Ta ordun, holako hitzak. Oan eztikit beste adibideik hola sateko, miño… horik behintzat bai (12.GEGA2O).

Adinekoen artean, biak erabiltzen dira. Gure corpusean, bederen, hala ikusi dugu. Hara 60-65 urte bitarteko emakumezko eta gizonezko banaren adibide bikain (*super-token*) bana:

Hamazazpi do hola izango nittun, miño ordun itxera yoteko zaten GIÑUN ordua illundu ta belexen. Miño ordun in tzen bastante berandua ta permisoa re eskatzeko nun ta. Guk uste GUNUN bueno, tenore politteko etorko giñala biño, beranduxio torri giñan ta gero hori pasatu zen (5.GEZB3O).

Bai, gure, guk dena eskuaraz itten GUNUN, hitz guzia eskuaraz. Eta bueno, gure itxen, bueno, nik ez nun sumatzen, hola... Zen, beharbada, ez GIÑUN tema profundok ukitzen zango, ta hola, miño etzen izaten hola haserre nabariikan (7.GGZE2O).

### 4.3.16. ***Patu / jarri***

Bikote honetan ere, lehena nafarrerako ezaugarria da eta bigarrena erdialdeko euskaran nahiz euskara batuan topa dezakegu, besteak beste. Goizuetan *patu (< paratu)* erabiltzen da euskara batuan *jarri* aditzak duen esanahiarekin (erdaraz, *poner*), baina gauzen kasuan bakarrik. Alegia, pertsona bat ezin da *gaizki patu, gaizki jarri* baizik. Gainerakoan, *patu* erabili ohi da *(mahaia patu).* Beraz, *patu* jo dugu bertako aldaeratzat. Badirudi goizuetarrek badakitela Gipuzkoa aldean ez dutela *patu* erabiltzen eta, seguraski, hitz markatutzat dute. Mutil gazte honek dioena argigarria da, gipuzkoarrak solaskide dituen adibide honetan:

Adibidez guk esaten du "/X/ARRI"ri "PATU", saten du, "PATU". Ta gañeko toki guzitan... Nik Hernanin san izandu dut: "hi, PATU, PAzak hor hori!" o "PATU, PAzak hor". Ta haiek enteintzen dute "pagatu". Eta gelditzen tza hor "ez, ez, ez, pagatu ez, /X/ARRI, /X/ARRI!". Ta pixkot gelditzen tza zea (…). Ez, behin miño gehiotan "PATU hor" ta, "Patu, ze pagatu?" ta, "Ez, ez, ez, /X/ARRI, /X/ARRI, hor PATU!". Pues bueno, pasatu itten tza, hurrena saten dizo /X/ARRI ta enteintzen do (16.GGGE1O).

### 4.3.17. ***Zerbette / zeoze***

Aldagai honetan ere, aurrenekoa, *zerbette (*edo *zerbitte)*, Goizuetako aldaeratzat hartu dugu, eta nafarrerako ukitua du. *Zeoze*, erdialdeko euskararen ukitua duena, gero eta gehiago erabiltzen da gazteen artean, gure ustez. Biak erabiltzen dituen mutiko honen adibidea bildu dugu, teknologia berriak erabiltzen dituen galdetu diogunean:

Ez aspertzeko do, beste ZERBETTE itteatik. Biño gabe re igual-igual eongo nitzake (…). Mobillana, zailtxio iual ingo liake, miño eon izandu naiz (…). Aspertua ta, ño! Baten bateri adarra yoko nike oantxe ta ZEOZE ta. Biño hola, beharra-beharra, ez (17.GGGE3O).

Ondorengo hizkuntza-aldagaiak bereziak dira, maiztasun gutxi izateaz gain, bestelako ezaugarriak dituztelako. Esate baterako, ez dute aurrekoek bezala nafarrerako edo Goizuetako hizkerarena den aldaera baten eta erdialdeko euskararena edo batuarena den beste aldaera baten arteko aldaketa aztertzen. Hain zuzen ere, 4.3.18. puntuan *erdara* / *euskara* bikotea dugu aztergai, eta hurrengoan *hika bai* / *hika ez*. Hala ere, horien berri bildu nahi izan dugu, hor ere adinekoek egiten duten erabileratik gazteek egiten dutenera aldaketa dagoela sumatzen dugulako.

### 4.3.18. **Erdarazko esaldiak eta makulu-hitzak**

Hizkuntza-aldagai honetan, alde batetik, erdararen erabilera da aztergai. Zehazki, erdararako kode-aldaketa hartu dugu kontuan hizkuntza-aldagaiak zerrendatzean. Gutxitan erabiltzen du erdara goizuetarrak. Ez da ohikoa euskaldunekin ari dela erdarazko esaldiak txertatzea, baina batzutan agertzen dira horrelakoak. Adibidetako, hona adineko emakume baten esaldia: *Ta gaur? "No puede ser"! Oain don trafikokin, ta oain don bezala?* (2.GEZE1O).

Beste alde batetik, makulu-hitzak edo hitz betegarriak aztertuko dira: *es que, hombre, a ver, o sea, esto, porque*... Hitz hauek askotan agertu zaizkigu corpusean, beharbada gehiago gazteen artean adinekoen artean baino. Giza-talde bakoitzak makulu-hitz horiek nola erabiltzen dituen aztertu nahi da hemen. Esan behar da muga non jarri erabakitzea ez dela erraza, baina hitz betegarritzat har daitezkeen hauek ez direla hemen zenbatu: *bueno, pues (pos...)* eta *ya*. Ez bilatu izanaren arrazoia da euskaldunenaren ahotan ere oso integratuak daudela eta hiztunak ez duela erdara denaren kontzientzia.

### 4.3.19. **Hikaren erabilera**

Hizkuntza-aldagai hau ere ez dugu besteak bezala aztertuko. Ez dugu hitanoa gure corpusean jasotzea espero, baina hiztunen erabileraren berri jaso nahi dugu. Horretarako, hiztunei zuzenean galdetuko diegu hitanoa norekin erabiltzen duten eta erabilera horren

gainean zein iritzi duten. Emakumezko eta gizonezko gazteen erabileraren artean diferentzia dagoela ohartuak gara (emakumezko gazteek ez dute noka hitz egiten, gehienetan ez dute ezagutu ere egiten; eta mutil gazteek normalean toka egiten dute lagunartean) eta gaian sakondu nahi genuen, kualitatiboki bada ere.

### 4.3.20. Hizkuntza-aldagaien maiztasuna

Goian azaldu ditugun hizkuntza-aldagai horiek guztiak maiztasun diferentez agertzen dira gure corpusean; batzuk askotan, beste batzuk gutxitan. Askotan agertzen direnekin analisi kuantitatiboa egin daiteke, eta estatistika erabiliko dugu hemen. Corpusean gutxiagotan agertzen direnekin arazo gehiago sor daiteke, batez ere, hizkuntza-aldagaia ez badute hiztunek modu orekatuan erabiltzen. Dena den, batzuetan, adibide kopuru txikia duten hizkuntza-aldagaiekin egin daitezke eragiketa estatistikoak, seguraski, adibideen erabilera orekatua delako (ikus honi buruzko azalpen gehiago *3. Metodologia* atalean). Ondorengo taulan, aztergai ditugun hizkuntza-aldagaiak beren izaera linguistikoa eta maiztasunak azalduz aurkezten dira:

| | Hizkuntza-aldagaia | Izaera linguistikoa | Agertze-kop. |
|---|---|---|---|
| 1 | aferesia bai / ez (*karri / ekarri...*) | fonologikoa | 1481 |
| 2 | /j/ edo /x/ (*yan / jan...*) | fonologikoa | 685 |
| 3 | *-ikan / -ik* (*zertikan / zertik...*) | morfologikoa | 976 |
| 4 | geroaldiko *-en, -in / -go* (*izain / izango...*) | morfologikoa | 285 |
| 5 | *izan / egon* lekuzko perpausetan (*hemen da / dago*) | morfologikoa | 533 |
| 6 | **edun / eduki* (*dut / daukit*) | morfologikoa | 207 |
| 7 | kausatiboko *-ko(t)z / -ko* (*delakotz / delako*) | morfologikoa | 96 |
| 8 | *arrunt / oso* | lexikoa | 149 |
| 9 | *bakotxa / bakoitza* | lexikoa (aldaera) | 35 |
| 10 | *benpe, benpeñen, bede / behintzat* | lexikoa | 120 |
| 11 | *biño / baño* | lexikoa (aldaera) | 877 |
| 12 | *deus / ezer* | lexikoa | 67 |
| 13 | *eskuara / euskara, euskera...* | lexikoa (aldaera) | 357 |
| 14 | *eztikit / eztakit...* | lexikoa (aldaera) | 434 |
| 15 | *gunun / giñun...* | lexikoa (aldaera) | 154 |
| 16 | *pa(ra)tu / jarri* | lexikoa | 64 |
| 17 | *zerbette / zeoze* | lexikoa | 83 |
| 18 | makulu-hitzak | bestelakoa | 246 |
| 19 | erdarazko esaldiak | bestelakoa | 134 |
| 20 | hika | bestelakoa | kontatu gabe |

4.4. taula: Goizuetako hizkuntza-aldagaiak, maiztasunekin.

## 4.4. GIZARTE-ERAGILEAK ETA HIZKUNTZA-ERAGILEAK

Hizkuntza-aldagaiak azaldu ondoren, atal honetan gure ikerketan aztertu diren eragileen berri emanen da. Hizkuntza-aldakortasuna aztertzen duten ikerketa soziolinguistikoetan bi motatako aldagaiak hartzen dira kontuan hizkuntza-aldaketa neurtzeko: aldatzen ari diren hizkuntza-aldagaiak eta aldaketa horretan eragiten duten gizarte- nahiz hizkuntza-aldagaiak. Bien arteko zeinetaz ari garen argi izateko, aurrenekoak "aldagaiak" izendatu ditugu eta bigarrenak "eragileak". Ikerketa batean eta bestean aztertzen diren aldagaiak eta eragileak diferenteak izan daitezke, ikerketaren helburuen arabera. Ondorengo puntuetan ikerketa honetan aztertu diren gizarte- eta hizkuntza-eragileak azalduko dira, gizarte-eragileetatik hasiz. Goizuetan aztertu diren gizarte-eragileak dira hiztuna, generoa, adina, ikasketa-maila, Goizuetan bizitzeko nahia eta erdialdekoekin harreman-maila.

### 4.4.1. **Hiztuna**

Hiztun bakoitzak bere hitz egiteko modua du, bere hizkuntza-joerak ditu, beste gaietan ere izaten dituen bezala. Bariazionismoan pertsonaren barne-aldakortasuna kontuan hartzea komeni da eta, estatistikaren garapenak aurrera egin duen heinean, hori posible izan da. Soziolinguistek jakintza hori beren lanean txertatu dute eta, hiztuna bezalako aldagai aleatorioak (*random variables*) gainerako aldagai finko deiturikoekin (*fixed variables*) batera azter daitezke gaur egun, hau da, adina, generoa, eta abarrekin batera. Gure ikerketan *hiztuna* analisi estatistiko guztietan aztertuko dugun eragilea izango da, aldagai aleatorio bezala, *mixed generalized linear models* deitutako estatistika eragiketen bidez.

### 4.4.2. **Adina**

Adinak beste gizarte-eragileen eraginak islatzen ditu eta, horregatik, ez da batere aldagai sinplea. Arlo honetako azterketa soziolinguistiko guztietan hartzen da kontuan, baina adin-multzoak beti ez dira berberak. Ikerketa honetan bi multzo bereizi dira: gazteak (20-35 urte bitartekoak) eta adinekoak (60-90 urte bitartekoak). Adin tarte hori arrazoi batzuengatik hartu dugu: batetik, 20 urte baino gazteagokoek ez dute beren ikasketa-maila finkatua; adin batetik aurrerakoek, berriz, hitz egiterakoan arazo gehiago izan ditzakete (ahoskera, memoria...) eta

horregatik, ez ditugu kontuan hartu gaztetxoak (20 urtetik beheitikoak) eta oso adinekoak direnak (90etik goitikoak). Talde gaztea eta adinekoa aukeratu ditugu diferentzia bilatu eta aztertu nahi izateagatik; beraz, tarteko belaunaldiko hiztunak aukeratu gabe, gazteak eta adinekoak ahalik eta hobekien aztertzen saiatu gara, horiek bakarrik aukeratuz. Multzo bakoitzean aztertu beharreko pertsona kopurua zehazteko, Goizuetako Udal Errolda (2010) erabili da (laginketari buruzko azalpen gehiagorako, jo *3.4.* eta *4.2.* puntuetara).

Hori horrela izanda, adineko hiztunen artean bereizketa bat egin dugu adinaren arabera. Izan ere, 60-65 urteko bi emakumezko eta bi gizonezko ditugu gure hiztunen artean, eta gainerako adinekoak 80tik goitikoak dira. Baliteke gazteagoak gainerako adinekoetatik bereizteak emaitzak argiago ikusten laguntzea. Horrelakoetan, bereizketa egiteko, 60-65 urte bitarteko adinekoak *heldu* izendatuko ditugu, 80tik goitiko adinekoengandik bereizteko. Hona hemen taula, adinaren arabera:

| Adina | Hiztunak |
|---|---|
| gazteak (20-35) | 9 |
| helduak (60-65) | 4 |
| adinekoak (80-90) | 6 |
| **Guztira** | 19 |

4.5. taula: Goizuetako lagina, hiru adin-taldetan banatua.

Adina beste modu batean ere aztertuko dugu, aldagai jarrai bezala, eta honi *adina (jarraia)* izena emango diogu. Aldagai hau adinaren antzekoa da, baina hemen adin zehatza hartu nahi izan da kontuan. Alegia, hemen hiztunaren adina hartzen da kontuan, 20 edo 65 urte dituen, adibidez. Analisi estatistikoaren bidez ikusiko da, *adina* edo *adina (jarraia)* erabiltzea ote den egokiago.

### 4.4.3. **Generoa**

Gizarte-eragile hau ikertzea ohikoa da azterketa soziolinguistikoetan, baina Euskal Herrian gutxi aztertutako aldagaia da. Ikerketa honen bidez, Euskal Herrian aldagai honekin gertatzen dena ikusi nahi da: mendebaldeko teoria soziolinguistikoan ohikoa den bezala, gizonezkoak dira gordetzaileago? Emakume gazteen eta adinekoen artean bada diferentziarik hizkuntza-aldagaiak erabiltzeko orduan? Eta gizonezkoen kasuan?

### 4.4.4. **Ikasketa-maila**

Aldagai hau ere azterketa soziolinguistiko askotan ikertu ohi da. *Ikasketa-maila* modu ezberdinetan ulertu eta formulatua ageri da soziolinguistika lanetan; esaterako, batzuek ikasketa-maila eta "arauarekin kontaktua" elkarrekin aztertu dituzte (adibidez, Borrego 1981: 51), besteek bereiz (J. A. Villena 2001: 94).

Moya eta Garcíak egin bezala (1995: 51-52), ikasketa-mailan ikasketetan lortutako titulazioa hartu dugu aintzat eta, horren arabera, hiru maila bereizi dira: ikasketa-maila apala, 1. hezkuntza bitarteko ikasketak dituztenak (garai bateko eskola graduatua lortu gabeak); ikasketa-maila ertaina, 1. hezkuntza eta 2. hezkuntzakoak; eta ikasketa-maila altua, unibertsitate-mailakoak. Horretarako, Goizuetako Erroldako (2010) datuak multzoka bildu ditugu, modu honetan:

| Ikasketa-mailak | Lortutako titulua |
|---|---|
| Maila apala | Ez daki irakurtzen<br>Eskola graduatua baino gutxiago<br>Ikasketarik gabe<br>Lehen hezkuntza bete gabe |
| Maila ertaina | Eskola graduatua<br>Oinarrizko batxilerra<br>Lanbide heziketa I<br>Lanbide heziketa II<br>Batxilerra<br>BUP, goi-mailako batxilerra<br>Erdi-mailako ikasketak |
| Maila altua | Unibertsitatean diplomatua<br>Ingeniari teknikoa, arkitektoa<br>Unibertsitatean lizentziatua<br>Goi-mailako ikasketak<br>Doktoretza |

4.6. taula: ikasketa-maila bakoitzaren barneko tituluak.

Espero zen bezala, adin-multzo gaztean eta zaharrean ikasketa-maila bakoitzeko proportzioak aldatu egiten dira: adibidez, adinekoen artean ikasketa-maila apalekoak asko dira, eta gazteen artean ez dago bakarrik ere. Zehazki, eskola graduaturik gabeko 111 biztanle daude adinekoen artean (adin hortakoen erdia eta biztanle guztien % 14). Proportzio hauek kontuan hartuz egin dugu langiketa eta horregatik ez dago ikasketa-maila apaleko gazterik. Aztertutako lagina ikusteko, jo 4.2. atalera.

### 4.4.5. Goizuetan bizitzeko nahia

Atal honen sarreran aipatu dugu Goizuetan biztanleen kopurua behera doala azken hamarkadetan. Errealitate hori oso presente dago goizuetarrengan eta kezka handia sortzen du. Gure ustez, horren ondorioz, horrelako ideia bat badabil bertakoengan: egitan goizuetarra bazara eta zure herria maite baduzu, bertan bizi nahiko duzu. Horretaz gain, goizuetarra izatea gauza positibo bezala bizi da. Lan honen abiapuntuan galdera hauek genituen: goizuetar sentitze horrek eragin dezake hizkeran? Hau da, goizuetar identitatea eta hizkera lotuta daude? Gure ustea baiezkoa da eta, ikerketa honen bidez, goizuetar identitate "sendoa" (alegia, bertako hizkeraren ezaugarriak erabiltzea) Goizuetan bizi nahi izatearekin lotua agertzen den aztertu nahi izan dugu. Zehazki, herrian edo kanpoan bizi nahi izateak hizkeran eraginik ba ote duen aztertu dugu.

Aldagai honekin egin denaren oinarrian Labovek (1972a) Martha's Vineyard irlan egindako ikerketa dago. Martha's Vineyard-eko biztanleak bertako hizkerako ezaugarriak erabiltzen dituztenean, beraiek irla horretako biztanleak direla ari dira adierazten, haiek direla bertakoak (1972a: 36). Oiartzunen egindako ikerketan, Haddicanek ere ikusten ditu antzekotasunak Laboven ikerketarekin (Haddican 2005: 177). Azken batean, Goizuetan gertatzen ari diren aldaketekiko erreakzioa hizkuntzan agertuko dela da hipotesia, bertako hizkerarekiko leialtasunaren bidez.

Aldagai honek ere hiru erantzun posible ditu: kanpoan bizitzea nahiago dutela diotenei maila apala jarri diegu, kanpoan bizitzea berdintsu zaienei maila ertaina, eta Goizuetan bizi nahi dutela diotenei maila altua. Goizuetako galdetegiko 4. puntuaren bidez, non bizi nahiko lukeen eta, herrian bizitzekotan, ze baldintza bete beharko liratekeen galdetu zaio hiztunari (galdetegia ikusteko, jo 3. eranskinera).

### 4.4.6. Erdialdeko euskararekin harremana[14]

Gizarte-eragile hau aztertzeko arrazoia da goizuetarrek harreman handia dutela erdialdeko euskararekin. Alegia, goizuetar gazte eta heldu asko dago gaur egun erdialdeko euskaldunekin harremanetan, dela eskolan, dela lanean. Gaur egun, gazteen erdia joaten da

14 Erdialdeko euskara diogunean, euskara batua ere bertan sartzen dugu.

Gipuzkoara ikastera eta beste erdia Leitzara, eta aurreko urteetan, Gipuzkoara jo dute. Lanera ere kanpora ateratzen dira gehienak, normalean Gipuzkoara (Hernani, Donostia, Astigarraga, Oiartzun...) eta gutxiagotan Leitzara eta Iruña aldera. Orain hamarkada batzuk, berriz, egoera bestelakoa zen, ez baitzen hainbesteko erraztasunez mugitzen jendea. Horregatik, gazteen eta adinekoen artean joera diferenteak ikusten ditugu: adineko guztiek erdialdekoekin harreman-maila ertaina edo apala dute, eta gazteek aldiz ertaina edo altua. Errealitate horrek hizkeran eragiten duela uste dugu eta horregatik aztertu nahi izan dugu aldagai hau.

Informazio hau Erroldan ez dagoenez, galderak egin zaizkie hiztunei, bizitzako arlo bakoitzean dituzten harremanei buruz eta horietan erabiltzen duten hizkuntzari buruz (galdetegiko 3. puntua): ikasketak, lana, bizilekua, gurasoak, lagunak... Horretaz gain, egunean zehar ikusi eta entzuten duten komunikabideei buruz galdetu zaie.

Gizarte-eragile honek hiru maila ditu (apala, ertaina eta altua) eta horregatik, gehienetan maila horiei buruz ari garenez, *erdialdekoekin harreman-maila* izenarekin agertzen da testuan zehar. Tauletan izena laburtu dugu, *ErdialdeHarremana* bihurtuz.

Gizarte-eragileak azalduta, hizkuntza-eragileekin hasiko gara. Bost hizkuntza-eragile izango dira aztergai Goizuetako hizkuntza-aldagaietan: aferesian *Aditza* eta *AurretikBokalKontsonante*, *y/j* hizkuntza-aldagaian *Hitza* eta *JoeraYoera* eta lexikoan *AldagaiLexikoa.*

### 4.4.7. Aferesia gertatzen den aditza

Maiztasun handikoak izateagatik, zazpi aditz aukeratu dira aferesia aztertzeko: *ekarri / karri, eman / man, esan / san, etorri / torri, ibili / bili, ikusi / kusi, izan / zan.* Nahiz eta aditz guztietan aferesidun nahiz aferesi gabeko aldaerak erabiltzen diren, guztiek ez dute aferesia maila berean egiten. *Aditza* hizkuntza-eragilearen bidez, aditz bakoitzak aferesia egiteko edo ez egiteko duen joera aintzat hartuko dugu.

### 4.4.8. Aferesiaren aurretik bokala edo kontsonantea dagoen

Aditzaren aurretik dagoen hitza bokal edo kontsonantez amaitzen ote den aztertuko da *AurretikBokalKontsonante* izendatu dugun hizkuntza-eragilearen bidez. Etenak ez dira aintzat

hartu, eten guztiak ez direlako berdinak. Ez da berdina transkripzioan jaso dugun pausa bat edonon; batzuetan, hiztunaren benetako geldialdi bati erantzuten dio, eta beste batzuetan idatzizko arauari.

### 4.4.9. ***Y / j* hotsak agertzen diren hitzak**

Goizuetan, normalean /j/ hotsarekin ahoskatzen dira hitzak (*yan, yendea, yon...*), baina hitz batzuk /x/ hotsaz ahoskatu ohi dira. Hitz horiek *jangoiko, jainko, jatorra* eta *jai* dira gure ustez. Edozein moduz, gure corpusean *y* edo *j* izan daitezkeen hitzak aztertuko dira eta hitz bat edo beste izateak hots bat edo beste erabiltzearekin lotura duen aztertuko du *Hitza* hizkuntza-eragileak. Maileguak ez dira hemen kontuan hartu, horiek ez baitaude aldakortasunean; beti esaten dira /x/ hotsaz (*jenioa, jeneroa, justua...*).

### 4.4.10. ***Y* edo *j* egiteko joera duten hitz-multzoak**

Hitzen eragina banaka aztertuko dugu *Hitza* hizkuntza-eragilearekin. *JoeraYoera* deitu dugun hizkuntza-eragileak, berriz, eragin hori multzoka aztertuko du, hitz gehienak maiztasun gutxikoak direlako. Horrela, hitzak *j* edo *y* egiteko duen joeraren arabera bilduko dira eta multzo horiek /j/ edo /x/ ahoskatzearekin ikustekoa duten aztertuko dugu. Gure corpusean agertu diren *j*-dun hitzak espero dugun joeraren arabera banatuta, beraz, batetik /j/rekin ahoskatu ohi direnak ditugu: *jabetu, jaiki, jaitsi, jaio, jakin, jan, jantzi, jarri, jaso, jatetxe, jende, jo, joan, joare, joera, joko, jorra* eta *jorratu*. Eta bestetik, /x/rekin ahoskatzeko joera dutenak: *jai, jainko, jaungoiko* eta *jator.*

### 4.4.11. **Aldagai lexikoa**

Lexikoa aztertzean, hitz batzuetan adibide gutxi ditugula ikusi dugu. Maiztasun eskasaren arazoa saihesteko, hizkuntza-aldagai lexiko guztiak batera sartu ditugu analisi estatistiko batean. Hizkuntza-aldagai guztiek ez dute joera berbera, ordea, bertako aldaera erabiltzeko garaian. Horregati*k, arrunt / oso, bakotxa / bakoitza, benpe / behintzat, biño / baño, deus / ezer, eskuara / euskera, eztikit / eztakit, gunun / giñun, patu / jarri* eta *zerbette / zeoze* aldagaien adibideak elkarrengandik bereizteko*, aldagai lexik*oa hizkuntza-eragilea erabiliko dugu, hamar aukera horiekin.

Gizarte-eragileen eta hizkuntza-eragileen azalpena laburbiltzeko, taula batean bilduko dira denak, erantzun posibleekin. Erantzun posible horien ordenak espero dugun aldakortasunarekin eta gizarte-eragileetarako formulatu ditugun hipotesiekin zerikusia dute: aurreneko erantzunak aldakortasun gehiago erakustea espero dugu. Gizarte-eragileetarako hori horrela da hiztunaren kasuan izan ezik.

Hizkuntza-eragileetan ere hala da, salbuespen batzuekin. Aldagai lexikoaren kasuan ez dugu hipotesirik egiten jakin. Aferesiko aditzaren kasuan, *ibili* eta *izan* aditzek aferesia gutxiagotan erabiltzea da hipotesia, gainerakoen aldean (beraz, *ibili* eta *izan vs.* gainerako aditzak). Gainerako hizkuntza-eragileetan bai, aurrena agertzen den erantzuna da kanpoko aldaera gehiago erabiltzearekin lotuta egotea aurreikusten duguna. Honela, 2. hizkuntza-eragilearen kasuan, aferesiaren aurretik kontsonantea dagoen adibideetan espero da aferesia gutxiagotan agertzea (beraz, aldakortasun gehiago izatea) eta berdin *y/j* aldagaiko *Hitza* eta *JoeraYoera* eragileetan ere: *j* egitea espero dugun hitzak daude aurrena. 4.7. taulan bildu dira hemen esandakoak:

| | |
|---|---|
| Gizarte-eragileak | 1. Hiztuna (1-19)[15] |
| | 2. Generoa (emakumea / gizona) |
| | 3. Adina (gazteak / (helduak) / adinekoak) |
| | 4. Adina; jarraia (20-90 urte) |
| | 5. Ikasketa-maila (altua / ertaina / apala) |
| | 6. Goizuetan bizitzeko nahia (apala / ertaina / altua) |
| | 7. Erdialdeko euskararekin harremana (altua / ertaina / apala) |
| Hizkuntza-eragileak | 1. Aditza (*ibili / izan / ekarri / eman / esan / etorri / ikusi*) (*aferesia* hizkuntza-aldagaian) |
| | 2. AurretikBokalKontsonante (kontsonantea / bokala) (*aferesia* hizkuntza-aldagaian) |
| | 3. Hitza (*jai / jainko / jangoiko / jator*... 7. taulan zerrenda osoa) (*y / j* hizkuntza-aldagaian) |
| | 4. JoeraYoera (*j* egiteko joera / *y* egiteko joera) (*y / j* hizkuntza-aldagaian) |
| | 5. Aldagai lexikoa (*arrunt_oso / bakotxa_bakoitza / benpe_behintzat / biño_baño / deus_ezer / eskuara_euskera / eztikit_eztakit / gunun_giñun / patu_jarri / zerbette_zeoze*) (*lexikoa* hizkuntza-aldagaian) |

4.7. taula: Goizuetan aztertu diren gizarte- eta hizkuntza-eragileak, erantzun posibleekin.

15 Kasu honetan, erantzunen zerrendaren ordenak ez du ikustekorik espero dugun aldakortasunarekin.

## 4.5. EMAITZAK

Analisi kuantitatiboa egiteko, hizkuntza-aldagaiak Rbrul tresnaren bidez aztertu ditugu. Atal honetan, Rbrulek egiten duen "step-up & step-down" analisiaren eredurik onenaren emaitzak azalduko dira. Emaitza horiek hobeki ulertzeko, metodologiari buruzko atalean daude kontzeptu estatistikoen argibideak (*3.3.1.* puntuan).

Eragiketa estatistikoak egitean, ikusi dugu hiru eragile (adina, ikasketa-maila eta erdialdeko euskararekin harreman-maila) ez direla aldagai independenteak Goizuetan. Hori ez da gure laginaren arazo bat, baizik eta aztergai den populazioaren ezaugarri bat. Hau da ikusi dugun korrelazioa: gaztea izateak, oro har, ikasketa-maila ertaina edo altua izatea esan nahi du, eta adinekoa izateak, normalean, ikasketa-maila apala izatea. Era berean, gazteek erdialdekoekin harreman-maila altua izan ohi dute, eta adinekoek (eta helduek) harreman gutxi; nere laginekoetan hala gertatu da, bederen. Hona hemen lotura horiek, gure laginaren arabera:

| | **Gizarte-eragileak** | | |
|---|---|---|---|
| **Hiztunak** | Adina | Ikasketa-maila | Erd. euskaldunekin harremanak |
| 1 | heldua | altua | ertaina |
| 2 | adinekoa | ertaina | apala |
| 3 | adinekoa | apala | apala |
| 4 | adinekoa | apala | apala |
| 5 | heldua | apala | apala |
| 6 | adinekoa | ertaina | ertaina |
| 7 | heldua | ertaina | ertaina |
| 8 | adinekoa | apala | apala |
| 9 | adinekoa | apala | ertaina |
| 10 | heldua | apala | apala |
| 11 | gaztea | altua | altua |
| 12 | gaztea | altua | altua |
| 13 | gaztea | ertaina | altua |
| 14 | gaztea | ertaina | ertaina |
| 15 | gaztea | altua | altua |
| 16 | gaztea | ertaina | altua |
| 17 | gaztea | ertaina | altua |
| 18 | gaztea | ertaina | ertaina |
| 19 | gaztea | ertaina | ertaina |

4.8. taula: korrelazionatuta dauden gizarte-eragileak hiztunka.

Beraz, adinak, ikasketa-mailak eta erdialdekoekin harreman-mailak elkarren artean nahiko korrelazio altua dute: gazteek ikasketa-maila eta erdialdeko euskaldunekin harreman-maila ertaina edo altua dute (ez apala) eta adinekoek berriz, ikasketa-maila eta erdialdeko euskaldunekin harreman-maila ertaina edo apala beti (ikasketa-maila altua heldu batek bakarra du).

Horrela, hiru eragileak batera aztertzea nahasgarri izan daiteke, ez delako erraza jakiten hiru eragileetatik zeinek azaltzen digun aztergai dugun aldakortasuna eta analisian erroreak sortzen dira. Egin duguna da hiruetatik aldakortasuna zeinek azaltzen duen hobeki aztertu, hizkuntza-aldagaika. Rbrulek ematen digun *R2 fixed* (*R-squared*) balioak aztertu ditugu horretarako, analisi bakoitzean hiztunaren barne-aldakortasunaren eragina kontuan hartuta, eta emaitza izan da erdialdekoekin harreman-maila izan dela hiru aldagaietatik aldakortasuna gehien azaldu duena. Bigarren lekuan ikasketa-maila dugu. Eta adinak gutxitan eman du azalpen gehien, lexikoaren kasuan izan ezik. Oro har, azalpen horien balioak apalak direla esango genuke, %11tik beheitikoak (*y / j* hotsen kasuan eta *-en / -go* bukaeretan izan ezik). Ondorengo taulan bildu dira balio horiek:

| **Hizkuntza-aldagaia** | **Aldakortasunaren azalpen-maila (%)** | | |
|---|---|---|---|
| | Adina | Ikasketa-maila | Erdialdekoekin harreman-maila |
| aferesia | 5 | 5 | 8 |
| y/j | 1 | 93 | 9 |
| -ikan/-ik | 2 | 4 | 4 |
| -en/-go | 13 | 25 | 18 |
| izan/egon | 6 | 5 | 10 |
| edun/eduki | 0 | 1 | 7 |
| -koz/-ko | akatsa | akatsa | 95 |
| lexikoa | 10 | 7 | 11 |

4.9. taula: korrelazionatuta dauden gizarte-eragile bakoitzaren azalpen-maila.

Beraz, hiru eragile horiek korrelazionatuta daudenez, hizkuntza-aldagai bakoitzean aldakortasuna gehien azaldu duen eragilea aukeratu dugu analisi estatistikoa egiteko, analisi hori egokia izateko. Eragile hori hizkuntza-aldagai bakoitzean zein den adierazteko 4.9. taulan grisez markatu dugu aldakortasuna gehien azaltzen duena. *-ikan / -ik* aldagaiaren kasuan, oso azalpen eskasa eman dute hiru eragileek; horregatik, analisian hiruak aztertuko ditugu, analisi

bereizietan. *-koz / -ko* hizkuntza-aldagaiak akatsak eman ditu adinarekin eta ikasketa-mailarekin analisia egitean. Erdialdekoekin harreman-mailak, ordea, % 95ean azaltzen du aldagai horren aldakortasuna.

Bestalde, analisietan adierazgarriak izan ez diren gizarte-eragileen emaitzak aurkeztuko ditugunean (gehienetan, *generoa*), eragile adierazgarriekin batera agertzen diren pausoko emaitzak eman dira. Ohar hau ematen dugu, emaitzak pixka bat aldatzen direlako eragileak bakarrik aztertuta edo beste eragileren batekin batera. Horretaz gain, hiztuna beti aztertuko dugun eragilea da, esan bezala (*4.4.1.*). Azkenik, *Goizuetan bizitzeko nahia* gizarte-eragilea ondorengo emaitzetan ez dela agertuko esango dugu. Izan ere, bere emaitzak ez dira adierazgarriak izan eta batzuetan ezin izan da analisi estatistikoa egin eragile hau egonez gero. Beraz, analisitik kendu behar izan da eta bere eragina ezin izan da estatistikoki neurtu. Ondorioen atalean (*4.6.2.*) aurkezten dira eragile horren inguruko hausnarketa eta ondorio batzuk.

Ohar horiek emanda, hurrengo atalean emaitzak aurkeztuko ditugu hizkuntza-aldagaika.

### 4.5.1. **Aferesia bai / ez**

Aferesiaren kasuan, adibide (*N*) asko ditugu, 1.468 hain zuzen, eta horrek analisi estatistiko fidagarriak egiten lagunduko digu. Rbrul programaren bidez hainbat eragiketa egin ditugu, hizkuntza-aldagai honen eta aztergai ditugun gizarte- nahiz hizkuntza-eragileen artean ze lotura dauden ikusteko. Aztertu diren aldagaiak dira *erdialdekoekin harreman-maila*[16] eta *generoa* gizarte-eragileak, *AurretikBokalKontsonante* hizkuntza-eragilea eta *hiztuna* eta *aditza* eragile aleatorio bezala. *Hiztuna* eta *aditza* eragile aleatoriotzat jo ditugu honelako analisietan egiten den bezala. Horrek esan nahi du hiztunen nahiz aditzen eragina banaka aztertzen dela eta ez guztien emaitzak batera. Horrela, hiztun edo aditz batek bakarrik sor dezakeen desbideratzea kontuan hartzen da eta analisia fidagarriagoa da. Eta Rbrul-ek dio *hiztuna*, *aditza* eta *erdialdekoekin harreman-maila* batera aztertzen dituen eragiketa dela emaitza onenak ematen dituena.

16 Kasu honetan, *erdialdekoekin harreman-maila* aztertu dugu (eta ez *adina* eta *ikasketa-maila*), korrelazionatutako hiru eragileen artean aldakortasun gehien azaldu duena izan delako.

Beraz, *hiztuna* eta *aditza*rekin batera, *erdialdeko euskaldunekin harreman-maila* izan da aferesia agertzearekin edo ez agertzearekin gure corpusean lotura gehien adierazi duena. Horrek esan nahi du, gure hiztunek erdialdeko euskararekin duten harreman-mailak izan duela eragin adierazgarria, espero genuen norabidean gainera: erdialdekoekin harreman gutxien izan dutenek erabili dute bertako aldaera gehienetan. Hona hemen emaitza taula batean bilduta:

| | **Aferesia bai** | | | |
|---|---|---|---|---|
| Input probabilitatea | 0,63 | | | |
| N guztira | 1468 | | | |
| Desbideratzea | 1195,41 | | | |
| | *e.p.* | *log-odds* | *%* | *N* |
| **ErdialdeHarremana** | p. < 0,000905 | | | |
| apala | 0,73 | 1,00 | 71 | 511 |
| ertaina | 0,51 | 0,05 | 56 | 560 |
| altua | 0,26 | -1,05 | 39 | 397 |
| **Generoa** | ez da adierazgarria | | | |
| emakumezkoa | [0,58] | [0,31] | 63 | 720 |
| gizonezkoa | [0,42] | [-0,31] | 50 | 748 |
| **AurretikBokalKonts** | ez da adierazgarria | | | |
| bokal | [0,50] | [0,00] | 59 | 798 |
| kontsonante | [0,50] | [-0,00] | 54 | 670 |
| **Hiztuna** | aleatorioa (random) | | | |
| **Aditza** | aleatorioa (random) | | | |

4.10. taula: aferesiaren analisiaren emaitza.

*Generoa* ez da adierazgarria izan, ezta *AurretikBokalKonts* izendatu dugun hizkuntza-eragilea ere. 4.10. taulan ikusten den bezala, aferesia gertatzea posible duen aditzaren aurretik bokala edo kontsonantea egoteak ez du eraginik adierazi (*e.p.* erdi-erdian zegoen, eta berdin *log-odds*-en eskalan ere). *Generoa*ri dagokionez, emakumezkoa da aferesia gehien erabili duena, hipotesietan kontrakoa espero bagenuen ere. Dena den, emaitza ez da estatistikoki adierazgarria izan.

*Aditza* hizkuntza-eragilearen datuak emango ditugu 4.11. taulan (*hiztuna* eragilearen emaitzak ez ditugu tauletan emango, ez direlako batere argigarriak guretzat). Bertan ikus daiteke aditz batzuk aferesia erabiltzearekin oso lotuta daudela (*esan*, *etorri*, *eman* batez ere, eta *ekarri* hein txikiagoan), eta beste batzuk aferesia ez erabiltzearekin dutela lotura (*ikusi* eta batez ere *izan* eta *ibili*). Beraz, *e-* bokalaz hasten diren aditzetan gehiagotan gertatu da aferesia hasieran *i-* dutenetan baino:

| **Aditza** | *aferesia bai* | *%* |
|---|---|---|
| etorri | 175 | 90 |
| esan | 353 | 89 |
| eman | 96 | 83 |
| ekarri | 33 | 85 |
| ikusi | 43 | 43 |
| izan | 118 | 25 |
| ibili | 13 | 9 |

4.11. taula: aferesiaren erabilera aztertutako aditzetan.

*Erdialdekoekin harreman-maila* eragilearekin korrelazionatuak daude adina eta ikasketa-maila, eta horregatik ez dira goiko analisiko emaitzetan agertzen. Aparteko analisi banatan, adina eta ikasketa-maila aztertzen baditugu, eragile horiek ere adierazgarriak direla ikusten da. Gainera, formulatutako hipotesiak betetzen dira: adinekoek eta ikasketa-maila apala dutenek erabili dituzte bertako aldaerak gehien:

| | *e.p.* | *log-odds* | *%* | *N* |
|---|---|---|---|---|
| **Adina** | p. < 0,00116 | | | |
| adinekoa | 0,68 | 0,74 | 64 | 834 |
| gaztea | 0,32 | -0,74 | 47 | 634 |
| **Ikasketa-maila** | p. < 0,0302 | | | |
| apala | 0,72 | 0,93 | 68 | 463 |
| ertaina | 0,43 | -0,30 | 54 | 712 |
| altua | 0,35 | -0,63 | 46 | 293 |

4.12. taula: aferesiaren analisia, *adina* eta *ikasketa-maila*ren arabera.

Datuak hiztunka xehetu ditugu hurrena, eta hiztun bakoitzak gure corpusean egin duen aferesiaren erabilera azaltzen da ondorengo irudietan. Genero eta adinaren arabera banatu ditugu hiztunak, lau multzotan: emakumezko adinekoak, gizonezko adinekoak, emakumezko gazteak eta gizonezko gazteak.









4.2. irudia: aferesiaren erabileraren proportzioak, adina eta generoaren arabera.

Irudi hauetan ikusten da, batetik, adineko emakumezkoek oso talde homogeneoa osatzen dutela: denek erabili dute aferesia maila altuan, % 60-81 tartean. Bestalde, gizonezko gazteak oso heterogeneoak dira; batzuek askotan erabiltzen dute aferesia eta beste batzuek oso gutxitan. Orokorrean, joera bat ikusten da: adinekoek gazteek baino gehiago erabiltzen dute aferesia eta emakumezkoek gizonezkoek baino gehiago, baina badira salpuespenak. Ikus 4.13. taula, non batezbestekoak eta desbideratze estandarrak agertzen diren:

| | batezbestekoa | desbideratzea |
|---|---|---|
| Emakumezko adinekoak | 71,8 | 8,4 |
| Gizonezko adinekoak | 58,1 | 13,6 |
| Emakumezko gaztea | 49,5 | 11,1 |
| Gizonezko gaztea | 41,6 | 18,0 |

4.13. taula: aferesiaren batezbestekoa eta desbideratzea adina eta generoaren arabera.

Generoa eta adina kontuan hartzen dituen irudi batean adieraziko dira emaitzak jarraian. 4.3. irudian ikusten da adinekoek gehiagotan erabili dutela aferesia gazteek baino, batez ere, emakumeek (borobilen tamainak aferesiaren erabileraren batezbestekoa handia den edo txikia den adierazten du):




4.3. irudia: aferesiaren erabilera adina eta generoaren arabera.

Adina eta ikasketa-maila, biak kontuan hartuz gero ere, adinekoak dira aferesia gehien erabili dutenak. Grafiko honetan espero genuena ikusten dugu: gazteen artean ikasketa-maila altua dutenek aferesia gutxiago erabili dutela. Horretaz gain, azpimarragarria da ikasketa-maila ertaineko gazteek eta ikasketa-maila bereko adinekoek aferesia maila beretsutan erabiltzen dutela. Ikasketa-maila apaleko adinekoak dira aferesia gehien erabili dutenak:




4.4. irudia: aferesiaren erabilera adina eta ikasketa-mailaren arabera.

Hurrengo irudian, berriz ere, emakumeek erabili dutela aferesia gehiagotan ikusten da, ikasketa-maila apala, ertaina nahiz altua izan. Generoen arteko alderik handiena ikasketa-maila altua duten hiztunen artean ikusten da:




4.5. irudia: aferesiaren erabilera generoa eta ikasketa-mailaren arabera.

### 4.5.2. *y* eta *j* hotsak

Hizkuntza-aldagai honetan bi aldaeretako bat da nagusi Goizuetako hiztunen corpusean: *y* (/j/) hotsa erabili dute nabarmen *j* (/x/) hotsaren aldean. Zehazki, 685 adibidetatik 19tan bakarrik erabili da *j*. Beraz, aferesian ez bezala, datu irregularrak dira hemengoak, 4.14. taulan ikusten den bezala:

| | ***y* aldaeraren erabilera** | | | |
|---|---|---|---|---|
| Input prob. | 1 | | | |
| N guztira | 685 | | | |
| Desbideratzea | 73,66 | | | |
| | *e.p.* | *log-odds* | *%* | *N* |
| **Ikasketa-maila** | p. < 0,0365 | | | |
| apala | > 0,999 | 13,60 | 100 | 185 |
| altua | 0,002 | -6,10 | 97 | 174 |
| ertaina | 0,001 | -7,50 | 96 | 326 |
| **JoeraYoera** | p. < 0,000321 | | | |
| yoera | 0,999 | 6,68 | 100 | 496 |
| joera | 0,001 | -6,68 | 91 | 189 |
| **Generoa** | ez da adierazgarria | | | |
| emakumezkoa | [0,64] | [0,58] | 98 | 303 |
| gizonezkoa | [0,36] | [-0,58] | 97 | 382 |
| **Hiztuna** | aleatorioa (random) | | | |
| **Hitza** | aleatorioa (random) | | | |

4.14. taula: *y* eta *j* hotsen analisia.

Input probabilitateak adierazten du ia %100eko aukera dagoela menpeko aldagaia erabiltzeko, *y* hotsa kasu honetan. Dena den, eragiketak egin ahal izan dira, eta ikasketa-mailaren eragina adierazgarria dela erakutsi du analisiak[17]. *Apala, ertaina, altua* hurrenkera espero genuen, baina horren ordez, *apala, altua, ertaina* ikusten da taulan. Kontuan hartu, dena den, altua eta ertainaren balioak berdintsuak direla. *JoeraYoera* hizkuntza-eragilea ere adierazgarria da eta horrek erakusten du gure hasierako intuizioa bete dela: *y* hotsa erabiltzeko joera erakutsiko zutela pentsatu genuen hitzetan *y* hotsa erabili dute hiztunek gehienetan, eta *j* hotsa erabiltzea espero genuen hitzetan hala erabili da askotan. Taula honetan adierazi dira *y* eta *j* hotsen erabilerak, eta egindako hipotesia eskuineko zutabean (zein joera espero genuen, *y* egitea edo *j*):

| ***y* eta *j* hotsen erabilera** | | | | **JoeraYoera** |
|---|---|---|---|---|
| **Hitza** | *y* | *j* | % | |
| jabetu | 1 | 0 | 100 | /j/ ahoskatzea |
| jaiki | 4 | 0 | 100 | /j/ ahoskatzea |
| jaitsi | 21 | 0 | 100 | /j/ ahoskatzea |
| jakin | 24 | 0 | 100 | /j/ ahoskatzea |
| jan | 29 | 0 | 100 | /j/ ahoskatzea |
| jantzi | 6 | 0 | 100 | /j/ ahoskatzea |
| jaso | 1 | 0 | 100 | /j/ ahoskatzea |
| jetzi | 2 | 0 | 100 | /j/ ahoskatzea |
| jo | 25 | 0 | 100 | /j/ ahoskatzea |
| joan | 325 | 0 | 100 | /j/ ahoskatzea |
| joare | 1 | 0 | 100 | /j/ ahoskatzea |
| joera | 1 | 0 | 100 | /j/ ahoskatzea |
| joko | 3 | 0 | 100 | /j/ ahoskatzea |
| jornal | 4 | 0 | 100 | /j/ ahoskatzea |
| jorra | 11 | 0 | 100 | /j/ ahoskatzea |
| jostatu | 2 | 0 | 100 | /j/ ahoskatzea |
| jende | 135 | 3 | 98 | /j/ ahoskatzea |
| jaio | 34 | 2 | 94 | /j/ ahoskatzea |
| jarri | 29 | 4 | 88 | /j/ ahoskatzea |
| jai | 8 | 3 | 73 | /x/ ahoskatzea |
| jatetxe | 0 | 2 | 0 | /j/ ahoskatzea |
| jator | 0 | 4 | 0 | /x/ ahoskatzea |
| jaungoiko | 0 | 1 | 0 | /x/ ahoskatzea |

4.15. taula: *y* eta *j* hotsen erabilera aztertutako hitzetan.

17 Kasu honetan, *ikasketa-maila* aztertu dugu (eta ez *adina* eta *erdialdekoekin harreman-maila*), korrelazionatutako hiru eragileen artean aldakortasun gehien azaldu duena izan delako.

4.15. taulan ikusten dugu, espero bezala, hitz gehienek *y* erabiltzeko joera erakutsi dutela, baina baita espero ez genuen hitz batzuk *j* erabili dutela ere. *Jai*, *jator* eta *jaungoiko* hitzen kasuan, hala espero genuen, baina ez *jende*, *jaio*, *jarri* eta *jatetxe* hitzen kasuan (hala ere, kontuan hartu oso adibide gutxi ditugula hitz askotan eta, beraz, ezin dela ondorio orokorrik atera).

Generoa ez da adierazgarria izan. Eta hemen ere, hipotesia bete ez den arren (aferesian gertatu den bezala, emakumezkoak izan dira bertako aldaera gehien erabili dutenak), gizonezkoen erabileraren ondoan aldea oso-oso txikia da; *y / j*-ren erabilera guztien % 98an egin dute *y* emakumeek, eta % 97an gizonezkoek.

Adina eta erdialdekoekin harreman-maila aztertzen baditugu, hipotesietan espero genuena betetzen da: adinekoek eta erdialdekoekin harreman-maila apala dutenek erabili dute *y* gehien, emaitza adierazgarria ez bada ere. Ondorengo taulan bildu ditugu emaitza horiek:

| | *e.p.* | *log-odds* | *%* | *N* |
|---|---|---|---|---|
| **Adina** | ez da adierazgarria | | | |
| adinekoa | [0,85] | [1,69] | 98 | 367 |
| gaztea | [0,15] | [-1,69] | 97 | 318 |
| **ErdialdeHarremana** | ez da adierazgarria | | | |
| apala | [0,93] | [2,52] | 99 | 197 |
| ertaina | [0,44] | [-0,26] | 97 | 247 |
| altua | [0,10] | [-2,26] | 96 | 241 |

4.16. taula: *y* eta *j* hotsen analisia, adina eta erdialdekoekin harreman-mailaren arabera.

*Y / j* hizkuntza-aldagaian aurkitu dugun *y* erabiltzearen aldeko desoreka irudien bidez argi ikusten da:




4.6. irudia: *y* aldaeraren erabilera adina eta ikasketa-mailaren arabera.

Nagusi da *y* hotsaren erabilera, horregatik daude borobilak grafikoaren goialdean, grafikoak bertako aldaeratzat jo duguna hartzen duelako erreferentzia bezala. Eta zahar nahiz gazte, emakume nahiz gizon, denek erabiltzen dute. Diferentzia bat badago eta hori ere 4.6. irudian ikusten da: badirudi adinekoengan ikasketa-mailak eragin pixka bat duela, ikasketa-maila altuko adinekoak baitira *j* gehien erabili dutenak. Era berean, ikasketa-maila apaleko adinekoak dira *y* gehien erabili dutenak. Hain zuzen ere, ikasketa-mailaren eragina estatistikoki adierazgarria izan da, 4.14. taulan ikusi dugun bezala.

### 4.5.3. ***-ikan / -ik* bukaerak**

Maiztasun handiko aldagaia da hau ere; zehazki, 976 aldiz agertu da gure corpusean. Egindako analisiak dio *hiztuna* bakarrik aztertzen duen eredua dela onena, eta gainerako eragileen eragina ez dela adierazgarria (nahiz eta emaitza hobetu egiten duten). 4.17. taulan daude emaitzak xehe[18]:

| | ***-ikan* aldaeraren erabilera** | | | |
|---|---|---|---|---|
| Input probabilitatea | 0,55 | | | |
| N guztira | 976 | | | |
| Desbideratzea | 1245,58 | | | |
| | *e.p.* | *log-odds* | *%* | *N* |
| **Generoa** | ez da adierazgarria | | | |
| emakumezkoa | [0,53] | [0,12] | 53 | 440 |
| gizonezkoa | [0,47] | [-0,12] | 50 | 536 |
| **Adina** | ez da adierazgarria | | | |
| gaztea | [0,57] | [0,26] | 56 | 480 |
| adinekoa | [0,44] | [-0,26] | 47 | 496 |
| **Ikasketa-maila** | ez da adierazgarria | | | |
| altua | [0,60] | [0,41] | 61 | 463 |
| ertaina | [0,54] | [0,15] | 55 | 712 |
| apala | [0,36] | [-0,57] | 39 | 293 |
| **ErdialdeHarremana** | ez da adierazgarria | | | |
| altua | [0,61] | [0,47] | 60 | 349 |
| ertaina | [0,52] | [0,09] | 53 | 353 |
| apala | [0,37] | [-0,55] | 38 | 274 |
| **Hiztuna** | aleatorioa (random) | | | |

4.17. taula: *-ikan / -ik* hizkuntza-aldagaiaren analisia.

18 Kasu honetan, korrelazionatuta dauden hiru aldagaiak (*adina, ikasketa-maila* eta *erdialdekoekin harreman-maila*) taula berean sartu ditugu, nahiz eta bakoitzarekin analisi bana egin. Hiruretatik aldakortasuna gehien azaltzen duena aukeratu nahi izan arren, hiruek oso azalpen eskasa eman dute, % 2-4 bitartean (ikus 4.9. taula).

Harrigarria da hasiera batean, hainbeste adibide izanda, emaitza adierazgarririk topatu ez izana. Horren arrazoietan sakondu nahian, hiztun taldeka aztertu ditugu emaitzak. Ondorengo irudi multzoan ikusten da hiztun batzuk besteen joeratik nabarmen aldentzen direla. Hona hemen lau grafikoak:




4.7. irudia: *-ikan* aldaeraren erabileraren proportzioak, adina eta generoaren arabera.

Emakumezko gazteak dira *-ikan* aldaera gehien erabili dutenak batezbeste (horietako batek izan ezik). Desbideratze estandarra handia da hiztun taldeka, batez ere adineko emakumezkoen eta gizonezko gazteen kasuan. Era berean, beraiek dira *-ikan* bukaera gutxien erabili dutenak batezbeste, 4.18. taulan ikusten den bezala:

| | batezbestekoa | desbideratzea |
|---|---|---|
| Emakumezko adinekoak | 44,9 | 21,5 |
| Gizonezko adinekoak | 53,9 | 11,7 |
| Emakumezko gaztea | 73,1 | 17,8 |
| Gizonezko gaztea | 51,0 | 23,3 |

4.18. taula: *-ikan* aldaeraren batezbestekoa eta desbideratzea adina eta generoaren arabera.

Datuak xeheago begiratuta, ikusi dugu badagoela joera bat adinaren arabera *-ikan* gehiago edo gutxiago erabiltzeko. Hiztunak zenbat urte dituen adierazi dugu 4.8. irudian eta bakoitzak *-ikan* zein proportziotan erabili duen markatu dugu. Bertan ikusten da zenbat eta zaharrago izan, orduan eta gutxiagotan erabili dutela *-ikan*, salbuespenak salbu. Joera horretatik aldentzen diren banakakoak erdiko marratik urrunago daude:




4.8. irudia: *-ikan* aldaeraren erabilera adinaren arabera (aldagai jarrai bezala) aztertuta.

Analisi estatistikoaren arabera gizarte-eragileak adierazgarriak ez izan arren, grafikoek hainbat joera erakusten dizkigute. Alde batetik, generoa eta adina gurutzatzen baditugu, argi ikusten da gorago esan duguna; emakume gazteek *-ikan* adineko emakumeek baino nabarmen gehiagotan erabili dutela, alegia. Era berean, gizonezko gazte eta adinekoen artean ez dago alde nabaririk.




4.9. irudia: *-ikan* bukaeraren erabilera adina eta generoaren arabera.

Ikasketa-mailari erreparatzen badiogu, zenbat eta ikasketa-maila apalagoa izan, orduan eta *-ikan* gutxiago erabili dutela ikusten dugu. Ikasketa-maila generoarekin gurutzatzen badugu, emakumeek *-ikan* gehiago erabili dutela ikusiko dugu, ikasketa-maila apala dutenek izan ezik. Kontuan hartu ikasketa-maila apala adinekoek bakarrik dutela, beraz, beraien emaitzak ari gara ikusten kasu horretan.




4.10. irudia: *-ikan* bukaeraren erabilera ikasketa-mailaren eta ikasketa-maila eta generoaren arabera.

Era berean, azpimarragarria da hizkuntza-aldagai honek erakusten duen joera: gure hipotesiak irauli ditu gizarte-eragile guztietan. Hau da, hizkuntza-aldagaiak aztertzean espero duguna da bertako aldaera gehiagotan erabiliko dutela adinekoek, gizonezkoek eta ikasketa-maila apalekoek (mendebaldeko gainerako hizkuntzetan hori da joera). Orain arte aztertu ditugun hizkuntza-aldagai batzuetan generoarekin hala gertatu da (aferesian eta *y / j* hotsean), eta *-ikan / -ik* aldagaian ere emakumezkoak dira bertakoa gehien erabili dutenak. Hizkuntza-aldagai honetan, ordea, gainerako gizarte-eragileekin ere espero ez genuena pasatu da. Alegia, gazteek, ikasketa-maila altukoek eta erdialdeko euskaldunekin harreman gehien dutenek bertako aldaera erabiltzearekin lotura gehiago erakutsi dute gainerakoek baino (adinekoek, ikasketa-maila apalekoek eta erdialdekoekin harreman gutxiago dutenek baino). Hizkuntza-aldagai honen azalpenak *4.3.4.* puntuan ematean ere bere berezitasunak adierazi

ditugu. Bertan genioen, alde batetik, goizuetarrak bertako ezaugarritzat hartzen duela *-ikan* baina, bestetik, gure ustea dela zaharrek baino gehiago erabiltzen dutela gazteek. Horren eta hemengo emaitzetan ikusten denaren azalpena izan daiteke *-ikan* Gipuzkoatik sartzen ari dela eta, beraz, Goizuetako ezaugarri dialektala izan ordez, erdialdetik heldu den berrikuntza dela. Beraz, ezaugarri honetan, ahozko jardunean behintzat, prestigiozko eredua erdialdeko euskara dela ematen du, ez euskara batua.

### 4.5.4. Geroaldiko *-en / -go*

Geroaldiaren kasuan, *ikasketa-maila* da aldagai adierazgarri bakarra[19]. Rbruleko zenbakietan ikus daitekeenez, hizkuntza-aldagaien multzoa txiki samarra da, denera 285 adibide, baina eragiketa estatistikoa probatu nahi izan dugu. Emaitzak hauek izan dira:

| | ***-en* aldaeraren erabilera** | | | |
|---|---|---|---|---|
| Input prob. | 0,47 | | | |
| N guztira | 285 | | | |
| Desbideratzea | 237,65 | | | |
| | *e.p.* | *log-odds* | *%* | *N* |
| **Ikasketa-maila** | p. < 0,014 | | | |
| apala | 0,91 | 2,30 | 86 | 57 |
| ertaina | 0,64 | 0,59 | 58 | 180 |
| altua | 0,05 | -2,89 | 17 | 48 |
| **Generoa** | ez da adierazgarria | | | |
| gizonezkoa | [0,64] | [0,57] | 62 | 192 |
| emakumezkoa | [0,36] | [-0,57] | 46 | 93 |
| **Hiztuna** | aleatorioa (random) | | | |

4.19. taula: *-en* aldaeraren analisia.

Ditugun adibideak gutxi izanda ere, gizarte-eragile guztietan gure hipotesiak bete dira: *-en* aldaera gehiagotan erabili dute ikasketa-maila apalekoek eta gizonezkoek. Goiko analisian kontuan hartu ez dugun *adina* eragilean ere adinekoek erabili dute *-en* aldaera gehien, espero genuen bezala. Emaitza ez da estatistikoki adierazgarria adina bitan banatuta (adinekoak eta gazteak), bai, ordea, adin guztiak kontuan hartu eta aldagai jarrai bezala aztertuta (0'02 adierazgarritasun-mailarekin). Emaitzak argiagoak direlako, adinekoen eta gazteen bereizketarekin aurkeztuko dira datuak:

19 Hemen, *ikasketa-maila* aztertu dugu eta ez *adina* eta *erdialdekoekin harreman-maila*.

| | *e.p.* | *log-odds* | *%* | *N* |
|---|---|---|---|---|
| **Adina** | ez da adierazgarria | | | |
| adinekoa | [0,77] | [1,18] | 71 | 117 |
| gaztea | [0,24] | [-1,18] | 47 | 168 |

4.20. taula: *-en* analisiaren emaitza, adinaren arabera.

*Erdialdekoekin harreman-maila* aztertzen saiatuta, analisi estatistikoa ez da zuzena (gorako eta beherako pausoek ez dute bat egiten; '*step-up and step-down mismatch'* mezua agertzen da).

Horretaz gain, hizkuntza-aldagai honen adibideen arteko desorekak handi samarrak direla azpimarratu nahi dugu. Gazteek eta gizonezkoek, adibidez, beren kideek (adinekoek eta emakumezkoek) baino gehiagotan erabili dituzte geroaldiko formak gure corpusean: 168 adibide eman dituzte gazteek eta 117 adinekoek; 192 gizonezkoek eta 93 emakumezkoek. Emakumezkoen kasuan kontuan hartu behar da emakumezko bat gutxiago dugula (19tik 9 dira emakumezkoak, horien artean 5 adinekoak). Adinean ikusi dugun aldea nabarmenagoa da, gazteak gutxiago direlako adinekoak baino: 19tik 9 dira gazteak. Eta hala ere, gazteek gehiagotan erabili dute geroaldia. Ikasketa-maila ertainekoek ere gehiagotan erabili dute nabarmen, baina kasu honetan ikasketa-maila ertainekoak gehiago dira eta espero izatekoa zen hori (19 hiztunetik 9 ikasketa-maila ertainekoak, 4 altukoak eta 6 apalekoak). Laginaren diferentzia hauek gertatzen dira lagina estratifikatua delako eta Goizuetako biztanlegoarekin proportzioa mantendu dugulako hiru gizarte-eragile hauetan: adina, generoa eta ikasketa-maila.

Ondorengo grafikoetan ikasketa-maila aztertuko da batetik, eta generoa adinarekin eta ikasketa-mailarekin batera bestetik. Gure emaitzetan generoa estatistikoki adierazgarria ez bada ere, bere joeren berri ikusiko da bertan. Irudi hauetan Goizuetako aldaeratzat jo duguna hartzen da aplikazio baliotzat; kasu honetan, geroaldiko *-en*.

Analisi estatistikoak adierazi bezala, 4.11. irudian nabarmen ikusten da ikasketa-mailak baduela *-en* edo *-go* erabiltzearekin loturarik, espero genuen norabidean, gainera: zenbat eta ikasketa-maila apalagoa izan, orduan eta *-en* gehiago erabili dute hiztunek.




4.11. irudia: *-en* aldaeraren erabilera ikasketa-mailaren arabera.

Espero genuena gertatu da adina eta generoa gurutzatuta ere: gizonezkoak eta adinekoak izan dira geroaldiko *-en* gehien erabili dutenak, 4.12. irudian ikusten den bezala.




4.12. irudia: *-en* aldaeraren erabilera eta adina eta generoaren arabera.

Ikasketa-maila adinarekin gurutzatzean, espero ziren emaitzak ikusi ditugu, salbuespen batekin: ikasketa-maila altuko gazteek ikasketa-maila bereko adinekoak baino gehiagotan erabili dutela *-en*.




4.13. irudia: *-en* aldaeraren erabilera ikasketa-mailaren eta adinaren arabera.

Ikasketa-maila generoarekin gurutzatu dugunean, emaitza konplexuagoak atera zaizkigu. Alde batetik, ikasketa-maila altuko eta ertaineko emakumeek, ikasketa-maila bereko gizonek baino gehiagotan erabili dute geroaldiko *-en*. Beste aldetik, ordea, ikasketa-maila apaleko emakumezkoek gizonezkoek baino askoz ere *-en* gutxiago erabili dute. Beraz, ikasketa-maila ertain eta apaleko emakumezkoek *-en* aldaera berdintsu erabili dutela esan daiteke (taldekako batezbestekoak kontuan hartuta beti ere).




4.14. irudia: *-en* aldaeraren erabilera ikasketa-mailaren eta generoaren arabera.

### 4.5.5. *Izan / egon* lekuzko perpausetan

Hizkuntza-aldagai honen maiztasuna nahiko handia da; 533 agerpen izan ditu guztira. Analisi egokiena den honetan, *erdialdekoekin harreman-maila*[20] bakarra izan da adierazgarria, 4.21. taulan ikus daitekeen gisan:

| | ***izan* aldaeraren erabilera** | | | |
|---|---|---|---|---|
| Input probabilitatea | 0,57 | | | |
| N guztira | 533 | | | |
| Desbideratzea | 678,59 | | | |
| | *e.p.* | *log-odds* | *%* | *N* |
| **ErdialdeHarremana** | p. < 0,000192 | | | |
| apala | 0,65 | 0,60 | 70 | 164 |
| ertaina | 0,57 | 0,29 | 64 | 208 |
| altua | 0,29 | -0,88 | 39 | 161 |
| **Generoa** | ez da adierazgarria | | | |
| emakumezkoa | [0,51] | [0,03] | 59 | 229 |
| gizonezkoa | [0,49] | [-0,03] | 57 | 304 |
| **Hiztuna** | aleatorioa (random) | | | |

4.21. taula: *izan / egon* hizkuntza-aldagaiaren analisia.

Hipotesietan espero bezala, erdialdekoekin harreman-maila apalena dutenek erabili dute *izan* aldaera gehienetan, eta proportzio altuan, gainera. *Adina* eta *ikasketa-maila* eragileen kasuan ere, hipotesiak bete dira, hau da, adinekoek eta ikasketa-maila apalekoek erabili dituzte bertako aldaerak gehien. Aparteko analisi bana eginda (erdialdekoekin harreman-mailaren ordez jarrita), adina (0'00523) eta ikasketa-maila (0'0388) adierazgarriak dira. Ondorengo taulan bildu ditugu datu horiek:

| | *e.p.* | *log-odds* | *%* | *N* |
|---|---|---|---|---|
| **Adina** | p. < 0,00523 | | | |
| adinekoa | [0,62] | [0,47] | 67 | 308 |
| gaztea | [0,39] | [-0,47] | 46 | 225 |
| **Ikasketa-maila** | p. < 0,0388 | | | |
| apala | [0,64] | [0,58] | 69 | 146 |
| ertaina | [0,53] | [0,10] | 60 | 278 |
| altua | [0,34] | [-0,67] | 41 | 109 |

4.22. taula: *izan / egon* hizkuntza-aldagaiaren analisia adina eta ikasketa-mailaren arabera.

20 Hemen, *erdialdekoekin harreman-maila* aztertu dugu (eta ez *adina* eta *ikasketa-maila*).

Adinak lotura handia du *izan* aldaeraren erabilerarekin eta, ondorengo irudian ikus daitekeenez, adinekoek gazteek baino gehiagotan erabili dute:




4.15. irudia: *izan* aldaeraren erabilera adinaren arabera.

Ikasketa-mailak ere, ondorengo irudian *izan* aldagaiarekin lotura erakusten du. Espero genuen bezala, zenbat eta ikasketa-maila apalagoa izan, orduan eta gehiago erabili dute *izan*, bertako aldaera:




4.16. irudia: *izan* aldaeraren erabilera ikasketa-mailaren arabera.

### 4.5.6. ***Edun / eduki***

Hizkuntza-aldagai honen maiztasuna aurrekoena baino txikiagoa da; 207 agerpen izan ditu gure corpusean guztira. Beharbada horregatik, analisi estatistikoa ez da adierazgarria izan gizarte-eragile bakar batekin ere. Erdialdekoekin harreman-mailak[21], gainera, hurrenkera arraroa eman du (*ertaina, apala, altua*), 25. taulan ikusten den bezala:

| | ***edun* aldaeraren erabilera** | | | |
|---|---|---|---|---|
| Input probabilitatea | 0,83 | | | |
| N guztira | 207 | | | |
| Desbideratzea | 197,5 | | | |
| | *e.p.* | *log-odds* | *%* | *N* |
| **ErdialdeHarremana** | ez da adierazgarria | | | |
| ertaina | [0,62] | [0,50] | 89 | 73 |
| apala | [0,55] | [0,19] | 85 | 53 |
| altua | [0,34] | [-0,69] | 69 | 81 |
| **Generoa** | ez da adierazgarria | | | |
| gizonezkoa | [0,60] | [0,41] | 87 | 111 |
| emakumezkoa | [0,40] | [-0,41] | 72 | 96 |
| **Hiztuna** | aleatorioa (random) | | | |

4.23. taula: **edun / eduki* hizkuntza-aldagaiaren analisia.

Adina eta ikasketa-maila aparteko analisi banatan aztertzen baditugu, hipotesiak betetzen direla ikusiko dugu, nahiz eta adierazgarriak ez izan; gazteek eta ikasketa-maila altukoek erabili dituzte gutxiagotan *edun* aditzaren saileko aldaerak:

| | *e.p.* | *log-odds* | *%* | *N* |
|---|---|---|---|---|
| **Adina** | ez da adierazgarria | | | |
| adinekoa | [0,52] | [0,07] | 83 | 83 |
| gaztea | [0,48] | [-0,07] | 78 | 124 |
| **Ikasketa-maila** | ez da adierazgarria | | | |
| apala | [0,55] | [0,21] | 84 | 44 |
| ertaina | [0,54] | [0,16] | 82 | 112 |
| altua | [0,41] | [-0,37] | 73 | 51 |

4.24. taula: **edun / eduki* hizkuntza-aldagaiaren analisia adina eta ikasketa-mailaren arabera.

21 Kasu honetan aldakortasun gehien azaltzeagatik analisian sartu dugun eragilea da *erdialdekoekin harreman-maila.*

Emaitzak estatistikoki adierazgarriak ez izan arren, irudiei erreparatuta, gizarte-eragileek joera interesgarriak erakusten dizkigute. Adibidez, generoaren arabera aldeak ikus ditzakegu, bai generoa bakarrik aztertzen badugu, eta bai ikasketa-mailarekin edo adinarekin gurutzatzen badugu ere. Generoa bakarrik aztertuta, gizonezkoek emakumezkoek baino gehiagotan erabili dute *edun* aldaera (% 87an gizonezkoek, % 72an emakumezkoek):




4.17. irudia: **edun* aldaeraren erabilera generoaren arabera.

Generoa ikasketa-mailarekin gurutzatuta ere, gizonezkoek ikasketa-maila guztietan emakumezkoek baino gehiagotan erabili dute bertako aldaera.




4.18. irudia: **edun* aldaeraren erabilera ikasketa-maila eta generoaren arabera.

Berezia da datuak generoaren eta adinaren arabera aztertuta ikusten dena: alde handia dago emakumezko eta gizonezko gazteen artean eta, gainera, gizonezko gazteek inork baino gehiagotan erabili dute *edun,* bertako aldaera, adinekoek baino are gehiagotan.




4.19. irudia: **edun* aldaeraren erabilera adina eta generoaren arabera.

### 4.5.7. **Kausazko *-ko(t)z / -ko***

Adibide gutxi dituen hizkuntza-aldagaia da, baina estatistikoki aztertzen saiatu gara. 100 adibidera ez da iristen (zehazki 96 ditu) eta emaitzak ezin dira orokortu. Ondorengo taulan ikusten den bezala, adibide kopurua oso modu irregularrean dago banatua: erdialdekoekin harreman-maila apala dutenek oso adibide gutxi dituzte gure corpusean (6 besterik ez), eta horiek denak *-ko(t)z* izan dira (hemendik aurrera, *-koz* adieraziko da). Harreman-maila altua dutenek, berriz, 72 adibide eman dituzte, eta horiek *-ko* bukaerak izan dira beti. Hala ere, aldea dago maila batetik bestera eta emaitza adierazgarria izan da erdialdekoekin harremana neurtzen duen eragilean; generoan ez, ordea.

| | ***-koz* aldaeraren erabilera** | | | |
|---|---|---|---|---|
| Input probabilitatea | 0,83 | | | |
| N guztira | 207 | | | |
| Desbideratzea | 197,5 | | | |
| | *e.p.* | *log-odds* | *%* | *N* |
| **ErdialdeHarremana** | p. < 0,00169 | | | |
| apala | > 0,999 | 55,10 | 100 | 6 |
| ertaina | 0,941 | 2,76 | 11 | 18 |
| altua | < 0,001 | -57,86 | 0 | 72 |
| **Generoa** | ez da adierazgarria | | | |
| gizonezkoa | [> 0,999] | [8,58] | 7 | 42 |
| emakumezkoa | [< 0,001] | [-8,58] | 9 | 54 |
| **Hiztuna** | aleatorioa (random) | | | |

4.25. taula: *-koz / -ko* hizkuntza-aldagaiaren analisia.

Adina eta ikasketa-maila ere aztertu dira aparteko analisi banatan, eta emaitzak adierazgarriak izan dira, ondorengo taulan ikusten den bezala:

| | *e.p.* | *log-odds* | *%* | *N* |
|---|---|---|---|---|
| **Adina** | p. < 7e-05 | | | |
| adinekoa | > 0,999 | 51,69 | 73 | 11 |
| gaztea | < 0,001 | -51,69 | 0 | 85 |
| **Ikasketa-maila** | p. < 0,00845 | | | |
| apala | > 0,999 | 32,77 | 100 | 5 |
| ertaina | < 0,001 | -8,15 | 0,1 | 46 |
| altua | < 0,001 | -24,63 | 0 | 45 |

4.26. taula: *-koz / -ko* hizkuntza-aldagaiaren analisia adina eta ikasketa-mailaren arabera.

Irudiak egin dira egoera hobeki ulertzeko eta ikusi dugu bereizketa nabaria dagoela hizkuntza-aldagai honen erabileran: adineko guztiek (adineko emakumezko gazteenak izan ezik, era berean, ikasketa-maila altua duenak) beti *-koz* erabili dute, eta gazte guztiek beti *-ko*. Emaitzak modu orekatuan banatuak ez egoteak analisi estatistikoa egitea zaildu du ziurrenik. Ondorengo irudia emaitza irregularren erakusgarri da:




4.20. irudia: *-koz* bukaeraren erabilera adina eta generoaren arabera.

Dena den, grafikoak ere engainagarriak izan daitezke datu egokiekin osatuak ez badaude. Aztertzen ari garen *-koz / -ko* datuekin gertatzen dena horren erakusle da: 10 adinekotatik emakumezko bakarrak (bostetik batek) erabili du *-ko*, eta honek beste adineko emakumezkoek baino gehiagotan erabili du. Horrela, emakumezkoen *-koz* aldaeraren erabilera nahikoa apala dela ikusten da grafikoan, nahiz eta bost emakumezkoetatik lauk beti erabili duten. Horregatik da garrantzitsua adierazgarritasuna: analisiak esan digu generoaren emaitza ez dela estatistikoki adierazgarria.

### 4.5.8. **Lexikoa**

Lexikoan 10 hizkuntza-aldagai aztertu ditugu eta oso talde heterogeneoa dela ikusi dugu. Alde batetik, oso maiztasun desberdinak dituzte gure corpusean eta, beste alde batetik, hizkuntza-aldaeren banaketa desberdina da.

Hizkuntza-aldagai batean aldaeren banaketa desberdina dela diogu, bai bertako aldaera oso gutxitan erabiltzen denean eta, alderantziz, baita bertako aldaera askotan erabiltzen denean ere. Horrela, lexikoan *bertakoa* izendatu dugun aldaera oso gutxitan erabili dutenak daude (adibidez, *arrunt, benpe* eta *eskuara*), eta gehienetan bertako aldaera erabiltzen dutenak baita ere (*bakotxa, biño, deus, eztikit, patu* eta *zerbette*). Ondorengo taulan bildu ditugu balio horiek guztiak:

| **Hizkuntza-aldagaiak** | guztira *N* | bertakoa *N* | bertakoa % |
|---|---|---|---|
| arrunt_oso | 149 | 19 | 13 |
| bakotxa_bakoitza | 35 | 25 | 71 |
| benpe_behintzat | 120 | 24 | 20 |
| biño_baño | 877 | 852 | 97 |
| deus_ezer | 67 | 66 | 99 |
| eskuara_euskera | 357 | 29 | 8 |
| eztikit_eztakit | 434 | 313 | 72 |
| gunun_giñun | 154 | 69 | 45 |
| patu_jarri | 64 | 58 | 91 |
| zerbette_zeoze | 83 | 57 | 69 |
| *guztira* | 2340 | 1512 | 65 |

4.27. taula: hizkuntza-aldagai lexikoen erabilera.

Aldaeren banaketa irregularraz gain, hizkuntza-aldagai batzuk adibide asko dituzte (*biño / baño, eskuara / euskera* eta *eztikit / eztakit*) eta gainerakoek gutxi; estatistika eragiketak modu egokian egiteko kopuru apalegia. Muga horiek aldagai lexiko guztiak elkarrekin bilduta saihestu nahi izan dira. Lexiko guztia elkarrekin bilduta, elkarrekin joerarik erakusten ote duten ikusi ahal izango dugu. Esan dugun bezala, talde heterogeneoa da, eta heterogeneotasun hori kontuan hartzeko, hizkuntza-aldagai bakoitzaren eragina bereiz aztertuko da, analisian "aleatorio" bezala jarrita (*hiztuna* aldagaiarekin egin bezala).

Eragiketa estatistikoko emaitza argia izan da: adinak[22] lotura handia erakutsi du lexikoaren erabilerarekin. Adina izan da estatistikoki adierazgarri eragiketaren pauso onenean, 4.28. taulak erakusten duen bezala:

| | ***bertako lexikoa* aldaeraren erabilera** | | | |
|---|---|---|---|---|
| Input probabilitatea | 0,76 | | | |
| N guztira | 2340 | | | |
| Desbideratzea | 1216,6 | | | |
| | *e.p.* | *log-odds* | *%* | *N* |
| **Adina** | p. < 7,38e-06 | | | |
| adinekoa | 0,86 | 1,78 | 79 | 895 |
| gaztea | 0,15 | -1,78 | 56 | 1445 |
| **Generoa** | ez da adierazgarria | | | |
| gizonezkoa | [0,57] | [0,29] | 64 | 1200 |
| emakumezkoa | [0,43] | [-0,29] | 65 | 1140 |
| **Hiztuna** | aleatorioa (random) | | | |
| **AldagaiLexikoa** | aleatorioa (random) | | | |

4.28. taula: lexikoaren analisia.

22 Kasu honetan, adina eta erdialdekoekin harreman-maila, biek aldakortasuna maila beretsuan azaldu dute (batek % 10, eta besteak % 11 azaldu du). Horregatik, bakoitzarekin analisi bana egin dugu. Biak adierazgarri agertu dira, baina adinak emaitza hobea eman duenez, bere datuen analisia erabili dugu.

Generoan emaitza ez da adierazgarria izan eta, gizonezkoek, hipotesietan espero bezala, emakumezkoek baino gehiago erabili badute ere bertako lexikoa, diferentzia hori oso txikia da; % 1ekoa besterik ez. Bestalde, ikasketa-maila eta erdialdekoekin harreman-maila aparteko analisi banatan aztertu dira, generoarekin, hiztunarekin eta aldagai lexikoarekin batera. Eta emaitzak adierazgarriak izan dira, bai ikasketa-mailan (0'000728) eta baita erdialdekoekin harreman-mailan ere (0'00037). Hona hemen datuak:

| | *e.p.* | *log-odds* | *%* | *N* |
|---|---|---|---|---|
| **Ikasketa-maila** | p. < 0,00728 | | | |
| apala | 0,89 | 2,06 | 84 | 468 |
| ertaina | 0,33 | -0,71 | 61 | 1255 |
| altua | 0,21 | -1,35 | 56 | 617 |
| **ErdialdeHarremana** | p. < 0,00037 | | | |
| apala | 0,91 | 2,31 | 87 | 497 |
| ertaina | 0,36 | -0,59 | 62 | 892 |
| altua | 0,15 | -1,72 | 56 | 951 |

4.29. taula: lexikoaren analisia ikasketa-maila eta erdialdekoekin harreman-mailaren arabera.

Taulan ikusten den bezala, espero ziren hipotesiak bete dira hemen ere: ikasketa-maila eta erdialdekoekin harreman-maila apala dutenek erabili dute bertako lexikoa gehien. Eta gainerako mailak ere espero ziren hurrenkeran joan dira, hau da, maila ertaina duenak bertako lexikoa gutxiago erabili du eta apala duenak oraindik gutxiago.

- Lexikoko emaitzak, hiztunaren barne-aldakortasunari erreparatuta

Hiztun batzuek lexikoko aldaera bat erabili dute beti gure corpusean. Ez dakigu zergatik den hori, lexikoan adibide gutxi direlako edo lexikoko hizkuntza-aldagaietan joera dagoelako hitz bat edo beste erabiltzeko (eta ez biek batera). Egoera honengatik, hiztun bakoitzaren emaitzak xeheago aztertu nahi ditugu. Hasteko, hizkuntza-aldagai lexikoen erabilera biltzen duen irudia aurkezten dugu, gehien erabili dena ezkerrean, eta gutxien erabili dena eskuinean jarriz (balio absolutuak eta ehunekoak ikusteko, jo 4.27. taulara):




4.21. irudia: bertako lexikoaren erabilera, hizkuntza-aldagaika.

Irudian argi ikusten da hizkuntza-aldagai batzuetan bertako aldaera dela nagusi (*deus, biño, patu*...) eta, beste batzuetan, bertako aldaera oso gutxitan erabiltzen dela (*benpe, arrunt* eta *eskuara* bereziki). Erabilera orokorra hori izanda, hiztun bakoitzak hizkuntza-aldagai lexiko guztiak zenbatean erabili dituzten aurkeztuko dugu ondorengo grafikoetan. Grafiko horiek aztertu dugun lexikoaren bertako aldaeren eta aldaera berriagoen[23] erabilera guztien ehunekoak biltzen dituzte, emaitzak hiztunka banatuta.

Adinekoen artean bereizketa bat egingo dugu lexikoan, ikusiko den bezala, alde nabarmenak daudelako bi talderen artean. Bi talde horiek dira, batetik, 60-65 urte bitartekoak eta, bestetik, 80-90 bitartekoak (ikus *4.4.2.* puntua). 60-65 bitartekoei *helduak* deitu diegu, hizki bakar batekin *(h)* adierazi ahal izateko.

Adinekoekin eta helduekin hasita, lexiko berria gehien erabili dutenak helduak izan direla ikusten da (*eh1, eh5, gh2*), bereziki ikasketa-maila altuko emakumezkoak *(eh1).* Zehazki, lexikoa erabili duen adibide guztien % 44a "lexiko berria" izendatu duguna izan da. Gizon helduen artean ere, ikasketa-mailak bertako lexikoaren erabilerarekin lotura duela dirudi, ikasketa-maila ertaina duen gizonezkoa baita *gh2.* Heldua den beste gizonezkoak (*gh5)*, ikasketa-maila apala duenak, adineko gizonezkoen emaitzen parekoa eman du, % 15-18 tartekoa. Adineko emakumezkoek erabili dute gutxien lexiko berria, % 3-11 artean.

23 Nahita ez dugu *bertako* vs. *kanpoko* terminologia erabili, goizuetarrentzat ez baita lexiko arrotza hemen aztergai duguna.

Azpimarratzekoa da salto nabarmena dagoela adineko hiztunen emaitzetatik helduenera, kontuan hartuta *heldu* izendatu ditugunak, 60-65 urte bitartekoak direla eta adinekoetara ez dagoela hainbesteko aldea (80tik 90era bitartekoak dira). 4.22. irudian ikusten da hemen azaldutakoa. Emakumezkoak dira irudian ezkerretik hasi eta aurreneko bostak (*eh1, ea2, ea3, ea4, eh5*) eta gizonezkoak gainerako bostak (*ga1, gh2, ga3, ga4, gh5*):




4.22. irudia: lexikoaren erabilera hiztun adindun eta helduengan.

Gazteen erabilerari begiratzen badiogu, lexiko berriaren erabilera altuagoa dela ikusten da, oro har. Emakumezko gazte bat da salbuespena, ikasketa-maila altua duena, gainera (*eg2*). Beste gazteak paretsu dabiltza, % 40-55en bueltan, 4.23. irudian ikusten den bezala. Hemen ere, irudian, emakumezkoak daude ezkerretik hasita aurrena (*eg1, eg2, eg3, eg4*) eta gizonezkoak ondotik (*gg1, gg2, gg3, gg4, gg5*):




4.23. irudia: lexikoaren erabilera hiztun gazteengan.

Hori guztia esanda, lexikoko hizkuntza-aldagaiak banaka aztertuko ditugu jarraian, emaitzak xeheago aurkeztu nahian.

### 4.5.9. ***Arrunt / oso***

Hizkuntza-aldagai honen maiztasuna txikia da; 150 agerpen izan ditu guztira, baina analisi estatistikoa egin ahal izan dugu. Hemen adina aldagai jarrai bezala aztertuta, bera izan da emaitza adierazgarria erakutsi duen bakarra (0'0319 adierazkortasun-mailarekin). Hipotetizatu bezala, gazteek bertako aldaera gutxiago erabili dituzte.

Adina (jarraia) aldagaia bakarrik agertu arren adierazgarri, ondorengo irudietan generoak, adinak eta goizuetarrek erdialdekoekin duten harremanak ere joera interesgarriak erakusten dizkigute:




4.24. irudia: *arrunt* adberbioaren erabilera generoaren eta adinaren arabera.

Irudi honen arabera, adineko emakumezkoek erabili dute *arrunt* gehienetan, gizonezkoekiko alde nabarmenarekin, eta emakumezko gazteek eta gizonezkoek (gazte nahiz adineko) kopuru beretsutan erabili dute.




4.25. irudia: *arrunt* adberbioaren erabilera generoaren eta erdialdekoekin harreman-mailaren arabera.

Beste irudi honen arabera, erdialdekoekin harreman-mailaren hipotesia bete da bi generoetarako: zenbat eta harreman handiagoa izan erdialdeko euskaldunekin, *arrunt* aldaeraren orduan eta erabilera apalagoa egin dute.

### 4.5.10. ***Bakotxa / bakoitza***

35 adibide besterik ez dugu bildu, eta gainera, ez dute hiztun guztiek erabili corpusean, 19 hiztunetatik 14k bakarrik. Gizarte-eragile gutxi batzuekin analisi estatistikoa eginda ere, ez da gizarte-eragile bakarrik atera adierazgarri. Hala ere, adina eta generoa gurutzatuz grafikoa eginda, hizkuntza-aldagai honen erabilerari buruzko argazki bat lor dezakegu, beti ere kontuan hartuta 35 adibiderekin bakarrik ateratakoa dela:




4.26. irudia: *bakotxa* adberbioaren erabilera adinaren eta generoaren arabera.

Emakume gazteek erabili dute gutxien *bakotxa*, adin bereko mutilek baino askoz gutxiago. Adin-tarteak hirutan banatzen baditugu, emaitzak are interesgarriagoak dira, izan ere, badirudi adineko guztiek ez dutela berdin erabiltzen. Hamar adinekoen multzoan bi emakume eta bi gizon 60-65 urte bitartekoak dira, eta hauek askotan adin gehiagokoen joeretatik aldentzen dira. Hara zer ikusten den hiru adin multzo egiten badugu (65etik goitiko adinekoak, 60-65 bitarteko adinekoak, eta gazteak):




4.27. irudia: *bakotxa* adberbioaren erabilera adinaren (hiru multzotan) eta generoaren arabera.

### 4.5.11. ***Benpe, bede / behintzat***

Hizkuntza-aldagai honen 120 adibide ditugu gure corpusean, eta haietatik 23 izan dira *benpe* edo *bede*. Esan behar da, espero ez bagenuen ere, *benpe* dela normalean erabili dena, eta ez *bede* (behin bakarrik agertu da). Kasu honetan ere, adina eragilea adierazgarria dela esan digu programak (0'000318). Adina eta generoa gurutzatuz grafikoa eginda, hizkuntza-aldagai honen erabileraren argazkia hauxe da:




4.28. irudia: *benpe* adberbioaren erabilera adinaren eta generoaren arabera.

Xeheago begiratuz gero, ikusten da gazteen artean gizonezko bakarrak erabili duela *benpe* aldaera. Adinekoen artean, seik beti erabili dute, batek gehienetan eta bik inoiz ez, *behintzat* erabili dute beti[24].

24 Bigarren hiztuna ez da irudian agertzen ez duelako adibiderik eman.




4.29. irudia: *benpe* adberbioaren erabilera adinaren eta generoaren arabera, hiztunka.

### 4.5.12. ***Biño / baño***

877 adibide ditu gure corpusean hizkuntza-aldagai honek. Asko dira, baina *baño* gutxitan agertu da, zehazki, 25 aldiz eta hiru hiztunen ahotan bakarrik. Esan behar da hiru horiek gazteak direla, bi neska eta mutil bat. Neska batek elkarrizketaren hasieran bakarrik erabili du *baño*, beste neskak *biño* aldaerarekin nahasian, beti ere *biño* gehiagotan erabiliz, eta mutilak behin bakarrik erabili du *baño*.

25 adibide horietan, gainera, beti erdialdeko euskarakoa den *baño* aldaera agertu da, inoiz ere ez euskara batuko *baña*. Beraz, hizkuntza-aldagai honetan aldaketaren norabidea erdialdeko euskarak eragina dela dirudi, eta ez euskara batuak.

Aldakortasuna aztertzerakoan estatistikoki emaitza egokiak lortzeko, gutxieneko adibide kopurua izateaz gain, beharrezkoa da hizkuntza-aldagaiak gutxieneko aldakortasun bat izatea, hau da, hiztun askok erabiltzea bi aldaerak. Kasu honetan azken baldintza hori ez da bete, baina adibide kopuru handia izan da. Horrela, analisi estatistikoa egin ahal izan da, baina ez da eragile adierazgarririk agertu.

Grafikoen bidez, puntu honen hasieran aipatu duguna ikusten da: emakumezko gazteek erabili dute *biño* gutxiagotan.




4.30. irudia: *biño* adberbioaren erabilera generoaren eta adinaren arabera.

Adina ikasketa-mailarekin edo erdialdekoen harreman-mailarekin gurutzatzen badugu, emaitza antzekoa da. Eta hipotesiak bete dira: ikasketa-maila altuko gazteek eta erdialdekoekin harreman-maila altua duten gazteek gutxixeago erabili dute *biño*.




4.31. irudia: *biño* adberbioaren erabilera adinaren eta ikasketa-mailaren arabera eta adinaren eta erdialdekoekiko harremanaren arabera.

### 4.5.13. ***Deus / ezer***

67 adibide ditugu hizkuntza-aldagai honetarako gure corpusean eta, horien artean, behin bakarrik erabili da *ezer.* Beraz, ezin hemendik hori baino emaitza gehiago atera. Adibide bakar hori, gainera, berehala "zuzendu" da, *ezer* esan eta segituan *deus* esanda:

miño ez nitela *ezer*, *deus* ulertzen, enteintzen (GGZE1O).

Azpimarratzekoa da, dena den, adibide hau eman duena emakumezko gazte bat izan dela, ikasketa-maila altukoa, beste hizkuntza-aldagai batzuetan ere berritzaile agertu dena.

### 4.5.14. ***Eskuara / euskara, euskera***

Kopuru aldetik, badirudi nahikoa adibide badirela hizkuntza-aldagai honetan analisi estatistikoa egiteko, 357 zehazki. *Biño / baño* hizkuntza-aldagaian gertatu zaigun bezala, ordea, maiztasuna badugu, baina aldaeren erabilera ez da orekatua: *eskuara* aldaera oso gutxik erabili dute, adineko batzuk bakarrik. Hain zuzen ere, hiru emakumek eta bi gizonek (gizonetako batek ez du adibiderik eman, beraz, ezin jakin zer erabiliko lukeen). Horregatik, analisi estatistikoa egitea ezinezkoa izan da; erroreak eta konparagarri ez diren emaitzak atera dira (*mismatched*).

Baina zer gertatuko litzateke *euskara* eta *euskera* aldaeren arteko aldakortasuna aztertuko bagenu? Kasu honetan 100 adibide gutxiago ditugu, 257, batetik, *eskuara* moldekoak eta, bestetik, *euskera* edo *euskara* den jakin ezin ditugunak (*euskalduna, Euskal Herria, Euskal Telebista*...) kendu ditugulako adibide zerrendatik. Irudiei erreparatuz gero, oso joera desberdinak ikusten dira: batetik, adinekoen eta gazteen artean ez dago diferentziarik datu guztiak batera bilduta; bestetik, datuak adina eta generoaren arabera banatuta, aldaketa oso handia dago batzuen eta besteen artean.




4.32. irudia: *euskara* moldeko hitzen erabilera *euskera* moldekoekin konparatuta, adinaren arabera eta generoaren eta adinaren arabera.

Kontuan hartu behar da *eskuara* aldaera bakarrik erabili duten hiztunak ez direla datu hauetan ageri. Gainera, adibide kopurua ez da altua (257) eta adinekoek oso adibide gutxi eman dituzte emaitzak fidagarriak izateko (43 bakarrik). Emaitzak hiztunka begiratuta, aldaketa handiak ikusten dira hiztunetik hiztunera: batzuk *eskuara* bakarrik erabiltzen dute (adineko batzuk) eta beste batzuk inoiz ez (adineko batzuk eta gazte guztiek). *Euskara* eta *euskera* erabiltzen dituztenen artean, batzuk aldaera baten alde egiten dute nabarmen. Emakumezko gazteek, adibidez, *euskara* erabiltzen dute beti, batek izan ezik (*eg2*-k beti *euskera*). Gizonezko gazteen artean, bik ia beti erabiltzen dute *euskara* (*eg1, eg4*) eta *euskera* da nagusi gainerako hiruren adibide ugarietan (*gg2, gg3, gg5*); 94 aldiz erabili dute *euskera* (121 aldiz erabili da guztira).

Adinekoen artean, berriz, *euskera* emakumezko helduek bakarrik erabili dute; gizonezko helduek, ordea, *eskuara* erabili dute beti. *Eskuara* moldeko adibideak eta *euskara* moldekoak elkarrekin bertako aldaera bezala bilduta (vs. *euskera* moldekoak, berriagotzat jota), adinekoek lehena gehiago erabili dutela ikusten da. Izan ere, emakumezko helduak kenduta, gainerakoek *eskuara* edo *euskara* erabili dute. Ondorengo irudiak erakusten du banaketa hori:




4.33. irudia: *eskuara* eta *euskara*-ren erabilera *euskera*-rekin konparatuta, adinaren arabera.

Badirudi beraz, adinekoek dagoeneko *euskara* erabiltzen dutela *eskuara* aldaerarekin batera (baita *euskera* ere emakumezko helduek), baina ez dagoela banaketa garbirik *euskara* eta *euskera* aldaeren artean, generoaren eta adinaren arabera joera batzuk ikusten badira ere.

### 4.5.15. ***Eztikit / eztakit***

434 adibide ditu gure corpusean hizkuntza-aldagai honek. Multzo nahiko ederra da, baina hemen ere banaketa irregularra da: adineko gehienek aldaera bakarra erabili dute, *eztikit* hain zuzen ere. Bik bakarrik erabili dute *eztakit* moldeko aldaera, ikasketa-maila altuko emakumeak (adinekoen artean gaztea denak) batetik eta, harrigarriago dena, ikasketa-maila apaleko 80 urte pasako gizonak.

Analisi estatistikoa eginda, adina izan da eragile adierazgarri bakarra (0'0261), hipotesietan espero zen norabidean beti ere: gazteek gutxiago erabili dute *eztikit* bertako aldaera. Generoari dagokionez ere hipotesia bete da: emakumezkoek gutxiagotan erabili dute *eztikit* aldaera, eta berritzaileago agertu dira. Grafikoen bidez argi ikusten dira joera horiek*:*




4.34. irudia: *eztikit* moldeko adizkien erabilera generoaren eta adinaren arabera.

### 4.5.16. ***Gunun / giñun***

154 aldiz erabili da hizkuntza-aldagai hau. Analisi estatistikoa eginda, adina izan da adierazgarri hemen ere, nabarmen gainera (0'0000863).

Aldagai honetan, kasu askotan gertatu denaren alderantzizkoa ikusten da: gazteek oso adibide gutxi eman dituzte, guztira diren 154 horietatik, 26 aldiz bakarrik. Eta 26 adibide horietatik, guztiak dira *giñun* aldaerakoak, berriagotzat jo dena; hau da, corpusean ez dute *gunun* erabili. Ondorengo irudietan ikusten da, besteak beste, gazteen erabilera hori: batetik, borobilen tamainak *gunun / giñun* aldagaia gazteek gutxitan erabili dutela adierazten du, eta bestetik, marra zeroren parean egoteak *gunun* ez dutela inoiz erabili.




4.35. irudia: *gunun* moldeko **edun* aditzaren erabilera, adinaren eta generoaren arabera.




4.36. irudia: *gunun* moldeko **edun* aditzaren erabilera, adinaren eta generoaren arabera, hiztunka.

4.36. irudian ere argi ikusten da gazteek ez dutela *gunun* inoiz erabili. Bestetik, adinekoen artean gorabeherak daudela ere ederki ikusten da: batzuk beti erabili dute *gunun,* beste batzuek inoiz ere ez (lehen hiztunak kasu, beti *giñun* erabili baitu) eta beste zenbaitek batzuetan *gunun,* besteetan *giñun.* Adin-tartea hemen ere hirutan banatzen badugu, emaitzak oso argigarriak dira:




4.37. irudia: *gunun* moldeko **edun* aditzaren erabilera, adinaren (hiru multzotan) eta generoaren arabera.

Irudian ikusten da 60-65 urtekoek dagoeneko *gunun* askoz gutxiago erabili dutela, emakumeek bereziki. Zaharrenen kasuan, 80 urtetik goitikoek berriz, ia beti *gunun* adizkiaren sailekoak erabili dituzte eta hemen, emakumeak dira gordetzaileenak. Beraz, zaharrenek ia beti *gunun*en sailekoak erabili dituzte eta gazteenek ia beti *giñun*en sailekoak. *Giñun* erabiltzeko joera 60-65 urte dituztenen belaunaldian hasia dago Goizuetan.

Ikasketa-maila eta adina aintzat hartzen baditugu ere, joerak espero genituenak dira, 4.38. irudian ikus daitekeen bezala:




4.38. irudia: *gunun* moldeko **edun* aditzaren erabilera, ikasketa-mailaren eta hirutan banatutako adinaren arabera.

### 4.5.17. ***Patu / jarri***

Hizkuntza-aldagai honetan 64 adibide bakarra ditugu. Hala ere, kasu honetan eragiketa erdialdekoekin harreman-maila gizarte-eragilearekin eginda[25], adierazgarri bezala agertu da (0'0137). Eragiketa adinarekin eginda ere, antzeko adierazkortasun-maila eman du (0'0204).

Irudien bidez adinaren joera xeheago ikusiko da segidan, informazio asko ematen digulako. Ezkerreko grafikoan adinekoek eta emakumezkoek *patu* moldeko aldaerak gehiagotan erabili dituztela agertzen da eta, eskuinekoan, hiztunka *patu* aditzaren erabilera nola gauzatu den ikus daiteke. Adinekoen artean, *jarri* moldeko aldaeraren bat erabili duen

25 Erdialdekoekin harreman-maila izan da hemen aldakortasun gehien azaldu duena.

bakarra 6. hiztuna izan da, 80 urtetik goitiko gizonezkoa, hain zuzen. Gazteen artean irregulartasun gehiago dago, ahaztu gabe oso adibide gutxirekin egindako grafikoa dela (gazteen adibideetan hemen ere gehienetan adibide pare bat besterik ez dago) eta hiztunen baten adibiderik ez dagoela, 12. eta 17.ena zehazki (ezta gizonezko heldu baten kasuan ere, 7.arenak).




4.39. irudia: *patu* moldeko aditzaren erabilera, adinaren eta generoaren arabera, eskuinekoan hiztunka.

### 4.5.18. ***Zerbette / zeoze***

83 adibide besterik ez dituen hizkuntza-aldagaia da, baina erregresio ariketa eginez gero, adina adierazgarri dela agertu da (0'0167). Adina aldagai jarrai bezala aztertuta, are adierazgarriagoa izan da emaitza (0'00288). Izan ere, corpusean argi ikusi da adinak lotura zuzena duela *zeoze* adberbioaren erabilerarekin: zenbat eta gazteago, orduan eta gehiago erabiltzen da, oro har. Adinekoak hiru multzotan banatuta, emaitzak xeheago ikus daitezke ondorengo irudietan:




4.40. irudia: *zerbette* moldeko adberbioaren erabilera, hirutan banatutako adinaren eta generoaren arabera, eskuinekoan hiztunka.

Azken irudian agerian geratzen da erdiko belaunaldiak dagoeneko bertako *zerbette* aldaera gutxiagotan erabili dutela zaharragoek baino, bereziki, gizonezkoek. Hemen ere, kontuan hartu behar da oso adibide gutxitan oinarritutako joera dela, ordea: gizonezko helduek lau adibide bakarrik eman dituzte, denera, eta horietatik bi izan dira *zeoze.*

*Zerbette / zeoze* izan da gure azterketako azken ezaugarri lexikoa. Aztertu ditugu, bada, hizkuntza-aldagai fonologikoak, morfologikoak eta lexikoak. Ondoren heldu direnak desberdinak dira aurrekoekin konparatuz gero, eta horrela izango da haien azalpena ere. Batetik, erdararen eta makulu-hitzen erabilera zein izan den aztertuko da eta, bestetik, hikaren erabilerari buruz hiztunek esan digutena.

### 4.5.19. **Erdarazko esaldiak eta makulu-hitzak**

Erdarazko esaldi baino makulu-hitz gehiago agertu dira corpusean: 134 eta 246 hurrenez hurren. Azpimarratzekoa da adinekoek erdarazko esaldiak askoz ere gehiagotan izan dituztela ahotan gazteek baino eta, alderantziz, gazteak izan direla makulu-hitzak gehien erabili dituztenak, modu honetan:

| Adina | erdarazko esaldiak | makulu-hitzak | guztira |
|---|---|---|---|
| adinekoak | 118 | 49 | 167 |
| gazteak | 16 | 197 | 213 |
| **guztira** | 134 | 246 | 380 |

4.30. taula: erdarazko esaldien eta makulu-hitzen erabilera, adinaren arabera.

Adina hirutan banatuta, emaitza are adierazgarriagoa da. Izan ere, 60-65 urte bitarteko adinekoak dira erdarazko esaldi gehien erabili dituztenak eta, adinekoen artean, makulu-hitz gehien erabili dituztenak:

| Adina | erdarazko esaldiak | makulu-hitzak | guztira |
|---|---|---|---|
| adinekoak | 49 | 7 | 56 |
| 60-65 urteko adinekoak | 69 | 42 | 111 |
| gazteak | 16 | 197 | 213 |
| **guztira** | 134 | 246 | 380 |

4.31. taula: erdarazko esaldien eta makulu-hitzen erabilera, adinaren arabera (adina hiru multzotan).

Gainera, kontuan hartu behar da lau hiztun bakarrik direla 60-65 urte bitartekoak eta 65etik goitikoak sei. Gazteen multzoan hiztun gehiago dago besteetan baino; bederatzi dira. Hiztunka ikusita, hiztun batetik bestera aldea handia izan daiteke eta 10etik goitiko balioak hizki lodiz adierazi dira:

| Adina | Generoa | Hiztuna | erdarazko esaldiak | makulu-hitzak | guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| adinekoak | emakumezkoak | *2* | **29** | 0 | 56 |
| | | *3* | 5 | 0 | |
| | | *4* | 3 | 1 | |
| | gizonezkoak | *6* | 5 | 4 | |
| | | *8* | 2 | 2 | |
| | | *9* | 5 | 0 | |
| 60-65 adinekoak | emakumezkoak | *1* | **19** | **35** | 111 |
| | | *5* | 1 | 1 | |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | gizonezkoak | *7* | **10** | 6 | |
| | | *10* | **39** | 0 | |
| gazteak | emakumezkoak | *11* | 0 | **17** | 213 |
| | | *12* | 0 | 7 | |
| | | *13* | 1 | **76** | |
| | | *14* | 0 | **27** | |
| | gizonezkoak | *15* | 0 | **25** | |
| | | *16* | 2 | 3 | |
| | | *17* | 1 | **18** | |
| | | *18* | **10** | **13** | |
| | | *19* | 2 | **11** | |
| **guztira** | | | 134 | 246 | 380 |

4.32. taula: erdarazko esaldien eta makulu-hitzen erabilera, hiztunaren arabera.

Nabarmentzekoa da gazteen artean bakar batek erabili duela gaztelania maiz samar, ikasketa-maila ertaineko gizonezko batek hain zuzen. Gainerakoan, hiztun zehatzen bat kenduta, gaztelania oso gutxi erabili dutela esan behar da eta, erabili denean, kontzeptu jakin batzuetan izan dira askotan: batetik, zenbakiak eta datak (adinekoen kasuan batez ere); bestetik, besteen esanak adierazteko erabili da (adinekoek normalean, irakasleek edo irakasleei esanak); eta azkenik, eskolako ikasketak izendatzeko (gazteek batez ere: *administración, curso puente, grado superior*...). Hau da, gaztelania oso gutxi erabili da eta, gainera, oso gauza zehatzak adierazteko.

Makulu-hitzen kasuan, alderantzizkoa da egoera: gazteak dira gehien erabili dituztenak, alde nabariarekin. Ia guztien ahotan nahiko ugariak dira makulu-hitzak, bi hiztunengan izan ezik; emakumezkoa da bat, gizonezkoa bestea, eta ikasketa-maila altukoa da emakumezkoa, ertainekoa gizonezkoa. Gazteen artean bereziki emakumezko batek erabili ditu makulu-hitz asko (13.a), ikasketa-maila ertaina duena. Adinekoen artean, 60-65 urte bitarteko emakume batek erabili ditu ugari samar, ikasketa-maila altukoa bera. Eta 80 urtetik goitikoek ez dituzte ia inoiz ere erabili.

Hego Euskal Herrian ohikoak diren makulu-hitzak agertu dira gehien Goizuetan: *a ver, es que, hombre, o sea, venga, yasta*. Horietaz gain, oso esamolde gutxi topatu dira bertan eta horiek oso gutxitan agertu dira, 246 adibidetatik 33tan, eta gazteen artean gehienetan: *así por así, aunque sea, aparte de que, este, lo que pasa que, entre que, lo que sea, o bien, porque, que si.* Horien artean, *porque* izan da erabiliena (23 aldiz), makulu-hitzak askotan erabili dituen 13. hiztunaren ahotan (14 aldiz), batez ere.

### 4.5.20. **Hikaren erabilera**

Ikerketa honetan parte hartu duten Goizuetako hiztunei hitanoa norekin erabiltzen duten eta erabilera horren iritziari buruz galdetu diegu. Orain arte aipatu diren 19 hiztunez gain, adineko beste emakume baten erantzunak bildu ditugu. Beraz, 20 hiztunen datuak ditugu, sei adineko emakume, bost adineko gizon, lau emakumezko gazte eta bost gizonezko gazte.

Hitanoaren erabilerari dagokionez, genero eta adinaren arabera diferentziak ikusi ditugu. Eta ez gazteen artean bakarrik; badirudi lehenagotik heldu den kontua dela. Adineko emakumeen artean, seitik bakar batek esan digu lagunekin eta seme-alabekin askotan erabiltzen duela (*ea4*). Senide, iloba, biloba eta lehengusuekin ere batzuetan erabiltzen duela dio. Gainerako emakumeek ez dute normalean erabiltzen eta, erabiltzen dutenetan, oso gertukoekin (ahizpa edo anaiarekin, edo lagunekin). Erabiltzen duenetako batek, lagunekin eta ahizpekin erabiltzen omen zuen, baina haserretzean bakarrik.

Adineko gizonezkoek esan digutenaren arabera, beraiek adineko emakumezkoek baino gehiago erabiltzen dute hika. Lagunekin adineko gizonezko guztiek erabiltzen dute eta senide eta lehengusuekin bostetik hiruk. Gainerakoan, zuka erabiltzen dute, batez ere.

Adineko emakume eta gizonen artean ikusi dugunak harritu egin gaitu; guztiek gehiago erabiltzea espero genuen. Hona taula batean bildu ditugun erantzunak:

| HIZTUNAK | eh1 | ea2 | ea3 | ea4 | eh5 | ea6 | ga1 | gh2 | ga3 | ga4 | gh5 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **FAMILIA** | | | | | | | | | | | |
| Aitari | ez | ez | ez | ez | ez | ez | ez | ez | ez | ez | ez |
| Amari | ez | ez | ez | ez | ez | ez | ez | ez | ez | ez | ez |
| Gizonari | ez | ez | - | ez | ez | ez | - | - | - | - | - |
| Andreari/neskari | - | - | - | - | - | - | haserretzean | ez | - | - | bai |
| Semeari | ez | ez | - | bai | bai | ez | batzuetan | orain bai | - | - | - |
| Alabari | ez | ez | - | bai | bai | ez | ez | ez | - | - | - |
| Aitonari | ez | ez | ez | ez | ez | ez | ez | ez | ez | ez | ez |
| Amonari | ez | ez | ez | ez | ez | ez | ez | ez | ez | ez | ez |
| Bilobari (motikoa) | bai | ez | - | batzuetan | ez | ez | zirikatzean | - | - | - | - |
| Bilobari (neska) | - | ez | - | batzuetan | ez | ez | ez | - | - | - | - |
| Anaiari | ez | | haserretz. | batzuetan | bai | bai | bai | ez | ez | gutxitan | bai |
| Ahizpari | ez | haserretz. | - | batzuetan | batzuetan | ez | - | - | - | - | - |
| Arrebari | - | - | - | - | - | - | batzuetan | ez | bai | gaztetan | bai |
| Osabari | ez | ez | ez | ez | ez | ez | ez | ez | ez | ez | ez |
| Izebari | ez | ez | ez | ez | ez | ez | ez | ez | ez | ez | ez |
| Ilobari (motikoa) | ez | ez | ez | batzuetan | ez | ez | ez | batzuetan | ez | | ez |
| Ilobari (neska) | ez | ez | ez | batzuetan | ez | ez | ez | ez | ez | | ez |
| Lehengusuari (m) | ez | ez | ez | batzuetan | ez | ez | adinekoei | adinekoei | bai | ez | batzuetan |
| Lehengusuari (n) | ez | ez | ez | batzuetan | ez | ez | ez | batzuetan | batzuetan | | batzuetan |
| **BAKARRIZKETA** | ez | ez | ez | batzuetan | ez | ez | haserretzean | ez | batzuetan | batzuetan | |
| **FAMILIAZ KANPO** | | | | | | | | | | | |
| Nagusiari | ez | | | | | - | ez | ez | ez | | ez |
| Langileari | ez | | | | | | | bai | | | bai |
| Ikaskideari | ez | | | | | ez | | bai | batzuei | | bai |
| Ezezagunari | ez | | | | batzuetan | ez | ez | ez | ez | | ez |
| Ezagunari | ez | | | | | ez | adinekoei | mutilei | batzuei | | bai |
| Lagunari | ez | haserretz. | | neskei | batzuei | ez | mutil batzuei | mutilei | bai | | bai |

4.33. taula: hitanoaren erabilera adinekoen artean.

Gazteen artean, espero genuen egoera topatu dugu: mutilek askoz gehiago erabiltzen dute hika nesken aldean. Lau nesketatik bakar batek dio beste neska batekin erabiltzen duela tarteka. Mutilek, berriz, emakumezkoekin (ama, arreba, neska, kuadrilako neskak...) normalean erabiltzen ez badute ere, anaiekin, edo mutilak diren lagunekin beti erabiltzen dute. Batek dio aitarekin erabiltzen duela eta, gizonen artean, beste batek ere esan du bere semearekin hika egiten duela (60-65 urte bitartekoa da). Beraz, badirudi 60 urtekoen bueltan aldaketa hasia dela, 80 urtetik goitikoen artean oso gaizki ikusia baitago gurasoei hika hitz egitea. Hona hemen gazteen erantzunak biltzen dituen taula:

| HIZTUNAK | eg1 | eg2 | eg3 | eg4 | gg1 | gg2 | gg3 | gg4 | gg5 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **FAMILIA** | | | | | | | | | |
| Aitari | ez | ez | ez | ez | ez | ez | bai | ez | ez, aitak bai |
| Amari | | | | | ez | ez | ez | ez | ez |
| Gizonari | | | | | - | - | - | - | - |
| Andreari/neskari | | | | | batzuetan | ez | ez | - | ez |
| Semeari | | | | | - | - | - | - | - |
| Alabari | | | | | - | - | - | - | - |
| Aitonari | | | | | ez | - | ez | ez | ez |
| Amonari | | | | | ez | ez | ez | ez | ez |
| Anaiari | | | | | - | - | - | beti | bai |
| Ahizpari | | | | | - | - | - | - | - |
| Arrebari | | | | | batzuetan | ez | ez | ez | - |
| Osabari | | | | | ez | - | bai | ez | batzuetan |
| Izebari | | | | | ez | - | ez | ez | ez |
| Ilobari (motikoa) | | | | | - | - | - | zaharrei | - |
| Ilobari (neska) | | | | | - | - | - | ez, ttikia | - |
| Lehengusuari (m) | | | | | normalean | bai | bai | bai | bai |
| Lehengusuari (n) | | | | | batekin | ez | ez | ez | ez |
| **BAKARRIZKETA** | | | | | adarra jotzen | ez | batzuetan | batzuetan | bai |
| **FAMILIAZ KANPO** | | | | | | | | | |
| Nagusiari | ez | ez | ez | ez | batekin | ez | batzuekin | ez | ez |
| Langileari | | | | | - | batekin | beti | batzuei | bai |
| Ikaskideari | | | | | euskaldun petoei | | | mutilei | konfidantza dutenei |
| Ezezagunari | | | | | ez | - | ez | ez | ez |
| Lagunari | | bati | | | mutilei. Neskei adarra jotzen | mutilei. Neskei oso gutxi | mutilei | mutilei | mutilei |

4.34. taula: hitanoaren erabilera gazteen artean.

Esan bezala, hitanoaren erabileraren gainean duten iritziaz ere galdetu diegu denei. Jarraian aztertuko ditugu galdera mamitsuenei emandako erantzunak, galderaka[26].

*1. galdera: "Zer iruditzen zaizu seme-alabek gurasoei hika egitea?"*

Galdera honi oso diferente erantzun diote adinekoek eta gazteek. Adinekoentzat "errespetu falta" da, "gaizki egina" dago edo ez zaie gustatzen. Batek bakarrik esan du gaur egun ohitura hori badagoela eta, borondate onez egiten bada, ongi dagoela. Gazteen artean denetik dago, baina gehienei ongi iruditzen zaie. Batzuk "errespetuaren kontua" aipatzen dute, alegia, errespetua mantenduz gero, ongi iruditzen zaiela diote (bi neskek). Bi mutilek gaizki iruditzen zaiela diote, lagun arteko hizkera delako. Bi horietako batek dio baldintza batzuk bete behar direla errespetu falta ez izateko: gurasoari ez axola izatea, adinez berdintsu izatea eta konfiantza handia egotea.

26 Erantzunak lortzeko erabili diren galdera guztiak ikusteko jo 3. eranskineko 5. puntura. Taularen eta galderen eredutarako Etxabe eta Garmendiaren (2003: 297-299) lana erabili da.

*2. galdera: "Eta kalean gazteago batek zuri hika egitea?"*

Egoera hori adineko gehienei errespetu falta irudituko litzaieke, baina gizon eta emakume banari ez litzaieke gaizki irudituko ("gaizki esaten ez badio" eta "konfidantza seinale hartuko nuke" erantzun dute). Gazteen artean, gehienek ez lukete arazorik, baina pare bati arraro eginen litzaieke, ez dutelako gazteagoekin konfidantzarik.

*3. galdera: "Ezezagun batek hika egitea zer iruditzen zaizu?"*

Galdera honetan denek berdintsu erantzun dute: arraro eginen litzaieke. Iritziei buruzko erantzun hauen gainean esan behar dugu ez dugula generoaren araberako diferentziarik sumatu, adinaren araberakoa baizik.

Praktikan ere jarri ditugu hiztunak eta erdarazko esaldi batzuk euskaratzeko eskatu diegu. Adineko batzuekin proba egin eta kosta egiten zitzaienez, gazteekin bakarrik aritu gara kasu honetan. Ikusi nahi genuen hika nola erabiltzen zuten, eta ondorio nagusiak bi izan dira: batetik, neskek hika ez dutela erabiltzen nabari da; asko kostatzen zaie eta askotan ez dakite nola esan behar den. Bestetik, mutilek eta hitanoa erabiltzea lortu duten neska gutxiek menpeko esaldietan hikadun formak erabili dituzte batzuetan. Erabilera hori berria dela, eta ez dela zuzena diote gaian aditu direnek edo hika egoki erabiltzen dutenek (adinekoek batez ere). Beste hainbat lekutan bezala, Goizuetan ere gazteek batzuetan erabiltzen dituzte horrelako formak: *dukena*, *dikelako*... Alegia, "oain torri *dukena* nere osaba duk" esan dute batzuk, "orain etorri *dena* nire osaba duk" esan ordez. Edo "eztuk torri *etzikelako* nahi", *etzulako* formaren ordez. Beste esaldi batzuk ongi esan dituzte guztiek: "eztit uste etorriko *denik*" (eta *ez dukenik*, bakarren batek zalantza egin arren). Laburtuz, neskek ez dute hitanoa erabiltzeko erraztasunik eta mutilek lagunartean beti erabiltzen badute ere, menpeko esaldietan erabili behar den formaren gainean zalantzak dituzte eta nahasian erabiltzen dituzte batzuek.

Hitanoaren gaia bukatzeko, bere erabileraren aldaketari buruz hiztunek esan dituztenak laburbildu nahi ditugu. Denak ados egon dira; izan ere, denek diote lehen gehiago erabiltzen zela. 80tik goitiko emakume batek dio lehen asko erabiltzen zela, ondoren gutxiago eta orain, berriz, gehiago erabiltzen dela "polita omen delako".

## 4.6. ONDORIOAK

Goizuetako euskararen erabilera aztertuz, emaitza asko atera dugu. Emaitza horietan sakontzen eta forma ematen saiatuko gara hurrengo lerroetan eta ondorio nagusienak azalduko ditugu.

### 4.6.1. **Hizkuntza-aldagaietako ondorioak**

Atal honetan hizkuntza-aldagaien aldaketaz ariko gara. Zenbat ari da aldatzen hizkuntza-aldagai bakoitza Goizuetan? Abiadura handiko aldaketa da edo motel doana? Edo ez dago batere aldaketarik? Azken batean, adinaren araberako aldaketa aztertuko dugu hemen.

Galdera horiek erantzun argia dute: bai, hizkuntza aldatzen ari da Goizuetan, aztertutako hizkuntza-aldagai gehienetan ikus daiteke hori. Gure grabazioetako emaitzek erakusten digute gazteek gutxiagotan erabiltzen dutela bertako aldaera adinekoek baino. *-ikan* da salbuespena, bertako hizkerari kolorea ematen dion ezaugarritzat jo dugun arren, gazteak baitira gehiagotan erabili dutenak. Emaitzetan ezaugarri hori aztertzean esan den bezala, azalpena izan daiteke *-ikan* Gipuzkoatik sartzen ari dela eta, beraz, Goizuetako ezaugarri dialektala izan ordez, erdialdetik heldu den berrikuntza dela.

Hara hemen hiztun guztien hizkuntza-aldagaien maiztasunak ehunekotan erakusten duen irudia:




4.41. irudia: bertako hizkuntza-aldaeren erabilera adinaren arabera (%).

Adina hiru multzotan zatituz gero (80tik goitikoak, 60-65 bitartekoak eta 20-35 bitartekoak), emaitzak xeheago ikus daitezke:




4.42. irudia: bertako hizkuntza-aldaeren erabilera adinaren arabera (%), adina hiru multzotan banatuta.

Hizkuntza-aldagai batzuk besteak baino azkarrago ari direla aldatzen dirudi. Irudian goialdean daudenak oso gutxi ari dira aldatzen: *-ikan, deus, biño, /j/* eta *edun* aldagaiez ari gara. Erdikoetan diferentzia gehiago dago adinekoen erabileratik gazteen erabilerara eta, zenbat eta beherago, orduan eta erabilera apalagoa ikusten da gazteengan, batzuetan desagertzeraino. Hori da *-koz*, *gunun* eta *eskuara* aldaeren sailekoekin gertatu dena, gure corpusean bederen. *Arrunt* eta *benpe / bede* aldaerak ere oso gutxitan erabili dituzte gazteek.

Hizkuntza-aldagaien aldaketaz ari garela, galdera hau sortzen zaigu: zergatik batzuk asko ari dira aldatzen eta besteak ez? Lau eragile otu zaizkigu hori horrela izatea bultzatzen dutenak:

*1. Adinekoen erabilera.*

Batetik, adinekoek ere asko edo gutxi erabiltzen ote duten garrantzizkoa da. Adibidez, *arrunt, gunun* eta *eskuara* aldaerak adinekoek ere gutxitan erabili dituzte corpusean eta, zentzu horretan, normala da gazteek ere gutxitan erabiltzea.

*2. Euskara batuan edo erdialdekoan aldaerek duten onarpena.*

Bestetik, aztergai ditugun aldaerak euskara batuan edo erdialdekoan onartuak dauden edo ez gakoetako bat izan daiteke. Honekin esan nahi duguna da batuan erabiltzen diren aldaerak badira, errazagoa dela horiek euskalkian ere erabiltzen jarraitzea. Eta alderantziz, euskara batuan edo erdialdekoan erabiltzen ez badira, "txarragoak" direla pentsa dezake hiztunak. Ideia horrekin bat egiten dute aldaeren erabilera hauek:

- Batuan erabiliak diren aldaerak, gazteek ere askotan erabili dituztenak: *deus,* /j/, *edun, izan.*
- Batuan eta erdialdekoan erabiltzen ez diren aldaerak eta gazteek erabilera asko apaldu dutenak (batzuetan ez erabiltzeraino): *arrunt, bede / benpe, -koz, gunun, eskuara.*

*3. Aldaeraren izaera markatua edo enblematikoa.*

Aldaera hiztunarentzat markatua izan edo ez, hiztunak diferente jokatzen duela uste dugu. Alegia, hiztuna aldaeraren berezitasunaz (edo bertakotasun / kanpokotasunaz) ohartzen den edo oharkabean pasatzen zaion ez da berdin. Ohartzen den kasuetan erabiltzea edo ez erabiltzea kontzienteki erabaki dezake, eta oharkabean pasatzen zaionetan, ez du erabakirik hartzen. Honen arabera, aztertutako hizkuntza-aldaeretan ondokoa ikusi dugu:

- Aldaera markatuak, hiztun gazteak ere erabili dituenak: *-ikan, deus, biño, patu, eztikit.* Beraz, badirudi markatuagoak diren aldaera hauek hiztun gazteak mantentzeko joera duela. Hemen salbuespena da *arrunt,* normalean hiztuna bere izaera markatuaz konturatzen delako, eta gutxi erabili duelako gazteak. Kontuan hartu behar da dagoeneko adinekoek ere gutxi erabiltzen dutela, ordea, eta beraz, *oso* aldaera askotan erabiltzen dela eguneroko hizkeran.
- Aldaera ez markatuak, hiztun gazteak errazago galtzen dituenak: *bakotxa, zerbette, aferesia, izan.* Adibide horiek zerrendatu ditugu, gure ustez goizuetarrarentzat aldaera markatu gabeak direlako. Erabilerari buruzko grafikoetan begiratuta, hein txikiagoan bada ere, gazteek ere erabiltzen dituztela ikusten da, dena den.

*4. Hizkuntza-aldagaiaren maiztasuna.*

Hizkuntza-aldagaietako aldaketei buruzko atala bukatzeko, azken galdera bat egin nahi dugu: hizkuntza-aldagaien maiztasunak ba al du ikustekorik hizkuntza-aldagai hori aldatzeko abiadurarekin? Badago hipotesi bat hizkuntzaren aldaketa aldatzen ari den ezaugarriaren agertze-maiztasunarekin lotzen duena, eta gure corpusean ikusi dugu hizkuntza-aldagai batzuek maiztasun handia dutela, eta besteek gutxiago. Gure datuetan gertatzen dena ikusteko, maiztasunaren arabera ordenatu dira aldagaiak:

| | Hizkuntza-aldagaia | Izaera linguistikoa | Maiztasuna | Bertako aldaeren aldaketa (%) |
|---|---|---|---|---|
| 1 | aferesia bai / ez (*karri / ekarri*) | fonologikoa | 1481 | 17 |
| 3 | *-ikan / -ik* (*zertikan / zertik*) | morfologikoa | 976 | -16 |
| 11 | *biño / baño* | lexikoa (aldaera) | 877 | 4 |
| 2 | /j/ edo /x/ (*yan / jan*) | fonologikoa | 685 | 1 |
| 5 | *izan / egon* (*hemen da / dago*) | morfologikoa | 533 | 21 |
| 14 | *eztikit / eztakit* | lexikoa (aldaera) | 434 | 36 |
| 13 | *eskuara / euskara, euskera* | lexikoa (aldaera) | 357 | 38 |
| 4 | *-en, -in / -go* (*izain / izango*) | morfologikoa | 285 | 48 |
| 6 | **edun / eduki* (*dut / daukit*) | morfologikoa | 207 | 8 |
| 15 | *gunun / giñun* | lexikoa (aldaera) | 154 | 85 |
| 8 | *arrunt / oso* | lexikoa | 149 | 34 |
| 10 | *benpe, bede / behintzat* | lexikoa | 120 | 62 |
| 7 | *-ko(t)z / -ko* (*delakotz / delako*) | morfologikoa | 96 | 80 |
| 17 | *zerbette / zeoze* | lexikoa | 83 | 48 |
| 12 | *deus / ezer* | lexikoa | 67 | 3 |
| 16 | *patu / jarri* | lexikoa | 64 | 36 |
| 9 | *bakotxa / bakoitza* | lexikoa (aldaera) | 35 | 38 |

4.35. taula: Goizuetako hizkuntza-aldagaien maiztasuna eta bertako aldaeren aldaketa (%).

Taularen eskuineko zutabean, aldagai bakoitzean zenbateko aldaketa dagoen adierazi da. Balio hori ateratzeko, adinekoek[27] eta gazteek bertako aldaera zenbat (%) erabili duten hartu da kontuan, adinekoen balioari gazteena kenduta.

Aipatutako hipotesiaren arabera, maiztasun handiko ezaugarriak polikiago aldatzen dira eta, alderantziz, maiztasun txikikoak azkarrago. Hori hala bada, taulan zenbat eta beherago joan, orduan eta aldaketa gehiago egongo da eta, ikusi dugunaren arabera, hala gertatzen ari da hizkuntza-aldagai horietako askorekin. Batzuetan galera oso handia izan da*, gunun, benpe* eta *-koz* aldaeren kasuan esaterako (% 60tik goitiko aldaketa dute; gris ilunez markatu dira 4.35. taulan) eta, hain zuzen, maiztasun apaleko aldagaiak dira, 160 adibidetik beheitikoak.

Aldaketa ertaina dutenak gris argiagoz margotu dira (% 20-50 bitartekoak) eta horiek taularen erdi eta behean daude, hipotesiarekin bat eginez. Azkenik, zuriz utzi dira aldaketa ttikia izan dutenak (% 20tik beheitikoa) eta maiztasun handikoak dira horietako lau; hain zuzen, taulan goian daudenak dira horiek, aferesia, *-ikan, biño* eta *y.* Hizkuntza-aldagai horiek 680 adibide baino gehiago dituzte.

27 Adinekoen artean 80 urtetik goitikoak hartu dira hemen kontuan, tarteko 60-65 urtekoen datuak alde batera utzita.

Badira salbuespenak, ordea, gure corpusean maiztasun gutxi agertu arren, aldaketa ere txikia izan dutenak: *edun* eta *deus* dira horiek. *Deus / oso* maiztasun gutxiko aldagaia izanda ere, *deus* asko erabiltzen jarraitzen dute gazteek. *Edun / eduki* aldagaiarekin ere antzera gertatzen da, nahiz eta kasu honetan, adibide gehixeago dituena izan (200 inguru). Hipotesi hau ez da kasu guztietan betetzen, beraz.

Corpus honetako maiztasunei dagokienez, ohar bat egin nahi dugu, corpus hau ez baita hizkuntza erabat "librea", elkarrizketan gaiak guk sartu ditugulako batzuetan. Adibidez, *eskuara / euskara* eta *eztikit / eztakit* aldagaiak elkarrizketagatik puztutako kopurua izan daiteke; izan ere, batetik, euskarari buruzko galdera asko egin ditugu (hortik *eskuara / euskara* kopurua), eta, bestetik, galdera ugari egin dira (*eztikit / eztakit* asko horregatik ditugu gure corpusean, beharbada).

Oro har, dena den, hizkuntza-aldagaien maiztasunak lotura zuzena agertu du hizkuntza-aldagaien aldaketaren abiadurarekin Goizuetako corpusean: horren arabera, hizkuntza-aldagaia zenbat eta gutxiagotan agertu eguneroko mintzoan, errazago dirudi aldaera berriak sartzea.

#### 4.6.2. Gizarte- eta hizkuntza-eragileetako ondorioak

Gizarte-eragileei dagokienez, hipotesietan espero bezala, oro har eta hiztun bakoitzaren aldakortasuna kontuan hartu gabe (hiztuna "random variable" bezala aztertu gabe) esan daiteke gazteek, ikasketa-maila altukoek eta erdialdekoekin harreman-maila altua dutenek erabili dituztela gehien aldaera berriak. Generoan, emaitzak ez dira estatistikoki adierazgarriak izan. Baina generoa adinaren arabera aztertuz gero, joera interesgarri batzuk antzeman ditugu: adineko emakumeak gordetzaileagoak agertu dira hizkuntza-aldagai askotan, emakumezko gazteak aldatzaileago (baina ez denak, eta ez hizkuntza-aldagai guztietan).

Eragileen adierazgarritasuna beti ez da analisi onenen emaitzetatik atera; korrelazioak saihesteko adina kontuan hartu ez bada analisi nagusietan, aparteko analisietan aztertu da, analisi nagusiko eragilearen ordez jarrita (ikasketa-maila edo erdialdekoekin harreman-mailaren ordez). Horrela dakigu zenbatetan izan den adierazgarri adina. Berdin egin da

ikasketa-maila eta erdialdekoekin harreman-maila eragileekin ere, horiek analisi nagusian aztertu ez direnetan. Alegia, ikasketa-maila eta erdialdekoekiko harreman-maila analisi nagusietan egon ez direnetan, aparteko analisietan sartu dira adinaren ordez. Jarraian aurkeztuko dira gizarte-eragileen ondorioak.

- Adina

Adinarekin lotutako ondorioak aurreko puntuan zabal aztertu dira, hizkuntza-aldagaien aldaketari buruz hitz egitean. Labur esanda, hipotesietan espero izandakoa ikusi dugu adinari dagokionez: zenbat eta gazteago izan, orduan eta gutxiago erabili dute bertako aldaera. Hori hala izan da hizkuntza-aldagai guztietan, *-ikan / -ik* hizkuntza-aldagaian izan ezik.

Aldaketa hizkuntza-aldagai guztietan sumatzen bada ere, adina estatistikoki aztertutako hemezortzi[28] aldagaietatik hamaikatan izan da adierazgarri: aferesia, *-en* (adina aldagai jarrai bezala aztertuta), *izan, -koz, lexikoa batera, arrunt* (aldagai jarrai)*, benpe, eztikit, gunun, patu* eta *zerbett*e. Aldagai gehienetan ikasketa-maila eta erdialdekoekin harreman-mailarekin bat egiten du adinak adierazgarritasunari dagokionez. Nagusiki, banaka aztertu diren aldagai lexikoetan da nabarmena adinaren eragina, adina adierazgarri izan dela esan dugun horietan (*arrunt, benpe, eztikit, gunun, patu, zerbette*) adina bakarrik izan delako adierazgarri. *Patu / jarri* aldagaia da salbuespen, erdialdekoekin harreman-maila ere adierazgarri izan duelako.

- Ikasketa-maila

Ikasketa-mailaren kasuan, hemezortzitik hamaika hizkuntza-aldagaitan espero zen aldaketa ikusi dugu. Beste zazpi aldagaietan joerak neurri batean bete dira; horrekin esan nahi dugu hiru ikasketa-mailek ez dutela espero genuen hurrenkera izan. Hizkuntza-aldagai hauen kasua da hori: *y, arrunt, bakotxa, biño, deus, patu, zerbette*. Ondorengo irudian espero genuen aldaketa adierazi duten aldaeren emaitza aurkezten da:

28 Hemezortzi dira eta ez hamazazpi, hizkuntza-aldagai berria sortu dugulako: *lexikoa batera* izendatutakoa, hizkuntza-aldagai lexiko guztiak bildu dituena analisi estatistikoa fidagarriagoa eta egokiagoa izateko. Aldagai horretan adina, ikasketa-maila eta erdialdekoekin harreman-maila, hirurak izan dira adierazgarri.




4.43. irudia: bertako hizkuntza-aldaeren erabilera ikasketa-mailaren arabera (%).

Estatistikoki adierazgarriak sei hizkuntza-aldagai direla ikusi ahal izan dugu: aferesia, *y, -en, izan, -koz* eta *lexikoa batera*.

- Erdialdekoekin harreman-maila

Erdialdekoekin harreman-maila neurtu duen gizarte-eragilean hemezortzi hizkuntza-aldagaietatik hamabostetan espero zen aldaketa ikusi dugu. Eta beste hiruretan joerak neurri batean bete dira: *edun / eduki, eztikit / eztakit* eta *zerbette / zeoze* aldagaien kasua da hori. Ondorengo taulan, espero genituen joerak bete dituzten aldagaiak aurkezten dira:




4.44. irudia: bertako hizkuntza-aldaeren erabilera erdialdekoekin harreman-mailaren arabera (%).

Estatistikoki adierazgarriak bost direla ikusi ahal izan dugu gure analisietan: aferesia, *izan, -koz, lexikoa batera, patu.*

Eta zergatik batzuetan ez dute bat egiten hipotesiak betetzen dituzten eta adierazgarriak diren hizkuntza-aldagaiak? 4.41-4.44. irudietan adierazten dena da hiztun guztien adibideak gehituta ateratako ehunekoak, kontuan hartu gabe hiztun bakoitzak hizkuntza-aldagaiak nola erabiltzen dituen. Hau da, hiztunaren barne-aldakortasuna aintzat hartu gabe. Barne-aldakortasuna kontuan hartuta, ondokoa gerta daiteke: eman dezagun gazte batek *zerbette* ez duela inoiz erabili eta beti *zeoze* erabili duela, askotan gainera. Gainerakoek *zerbette* erabili dute beti, baina aldi gutxitan agertu da haien corpusean. Orduan, gazte guztien *zerbette* aldaeraren adibide kopurua apala izan daiteke *zeoze* aldaeraren aldean, nahiz eta *zerbette* erabili duen gehiengoak. Horregatik estatistikak esaten digu emaitza ez dela adierazgarria, ez dela gazte izateagatik sortu den joera bat.

- Generoa

Generoaren emaitzei erreparatuko diegu orain eta bertan joera diferenteak antzeman ditugu adinaren arabera. Hiru grafikoren bidez adieraziko dugu emaitzetan azpimarragarria iruditu zaiguna. Azpimarragarria da hizkuntza-aldagai bakar batean ez dela adierazgarri izan generoa. Hori kontuan hartuta ere, esango dugu askotan emakumezkoa izan dela gordetzaileagoa gizonezkoa baino. Hipotesietan kontrakoa espero genuen, mendebaldeko literatura bariazionistan, emakumea izan ohi delako aldaketan diren ezaugarrien artean berria hartzeko joera agertzen duena. Baina denetarik dago jarraian azalduko den bezala.

Hizkuntza-aldagai batzuetan, aldaketak adineko gizonek hasi zituztela dirudi. 45. irudi-multzoko aldaera hauetaz ari gara: *aferesia*, *arrunt*, *gunun, zerbette* (60-65 urtekoen kasuan) eta *-ikan*. Beste batzuetan, aldaketak adineko emakumeen eskutik datozela ematen du: ikusi *-en, -koz, benpe* hizkuntza-aldaerei buruzko irudia. Eta azkenik, neska gazteek hasitako aldaketa ikusten dugu: *edun, bakotxa, biño, deus, eztikit* hizkuntza-aldaerez ari gara hemen. Azken irudi honetan, kontuan hartu gehienetan hiztun berbera dela bertako aldaerak gutxiago

erabili dituen bakarra; ikasketa-maila altukoa da. Aldaketaren arduradun hiztun bakarra izatean, argi ikusten dugu zergatik estatistikoki ez den adierazgarri emaitza hori.




4.45. irudia: bertako hizkuntza-aldaeren erabilera generoaren arabera (%).

- Goizuetan bizitzeko nahia

*Goizuetan bizitzeko nahia* gizarte-eragileari buruz aipamen berezia eginen da atal honetan. Izan ere, emaitzen atalean ez da agertu, bere emaitzak ez direlako adierazgarriak izan. Gainera, batzuetan ezin izan da analisi estatistikoa egin eragile hau egonez gero; horregatik, analisitik kendu dugu.

Hiztunek emandako erantzunen arabera, ondorio batzuk atera daitezke, hala ere. Badirudi gazteen artean badagoela herrian bizitzeari lotutako sentsibilitatea, herriarekiko atxikimendua. Egindako galderen bidez jasotako erantzunetatik ondorio hori ateratzen dugu, 4.36. taulan ikusten den bezala, gazteek Goizuetan bizitzeko nahia altua dutela adierazi baitute gehienetan:

| Hiztuna | Goizuetan bizitzeko nahia |
|---|---|
| eh1 | altua |
| ea2 | altua |
| ea3 | altua |
| ea4 | apala |
| eh5 | altua |
| ga1 | apala |
| gh2 | ertaina |
| ga3 | altua |
| ga4 | ertaina |
| gh5 | altua |
| eg1 | altua |
| eg2 | altua |
| eg3 | ertaina |
| eg4 | altua |
| gg1 | ertaina |
| gg2 | altua |
| gg3 | altua |
| gg4 | altua |
| gg5 | altua |

4.36. taula: Goizuetan bizitzeko nahia, hiztunaren arabera.

Bakarrik bi gaztek erantzundakotik jarri dugu maila ertaina dutela. Beraz, gazteen hamarretik zortzik maila altua dute. Helduen artean ere, Goizuetan bizitzeko nahia altua da gehienetan: lautik hirutan, eta laugarrenak maila ertaina duela adierazi du. Adinekoen artean aurkitu ditugu maila apala erantzun duten kasu bakarrak, sei adinekotik bik: adineko gizon eta emakume banak. Nahia ertaina du batek eta altua hiruk.

Honen arabera, adinaren eta Goizuetan bizitzeko nahiaren artean lotura dago; gazteek maila altua izan dute gehienetan. Hor ikusten da Goizuetan usaintzen den bertan bizitzearen aldeko kontzientzia. Esango dugu hori teorian hala dela, eta bertan bizitzea garrantzitsua dela badakiela goizuetarrak, bertako zerbitzuak mantentzeko (eskola, medikua, pediatra...), besteak beste. Praktikan gauzak bestela gertatzen dira askotan, ordea. Gazterik kontzientziatuenak ere lana kanpoan eginen du eta herri handiagoek dituzten aukera zabalagoek erakarri egiten dute. Bikotea beste herri batekoa izateak ere (askotan herri handiago batekoa), kanpora joateko hautuan eragiten du. Hala ere, azpimarratu behar da gazteek bertan bizitzeari ematen dioten garrantzia eta beren bizia Goizuetan jarraitzeko egiten duten ahalegina.

- Hizkuntza-eragileak

Hizkuntza-eragileei dagokienez, soziolinguistikaren adar honetan egiten diren lanetan ikusi ohi den bezala, hizkuntza-eragileek garrantzia handia izan dute gurean ere. Aferesiaren kasuan, *Aditza* adierazgarri (p. < 9'99e-158) izan da, eta aditzek hurrenkera hau erakutsi dute: *etorri, esan, eman, ekarri, ikusi, izan, ibili*. Aurreneko laurek aferesia egitearekin lotura dute (% 80tik goiti egin da aferesia aditz horietan) eta azken hirurek lotura apalagoa dute. *Ikusi* aditzean nahikoa arrunta da aferesia aurkitzea (% 43). *Izan* aditzean arraroagoa (% 25) eta *ibili* da aferesi gutxien egin duen aditza (% 9), modu nabarmen batean. Lotura nabarmena dago aferesiaren eta aditzaren artean, eta adierazgarritasun-maila ere altua da. Aferesiaren aurretik bokal edo kontsonantea ote dagoen neurtu duen eragilea ez da adierazgarri izan, ordea.

*Y / j* aldagaian, *JoeraYoera* hizkuntza-eragilea ere adierazgarri (p. < 0'000321) izan da, eta espero genuen norabidean: gehienbat hiztunek *y* hotsa erabiltzea espero genuen eta hala izan da gehienetan, eta *j* hotsa erabiltzea espero genuenetan (*jai*, *jator* eta *jaungoiko*) hala erabili da askotan. Badira *y* hotsez erabiltzea espero genituen hitzak, hiztun batzuk *j* hotsez ahoskatu dituztenak ordea (*jende*, *jaio*, *jarri* eta *jatetxe*) eta horregatik gure hipotesia ez da erabat bete.

Aferesian *Aditza* eragilea aleatorio bezala aztertu dugu eta *y / j* aldagaian *Hitza* hizkuntza-eragilea baita ere, horien eragina handia delako. Horrela eginda, bere adierazgarritasun-maila ez dugu emaitzetan azaldu, baina beste eragileak bezala aztertuz gero, adierazgarriak direla ikusi dugu, nabarmen gainera; *Aditza* eragilearen kasuan, azaldu berri dugunez, 9'99e-158 adierazgarritasun-mailarekin eta *Hitza* 7'34e-12rekin.

### 4.6.3. Kualitatiboki aztertutako aldagaietako ondorioak

- Erdarazko esaldiak eta makulu-hitzak

Emaitzak aztertzean ikusi duguna izan da, oro har, gutxi erabiltzen dela gaztelania Goizuetan, bereziki gazteek. Hiru adinekok erabili dute gaztelania nahikoa natural (bat 80tik

goitiko emakumea eta besteak 60-65 urte bitarteko gizon eta emakume bana), baina gainerakoek esamolde zehatz batzuetan bakarrik erabili dituzte, hain zuzen, zenbakiak eta datak esatean, besteen esanak aditzera ematean eta eskola titulu edo izen ofizialetan.

Gaztelaniazko makulu-hitzen erabilerari dagokionez, nabarmen, azken urteetan hasitakoa dela esan dezakegu. 60-65 urte bitarteko hiztun batzuk dagoeneko hasi dira erabiltzen maiz samar, baina oraindik lautik batek bakarrik erabiltzen ditu asko. 35 urte baino gutxiagokoen artean, joera erabat aldatu da: batek izan ezik, denek dituzte beren eguneroko mintzoan sartuak erdarazko makulu-hitzak. Makulu-hitzen multzoa ez dela oso zabala iruditzen zaigu, ordea. Gainera, gutxi batzuk dira askotan erabili direnak (*hombre, a ver, es que, o sea*) eta beste batzuk gutxitan eta hiztun batzuen ahotan bakarrik entzun ditugu (*o bien, lo que pasa que, esto, aparte de que, porque, que si, asi por asi*).

- Hikaren erabilera

Hikaren erabilerari dagokionez, emaitzek argi erakutsi digute kasu honetan generoak markatzen duela hikaren erabilera eta baita adinak ere hein batean: emakumezko gazteek ez dute hikarik erabiltzen. Adinekoek ere gutxitan eta gutxirekin. Gizonezkoek, berriz, erabili ohi dute, gazte edo adineko izan. Badirudi iraganean hika ez erabiltzeko gizarte-presioa egon dela. Ez dakigu zehazki emakumezkoek ez erabiltzeko debeku esplizitoagoa zuten edo ez, baina prestigio sozialarekin lotutako beste ezaugarri batzuekin gertatu den bezala (adibidez, euskararen ordez erdara erabiltzea, ahoskera txukuna, janzkera, orrazkera...), hikarekin ere hala gertatu dela pentsatzen dugu.

Adinak ere ikustekoa du hikaren erabilerari buruz duten iritzian: gazteek ongi ikusten dute edozeinek edozeini hika egitea, nesken kasuan adibidez, hala erantzuteko gai ez badira ere. Adinekoen kasuan, berriz, egoera batzuetan errespetu falta bezala ikusten dute, batez ere gazteek adinekoei egiten dietenean, edo ezezagunek horrela hasten dutenean elkarrizketa.

## 4.7. LABURPENA

Goizuetan, gainbehera demografiko handia egon da, bertako hizkeraren gaineko kontzientzia badago eta kontzientzia hori positiboa da gehienbat, batez ere gazteen artean. Beraz, gure hasierako hipotesiaren arabera, Goizueta hizkuntza-aldagaietan gordetzailea izatea espero genuen.

Emaitzetan ikusi duguna da hipotesia hein batean bete dela; alegia, hizkuntza aldatzen ari den arren, aldaketa ez dela oso handia, gure ustez. Hizkuntza-aldagaien aldaketa aztertuta, badirudi Goizuetako hizkeraren ezaugarri batzuek gazteen hizkeran finkatzera egin dutela, ihartuak bezala gelditu direla, baina aldi berean, bizirik. Ezaugarri horiek dira Goizuetako gazteen hizkerari kolorea ematen diotenak eta badirudi eusten saiatzen direla, hori zenbateraino egiten duten kontzienteki jakitea zaila bada ere. Ezaugarri horien artean ikusten ditugu aferesia zenbait aditzetan (*ekarri, eman, esan, etorri, ikusi*...), *deus* adberbioa (*ezer* ez da hiztunen hizketan aditzen) eta /j/ hotsa erabiltzea. [x] oso gutxitan entzuten da, hitz konkretu batzuetan bakarrik (*jai, jatorra...*). Horrekin batera, adinekoek gutxixeago erabiltzen zuten ezaugarri bat gehiago erabiltzera pasa dira: *-ikan* bukaera. Ezaugarri berritzat (kanpokotzat) har daitekeen arren, hiztunek bertakotzat dute, eta horrela hartuko dugu guk ere. Bestetik, beste ezaugarri batzuk lagineko gazteen mintzoan galdu egin direla esan behar da (*-ko(t)z, eskuara*). Beste batzuk ez dira erabat galdu, baina arrunt gutxitan aditzen dira (*gunun, arrunt, benpe / bede...*).

Aldaketari begiratzean, adina, ikasketa-maila eta erdialdekoekin harreman-maila gizarte-eragileek aldaketaren nondik norakoa ikusten lagundu digute hainbat hizkuntza-eragiletan, eta horiekin lotuta egin diren hipotesiak askotan bete dira. Horrela, adinekoak, ikasketa-maila apalekoak eta erdialdekoekin harreman gutxi izan dutenak izan dira gordetzaileen, eta gazteak, ikasketa-maila altukoak eta erdialdekoekin harreman-maila altua izan dutenak berritzaileen. Generoari dagokionez, egindako hipotesia gure datuek ez dute baieztatu, batzuetan emakumezkoa gordetzaileago agertu baita gizonezkoaren aldean. Ez dugu joera orokorrik aurkitu gizarte-eragile honetan. Euskal Herriko beste leku batzuetan gertatzen ari dena ezagutzea lagungarria izango da Goizuetan dagoen aldaketari neurria hartzeko.

## 5. B HIPOTESIA: ARAITZ-BETELUKO EUSKARAN ALDAKETA HANDIAGOA DA

Goizuetaren antzeko egoera duen ingurua izatea bilatu da Araitz-Betelun. Berdintasun horien artean daude Gipuzkoarekin muga egiten duten Nafarroako udalerriak izatea, euskararen ezagutza altua izatea eta biztanle kopuru antzekoa izatea. Araitz-Betelu aukeratzeko beste arrazoia da bertako euskara aztertu duten ikertzaileek diotela ezaugarri linguistiko batzuk aldatzen ari direla (Apalauza 2012, Zuazo 2013). Apalauzak gazteen mintzoari buruz dio aldakortasun handia sumatzen duela. Bere ustez, gipuzkoar ereduek gero eta indar handiagoa dute Araitz-Betelun, nahiz eta hori hala den jakiteko soziolinguistika ikerketa sakonaren falta azpimarratzen duen (2010: 121-122).

Goizuetako hizkera aztertzean, hizkeraren aldaketari lotuta hipotesi batzuk egin ditugu (ikus *4.* atala). Demografia aldaketari eta hizkeraren gaineko hautematearekin lotuta daude hipotesi horiek. Demografiari dagokionez, Goizuetak gainbehera demografiko handia izan du eta du gaur egun ere; Araitz-Betelun galera demografikoa egon da, baina gaur egun biztanle-kopurua mantentzen ari da, 1996tik bereziki, nahiz eta Betelun 1960tik ere beherakada oso txikia izan den.

Hizkeraren hautemateari dagokionez, Araitz-Betelun bertako hizkeraren ezaugarriez ohartzea zailagoa dela uste dugu. Edo behintzat, horretan laguntzen duela bertako egoerak. Izan ere, Araitz-Beteluren inguruan isoglosa asko dauden arren, gure ustea da bertako hizkeratik ingurukoetara ez dagoela salto handia (ezta euskara batura ere). Kanpora joanda, ondoan duten Tolosaldera adibidez, ez diete nabaritzen nongoak diren hizkeragatik (goizuetarren kasuan, Hernanira nahiz Leitza edo Malerrekara joanda, adibidez, berehala hartzen diete Goizuetako hizkeraren kutsua). Horrela izanda, bere hizkeraren eta ingurukoen arteko diferentziaz eta bertako hizkeraren ezaugarriez ohartzea zailagoa du bertako hiztunak eta, egoera honetan, hizkera errazago urtzen edo aldatzen dela da gure hipotesia[29].

29 Ideia honekin lotuta, Beteluko neska-mutil batzuek esandakoa ekarri dugu. Mutila Iruñeko euskaldunek Araitz-Beteluko hizkera ulertzeko zailtasunez ari dela, Araitz-Beteluko hizkera ez dela Goizuetako bezain "itxia" dio:

> Bai, bádaude batzuk [euskaraz] badakitela. Miño Iruñean euskeaz dakinak de, hasten baza hitz eiten hemen bezala, eztizute ulertzen. Beaiek euskera bátuan ta... Gañea, hitzein barra'aukezu poliki-poliki, bestela, eztizue ulertzen. Ta hoi gu..., bueno, igual gui iruittuko zaigu, hemen ez geala oso itxik de. Goizuetan askoz itxigoak die euskeraz. (...) Ulertzeko behintzet errexagoa [Araitz-Betelukoa]. Bai, ta nik eztittut ulertzen askotan [goizuetarrak], azkar hitzeiten ba(d)ue. Pues Iruñean berdiñe pasten zaie gukin. Ordun, juntatzen badie Iruñekoa ta Goizuetakoa't ya... Pua!

Beraz, bi baldintza horiek egiten dute bereizketa aztergai diren bi udalerrien artean: batetik, Araitz-Betelun gaur egun mantentze demografikoa dago eta, bestetik, bertako hizkerak ingurukoekiko diferentzia nabarmenik ez dutenez, hizkeraren berezitasuna lausoagoa da hiztunentzat.

Eta horren arabera, Araitz-Beteluko hizkera gehiago ari dela aldatzen da hipotesia. Hipotesi nagusi honetaz gain, gizarte-eragileka hipotesi gehiago ditugu hemen ere (gizarte-eragileen azalpen gehiagorako jo *5.3.* puntura):

1. Adinari dagokionez, gazteak adinekoak baino Araitz-Beteluko hizkerako forma gutxiago erabiliko dituela da hipotesia. Bestela esanda, hiztuna zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta bertako hizkerako forma gutxiago erabiliko dituela. Hori pentsatzeko arrazoia da gazteek euskara batuarekin (eskolan, ikus-entzunezko komunikabideetan etab.) eta erdialdeko euskararekin (eskolako irakasleak...) harreman gehiago izan dutela; zaharrek, aldiz, gaztelaniaz ikasi dute eskolan eta euskara batuarekin harremana beranduago izan dute ikus-entzunezkoen bidez batez ere. Adina bi modutan aztertuko da: multzotan banatua (gazteak, helduak eta adinekoak) eta aldagai jarrai bezala (20-80 urte).

2. Generoa (emakumezkoa / gizonezkoa): emakumezkoak Araitz-Beteluko hizkerako forma gutxiago erabiliko ditu gizonezkoak baino. Hipotesi honen oinarrian dago, orain arteko azterketa soziolinguistikoetan, mendebaldean ohikoa dela gizonezkoak gordetzaileago eta emakumezkoak berritzaileago agertzea.

3. Ikasketa-maila (altua / ertaina / apala): ikasketa-maila altua duenak Araitz-Beteluko hizkerako forma gutxiago erabiliko ditu maila apalagoa duenak baino. Zenbat eta maila altuagoa, orduan eta Araitz-Beteluko forma gutxiago. Hipotesi honetarako oinarria da ikasketa-maila altuagoa duenak kontaktu gehiago izan duela euskara batuarekin edo erdialdeko euskararekin, irakasleen nahiz ikasleen bidez. Adinekoen kasuan, eskola graduatua baino gehiago ikasi dutenak kanpora atera dira ikastera, gehienetan Gipuzkoa aldera.

4. Herria (Betelu / Arribe / Azkarate / Gaintza / Intza / Uztegi[30]): herriaren tamaina,

---

Antzera neska, irakasleez ari dela:

> "Nik uste't hemen euskera bastante garbie daukeula, errex ulertzen dela, beño igual nik galdera bat in da eziaten ulertzen. "Berriz errepikatuko didazu? (...) Oso grabea zen, oso grabea zen. Ni goatzen naiz amai ta esatea, es que jo, hemen, etortzen da goizuetar bat honea eta es que vamos, ez, ez, eztue ulertzen ezta atzeaka".

30 Atallu ez dago zerrendan, Atalluko hiztunik ez dagoelako gure corpusean.

errepidearekiko hurbiltasuna eta Gipuzkoarekiko hurbiltasuna dira hemengo hipotesia eraikitzean gakoak. Betelun espero dugu aldakortasun gehien herriaren tamainagatik eta errepide nagusitik hurbil izateagatik; Arriben errepide nagusiarekiko eta Gipuzkoarekiko hurbiltasuna da gakoa; Azkaraten Gipuzkoarekiko hurbiltasuna. Eta Gaintza, Intza eta Uztegin Gipuzkoarekiko hurbiltasuna txikiagoa da; horregatik hurrenkera hori.

## 5.1. SARRERA

Araitz-Betelukoak ez garenez, hango egoera hobeki ulertzeko bertako hiztunei galdetu diegu. 1.649 biztanle dira guztira, Araitzen 560 eta Betelun 342 (2013ko Udal Errolda). Ohartu omen dira bizilagunen kopuruak behera egin duela eta asko adin handikoak direla, baina ez omen dira horregatik bereziki kezkatzen (Goizuetan kezka handia da, orokorrean). Loteria egokitu zen 1998an eta harrezkero ume gehiago jaio omen da. Gainera, 2000. urtean haurtzaindegia sortu zen eta hori ere lagungarri izan zen bikote gazteentzat. Bestalde, Betelun eta Atallun etxe berriak egin dituzte, bertako gazteak bertan bizi ahal izateko. Horrek guztiak ulertzen laguntzen du bizilagun-kopurua mantentzea, eta baita gai horrekiko duten lasaitasuna ere. Beraz, egoera ez da Goizuetan bezalakoa, han biztanle-kopurua beheraka baitoa gaur egun ere.

Araitz-Betelu hobeki komunikatua dagoela pentsatzen dugu, eta horrek ere demografia mantentzen lagundu duela. Kilometroei begira, ondoko herrietara joateko distantzia antzekoa da Araitz-Betelun eta Goizuetan, baina Araitz-Betelun errepidea hobea da eta horrek bidea errazten du. Tolosa 20 kilometrotara dute eta Leitza 25era (bietara Betelutik 20 minutu inguru behar da autoz). Iruña urrutiago, 45era (40 minutu) eta Lekunberri hurbilago 10 kilometrotara (ordu laurden eskas). Araitz-Betelutik edo Goizuetatik lanera edo ikastera joateko behar den denboran alde pixka bat dago, beraz (Goizuetatik Leitzara edo Hernanira 30 minutu inguru dira autoz, Donostira 45, bihurgune asko dituen errepidean).

Hurrengo ataletan, Araitz-Beteluko hizkeraren aldaketa aztertzeko ze metodologia erabili den azalduko da. Ondoren, zein gizarte-eragile eta hizkuntza-aldagai aztertu diren azalduko da eta, bukatzeko, lanaren emaitzak eta ondorioak agertuko dira.

## 5.2. METODOLOGIA

### 5.2.1. Lagina

Goizuetan egin dugun bezala, generoa, adina eta ikasketa-mailaren arabera aukeratu ditugu hiztunak Araitz-Betelun ere. Horren helburua izan da Araitz-Beteluko gizon-emakumeak, gazteak (15-35) eta adinekoak (60tik goiti) eta ikasketa-maila bakoitzekoak egoki errepresentatzea. Gazteen eta adinekoen % 4'5 aztertzeko 19 hiztun aukeratu ditugu hemen ere, Goizuetan bezala.

| Adina | Generoa | Araitz | Betelu |
|---|---|---|---|
| gazteak (15-35) | emakumeak | 42 | 24 |
| | gizonezkoak | 46 | 40 |
| adinekoak (60tik goiti) | emakumeak | 70 | 45 |
| | gizonezkoak | 103 | 40 |
| **Guztira** | | **261** | **149** |
| | | **410 (% 4'5)** | |

5.1. taula: Araitz-Beteluko gazte eta adinekoen kopuruak (2013ko Udal Errolda).

Ez ditugu taula honetan ikasketa-mailaren datuak sartu, datu horiek beste adin-tarte baten arabera eskuratu ahal izan ditugulako. Ikasketa-mailaren banaketa, beraz, gutxi gorabeherakoa da. Laginketa egiteko jarraitutako metodoaz gehiago jakiteko, jo *3.4.* puntura. Laginketa horren arabera, Araitz-Beteluko lagina hau da:

| Aldagai soziolinguistikoak | | Hiztun-kopurua Araizkoak | Betelukoak | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| **Generoa** | emakumezkoak | 6 | 3 | 9 |
| | gizonezkoak | 7 | 3 | 10 |
| **Adina** | gazteak | 6 | 4 | 10 |
| | adinekoak | 7 | 2 | 9 |
| **Ikasketa-maila** | altua | 2 | 2 | 4 |
| | ertaina | 6 | 2 | 8 |
| | apala | 5 | 2 | 7 |
| **Guztira** | | 13 | 6 | 19 |

| **Generoa** | |
|---|---|
| emakumezkoa | 9 |
| gizonezkoa | 10 |
| **Adina** | |
| gaztea | 10 |
| adinekoa | 9 |
| **Ikasketa-maila** | |
| altua | 4 |
| ertaina | 8 |
| apala | 7 |

5.2. taula: Araitz-Beteluko lagina.

Goizuetako lagina antzekoa da: 9 emakume eta 10 gizonezko daude Goizuetan ere, eta ikasketa-maila altuko 4 hiztun, maila ertaineko 9 eta maila apaleko 6. Beraz, ikasketa-mailan

aldaketa da maila ertaineko hiztun bat gutxiago dugula Araitz-Betelun eta maila apaleko bat gehiago. Adinari dagokionez ere, balioak antzekoak dira: Araitz-Beteluko laginean 10 gazte daude, eta 9 adineko, Goizuetan baino gazte bat gehiago eta adineko bat gutxiago. Aldaketa horiek eta gainerakoak udalerri bakoitzak dituen ezaugarri soziolinguistikoak laginean bildu nahiak eraginak dira.

Laginketako proportzioak hemen ez dira Goizuetan bezain ongi bete: ikasketa-mailari dagokionez, Betelun maila apaleko hiztun bat gutxiago egon behar zen, eta ikasketa-maila ertaineko bat gehiago. Adinari dagokionez, berriz, adinekoen multzoa bitan banatu dugu: helduak eta adinekoak. Hori horrela egin da ikasketa-maila ertaineko adinekoak aurkitzeko zailtasunek eraginda eta Goizuetako emaitzetan tarteko belaunaldia aztertzea garrantzitsua dela ikusita. Helduen artean, 54 urteko emakumezko bat eta 45 eta 55 urteko gizonezko bana ditugu, 45-55 adin-tartea beraz. Hiztun horiek ez dute betetzen laginketarako kontuan hartutako adin-tartea, 60tik goitikoa baitzen hori.

Hiztunen anonimotasuna babesteko eta datuak errazago erabiltzeko, hiztunen izenak letra eta zenbaki bidez kodetu ditugu. Adibidez: AEZE1A (Araizko emakumea, zaharra, ikasketa-maila ertainekoa, ezaugarri horiek dituen 1. hiztuna, eta Amaia elkarrizketa-egile izan duen grabazioa), BEZB3A (Beteluko emakumea, adinekoa, ikasketa-maila apalekoa, ezaugarri horiek dituen 4. hiztuna, eta Amaia elkarrizketa-egilea duena) eta abar. Araitz (A) eta Beteluko (B) hiztunak siglen bidez desberdindu ditugu, baina kontaketa ez da horren arabera aldatzen (ezaugarri horiek dituen 4. hiztuna da, nahiz eta Beteluko 1.a izan). Horretaz gain, hiztun bakoitzari hasieran zenbaki bat jarri diogu, 1etik 19ra.

Kode horietan informazio osoa heldu da; batzuetan, ordea, hobe da izendatze soilagoa erabiltzea, grafikoetan adibidez. Hiztun bakoitzaren generoa eta adina adierazten dute laburdura horiek: *ea* laburdurak 'emakumezko adinekoa' esan nahi du, *eh*-k 'emakumezko heldua' eta *eg*-k 'emakumezko gaztea'. Gauza bera gizonezkoei dagokienez, *ga, gh, gg* laburdurekin. Horrela, 1.AEZE1A erabili ordez, *eh1* ('emakumezko heldua 1') erabiliko dugu grafikoetan, 4.BEZB3A erabili ordez, *ea4* ('emakumezko adinekoa 4'). Hona hemen zerrenda, kode osoak eta kode laburrak biltzen dituena:

| Kode osoa | Kode laburra |
|---|---|
| 1. AEZE1K | *eh1* |
| 2. AEZB1A | *ea2* |
| 3. AEZB2A | *ea3* |
| 4. BEZB3A | *ea4* |
| 5. AGZE1K | *gh1* |
| 6. AGZB1A | *ga2* |
| 7. AGZB2A | *ga3* |
| 8. AGZB3A | *ga4* |
| 9. BGZB4K | *gh5* |
| 10. AEGA1O | *eg1* |
| 11. AEGE1O | *eg2* |
| 12. AEGE2O | *eg3* |
| 13. BEGA2O | *eg4* |
| 14. BEGE3O | *eg5* |
| 15. AGGA1K | *gg1* |
| 16. AGGE1K | *gg2* |
| 17. AGGE2K | *gg3* |
| 18. BGGA2O | *gg4* |
| 19. BGGE3O | *gg5* |

5.3. taula: Araitz-Beteluko hiztunen kodeak.

### 5.2.2. Grabazioak

Elkarrizketak oinarri metodologikoei buruzko atalean (*3.5.*) azaldu bezala egin dira guk egin ditugunean. Izan ere, Araitz-Betelun elkarrizketa guztiak ez ditugu guk egin behar izan, aurretik beste ikerlariek egindako batzuk utzi dizkigutelako: Amaia Apalauzak Kontxi Arraztiorekin batera eta Koldo Zuazok egindakoak dira horiek. Gainerakoetan ere, guk erabili ditugun grabazioetan, helburua berbera zen: bertako bat-bateko hizkera aztertzea. Horretarako, elkarrizketa bideratua erabili dute Apalauzak eta Arraztiok (Apalauza 2012: 139-150) eta baita Zuazok ere (2013: 16-18).

Elkarrizketa-egile desberdina izateak grabazioetan eragin handirik ez duela pentsatuz egin dugu hori horrela, hasiera batean. Izan ere, erabilitako grabazioetan helburua berbera izan da, bertako hizkera modu espontaneoan biltzea. Diferentzia nagusia da iritzia eskatzen duten galderak eta hizkerei buruzkoak egin ditugula elkarrizketaren bukaeran. Araitz-Betelun erabili dugun galdetegia 4. eranskinean dago. Grabaketak 2005ean (Apalauzak eta Arraztiok), 2010ean (Zuazok) eta 2013an (guk) egin dira. Transkripzio batzuk 5. eranskinean bildu dira.

Diferentzia gehiago ere badaude, ordea: hiztuna Araitz-Betelukoa da Kontxi Arraztioren kasuan, eta Apalauzaren aita Betelukoa da. Zuazo eta Lujanbio ez dira bertakoak. Apalauzak eta Arraztiok batera egin zituzten grabazioak eta ikertzaileak ez dira arrotzak. Horretaz gain, adina eta generoaren arabera diferentziak daude elkarrizketa-egileen artean.

Elkarrizketatzaile diferentea izateak hizkuntza-aldagaietan eraginik izan ote duen aztertzea izan da asmoa hasieran eta horretan aritu gara, hori aztertzeko sortutako elkarrizketa-egilearen bidez. Baina korrelazioekin egin dugu topo berriz ere. Izan ere, adinekoak Apalauzak eta Arraztiok elkarrizketatuak dira, Zuazok hiru helduak eta hiru gazte elkarrizketatu ditu, eta Lujanbiok gainerako gazteak eta, beraz, adinaren (eta, ondorioz, ikasketa-mailaren) eta elkarrizketa-egilearen artean lotura handiegiak daude analisi estatistiko egokiak egin ahal izateko. Honela, azkenean ez aztertzea erabaki dugu.

## 5.3. HIZKUNTZA-ALDAGAIAK

Ikerketaren lehen zatian bezala, hemen ere hizkuntza-aldagaiaren aldaerak aurkeztean hurrenkera jakin bat erabiliko da: aurrena, aldaera zaharragoa (edo "bertakoagoa") dela uste duguna paratuko dugu, eta ondoren, berriagoa dena. Lehenengo hori bertako aldaeratzat hartuko dugu, dela zaharrenek hori erabiltzen dutelako gehien, dela horrek bertako hizkerari kolorea ematen diolako. Hiru aldagai fonologiko ditugu, lau morfologiko eta bost lexiko. Fonologikoen artean ditugu deklinabide-atzizkietan artikuluak kontrakzioa egiten duen edo ez *(semeak / semek), a* > *e* bilakaera *i* eta *u* ondoren *(mendie / mendia)* eta *u* > *o* bilakaera adizkietan *(dozo / duzu)*. Morfologikoen artean, *-ti / -tik* bukaerak *(nondi / nondik, -iken* atzizkia barne), *izan* aditzaren erroa *(ga(ra) / gea* eta *dena / dana)*, *edun* aditzaren erroa *(dot / dut / det)* eta pluraleko 3. pertsonako NORK morfema *-e* edo *-te* den *(due / dute).* Azkenik, ezaugarri lexikoen artean, *biño / baño, ezer / deus, ongi / ondo, guzi / guzti* eta *zerbatte / zeoze(r) / zerbait.*

Goizuetako zatian bezala, hemen ere aldagai fonologiko, morfologiko eta lexikoez gain, beste bi badira: erdarazko esaldiak eta makulu-hitzak. Aldagai fonologikoen azalpenarekin hasiko gara.

### 5.3.1. **Artikuluaren kontrakzioa deklinabidean *(semeak / semek)***

Hizkuntza-aldagai hau aurkeztean, aurrena kontrakziorik gabeko aldaera jarri dugu, aldaera zaharragotzat jo duguna, adinekoek gehiago erabiltzen dutela iruditu zaiguna. Eta ondoren kontrakziodun aldaera, gazteen artean indarra hartzen ari dela uste duguna. Lehen begiratu batean behintzat, gazteek kontrakzio gehiago erabiltzen dutela dirudi, nahiz eta kontrakoa espero zitekeen, eskolan forma osoak ikasten dituztela kontuan hartuta.

Hizkuntza-aldagai hau Euskal Herri osoko ezaugarria da (Zuazo 2014: 205-206). Horrek esan nahi du Euskal Herriko edozein bazterretan aurki daitekeela, baina ez da leku guztietan erabiltzen. Askotan gertatzen da, gainera, herri batean egitea eta ondokoan ez. Araua da leku askotan, esate baterako, Bizkaian Uribe Kostan eta Gipuzkoako Goierrin. Goizuetan ere araua da, beti egiten da, eta horregatik ez dugu aztertu han. Araitz-Betelun badirudi adinekoen artean ez dela batere arrunta, nahiz eta gazteen artean agertzen den; honengatik da interesgarri udalerri honetan aztertzea. Araitz-Beteluren inguruan, Larraun ibarreko zenbait herritan ere agertzen da ezaugarri hori.

Araitz-Beteluko hiztunek deklinabide atzizkia eraikitzen dutenean, artikulua sar dezakete. Adibide honetan ikusten den bezala, hiztun berberak batzuetan erabiltzen du, eta besteetan ez: *"Hala giñaltzela, beste batek ikusi zula BESTALDEAN, HONOZKALDEN, da ordun esan giñun..."*. Adibide honetan bezala, bi aldaerak esaldi berean agertzen direnean, adibide bikaina dugu, *super-token* deitutakoa (Tagliamonte 2006).

Deklinabide atzizkiek artikulua eduki dezakete, bai singularrean, eta baita pluralean ere. Horregatik, biak hartuko dira kontuan hizkuntza-aldagai honetan; hau da, euskara batuan bokal sekuentzia duten forma guztiak: singularra eta plurala (mugagabea ez)[31]. Ondorengo taulan agertzen dira deklinabideko kasuak singularrean eta pluralean, galdu daitezkeen bokalak parentesien artean adieraziz (Zuazo 2013: 52).

31 Mugagabean badirudi artikulua ez erabiltzea dela joera. Gertatzen dena ziur zer den jakiteko adibide gutxi ditugulako eta euskara batua hartu dugulako eredu, mugagabea ez dugu aztertuko, ordea.

| kasua | singularra | plurala |
|---|---|---|
| NOR | umea | ume(a)k |
| NORK | ume(a)k | ume(a)k |
| NORI | ume(a)i | ume(a)i |
| NOREN | ume(a)n | ume(a)n |
| NOREKIN | ume(a)kin | ume(a)kin |
| NORTAZ | ume(a)z | ume(a)z |
| NORENGATIK | ume(a)ngati(k) | ume(a)ngati(k) |
| NORENTZAT | ume(a)ntzat | ume(a)ntzat |
| NORENGAN | ume(a)ngan | ume(a)ngan |
| NORENGANA | ume(a)ngana | ume(a)ngana |
| NORENGANAINO | ume(a)nganaño | ume(a)nganaño |
| NORENGANAKO | ume(a)nganako | ume(a)nganako |
| NORENGANDIK | ume(a)ngandi(k) | ume(a)ngandi(k) |

5.4. taula: Araitz-Beteluko deklinabide kasuak singularrean eta pluralean.

Beraz, deklinabideko kasuak berdinak dira singular eta pluralarentzako. Pentsa daiteke azentuaren bidez bereiziko dituztela singularra eta plurala, eta bertako hiztun batzuei eskatu diegu bertako formak esateko. Araizko emakumezko helduak honelako adibideak eman dizkigu: *uméakiñ* (sg) / *umeákiñ* (pl), *gizónakin* (sg) / *gizonákin* (pl), *uméai eman diot* (sg) / *umeái eman diet* (pl), *gizónai* (sg) / *gizonái* (pl). Goranzko azentua da beti (Hualde eta Lujanbio 2008). Betelukoa gizonezko helduak, ordea, ez ditu singularra eta plurala azentu bidez desberdindu: *uméakin* (sg) / *uméekin* (pl), *gizónai* (sg) / *gizónei* (pl). Pluraleko atzizkia euskara batuan bezala erabiltzen duela ematen du. Baina hasieran horrelako adibide bat eman zigun (horrela ulertu genuen, behintzat): *úmeai* (sg) / *uméai* (sg + pl). Bokal luzeak ere badaude hizkera honetan, eta baliteke horiek ere azentua bereizten laguntzea. Azterketa sakonagoa beharko litzateke Araitz-Beteluko azentua nolakoa den jakiteko. Hiztunen arabera, ez dago desberdintasunik hizkeran herritik herrira, baina kasu honetan badago.

Hona datiboaren adibide batzuk gertatzen dena ikusteko. Adineko emakumezko baten adibideak dira, denak NORI pluralean:

gustatzen tzaiu ODOLKIZALEAI

da buelta eman HESTEI da geo hestea garbittu

ETXEKOAI bintzet bai. Etxeko txerrii

Emakumezko gazte batek soziatiboarekin *super-token* hau eman digu, berriz:

*"LARRAUNGOKIN da LEKUNBERRIKOAKIN gehixeo".* Gizonezko gazte baten adibidea da hurrengoa: *"aurten UMEAK in tzazken da UMEAKIN ibiltzeko, gaizki".*

Corpus osoan lau adibide jaso ditugu pluralean *-a-* erabili ordez, batuan bezala *-e-* erabiltzen dutenak. Adibide horiek ez dira kontuan hartuko analisia sinpletzeko. Halaber, *-e* bokalaz amaitzen diren hitzak pluralean badaude, ezin dugu jakin batuan bezala *-e-* erabiltzen ari ote diren. Beraz, anbiguoak dira eta hauek ere ez dira aztertuko. Hara emakume gazte baten adibide batzuk (pluralak dira biak):

ongi, eztakit BESTEK ze esango'uen

Bai, ta sobre todo UMEKIN baldin bazaude

Horretaz gain, deklinabideko kontrakzioak bilatzean zalantza sortzen duten adibideak ez dira aztertu. Adibidez, 15. hiztunak (AGGA1O) *Kantuzalen Elkartea* esaten duenean, *Kantuzalean* esan zezakeen, baina izen ofiziala *Kantuzaleen Elkartea* denez, eta horrek eraginda erabili dezakeenez horrela, kontuan ez hartzea erabaki dugu.

Beste ingurune hau ere ez da aztertu; *-i* eta *-u* bokalez bukatzen diren hitzetako deklinabideko kontrakzioak. Artikuluaren aurrean *i* edo *u* dagoenean, kontrakzioa egiteko joera dago. Orduan, hipotesia hau da: artikulua jan egiten dela *iaC*[32] > *ieC* > *iC* eta *uaC* > *ueC* > *uC* bilakaerak gertatzen direlako. Horrela, *herrik, mendin, ordun*... esaten dute. Hipotesi hau ezeztatzeko kontrako adibideak aurkitu behar: *txikiek, bilduek* bezalakoak. Elkarrizketa guztiak transkribituta, arau horri 30 salbuespen inguru topatu dizkiogu; gutxi dira, kontuan hartuta guztira 2.055 adibide ditugula corpusean eta hiztun bakoitzak ehun adibidetik goiti eman dituela gehienetan. 30 salbuespen horiek hemen bildu ditugu, hiztunaren arabera:

1.AEZE1K hiztunaren adibidea: "BASERRIEKIN".

2.AEZB1Arena: "GARIENTZAT".

3.AEZB2Arena: “HARIEKIN”, “PIPIEN hautse” (lau aldiz).

5.AGZE1Krenak: “GOIEN”, “berroita HAMALAUEN”.

6.AGZB1A hiztunaren adibideak: "zakorre ERBIEKIN", "KATUEN figurean" (bi aldiz), “ETSAIEN mendean”, “GOSAIEN erdie”, “esan emen zion ETSAIEI”.

7.AGZB2A hiztuna: "txaola bakarrik ESTALKIEKIN“, “lehorra aparte HESIEKIN itxie zela", "TXIMIÑIEN, zea, kea ateatzeko", "ateatzeko zuloa, SUEN parean", "eitten TZUEN, e? IRIEN burue

32 C = kontsonantea.

uzten bazuen".

8.AGZB3A hiztuna: "oañ esaten die MAKIEN...", "ta ni hara BAZKAIEKIN", "juerga izaten tzen, SOÑUEKIN".

9.BGZB4K hiztuna: "Beñardon eta GARAIEN", "eta pues korrika KONTUEN, pues alde hortatik...".

11.AEGE1Oren adibideak: ”da gero TTIKIEKIN geitzen naiz", "bialdutakon ya TTIKIEKIN geldittu".

13.BEGA2O: “FREKUENTZIAKIN”.

15.AGGA1O: “PIXUANGATIK”.

17.AGGE2K: "ARDIEK" ("ARDIK" ere erabiltzen du).

Beraz, *ieC* eta *ueC* duten adibideak 30 inguru direla esan dugu eta *iC* edo *uC* dutenak askoz ere gehiago dira eta esan dezakegu *ia / ie / i + atzizkia* eta *ua / ue / u + atzizkia* bukaerak, ia denak *i + atzizkia* eta *u + atzizkia* bihurtzen direla. Hori dela eta, hemen aldakortasuna oso txikia da, eta gertaera hori *iaC* > *ieC* > *iC* eta *uaC* > *ueC* > *uC* arau fonologikoak eragina dela iritzita, *-i* eta *-u* bokalez bukatzen diren hitzak ez aztertzea erabaki dugu.

Horretaz gain, *-a* itsatsia duten hitzak ere ez dira aztertuko, gehienetan *-a* + atzizkia direlako *(azak, arbolantzat...)*. Salbuespen batzuk ere badira, ordea, eta hona ekarri ditugu:

2.AEZB1A hiztunarenak: "bai, GAINTZEN, INTZEAN da Arreben" (*super-token*), "xuabeoa itten tzen INTZEAN", "INTZEAN tzen arto-iriñe".

4.BEZB3Arenak beste hauek: "garbi-garbi in UREAN, da ozpiñekin da", "hiru o lau aldiz UREAKIN pasa, tripe", "ure jarri, da UREKIN garbi-garbi in", "baatxuri jarri UREEKIN, bezperati", "eurtzi lehemizi UREEKIN da salmuerakin".

5.AGZE1Krena: “papelera MAILLEAN aurreratunak".

9.BGZB4K hiztunarena: "sokatiran. Naparro MALLEN geldittu giñen".

6.AGZB1A hiztunaren adibideak: "INTZEAN apezak e...", "bai, INTZEAN aittu't nik hoi", "Intzeko ixtorie. INTZEAN. Hemen GAINTZEN ta hola", "Eta karnalak e INTZEN, da Uzteiñ", "han dena jarri FILEAN", "patatak irakitten UREAN", "bat einda, baten FIUREAN atea men tzeen", "lauek. Baten FIUREAN".

7.AGZB2A hiztunaren adibideak: "GAÑEAN joaten tzen, ALTUREAN eusten tziela", "ALTUREAN. Da, geo, mendi...", "ta INTZEAN eondu nitzen", "INTZEAN, hemen hil tzen".

8.AGZB3A hiztunarena: "ta harrei oañ, INTZEAN do hoitan".

11.AEGE1Orena: "Araitzen, GAINTZEN eta Uztegin".

Gure corpusean bilaketa *Simple Concordance Program*-ekin egiteko garaian, esan bezala, *-i* eta *-u* bukaeradun hitzak ez dira aztertu, ezta *-a* itsatsidunak ere. Horrela, *-e* eta *-o* bokalez bukatzen diren hitzak dira bildutakoak. Artikuluaren kontrakzioa aztertzean, bokal batez edo besteaz bukatzeak eraginik ote duen aztertuko da *e* edo *o* bereiziko duen hizkuntza-eragilearen bidez.

### 5.3.2. ***e / a (mendie / mendia)***

Euskal Herriko beste hizkera askotan bezala, Araitz-Betelun ere *a* > *e* bihurtzen da *i* edo *u* bokalen eraginez (*a* > *e / i, u__*). Zuazoren arabera (2014: 265-266), Hego Euskal Herriko ezaugarria da eta Hego Euskal Herriko hizkera askotan agertzen da. *"Bizkaia, Arabako alderdi euskalduna, Gipuzkoako hegoaldea eta Nafarroako alderdi zabala daude eremu barruan"* (Zuazo 2014: 265). Bilakaera fonologiko hau ingurune desberdinetan agertu ahal da eta, horren arabera, bilakaerak duen indarra neur daiteke. Bost ingurune aipatzen ditu Hualdek (1991: 25-33) eta horietan Araitz-Betelun gertatzen dena azalduko dugu ondorengo lerroetan:

1. Lehen ingurunean, morfema-barnean, agertzen da bilakaera hau Araitz-Betelun, baina oso gutxitan. Adineko emakumezko baten (1.AEZE1K) adibideak dira hauek: *bialdu, igual, ikasi, jubilatu, konfiatu* (eta ez *bieldu, iguel, ikesi, jubiletu, konfietu*). Adibide horietan, *-e*-dun formak erabiltzea arraroa izango litzateke Araitz-Betelun, oro har. Dena den, Beteluko adineko emakume batek (4.BEZB3A), *kuretzen, kuretzeko* eta *irekin* erabili ditu, adibidez.

2. Bigarren ingurunean, deklinabidean aurkitzen dugu bilakaera hau gehienetan: *mendia* > *mendie, mendira* > *mendire*. Araitz-Betelun artikuluarekin maiz agertzen da eta beste eratorpen atzizkiekin gutxiagotan, gure ustez. NORA kasuarekin gure corpusean aurkitu dugun adibide bat hauxe da, emakumezko gazte batek (14.BEGE3O) emana, gainera: *Arbizue* erabili du (*Arbizura* > *Arbizure* > *Arbizue*). *-a* itsatsia duten hitzetan, *-a* horrek artikulua balitz bezala jokatzen du, hau da, orokorrean arau fonologiko hau betetzen du. Horregatik, adibide horiek ere multzo honetan aztertuko dira, *gauze, musike, ohiture* eta *Gaintze* gisakoak. Superlatiboko *-en* atzizkidun adibideak ez dira kontuan hartu, beti esaten delako *e* (*lagun miñena* eta *apalena, zabalena...*).

3. Hitz eratorrietan agertzen da fenomeno hau, baina gure corpusean oso gutxitan. Adibidez, gizonezko gazte batek (19.BGGE3O) *txukunego* erabiltzen du, baina ondoren *euskaldunagoa*. *Laguntze* gisako adibide batzuk ere izan ditugu, baina oso gutxi. Eta mota honetako adibiderik ez dugu topatu: *utzite, mendixke*, *tratuleri*, *aldizke. -ika* atzizkidunak bai ordea, *zintzilike (*eta *txintxilike)* modukoak, eta normalean *-e* dute.

4. Konplementatzaileetan ere ez dugu adibiderik topatu. Mota honetakoa da *dugule (< dugula)* adibidea. Erlatibozkoak ere hemen sartu ditugu, baina gure ikerketan ez dira kontuan hartu; Araitz-Betelun *-a* egiten dute ingurune honetan (*nahi zuna, iruitze zaizuna*).

5. Hitz morfologikoen artean, mota honetako adibideetan bakarrik topatu dugu bilakaera: *harri bet, egun betzuk.* Hau da, *bat* eta *batzuk* zenbatzaileen aurretik, *-i-* edo *-u-* dagoenean. Eta ez beste hauetan: *etorri de, Patxi de, torri gera, in zezu; bi te hiru, Patxi te Koldo.*

Ingurune hauei adizkietan gertatzen diren bilakaerak gehituko dizkiegu. Horien artean daude *die* (< *dira*), *dauke* (< *dauka*), *dauket* (< *daukat*), *daukezu* (< *daukazu*) eta gisa horretako adizkiak.

Inguruneen banaketa honela izanda, estatistikak egiteko aurreneko, bigarren, bosgarren eta adizkien inguruneak hartuko ditugu haintzat, hau da, morfema barreneko *b(eh)intzet*[33], deklinabideko bilakaerak, *-i / -u bet(zuk)* eta adizkiak aztertuko ditugu. Izan ere, beste inguruneetan adibide gutxi ditugu, eta horien artean oso gutxi bilakaera fonologikoa egiten dutenak. Analisi estatistikoak egoki egiteko zailtasunak egongo lirateke. Bosgarren ingurunean ere adibideak ez dira gehiegi, baina banaketa nahikoa orekatua da. Alegia, hiztun askok erabiltzen dituzte hizketaldi berean *-i / -u bat(zuk)* nahiz *-i / -u bet(zuk)* formak. Lehen inguruneko *b(eh)intzat / b(eh)intzet* adibideak kontuan hartuko dira (morfema barneko adibideak), *e / a* txandakatzea agertzen dutelako eta maiztasun handia dutelako.

Adizkien artean, maiz agertzen direlako eta bi eratako aldaerak hiztun askok erabiltzen dituztelako, hauek aztertuko dira: *die / dia*[34] (eta *dire / dira*), *zien / zian* (eta *ziren / ziran*), *ni(n)tzen / ni(n)tzan, ziñen / ziñan, giñen / giñan*, *dauket / daukat, dauke / dauka, daukegu / daukagu, daukezu / daukazu, daukezue / daukazue, daukete / daukate*, horien eratorriekin

33 Nahiz eta berez hitz polimorfemikoa izan (*behin+tzat*), 1. multzoan aztertu da.
34 Hiketako formak (*diek / diak, ziek / ziak, nien / nian* eta eratorriak) ez dira aztertu, bikote bakoitzetik bakarra bildu dugulako gehienez. Adibide horietatik ezin dugu jakin bikote horietan aldakortasunik ba ote dagoen; 9. hiztunak *diek* erabili du behin, 15.ak *nian* eta 17.ak ere *nian*.

(*bait-, -(la)ko* eta gainerako atzizkiekin).

Bigarren inguruneari dagokionez, inesiboko hainbat adibide ez dira kontuan hartuko: *lurrean, urean*... bezalako adibideak eta *San Martiñetan* edo *holako eunetan* bezalakoak. Izan ere, horiek *e* egitea normala da, baita *a* > *e* bilakaera egiten ez duten hizkeretan ere (erroan goiko bokala ez duten hitzetan gertatzen den bezala: *azalean, San Tomasetan*...). Horregatik, horrelako formak ez dira aztertuko, baina bai, *-i* edo *-u* bokalez bukatzen diren hitzetako bilakaerak, adibidez, *mendien* ('mendian'), *urrien* ('urrian'), *kontuen* ('kontuan'), etab. Inesibo pluralean *a* ixtea ez da arrunta, eta *menditen* ('mentietan') moduko adibideak oso arraroak dira. *-tan* > *-t(t)en* bilakaera inesibo mugagabean gertatzen da, adibide zehatz batzuetan eta atzeraka doan ezaugarria da (Apalauza 2012: 234). Inesibo plurala eta mugagabea ere ez dira hemen aztertuko. Beraz, bigarren ingurunean, deklinabidean, inesibo singularra (aipatutako murrizketekin), adlatiboa, *-ike(n) / -ika(n)* bukaerak eta artikuludun formak aztertuko ditugu. Artikuludun formen barnean daude genitiboa daramaten atzizkiak ere: *intxaurren azala* 'intxaurraren azala', *suen parean* 'suaren parean', *estalkiekin* 'estalkiarekin'... *Buruantzako* 'buruarentzako' bezalako adibideak ere badira, *a* aldaera daramatenak. Bigarren ingurunea azaltzean esan bezala, *-a* itsatsia duten hitzak ere hemen aztertuko dira.

Bigarren ingurune honetan kontuan hartuko da *a* mantentzeko joera duten hitzak diren edo ez. Izan ere, badira batzuk beti *a* bokalarekin esaten direnak, nahiz eta hiztunak *e* egiteko joera izan. Hori aztertzeko *Berezitasunak* hizkuntza-eragilea sortu dugu, berezitasunak ez dituztenak dituztenetatik bereizteko. Berezitasunak dituztelako *a* mantentzeko joera dutenak hauek dira, gure ustez: *-a* itsatsidun hitz batzuk, aurreko silaban *j* bokalerdia dutenak, *i* eta *u* berriak dituzten euskal hitzak, deklinabide-atzizkia artikulua ez dutenak, inguruko leku izenak[35] eta mailegu berriak. Ondorengo zerrendan agertzen dira gure corpusean agertu eta berezi bezala markatu diren hitzak:

35 Gainerako leku izenetan *e* ez dela sekula egiten ikusi dugu (**Donostie, *Azkoitie*) eta, gainera, gutxitan agertzen dira. Agertu direnak *a*-rekin agertu dira beti: *Azkoitia, Basaburua, Behobia, Bidania, Bizkaia, Donostia, Otsagabia; Afrika, Alemania, Italia, Kataluña, Rusia, Soria*; horiek ez dira aztertuko. *Iruña / Iruñe* alternantzia ere ez da aztertuko, hiztun bakoitzak bere erara egiten duelako eta ez dagoelako aldakortasunik hiztunka. Izen propio batzuk ere agertu dira, baina horiek ere gutxi dira eta beti *a* egiten dute: *Euskadi Irratia, Eguzki Irratia, Berria* (egunkaria), *Gure Aita* eta *Aita Damaso.* Horiek ere ez dira hemen aztertuko.

| Berezitasunak hizkuntza-eragilearen aukerak | Hitzen zerrenda |
|---|---|
| *-a* itsatsia dutenak | *adina* (partik.), *aita, ardura, hamaika, kutxa, muga, nekazaritza, onura, sokatira, telebista, uda*[36]*, -ka(da) (zartaika, eskuka, kazulka).* |
| *j* bokalerdia aurreko silaban[37] | *anaia, bidaia, garaia, ideia, maila, gaztaina, koila (kolle,* 'izotza' esanahiarekin)*, saila, zaila.* |
| *i / u* berria | *attuna* 'aitona'*, bahia* 'bahea', *behira* 'behera', *kazula* 'kazuela', *paita* 'pareta', *seketaira* 'sekretaria', *igul-igula* 'igual-iguala'[38]) |
| deklinabide-atzizkia, artikulua ez duena[39] | adlatiboa (*-ra, -raino, -rako*), *-ike(n)* bukaerak. |
| inguruko leku-izenak | *Intze* 'Intza'*, Gaintze* 'Gaintza'*, Leitze* 'Leitza' |
| mailegu berriak (bukaeraren arabera multzoetan bilduak) | *-ia / -ua* bukaera dutenak: *aberia, amnistia, ekonomia, frekuentzia, historia, hostia, industria, lejia, maestria, makineria, notizia, plaia, pedagogia, psikologia, soziologia, teknologia, kontzientzia, pazientzia, zientzia, proiektua, tregua.*<br>*-ika* bukaera*: elektronika, fabrika, fisika, genetika, histerika, kronika, matematika, mekanika, musika, praktika.*<br>*-ila / -ula* bukaera: *balbula, fila, kutxila, maskarila, matrikula, pelikula, plantila.*<br>*-ina* bukaera: *brilantina, makina, rutina, ofizina, pistina, tina.*<br>*-isa, -usa* bukaera: *eskusa, krisisa, tifusa.*<br>*-ista* bukaera: *artista, dentista, elektrizista, lista, kontratista, ziklista.*<br>*-ura* bukaera: *asignatura, montura, soltura.*<br>-beste batzuk: *diska, duda, dutxa, errima, labatiba, paliza, ruta, salida, txupa.* |
| berezitasunik ez | gainerako hitzak eta inguruneak |

5.5. taula: *Berezitasunak* hizkuntza-eragilearen aukerak, bildutako hitzen zerrendarekin.

36 Badirudi *udara* > *uda* egin dela eta horregatik (morfema barneko ingurunea zelako) ez dela **ude* inoiz agertzen. Hala ere, kontuan hartu nahi izan dugu hemen *uda* aldaera, baina ez *udara,* hiztunen ahotan biek agertzen badira ere. Bestetik, beste hitz hauek ere *-a*rekin agertu dira, agertu diren aldi bakanetan. Ez dakit zein den berezitasuna (ez dute *-a* itsatsia) eta horregatik, hitz normaltzat hartu dira: *ixtoria, batua, kiwia.*

37 Ez dira kontuan hartu *-on* > *-oi* bilakaera, bertako ezaugarria ez delako eta adibide gutxi bildu direlako corpusean (*armazoia, baloia, briñoia, folloia, frontoia, kamioia, kartoia, melokotoia, pabeiloia*). Adibide horiek behin bakarrik erabili dira eta gainera, beti *-a* bukaerarekin agertu dira.

38 *-ea* > *-ia* bilakaera ere ez dugu kontuan hartu bertako ezaugarria ez delako, nahiz eta adibide gutxi batzuk agertu zaizkigun (*baztarrian* 'bazterrean', *luzia* 'luzea', *ohia* 'ohea'). Apalauzaren esanetan *-ia* hori kantetan eta bertsoetan erabiltzen da, baina ez bestela.

39 Kasu bakan batzuetan, deklinabide-atzizkia beste berezitasun batekin batera agertu da hitz berean. Adibidez, *behira* ('behera') adibidean *i* berria izatea *-ra* atzizkiarekin batera doa. Horrelakoetan, deklinabide-atzizkia ez da kontuan hartu eta hitzaren berezitasuna lehenetsi da (ez atzizkiarena), eta ezaugarri hori bakarrik aztertu da.

Mailegu berrien kasuan, diferentzia bat ikusten dugu zerrendan dauden hitzen artean. Batzuk gure corpusean beti *-a* egin dute, baina gure ustez, *-e* egitea posible dutenak dira. Beste mailegu batzuk *-e* egitea oso arraroa dela uste dugunak dira, hauexek: *fila, labatiba, brillantina, makina, rutina, ofizina, tina, pistina, mekanika, elektronika, histerika, balbula, dutxa, ruta, errima, txupa, diska, paliza.* Dena den, hitz horiek guztiak aztertuko ditugu, eta ikusiko dugu ia denak *-a* bokalarekin agertu diren. Adibide gutxi dira eta hitz horiek agertzen direnetan markatu eginen dira.

Askotan, zaila da muga jartzea; zein da *e* egitea zaila duen ingurunea, eta zein ez? Ingurune horiek xehetzen lagundu digu Apalauzaren lanak (2012: 230-242) eta hor esaten denak gure corpusean ikusitakoarekin bat egiten du: Araitz-Betelun *a* > *e* asimilazioa indartsua dela dio berak ere, euskarazko hitzetan zein maileguetan ingurune fonologiko askotara hedatu delako. Esate baterako, adlatiboan (*-ra* > *-(r)e*) eta *-i, -u* (C) + *bat* zenbatzailean (*bat* > *bet*). Morfema barnean, asimilazioa ahula dela dio (2012: 240).

Ezaugarri honen eremu geografikoaz ere hitz egiten digu Apalauzak (2012: 240-242). Goian aipatu bezala, Euskal Herriko eremu zabalean erabiltzen da eta Nafarroan hedadura zabala duen ezaugarria da. Araitz-Beteluk ekialdera duen Larraunen, eta iparraldean dituen Leitza eta Areson indartsu dago bilakaera. Araitz-Betelutik mendebalderantz gertatzen da ezaugarri honen aldaketa bat-batekoena: asimilazioak behera egiten du Tolosaldeko eta Goierriko hizkeretan, nahiz eta egon badagoen. Ingurune fonologiko batzuetan bilakaera egiten da Gipuzkoako Goierrin, Tolosaldeko hegoaldean (Alegia, Ikaztegieta, Orendain, Baliarrain, Abaltzisketa, Amezketa, Altzo), Gipuzkoan Nafarroarantz dagoen eremuan (Lizartza, Orexa, Gaztelu, Berrobi, Elduain, Berastegi), eta Leaburu, Belauntza eta Albizturren. Beraz, ezaugarri honetan ere Araitz-Beteluk nolabaiteko muga egiten du mendebaldearekin.

Gazteek adinekoek baino gutxiagotan erabiltzen duten ezaugarria dela uste dugu eta bertako aldaeratzat hartu dugu *a* > *e* bilakaera eta mendebalderagoko zein euskara batuko eragina zenbatekoa den aztertuko dugu hizkuntza-aldagai honetan.

### 5.3.3. ***o / u* adizketan *(dozo / duzu)***

Adizki batzuetan gertatu ohi den *u* bokalaren irekiera dugu aztergai hizkuntza-aldagai honetan. Ezaugarri hau Imotzen, Basaburu Nagusian, Larraunen, Araitz-Betelun, Leitzan, Malerrekan eta Basaburu Txikiko herri batzuetan agertzen da (Apalauza 2012: 242-247), baita Goizuetan ere (Zubiri eta Perurena 1998: 32). Eremu horretako ezaugarria dela esan dezakegu, nahiz eta leku bakoitzean indar eta neurri desberdinarekin agertu. Ekialderago eta mendebalderago ez dago, Goierriko zenbait herriren salbuespenarekin. Ekialderantz pixkanaka desagertzen da eta mendebalderantz, berriz, bat-batean. Araitz-Betelun askotan entzuten den ezaugarria, Tolosaldean ia ez dago (Apalauza 2012: 247). Dakigunez, euskara batuan ere *o* bokala duten adizkiak ez dira erabiltzen, *u* dutenak baizik. Beraz, hizkuntza-aldagai honetan "bertako" aldaeratzat *o* bokal irekidun adizkiak jo ditugu. Horiekin batera, Tolosaldean nagusi diren eta euskara batuan erabiltzen diren *u* bokaldun aldaerak Araitz-Beteluko hiztunek zenbateraino erabiltzen ote dituzten aztertuko dugu.

Ingurune desberdinetan gauzatzen da bokal-irekitze hau, zehazki, 1., 2. eta 3. pertsona singularreko adizki trinkoetan eta aditz laguntzaile batzuetan (Apalauza 2012: 242). Gure lanean, maiztasun handia duten orainaldiko adizki hauek dira aztergai: *dot / dut, (di)ttot / (di)ttut, dok / duk, don / dun, (do)zo / (du)zu, (di)ttozo / (di)ttuzu, dizot / dizut, dizo / dizu, zaizo / zaizu, za(i)zkizo / za(i)zkizu, daukezo / daukezu, dauzkezo / dauzkezu, do / du, (di)tto / (di)ttu...*

Bestalde, badaude adizki batzuk *o* irekitzea dutenak, nahiz eta Araitz-Beteluko hiztunen ahotan hain arruntak ez izan; orainaldiaren gainean eraikitako *-zon, -tola, -zola* bukaeradun adizkiak (*dozon* 'duzun', *dauzkezon* 'dauzkezun', *don* 'duen'...) dira horiek. Iraganeko adizkietan ere *o* formadunak entzutea iruditu zaigu, baina gure corpusean hiru adibide bakarrik topatu ditugu; emakumezko adineko batek emana bat (*zon* 'zuen') 1.AEZE1K hiztunak, eta gizonezko adineko batek beste biak (*tziozon* 'zenion', *bazitzazon* 'bazitzaizun'), 8.AGZB3A hiztunak. Apalauzak (2012: 242) ere esaten du iraganean beti *u* egiten dutela Araitz-Betelun.

Hizkuntza-aldagai honetan bi motatako adibideak topatu ditugu, beraz: batetik, orainaldiko adizki soilak (*dot / dut, dozo / duzu, do / du...*), eta bestetik orainaldiko adizkia erlatibozko edo konpletibozko atzizkiarekin (*don / zun, dola / dula...*). Atzizkidunetan, *o* bokaldun aldaerak

Araitz-Betelun gutxi erabiltzen direla uste dugu, baina adibide batzuk badaude. Horregatik, hizkuntza-eragile baten bidez, *-o* edo *-u* erabiltzeko garaian atzizkia egoteak edo ez egoteak eraginik sortzen ote duen aztertuko dugu.

Normalean, belarriz erraz bereiztu dugu aldaera bat edo bestea zen. Baina, beste hizkuntza-aldagaietan bezala, batzuetan oso argia da batetik besterako aldea, eta beste batzuetan ez. Argia ez den kasuetan, ez dugu kontuan hartu.

Azaldutakoaz gain, beste hiru ingurune bereizi ditu Apalauzak (2012: 244-246): *zu* eta *gu* pertsona-izenordainak eta haien eratorriak, *-tu* eta *-du* partizipio morfemak (*kendo* eta *harto* esatea, adibidez) eta hitz barnean eta hitz solteetan gertatzen diren bilakaerak (*sokalde, emakome...*). Guk hiru horiek ez ditugu aztertu, *o* bokaldun adibideak gutxitan agertu direlako eta, agertu direnetan, banaketa irregularra delako (partizipio morfemen kasuan, adibidez, gazteek ez dute erabiltzen).

Azken ohar bezala, esango dugu *-o / -u* alternantzia bi hizkuntza-aldagaitan modu desberdinean aztertu dugula: honetan eta *edun* aditzaren erroa aztertzean.

Hizkuntza-aldagai fonologikoak aztertu ondoren, morfologikoen txanda da.

### 5.3.4. ***-di, -ti / -dik, -tik* bukaerak *(nondi / nondik)***

*Nondi* aldaeren modukoak eta *nondik* modukoak erabiltzen dira Araitz-Betelun. Apalauzaren lanean (2012: 318-319) irakurri dugu hizkuntza-aldagai honen berri eta bertan esaten da, batetik, ez dirudiela eremu geografiko jakina duenik eta, bestetik, *-tik* aldaera berriagoa dela.

Euskal hizkera askotan ageri dira bi aldaerak batera, besteak beste, Sakanako erdialdean edota Nafarroa Beherean. Araitz-Beteluko erabilerari buruzko informazioa ere jaso dugu bertan (Apalauza 2012: 319): *"hiztuna zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta maizago erabiltzen du* -tik*, nahiz eta Araitz-Beteluko gazteek* -ti *ere erabiltzen duten,* -tik*ekin batera"*. Antzeko egoera dago Zaldibian ere, adinekoek erabiltzen baitute bereziki *-ti* (eta *-tio*) (Etxabe eta Garmendia 2003: 62).

Aldaera bat edo beste erabiltzeko orduan, kasuek zerikusirik ote duten aztertu nahi dugu. Kasu hauek dira aztertuko ditugunak: ablatiboa (*goizeti / goizetik, etxeti / etxetik),* motibatiboa

*(ZEATIK ezta konserbatzen; lau peztan ez EMATEATI etxean hil giñun)* eta adberbioak (*deneti / denetik, oaindik / oaindi, zuti / zutik*) ditugu. Ablatiboaren barnean *noiztik* eta *nondik* kasuak bereizirik aztertuko ditugu, bakoitzaren eragina ikusteko. *Atzizkia* hizkuntza-eragilearen bidez, *noiztik, nondik* eta *zergatik* kasuak eta adberbioak markatu egingo dira eta horiek aldaera bat edo beste agertzearekin izan dezaketen lotura aztertuko dugu. *-iken* bukaeradun adibideak ez ditugu kontuan hartu hemen.

*-ti(k), -di(k)* ondorengo hitza *k-* kontsonantez hasten bada, adibide hori ez dugu kontuan hartu. Ondorengo hitza *k- e*z beste kontsonanteekin edo bokalez hasten bada eta garbi entzuten bada, bai. Izan ere, arau fonologiko bat da *k* desagertzea ondoren kontsonante bat dagoenean (k > Ø / _C), bereziki bigarren kontsonantea belokaria bada (/k#k/, /k#g/, /k#x/). Adibidez, *"etxeti(k) jun da", "gizona(k) joan dira"*, "*gauza(k)" gertatu dira.*

Hori horrela izanda, ondorengo hitza bokalez edo kontsonantez hasten ote den aztertuko dugu *OndorenBokalKonts* hizkuntza-eragilearen bidez. Kontsonanteen artean ere bereizketa bat eginen da *g* eta *j* belokariak gainerakoengandik bereiziz. Azkenik, *-ti(k), -di(k)* atzizkiak eten baten aurretik daudenean, ondoren datorrenak atzizkian ez duela eragin berbera izango pentsatzen dugu. Gure transkripzioetan hiru puntuak, harridura- eta galdera-ikurra erabili ditugunean etena markatuko da. Baita ondoren elkarrizketatzaileak hitz egiten duenean ere. Horrela, etenaren ondorengo kasuak besteengandik bereizi ahal izango dira eta etenaren balizko eragin eza aztertu. Puntua, koma, bi puntu eta puntua eta koma ez dira etentzat hartu, askotan testua ordenatzeko erabiltzen baditugu ere, ez dutelako hiztunaren benetako etena adierazten. Adibidez, *"enpresa bat sortuta UNIBERSIDADETIK, o sea..."* edo *"gehienbat ETXEANGATIK. O hola, baño..."*. Etena adierazten duten kasuak galduko dira horrela, baina alderantziz eginez gero, horiek etentzat hartuz gero, informazio gehiago galtzen zela iritzita hartu dugu erabaki hori.

Lau aukera izango dituen hizkuntza-eragilea da hau beraz: bokala, kontsonantea (*j / g* ez besteak), *j / g* kontsonantea eta etena.

*-dik, -tik* bukaeradun hitzetan batzuetan *-diken, -tiken* (edo *-dikan, -tikan*) bukaerak ere agertu dira. *-iken* aldaerak (horrela adieraziko dira bukaera horiek guztiak hemendik aurrera) gutxitan erabili dituzte gure corpuseko hiztunek eta estatistikoki ezin izango dira aztertu, baina

kontutan hartuko dira hasiera batean, datuetan zer agertzen den ikusi ahal izateko. Aldaera hau aztertzeko, ablatiboa eta motibatiboaz gain, beste kasu eta hitz batzuk kontuan hartuko dira: partitiboa (*besteik / besteiken*), adberbioak (*bakarrik, geldik, ixilik, oaindik, gañeti* 'gainera'...), eta *baizik* juntagailua.

-*tio* bukaeradun adibideak ere aztertu nahi izan ditugu, baina oso gutxi agertu dira gure corpusean, hiru adibide bakarrik. Batetik, adineko emakumezko batek bi adibide eman dizkigu: *"Ze uste zo EKÓNOMIKATIO, zea"; "ZEATIO hokio erretze'a"* (2.AEZB1A). Adineko beste emakumezko batek behin erabili du, adibide honetan: *"Gaztetan, amak eta JARRIATIO..."* (3.AEZB2A). Bi emakumezkoak Goierrikoak dira, Gaintzakoa lehena, eta Azkaratekoa bigarrena. Apalauzak (2012: 320) -*tio* aldaeraren eremu geografikoaz dio *"indartsua dela Gipuzkoako Goierrin, eta ahulxeagoa Tolosaldeko hegoaldean (...). Nafarroan, gaur egun, ezaguna da Areson, baina ez Leitzan (...). Haiekin batera doaz, beraz, Araitz-Betelu eta Larraungo eta Basaburu Nagusiko herri batzuk, nahiz eta gure eremuan ez den Gipuzkoako hizkeretan bezain indartsu ageri"*.

### 5.3.5. ***Izan* aditzaren erroa *(ga / gea, dena / dana)***

Bi hizkuntza-aldagai daude izenburu honen azpian. Batetik, *izan* aditzaren orainaldiko *gu, zu* eta *zuek* pertsonen adizkietan -*a*- erroa (*ga, za, zate*...) edo -*e*- erroa dagoen (*gea, zea, zeate*...). Hemen *ga(ra) / ge(r)a, za(ra) / ze(r)a, za(re)te / ze(r)ate* adizkiak bilatu dira. Bestetik, *izan* aditzaren singularreko 3. pertsonan -*e*- erroa (*den, dela*...) edo -*a*- egotea (*dan, dala*...) orainaldian eta iraganaldian. Azken honen barruan sartu ditugu *dena / dana* izenordainak ere, har ditzaketen atzizkiekin (*denak, danentzat*...). Hizkuntza-eragile baten bidez bereiziko ditugu adizkiak izenordainetatik. Aurreneko hizkuntza-aldagaian ere badugu hizkuntza-eragile bat, pertsonaren arabera (*gu, zu* edo *zuek*) diferentziarik ba ote dagoen ikusteko.

Aurreneko hizkuntza-aldagaia *ga / gea* izendatu dugu, eta *ga* jarri dugu aurrena, hori jo dugulako bertakotzat. Hizkuntza-aldagai honen eremuari begiratuta erabaki dugu hori. *Dena / dana* aldagaiaren kasuan ere aurrenekoa, *dena* jo dugu bertakotzat, hori delako bertan gehien erabiltzen dena, gure ustez.

Hizkuntza-aldagaien eremuei begiratuko diegu jarraian. *Ga / gea* hizkuntza-aldagaiaren kasuan, *-e-* erroa erdialdeko euskararen ezaugarritzat jo du Zuazok, euskara giputzekoa gehienbat (2014: 80). *Gea* modukoak Deba ibarreko iparraldean, Lapurdiko itsas-bazterrean eta Nafarroako herri gutxi batzuetan ere badira, adibidez Araitz-Betelun, eta batez ere Azkaraten. Araitz-Betelun herrika aldatzen den kontua ote den ikusiko dugu emaitzetan. Apalauzak ere eremu berbera marraztu digu, eta ondokoa zehaztu (2012: 361): *"Ezaugarriaren muga Nafarroaren eta Gipuzkoaren arteko mugan dago: Araitz-Betelutik ezker,* -e- *erroa ageri da Tolosaldeko eta orobat Gipuzkoako hizkeretan (*gea, zea, zeate*). Nolanahi ere,* -e- *erroa duten adizkiak ere entzun daitezke Araitz-Betelu; gazteen mintzoan, batik bat".* Adinaren arabera, ezaugarriaren aldaketa ere ikusiko dugu emaitzetan. Esan bezala, ezaugarri honen banaketagatik eta Araitz-Betelun (Gipuzkoarekin muga egiten duten beste herri nafarretan bezala) hizkuntza-aldagaien aldaketako norabidea nafarreratik erdialdeko euskararantz doalako jo dugu bertakotzat *ga* aldaera.

*Dena / dana* hizkuntza-aldagaiaren eremuari begiratuz gero, Euskal Herriko bi eremu bereizten dituen ezaugarria dela ikusiko dugu: alde batean mendebala eta erdialdea, bestean Ipar Euskal Herria eta euskara nafarra (Zuazo 2014: 229). Eta Araitz-Betelu bi eremu horien tarteko hizkeretako bat da. *-a-* dago mendebalean eta erdialde gehienean *(dan, dala, dalako, zan, zala, zalako)* eta ekialdean *-e-* dago, eta aspalditik daude dokumentatuta aldaera horiek (Zuazo 2014: 233). Araitz-Betelun *-e-* errodunak direla nagusi dirudi, baina *-a-* dutenak ere aditzen dira noizbehinka. Badirudi zaharrek erabiltzen dutela gehiago *dena*; hori horrela ote den ikusiko dugu emaitzetan.

### 5.3.6. ***Edun* aditzaren erroa *(dot / dut / det)***

*Edun* aditzaren orainaldiko NOR-NORK saileko adizkiez ari gara, zehatzago esateko. Hizkuntza-aldagai honek berezitasun bat du besteen aldean; bi aldaera izan beharrean, hiru dituela, *-o-, -u-* eta *-e-* erroa duten adizkiak. Hiru aukerak ez daude pertsona guztietan ordea, 5.6. taulan ikusten den bezala:

| pertsona | *o* | *u* | *e* |
|---|---|---|---|
| 1. sing. | *dot* | *dut* | *det* |
| 2. sing. | *dok/don* | *duk/dun* | *dek/den* |
| 3. sing. | *do* | *du* | **de* |
| 1. pl. | **dogu* | *du(gu)* | *de(g)u* |
| 2. pl. | *dozo* | *duzu* | *dezu* |
| 3. pl. | **dozue* | *duzue* | *dezue* |

5.6. taula: **edun* aditzaren orainaldiko adizkiak.

Ezezkoetan ere (*eztot, eztut, eztet...*) gauza bera gertatzen da, goiko taulan ikusitako hutsune berak daude (*ezto, eztu* badago, baina ez **ezte...*). Gure azterketarako 3. pertsona singularreko adizkiak ez dira kontuan hartu, *-e-* errodunak ez izatean, konparaketa ezin delako egin. Arrazoi berberagatik, 2. pertsona pluraleko adizkietan forma laburtuak agertu direnetan ere (*zo* 'dozo', *zu* 'duzu', *zu* 'dezu') ez ditugu kontuan hartu.

Lehen begiratuan *u* errodun adizkiak iruditu zaizkigu ohikoenak, nahiz eta *o* dutenak ere maiz aditu. *e* errodunak gazteen artean entzun ditugula gehien iruditu zaigu. Apalauzak ere gazteek erabiltzen dituztela dio (2012: 361). Eta interesgarria dena, denak batera edo bi nahasian erabiltzen dituztenak gehienak dira (bat izan ezik). Normalean bi aldaera erabiltzen dituzte, baina batzuk hirurak. *Super-token* bat Araizko gizonezko gazte batek eman digu (17.AGGE2K): *"in behar izandu DU[GU] krixton esfuertzoa. Da batzutan saten DEU ba, aber zergatik tematu naizen ni hontan".*

Hizkuntza-aldagai honetan bertakotzat *dot* eta *dut* aldaerak jo ditugu, eta bietako bat aukeratu beharko bagenu, *dot* aukeratuko genuke, adinekoek gehiago erabiltzen dutelako. *det* hizkuntza-aldagaiaren eremuak ere erabaki hori hartzera garamatza: Zuazok erdialdeko euskaran (bereziki euskara giputzean) *-e-* nagusitu dela dio *edun* aditzaren orainaldiko erroan (2014: 80). Araitz-Betelun ere ezaguna da bere hitzetan, eta Apalauzak Araitz-Beteluko gazteek beste aldaerekin batera erabiltzen dutela dio (2012: 361).

Kasu honetan, konparatzeko bi elementu izan ordez, hiru direnez, eta analisi estatistikoa egiteko bikoteak izan behar dutenez, honela eginen da: analisi batean *o* vs. *u* aztertuko da (*e* errodun adizkiak kontuan hartu gabe), eta bestean, *u* eta *o* alde batetik vs. *e* bestetik. Bigarren analisiak *u / o* aldaerak nafarrerako ezaugarria eta Araitz-Beteluko ezaugarria dena bilduko du,

eta *e* aldaerak erdialdeko euskararen eragina.

*Uste't* bezalako adibideak zalantzazkoak dira, hiru formen laburpena izan daitezkeelako: *uste dut, uste dot, uste det* > *uste't*. Horregatik, horrelako adibideak ez dira kontuan hartu.

### 5.3.7. **Pluraleko 3. pertsonako NORK morfema *-e / -te (due / dute)***

Apalauzak dio Araitz-Betelun *-e* erabiltzen dutela (2012: 354-355) eta Intzak (1921: 73) ezaugarri horri erreparatu ziola Araitz-Beteluko euskarak kutsu giputza duela esateko. Zuazok ere (2013: 75) *-e* dela dio pluraleko 3. pertsonako NORK morfema. Gure corpusean *-te* bukaerak ere bildu ditugu eta gure hipotesia da azken hauek gazteek erabiltzen dituztela gehiago.

NOR-NORK saileko adizki hauek bilatu dira (Zuazo 2013: 83-84), orainaldian eta iraganaldian, beren eratorriekin: *naue / naute, due / dute, gattue / gattuzte, zattue / zattuzte, (di)ttue / (di)ttuzte, niñuen / ninduten, zuen / zuten, giñuen / ginttuzten, ziñuen / zinttuzten, zittuen / zittuzten.*

NOR-NORI-NORK saileko adizkiak ez dira kontuan hartu *(dizue / dizute, die / diote, di(g)ue / digute, dizue / dizuete, die / diete, zizuen / zizuten, zien / zioten, zi(g)uen / ziguten, zizuen / zizueten, zien / zieten*, (Zuazo 2013: 91-93), oso adibide gutxi topatu direlako, sei bakarrik, denak gazteen artean: *dizue* (bi aldiz), *dizute* (behin), eta *zizuten* (hiru aldiz). *(Ba)daue / (ba)daude* modukoak ere ez ditugu kontuan hartu; hiztun bakarrak erabili ditu *badaue* moduko adizkiak, eta gainerakoek *badaude* modukoak, askotan gainera.

### 5.3.8. **Lexikoa**

Lexikoan bost hizkuntza-aldagai ditugu: *biño / baño, ezer / deus, guzi / guzti, ongi / ondo* eta *zerbatte / zeoze*. Horietako hiru (*biño / baño, ezer / deus, zerbatte / zeoze*) Goizuetako zatian aztertu ditugu; beren ezaugarriez eta eremu geografikoaz *4.3.* atalean hitz egin dugu eta hara jo daiteke azalpen gehiagorako. Gainerakoak, *guzi / guzti* eta *ongi / ondo* aldagaiak, Goizuetan ez dira aztertu ez dagoelako aldakortasunik: *guzi* eta *ongi* erabiltzen dira gehienbat.

Hemen esango dugu hizkuntza-aldagai guztietan bertakotzat hartu dugula aurreneko aldaera (*biño, ezer, guzi, zerbatte*), adinekoek beste aldaera baino gehiago erabiltzen

dutelako. Horretan Goizuetarekiko desberdintasuna *ezer / deus* aldagaian ikusten da, Goizuetan *deus* delako adinekoek (eta baita gazteek ere) gehien erabiltzen dutena, eta beraz, bertakotzat jo duguna, eta Araitz-Betelun, berriz, *ezer* da adinekoek gehien erabiltzen dutena eta bertakotzat hartutakoa. Aldagai horretan bakarrik ikusi dugu euskara nafarraren ezaugarria (*deus*) gazteek adinekoek baino gehiagotan erabili dutela; gainerakoetan, Goizuetan bezala, euskara nafarraren ezaugarria da atzerantz doana, eta ez alderantziz.

Hizkuntza-aldagai batzuetarako, *biño / baño* eta *zerbatte / zeoze* aldagaietarako, oharrak emango ditugu jarraian. Batetik, *biño / baño* hizkuntza-aldagaian hirugarren aldaera bat askotan agertu da: *beño. Biño* aldaeraren barnean sartu dugu[40] eta *biño* eta *beño* jo ditugu bertakotzat, adinekoek erabiltzen dituztelako batez ere. *Baño* aldaeraren barnean sartu dugu *baña*[41], eta azken hauek gazteek erabiltzen dituzte gehiago, gure ustez. Analisi estatistikoa egitean, dena den, *beño* aldaerak portaera berezirik ba ote duen begiratuko dugu.

Bestetik, *zerbatte / zeoze* hizkuntza-aldagaiari buruz azaldu nahi dugu *zeoze* aldaeraren barnean daudela *zeozer* eta *zerbait* izenordainen sailekoak ere. *Zeozer* erdialdeko euskarako ezaugarri dela esan daiteke eta *zerbait* euskara batuarena eta, beraz, Araitz-Beteluko euskaran berriak diren aldaerak biltzen direla *zeoze* deitu dugun aldaeran. Goizuetan *zerbette* da erabiltzen den aldaera (edo *zerbitte*), ez *zerbatte*, eta han ez dugu *zerbait* batuko aldaera topatu.

Segidan, Araitz-Betelun bakarrik aztertu diren aldagai lexikoen berri emanen da, *guzi / guzti* eta *ongi / ondo* hizkuntza-aldagaiena:

### 5.3.9. ***Guzi / guzti***

Araitz-Beteluko ezaugarritzat hartu dugu *guzi* eta *guzti* ezaugarri berriagotzat, aurrenekoa delako adinekoek gure corpusean erabili dutena. Gazteek bietatik erabili dituzte, hiztunaren arabera bat edo beste nagusitzen dela. Gure ustez, euskara batuaren eta erdialdeko euskararen eraginez erabiltzen dute gazteek *guzti* gehiagotan.

40 Baita *miño* eta *meño* ere.
41 Baita *maño* eta *maña* ere.

Zuazoren Mailopeko hiztegian ere (2013: 215) *guzi* zenbatzaileak du sarrera. Bere barruan dago *guzti*, eta gutxiago erabiltzen den aldaera bezala agertzen da. Apalauzak dioenez (2010: 524), *guzi "ez da osotara nafarra,* guzi *eta* guzti *erabiltzen baitira Ataunen eta Zegaman".* Ematen du honela dela ezaugarri honen banaketa: mendebaldean *guzti* (eta *duzti*); erdialdean *guzti* eta *guzi*; eta ekialdean *guzi.*

Gizonezko heldu batek erabili du *guzti* behin, gainerakoetan *guzi* (5.AGZE1K); hementxe adibideak aldaera banarekin: *"gauz GUZIK bezala", "baño nik uste hori dela arazoa toki GUZTITAKOA".*

### 5.3.10. ***Ongi / ondo***

Hizkuntza-aldagai hau Euskal Herriko bi eremu zabalen arteko muga marrazten duen ezaugarrietako bat da: mendebala eta erdialdea *vs.* Ipar Euskal Herria eta euskara nafarra. *Ondo* eta *hobeto* vs. *ongi* (Iparraldean *untsa*) eta *hobeki* (Zuazo 2014: 241). Bestalde, Zuazoren Mailopeko hiztegian (2013: 278) *ongi* agertzen da eta sarrera horretan esaten du Araitz-Betelun gaur egun *ondo* ere asko aditzen dela, baina bertakoen esanetan, berria dela. Guk ere *ongi* hartu dugu bertako ezaugarritzat.

Gizonezko heldu batek *ondo* aldaera erabili du beti, ordea: *"hoikin urte guzin ONDO ibiltze gea"* (5.AGZE1K). Eta badira gazteak beti *ongi* erabili dutenak, emakumezko gazte honek bezala: *"Gañea hemen nahiko ONGI moldatzen ga"* (14.BEGE3O).

### 5.3.11. **Erdara eta makulu-hitzak**

Goizuetan ikusi dugun bezala, atal honetan, alde batetik, erdararen erabilera da aztergai. Zehazki, erdararako kode-aldaketa hartu dugu kontuan hizkuntza-aldagaiak zerrendatzean. Orokorrean, Araitz-Betelun gutxitan agertzen dela erdara esan daiteke. Hiztunek esan digutenez eta inguruan jakina denez, Betelun dago sartuagoa erdara; emaitzetan halakorik igartzen ote den ikusiko da. Adibidetako, adineko gizonezko baten eta emakumezko gazte baten esaldi bana ekarri dugu: "*A LO BURRO dena. Da mendiko lana A LO BURRO'[d]a*" (7.AGZB2A); *"biño NADA QUE VER*" (12. AEGE2O).

Beste alde batetik, makulu-hitzak edo hitz betegarriak aztertuko dira: *es que, hombre, a ver, o sea, este, esto, porque*... Hitz hauek askotan agertu zaizkigu Araitz-Beteluko corpusean ere, seguru asko gehiago gazteen artean adinekoen artean baino. Giza-talde bakoitzak makulu-hitz horiek nola erabiltzen dituen aztertuko dugu. Goizuetan egin den bezala, hitz betegarritzat har daitezkeen hauek ez dira hemen zenbatu, hiztun guztiengan oso integratuak daudelako: *bueno, pues* eta *ya*.

Hikaren erabilera ez dugu aztertu Araitz-Betelun, gizarte-eragile batzuekin gertatu bezala, hemen ere ez dugulako hiztun guztiek hikari buruz duten erabilera eta iritzia jaso.

### 5.3.12. Hizkuntza-aldagaien maiztasuna

Goian azaldu ditugun hizkuntza-aldagai horiek guztiak maiztasun diferentez agertzen dira gure corpusean; batzuk askotan, beste batzuk gutxitan. Askotan agertzen direnekin analisi kuantitatiboa egin daiteke, eta estatistika erabiliko dugu hemen. Corpusean gutxiagotan agertzen direnekin arazo gehiago sortu daiteke, batez ere, hizkuntza-aldagaia ez badute hiztunek modu orekatuan erabiltzen. Dena den, batzuetan, adibide kopuru txikia duten hizkuntza-aldagaiekin egin daitezke eragiketa estatistikoak, seguraski, adibideen erabilera orekatua delako (ikus honi buruzko azalpen gehiago *3. Metodologia* atalean). Ondorengo taulan, aztergai ditugun hizkuntza-aldagaiak zerrendatu eta beren izaera eta agertze kopurua adierazi dira:

| | Hizkuntza-aldagaia | Izaera linguistikoa | Maiztasuna |
|---|---|---|---|
| 1 | artikuluaren kontrakzioa (*semeak* / *semek*) | fonologikoa | 2056 |
| 2 | *e* / *a* (*mendie* / *mendia*) | fonologikoa | 3609 |
| 3 | *o* / *u* adizkietan (*dozo* / *duzu*) | fonologikoa | 762 |
| 4 | *-di, -ti* / *-dik, -tik* (*nondi* / *nondik, -iken, -tio* barne) | morfologikoa | 664 |
| 5 | *izan* aditzaren erroa (*ga* / *gea*) | morfologikoa | 187 |
| 6 | *izan* aditzaren erroa (*dena* / *dana*) | morfologikoa | 930 |
| 7 | *edun* aditzaren erroa (*dot* / *dut* / *det*) | morfologikoa | 350 |
| 8 | pluraleko 3. p. NORK morfema (*-e* / *-te*) | morfologikoa | 318 |
| 9 | *biño, beño* / *baño, baña* | lexikoa (aldaera) | 915 |
| 10 | *ezer* / *deus* | lexikoa | 75 |
| 11 | *ongi* / *ondo* | lexikoa (aldaera) | 118 |
| 12 | *guzi* / *guzti* | lexikoa (aldaera) | 79 |
| 13 | *zerbatte* / *zeoze* | lexikoa (aldaera) | 47 |
| 14 | erdarazko esaldiak | bestelakoa | 231 |
| 15 | makulu-hitzak | bestelakoa | 499 |

5.7. taula: Araitz-Beteluko hizkuntza-aldagaiak, maiztasunekin.

## 5.4. GIZARTE-ERAGILEAK ETA HIZKUNTZA-ERAGILEAK

Hizkuntza-aldakortasuna aztertzen duten ikerketa soziolinguistikoek bi motatako aldagaiak hartzen dituzte kontuan hizkuntza-aldaketa neurtzeko: aldatzen ari diren hizkuntza-aldagaiak eta aldaketa horretan eragiten duten gizarte- nahiz hizkuntza-aldagaiak. Bien arteko zeinetaz ari garen argi izateko, aurrenekoak "aldagaiak" izendatu dira hemen eta bigarrenak "eragileak". Ikerketa batean eta bestean aztertzen diren aldagaiak eta eragileak diferenteak izan daitezke, ikerketaren helburuen arabera. Ondorengo puntuetan ikerketa honetan aztertu direnak azalduko dira, gizarte-eragileetatik hasiz.

Atal honetan ikusiko ditugun gizarte-eragile batzuk Goizuetan ere aztertu ditugunak dira eta, horien kasuan, azalpen batzuk errepikatu eginen dira, hemen esaten ari garenaren haria ez galtzeko. Hiztuna, generoa, adina eta ikasketa-maila eragileen kasua da hori. Horiekin batera, gizarte-eragile berri bat bada Araitz-Betelun: *herria* eragilea. Udalerri honetan herri bat baino gehiago izatean, herriaren araberako diferentziak aztertuko dira horren bidez.

### 5.4.1. Hiztuna

Hiztun bakoitzak bere hitz egiteko modua du, bere hizkuntza-joerak ditu, beste gaietan ere izaten dituen bezala. Bariazionismoan pertsonaren barne-aldakortasuna kontuan hartzea komeni da, bestela, populazio osorako ateratzen diren ondorioak faltsuak izan daitezke. Adibidez, ez litzateke zuzena esatea emakume gazteek aldaera jakin bat erabiltzeko joera indartsua erakusten dutela, aztertutako datu gehienak emakumezko gazte bakar batenak baldin badira.

Estatistikaren garapenak aurrera egin duen heinean, barne-aldakortasuna kontuan hartzea posible izan da. Soziolinguistek jakintza hori beren lanean txertatu dute eta hiztuna bezalako aldagai aleatorioak (*random variables*) gainerako aldagai finko deiturikoekin (*fixed variables*) batera azter daitezke gaur egun, hau da, adina, generoa, eta abarrekin batera. Gure ikerketan *hiztuna* analisi estatistiko guztietan aztertuko dugun eragilea izango da, aldagai aleatorio bezala, *mixed generalized linear models* deitutako estatistika eragiketen bidez.

### 5.4.2. Adina

Adinak beste gizarte-eragileen eraginak islatzen ditu eta, horregatik, ez da batere aldagai sinplea. Arlo honetako azterketa soziolinguistiko guztietan hartzen da kontuan, nahiz eta adin-multzoak beti berberak ez izan. Araitz-Betelun hiru multzo bereizi dira: gazteak (20-35 urte bitartekoak), helduak (45-55) eta adinekoak (70-90 urte bitartekoak). Adin tarte hori arrazoi batzuengatik hartu dugu: batetik, 20 urte baino gazteagokoek ez dute beren ikasketa-maila finkatua; adin batetik aurrerakoek, berriz, hitz egiterakoan arazo gehiago izan ditzakete (ahoskera, memoria...) eta horregatik, ez ditugu kontuan hartu gaztetxoak (20 urtetik beheitikoak) eta oso adinekoak direnak (90etik goitikoak). Azkenik, Goizuetako emaitzetan helduen belaunaldia aztertzea interesgarria dela ikusi da eta Araitz-Betelun kontuan hartuko da. Ohikoa da ikerketa bariazionistetan hiru belaunaldi hauek aztertzea, baita Euskal Herrian ere (Haddican 2005, Aurrekoetxea 2006).

Multzo bakoitzean aztertu beharreko pertsona kopurua zehazteko, Araizko eta Beteluko Udal Erroldak (2013) erabili dira (laginketari buruzko azalpen gehiagorako, jo 5.2. puntura). Hona hemen taula, adinaren araberako multzoak eta hiztun-kopurua adierazten duena[42]:

| Adina | Hiztunak |
|---|---|
| gazteak (20-35) | 10 |
| helduak (45-55) | 3 |
| adinekoak (70-90) | 6 |
| **Guztira** | 19 |

5.8. taula: Araitz-Beteluko lagina, hiru adin-taldetan banatua.

Adina beste modu batean ere aztertuko dugu, aldagai jarrai bezala, eta honi *adina (jarraia)* izena eman diogu. Aldagai hau adinaren antzekoa da, baina hemen adin zehatza hartu nahi izan da kontuan: 20 edo 65 urte dituen, adibidez. Analisi estatistikoaren bidez ikusiko da, *adina* edo *adina (jarraia)* erabiltzea den egokiago.

42 Goizuetan diferentzia batzuk daude: 60-65 tartekoak dira *helduak* eta *adinekoek* 80-90 urte dituzte.

### 5.4.3. Generoa

Gizarte-eragile hau aztertzea ohikoa da azterketa soziolinguistikoetan, baina Euskal Herrian gutxi aztertutako aldagaia da. Ikerketa honen bidez, Euskal Herrian aldagai honekin gertatzen dena aztertu nahi dugu: mendebaldeko teoria soziolinguistikoan bezala (Labov 1972a, Chambers eta beste 2002), gizonezkoak dira gordetzaileago? Emakume gazteen eta adinekoen artean bada diferentziarik hizkuntza-aldagaiak erabiltzeko orduan? Eta gizonezkoen kasuan?

### 5.4.4. Ikasketa-maila

Aldagai hau, orain artekoak bezala, azterketa soziolinguistiko askotan ikertu ohi da. Hiru ikasketa-maila bereizi ditugu: ikasketa-maila apala, 1. hezkuntza bitarteko ikasketak dituztenak (garai bateko eskola graduatua lortu gabeak); ikasketa-maila ertaina, 1. hezkuntza eta 2. hezkuntzakoak; eta ikasketa-maila altua, unibertsitate-ikasketak dituztenak. Goizuetan erabilitako multzokatze berbera erabili da hemen ere:

| Ikasketa-mailak | Lortutako titulua |
|---|---|
| Maila apala | Ez daki irakurtzen<br>Eskola graduatua baino gutxiago<br>Ikasketarik gabe<br>Lehen hezkuntza bete gabe |
| Maila ertaina | Eskola graduatua<br>Oinarrizko batxilerra<br>Lanbide heziketa I<br>Lanbide heziketa II<br>Batxilerra<br>BUP, goi-mailako batxilerra<br>Erdi-mailako ikasketak |
| Maila altua | Unibertsitatean diplomatua<br>Ingeniari teknikoa, arkitektoa<br>Unibertsitatean lizentziatua<br>Goi-mailako ikasketak<br>Doktoretza |

5.9. taula: ikasketa-maila bakoitzaren barneko tituluak.

Goizuetan gertatu bezala, adin-multzo gaztean eta zaharrean ikasketa-maila bakoitzeko proportzioak aldatu egiten dira: adibidez, adinekoen artean ikasketa-maila apalekoak asko dira (bederatzi hiztunetatik sei), eta gazteen artean ez dago bakarrik ere.

### 5.4.5. Herria

*Herria* izendatu dugun gizarte-eragileak herri bat edo besteko izateak aldaeren erabilerarekin lotura ote duen aztertuko du. Betelu, Arribe, Azkarate, Gaintza, Intza eta Uztegi herriak dira horiek. Atalluko hiztunik ez dugu gure corpusean, beraz, herri hori ez dago zerrendan. Gainerako herrietan hiztun gutxi ditugula esan behar da: Arriben eta Uztegin bina; Azkaraten, Gaintzan eta Intzan hiruna; eta Betelun gehixeago, sei, bertako hiztun kopuru handiagoa islatu dugulako laginean. Bi edo hiru hiztun ditugun herrietan, gazte eta adineko (edo heldu) bana behintzat badira. Beteluren kasuan, adineko bat eta heldu bat eta lau gazte dira; adinekoa emakumezkoa da, heldua gizonezkoa, eta gazteen artean bi emakumezko eta bi gizonezko.

Bertako batzuek *Beierri* eta *Goierri*[43] deitzen diete herri horiei, behean edo goian daudela adieraziz. Horrela, Goierrikoak dira Azkarate, Gaintza, Intza eta Uztegi, eta Beierrikoak Betelu, Arribe eta Atallu. Hizkuntza-aldagaiek herriaren arabera joerarik erakusten ote duten ikusiko da.

Aldakortasunari buruzko hipotesia eraikitzean, herriaren tamaina, errepidearekiko hurbiltasuna eta Gipuzkoarekiko hurbiltasuna izan dira gakoak. *Hiztuna* eragilearekin egin bezala, *herria* ere aldagai aleatorio (*random*) gisa aztertuko dugu analisi estatistikoetan. Horrek esan nahi du hiztunen eta herri bakoitzaren eragina banaka aztertzen dela eta ez denak batera. Horrela, hiztun edo herri batek bakarrik sortu dezakeen desbideratzea kontuan hartzen da eta analisia fidagarriagoa da.

Gizarte-eragileen azalpena bukatzeko, esango dugu *erdialdekoekin harreman-maila* eta *Araitz-Betelun bizitzeko nahia* ez direla aztertuko. Erdialdekoekin harreman-mailari dagokionez, Goizuetako datuak aztertzean ohartu gara gure gizartean adina, ikasketa-maila eta erdialdekoekin harreman-maila elkarrekin lotuta doazen eragileak direla. Elkarrekin korrelazionatuta daude eta, analisi estatistikoak egiteko, hiruetatik bakarra aukeratu behar da. Gainera, Araitz-Beteluko grabazio guztietan ez dugu lortu erdialdekoekin harreman-maila

43 Elkarrizketatuen artean, *Goierri* ezagunagoa da *Beierri* baino. *Zulokoak* ere erabiltzen da, gaur egun bereziki; lehen ez zela erabiltzen esan digute bertako hiztunek. Gazte batzuek *zulokoak* Araitz-Betelukoei deitzeko modua dela esan digute, heldu batek bakarrik beheko herrietakoei deitzen zaiela horrela, Beierrikoei, alegia. Badirudi, beraz, izendatze hauetan aldaketa egon dela, eta lehen erabiltzen zen *Goierri / Beierri* bereizketa desagertuz doala gazteen artean, eta denei *zulokoak* deitzen dietela (nahiz eta *Goierri* ere erabiltzen duten Araizko goiko herriak izendatzeko).

eragilea sortzeko beharrezko informazio guztia, grabazio batzuk ez direlako guk eginak. Horregatik, eragile hori alde batera utzi dugu eta, bide batez, korrelazioaren arazoa ere saihestu dugu. Araitz-Betelun bizitzeko nahia ere ez da aztertuko, Goizuetan ikusi delako ez duela emaitza adierazgarririk eman eta hemen are garrantzia gutxiago duela dirudielako. Beste arrazoi bat da erdialdekoekin harreman-mailan ere gertatu dena: hiztun guztiak ez ditugunez guk elkarrizketatu, ez ditugu guztien iritziak jaso ahal izan.

Gizarte-eragileak azalduta, hizkuntza-eragileen txanda da. Hizkuntza-eragile franko ditugu hemen, Goizuetako zatia aztertzean baino gehiago; Goizuetan lau aztertu dira, eta Araitz-Betelun bederatzi ditugu. Garrantzia izan dezaketen hizkuntza-eragile gehiago irudikatu ahal izan ditugu oraingoan edo, bestela, hizkuntza-aldagai diferenteak izatean, horrela gertatu da.

### 5.4.6. **Artikuluaren kontrakzioan, hitza *e* edo *o* bokalaz amaitzen den**

*Artikuluaren kontrakzioa* hizkuntza-aldagaia aztertzean, hitza bokal batez edo besteaz bukatzeak eraginik ote duen aztertuko da *e* edo *o* bereiziko duen hizkuntza-eragilearen bidez. Adibidez, *etxe* edo *talo* hitzetan bukaerako bokalak artikulua gehiago erabiltzearekin lotura ote duten aztertuko da, nahiz eta "a priori" ez dugun halakorik espero. Gure corpusean bilaketa egiteko garaian, esan bezala, *-i* eta *-u* bukaeradun hitzak ez dira aztertu, ezta *-a* itsatsidunak ere. Horrela, *-e* eta *-o* bokalez bukatzen diren hitzak bakarrik bildu dira.

### 5.4.7. **Inguruneak *e* / *a* hizkuntza-aldagaian**

Hizkuntza-aldagaiak azaltzean ikusi dugunez, ingurune desberdinak aztertuko dira *a* > *e* (*i* eta *u* ondoren) bilakaeran: deklinabidea, adizkiak, hitz morfologikoen artekoa eta morfema barnekoa. Ingurune bateko edo besteko hitza izateak *a* edo *e* agertzearekin zerikusirik ote duen aztertuko da hizkuntza-eragile honen bidez. Izan ere, bilakaeraren indarra desberdina izan daiteke deklinabidean (*mendie* 'mendia'), adizkietan (*die* 'dira'), hitz morfologikoen artean (*katu bet* 'katu bat') edo *behintzet* aldaeran.

### 5.4.8. **Berezitasunak *e / a* hizkuntza-aldagaian**

Ingurune horietako batean, deklinabidean hain zuzen, kontuan hartuko da *a* mantentzeko joera duten hitzak diren edo ez. Hori aztertuko du *berezitasunak* hizkuntza-eragileak. Izan ere, badira hitz batzuk beti *a* bokalarekin esaten direnak, nahiz eta hiztunak *e* egiteko joera izan. Horien artean daude *-a* itsatsidun hitz batzuk (*uda, telebista...*), *j* bokalerdia dutenak (*anaia, garaia*...), *i* eta *u* berriak dituzten euskal hitzak (*attuna* 'attona', *bahia* 'bahea'...), deklinabide atzizkia artikulua ez duena (errazagoa da *a* ixtea *haundie* moduko adibideetan, eta zailago adlatiboan *mendi(r)e* modukoetan), inguruko leku izenak (*Intze* 'Intza', *Gaintze* 'Gaintza', *Leitze* 'Leitza') eta mailegu berriak (*brillantina, ofizina...*). Horiek guztiak *berezitasunak* deitutako hizkuntza-eragilearen bidez markatuko dira eta gero estatistikoki aztertu.

Berezitasunarena kontuan hartzen dugu gainerako hizkuntza-eragileak aztertzeko arrazoi berberengatik. Hiztun batek erabiltzen dituen adibide asko badira, demagun, *industria, lejia* eta *garaia* modukoak, hiztun horrek *-a* askotan erabiliko du, nahiz eta beste hitzetan (berezitasunik ez dutenetan) *-e* erabiltzeko joera izan. Hau da, hitz horiek erabili dituelako erabili du *-a*, ez berez *-a* egiteko joera duen hiztuna delako. Nolabait, hitzak duen *-e* egiteko zailtasuna jaso nahi da *berezitasunak* hizkuntza-eragilearekin, emaitza hiztunek egiten dutenarekiko leialago izateko.

### 5.4.9. ***o / u* adizkiak atzizkia duen edo ez**

*O* edo *u* bokalez ager daitezkeen adizkien hizkuntza-aldagaian bi motatako adibideak topatu ditugu: batetik, orainaldiko adizki soilak (*dot / dut, dozo / duzu, do / du...*) eta, bestetik, orainaldiko adizkia erlatibozko edo konpletibozko atzizkiarekin (*don / dun, dola / dula...*). Atzizkidunetan, *o* bokaldun aldaerak Araitz-Betelun gutxi erabiltzen direla uste dugu. Horregatik, hizkuntza-eragile baten bidez, *-o* edo *-u* erabiltzeko garaian atzizkia egoteak edo ez egoteak eraginik sortzen ote duen aztertuko dugu.

### 5.4.10. ***-ti / -tik* hizkuntza-aldagaiaren atzizkia**

Hizkuntza-eragile honen bidez, *-ti / -tik* hizkuntza-aldagaian aldaera bat edo beste

erabiltzeko orduan kasuek zerikusirik ote duten aztertu nahi da. Kasu hauek aztertuko ditugu: ablatiboa (*goizeti / goizetik, etxeti / etxetik),* motibatiboa *(*zeatik *ezta konserbatzen; lau peztan ez* emateati *etxean hil giñun)* eta adberbioak (*deneti / denetik, oaindik / oaindi, zuti / zutik*). Ablatiboaren barnean *noiztik* eta *nondik* kasuak bereizirik aztertuko dira, bakoitzaren eragina ikusteko. *Atzizkia* hizkuntza-eragilearen bidez, *noiztik, nondik* eta *zergatik* kasuak eta adberbioak markatu egingo dira eta horiek aldaera bat edo beste agertzearekin izan dezaketen lotura aztertuko dugu.

### 5.4.11. ***-ti / -tik*** **bukaeren ondoren bokala edo kontsonantea dagoen**

*-ti* edo *-tik* ahoskatzeko garaian ondoren zer heldu den ikustea garrantzitsua da. Ondorengo hitza *k-* kontsonantez hasten bada, adibide hori ez dugu kontuan hartu. Ondorengo hitza *k ez* beste kontsonanteekin edo bokalez hastea bereizi dugu hizkuntza-eragile honen bidez. Kontsonanteen artean ere bereizketa bat egin da *g* eta *j* kontsonanteak gainerakoengandik bereiziz, kontsonante horiekin *-tik (g- / j-)* > *-ti (g- / j-)* asimilazioa gertatzea beste kontsonanteekin baino errazagoa delako fonologikoki. Azkenik, *-ti(k), -di(k)* atzizkiak eten baten aurretik daudenean, ondoren datorrenak atzizkian ez duela eragin berbera izango pentsatzen dugu[44]. Gure transkripzioetan hiru puntuak, harridura- eta galdera-ikurra erabili ditugunean, etena markatuko da. Baita ondoren elkarrizketatzaileak hitz egiten duenean ere. Horrela, etenaren ondorengo kasuak besteengandik bereizi ahal izango dira eta etenaren balizko eragin eza aztertu. Puntua, koma, bi puntu eta puntua eta koma ez dira etentzat hartu, askotan testua ordenatzeko erabiltzen baditugu ere, ez dutelako hiztunaren benetako etena adierazten. Adibidez, *"enpresa bat sortuta UNIBERSIDADETIK, o sea..."* edo *"Gehienbat ETXEANGATIK. O hola, baño...".* Etena adierazten duten kasuak galduko dira horrela, baina alderantziz eginez gero, horiek etentzat hartuz gero, informazio gehiago galtzen zela iritzita hartu dugu erabaki hori.

Lau aukera izango dituen hizkuntza-eragilea da hau, beraz: bokala, kontsonantea (*j / g* ez besteak), *j / g* kontsonantea eta etena.

---

44 Hausnarketa honetara Goizuetan aferesian ikusitakotik iritsi gara. Han ez dugu etena kontuan hartu eta analisi estatistikoan emaitza ez da adierazgarri izan. Etena kontuan hartzea garrantzitsu izan daitekeela iritzita, hemen kontuan hartuko da.

### 5.4.12. **Pertsona *ga / gea* hizkuntza-aldagaian**

Adizkietan pertsona bat edo beste izan (*gu, zu* edo *zuek*) *ga* edo *gea* moduko aldaerak agertzearekin loturarik ba ote dagoen aztertuko da hizkuntza-eragile honen bidez.

### 5.4.13. ***Dena / dana* aditza edo izenordaina den**

*Dena* edo *dana* aldaerak bi modukoak izan daitezke: batetik, *izan* aditzaren singularreko 3. pertsonakoak (*den / dan*...), eta bestetik, *dena / dana* izenordainak (*denak / danak*...). Hizkuntza-eragile honen bidez bereiziko ditugu adizkiak izenordainetatik.

### 5.4.14. **Aldagai lexikoa**

Lexikoan adibide gutxi ditugula ikusi dugu. Maiztasun eskasaren arazoa saihesteko, hizkuntza-aldagai lexiko guztiak batera sartu ditugu analisi estatistikoan. Baina ez da berdina izango aldagai lexiko bakoitzak duen joera: beharbada, hizkuntza-aldagai batzuetan bertako aldaera bereziki adinekoek erabiliko dute, eta beste batzuetan ez da alde nabaririk izango. Horregatik, *biño / baño, ezer / deus, guzi / guzti, ongi / ondo eta zerbatte / zeo*ze aldagaien adibideak elkarrengandik bereizteko*, aldagai lexik*oa hizkuntza-eragilea erabiliko dugu, bost aukera horiekin. Goizuetan ere hango hizkuntza-aldagaiak bereizteko modu berbera erabili da.

Gizarte-eragileen eta hizkuntza-eragileen azalpena bukatuta, taula batean bilduko dira denak, erantzun posibleekin. Erantzun posible horien ordenak espero dugun aldakortasunarekin eta formulatu ditugun hipotesiekin zerikusia dute gizarte-eragileen kasuan. Horietan, aurreneko erantzunak aldakortasun gehiago erakustea espero dugu, hiztunaren kasuan izan ezik. Hizkuntza-eragileen kasuan ez dugu jakin hipotesirik egiten, ez dugulako zantzurik esateko zein egoeratan agertuko den aldaera bat edo bestea gehiago. *o / u* hizkuntza-aldagaia da salbuespen hemen, gizarte-eragileetako hipotesi berbera dugulako: aurreneko erantzuna da aldakortasun gehiago erakustea espero duguna. Honela bada, atzizkia daramaten adizkiak *u* bokalarekin agertzea gehiagotan espero dugu atzizkirik ez dutenen aldean. 5.10. taulan bildu dira eragile guztiak:

| | |
|---|---|
| Gizarte-eragileak | 1. Hiztuna (1-19) |
| | 2. Generoa (emakumea / gizona) |
| | 3. Adina (gazteak / helduak / adinekoak) |
| | 4. Adina; jarraia (20-80 urte) |
| | 5. Ikasketa-maila (altua / ertaina / apala) |
| | 6. Herria (Betelu / Arribe / Azkarate / Gaintza / Intza / Uztegi) |
| Hizkuntza-eragileak | 1. *e / o* amaierak (e / o)<br>(artikuluaren kontrakzioa hizkuntza-aldagaian) |
| | 2. Inguruneak (1 / 2 / 5 / 6)<br>(*e / a* hizkuntza-aldagaian) |
| | 3. Berezitasunak (*-a* itsatsidun hitzak / *j* bokalerdia aurretik / mailegu berriak / *i* eta *u* berriak / deklinabideko *-ra* eta *-ike(n)* / leku izena / berezitasunik ez)<br>(*e / a* hizkuntza-aldagaian) |
| | 4. Atzizkia bai / ez (atzizkia bai / atzizkia ez)<br>(*o / u* hizkuntza-aldagaian) |
| | 5. Atzizkia (*noiztik* kasua / *nondik* kasua / *zergatik* kasua / adberbioak)<br>(*-ti / -tik* hizkuntza-aldagaian) |
| | 6. Ondoren bokala / kontsonantea (bokala, kontsonantea (*j / g* ez besteak), *j / g* kontsonantea eta etena)<br>(*-ti / -tik* hizkuntza-aldagaian) |
| | 7. Pertsona (*gu / zu / zuek*)<br>(*ga / gea* hizkuntza-aldagaian) |
| | 8. AditzaIzordaina (aditza / izenordaina)<br>(*dena / dana* hizkuntza-aldagaian) |
| | 9. Aldagai lexikoa (*biño_baño / ezer_deus / guzi_guzti / ongi_ondo / zerbatte_zeoze*)<br>(*lexikoa* hizkuntza-aldagaian) |

5.10. taula: Araitz-Betelun aztertu diren gizarte- eta hizkuntza-eragileak, erantzun posibleekin.

## 5.5. EMAITZAK

Analisi kuantitatiboa egiteko, hizkuntza-aldagaiak *Rbrul* tresnaren bidez aztertu ditugu. Atal honetan, Rbrulek egiten duen "step-up & step-down" analisiaren eredurik onenaren emaitzak azalduko dira. Emaitza horiek hobeki ulertzeko, *3. Metodologia* atalean daude kontzeptu estatistikoen argibideak (*3.3.1.* puntuan).

Eragiketa estatistikoak egitean, ikusi dugu hiru eragile (adina, ikasketa-maila eta erdialdeko euskaldunekiko harreman-maila) ez direla aldagai independenteak Goizuetan. Araitz-Betelun erdialdeko euskaldunekiko harreman-maila ez denez aztertuko, korrelazioen

arazoa txikitzen da. Atal honetan, beraz, adina eta ikasketa-mailaren arteko korrelazioa aztertuko dira. Goizuetan ikusi bezala, Araitz-Betelun ere gaztea izateak, oro har, ikasketa-maila ertaina edo altua izatea esan nahi du, eta adinekoa izateak, normalean, ikasketa-maila apala izatea. Hona hemen lotura horiek, gure laginaren arabera:

| | **Gizarte-eragileak** | |
|---|---|---|
| **Hiztunak** | Adina | Ikasketa-maila |
| 1 | heldua | ertaina |
| 2 | adinekoa | apala |
| 3 | adinekoa | apala |
| 4 | adinekoa | apala |
| 5 | heldua | apala |
| 6 | adinekoa | apala |
| 7 | adinekoa | apala |
| 8 | adinekoa | apala |
| 9 | heldua | ertaina |
| 10 | gaztea | altua |
| 11 | gaztea | ertaina |
| 12 | gaztea | ertaina |
| 13 | gaztea | altua |
| 14 | gaztea | ertaina |
| 15 | gaztea | altua |
| 16 | gaztea | ertaina |
| 17 | gaztea | ertaina |
| 18 | gaztea | altua |
| 19 | gaztea | ertaina |

5.11. taula: korrelazionatuta dauden gizarte-eragileak hiztunka[45].

Beraz, adinak eta ikasketa-mailak elkarren artean nahiko korrelazio altua dute: gazteek ikasketa-maila ertaina edo altua dute (apala ez), Helduek, ikasketa-maila apala edo ertaina dute, eta adineko guztiek ikasketa-maila apala dute.

Horrela, bi eragileak batera aztertzea nahasgarri izan daiteke, ez delako erraza jakiten bi eragileetatik zeinek azaltzen duen aztergai dugun aldakortasuna, eta analisian erroreak sortzen dira. Goizuetako atalean bezala, hemen ere bietatik aldakortasuna zeinek azaltzen duen hobeki aztertu dugu, hizkuntza-aldagaika. *Rbrul*ek ematen dituen *R2 fixed* (*R-squared*) balioak erabili dira horretarako, analisi bakoitzean hiztunaren barne-aldakortasunaren eragina kontuan hartuta. Aldakortasuna gehien azaldu duen eragilea grisez markatua dago 5.12. taulan:

45 Adina aldagai jarrai bezala ere aztertu dugu *R2 fixed* eragiketan, nahiz eta taula honetan ez azaldu.

| Hizkuntza-aldagaia | Aldakortasunaren azalpen-maila (%) | | |
|---|---|---|---|
| | Adina | Adina (jarraia) | Ikasketa-maila |
| artik. kontrakzioa | 22 | 26 | 22 |
| e / a | 9 | 7 | 7 |
| o / u | 29 | 27 | 37 |
| ti / tik | 57 | 59 | 49 |
| ga / gea | 2 | 1 | 3 |
| dena / dana | 18 | 6 | 24 |
| dot+dut / det | 18 | 17 | 42 |
| dot / dut | ezin izan da analisia egin | | |
| -e / -te | 25 | 13 | 4 |
| lexikoa batera | 17 | 9 | 16 |

5.12. taula: Araitz-Betelun korrelazionatuta dauden gizarte-eragile bakoitzaren azalpen-maila[46].

Orokorrean, Goizuetako atalean baino azalpen-maila altuagoa ikusten dugu hemen, % 20-60 bitartean, *ga / gea* hizkuntza-aldagaian izan ezik. Bestalde, esango dugu analisietan adierazgarriak izan ez diren gizarte-eragileen emaitzak aurkezterakoan (generoa, askotan), eragile adierazgarriekin batera agertzen diren pausoko emaitzak emanen ditugula. Ohar hau ematen dugu, balioak pixka bat aldatzen direlako eragileak bakarrik aztertu edo beste eragileren batekin. Horretaz gain, *hiztuna* eta *herria* analisi guztietan eragile aleatorio bezala aztertuko diren eragileak direla oroitarazten dugu. Puntu hauek argituta, hurrengo atalean emaitzak aurkeztuko dira, hizkuntza-aldagaika.

### 5.5.1. Artikuluaren kontrakzioa

Hizkuntza-aldagai fonologikoa da hau eta adibide asko ditu gure corpusean, guztira 2.056 zehazki. Aztergai diren hizkuntza-aldagaien artean adibide gehien eman dituenetakoa da. Konparazio baterako, Goizuetan gehien dituena aferesia izan da, ia 1.500 adibiderekin. Asko izateak analisi estatistiko egokia egiten lagunduko digu. Hiztunarekin batera, adina eta generoa aztertuko dira (korrelazioen arazoa saihesteko, adina aldagai jarrai bezala aztertuko da). Gizarte-eragile horietaz gain, hizkuntza-eragile bat dugu, -*e* edo -*o* bukaeradun hitzak izateak artikuluaren kontrakzioan eraginik ote duen aztertzen duena. Ondorengo taulan daude bilduta emaitzak:

46 *dot* / *dut* aldagaian ezin izan da analisia egin; akatsak ematen zituen, beharbada datu-kopuru txikiak eraginda.

| | Artikuluaren kontrakzioa ez | | | |
|---|---|---|---|---|
| Input probabilitatea | 0,88 | | | |
| N guztira | 2056 | | | |
| Desbideratzea | 1382,28 | | | |
| | *e.p.* | *log-odds* | *%* | *N* |
| **E edo O bukaeradun hitzak** | p. < 1,13e-27 | | | |
| O | 0,70 | 0,82 | 85 | 675 |
| E | 0,31 | -0,82 | 72 | 1381 |
| **Adina** | p. < 0,00165 | | | |
| aldagai jarraia (+1) | --- | 0,06 | --- | --- |
| **Generoa** | ez da adierazgarria | | | |
| gizonezkoa | [0,63] | [0,54] | 88 | 985 |
| emakumezkoa | [0,37] | [-0,54] | 66 | 1071 |
| **Hiztuna** | aleatorioa (random) | | | |
| **Herria** | aleatorioa (random) | | | |

5.13. taula: artikuluaren kontrakzioa hizkuntza-aldagaiaren analisia.

Hizkuntza-eragilearentzat ez genuen hipotesirik; ez genekien *-o* edo *-e* bukaerek artikuluaren kontrakzioan eragingo ote zuten edo ez. Kontuan hartu nahi izan dugu, ordea, eta emaitzak erakutsi du baietz, eragina duela hitzaren bukaeran dagoen bokalak; *-o* bukaeradun hitzetan kontrakzioa gutxiagotan agertu da. Emaitza hori adierazgarria izan da gainera (1'13e-27).

Gizarte-eragileei dagokienez, hipotesiak bete dira. Izan ere, adina adierazgarria izan da (0'00165) espero genuen norabidean: gazteek egin dituzte artikuluaren kontrakzio gehien. Generoa ez da adierazgarri izan, baina bere emaitzek gure hipotesiekin bat egiten dute: gizonezkoek gutxiagotan egin dute artikuluaren kontrakzioa. Ikasketa-mailaren emaitza ere ikusi nahi izan dugu aparteko analisi batean eta, hemen ere, hipotesia baieztatzen da: ikasketa-maila apalekoek gutxiagotan egin dute artikuluaren kontrakzioa maila altukoek baino (ikus 5.14. taula). Badirudi, beraz, artikuluaren kontrakzioa gehiago dela berritzaileagotzat jo ohi direnen kontua: gazteena, emakumezkoena eta ikasketa-maila altukoena.

| | *e.p.* | *log-odds* | *%* | *N* |
|---|---|---|---|---|
| **Ikasketa-maila** | p. < 0,00506 | | | |
| apala | [0,84] | [1,65] | 68 | 787 |
| ertaina | [0,40] | [-0,39] | 54 | 839 |
| altua | [0,22] | [-1,25] | 46 | 430 |

5.14. taula: artikuluaren kontrakzioa ikasketa-mailaren arabera.

Emaitzak hiztunaren arabera aurkeztuko dira jarraian. Bi irudi erakusten dira hemen ere, batean adinekoak eta helduak bilduta, eta bestean gazteak. Hiztun bakoitzaren generoa eta adina adierazten dute beheko laburdurek: *ea* laburdurak 'emakumezko adinekoa' esan nahi du, *eh*-k 'emakumezko heldua' eta *eg*-k 'emakumezko gaztea'. Gauza bera gizonezkoei dagokienez, *ga, gh, gg* laburdurekin. Adinekoen eta helduen erabilerak adierazten ditu ondorengo grafikoak:




5.1. irudia: artikuluaren kontrakzioa aldagaiaren emaitza hiztun adindun eta helduengan.

Agerikoa da bertako aldaeratzat hartu duguna dela adinekoek eta helduek gehien erabiltzen dutena. Alegia, *etxean* modukoak dira adin batetik aurrerakoek erabiltzen dutena, oro har. Hiztun baten erabilera da salbuespen nabaria: gizonezko heldu batek kontrakziodun formak eta kontrakzio gabekoak paretsu ibili ditu, % 50en inguruan. Beierrikoa eta ikasketa-maila ertainekoa da hiztun hori eta lana Tolosaldean egin izana izan daiteke bere erabilera honen azalpena. Gainerakoan, adinari edo ikasketa-mailari dagokionez, ez dago alde nabarmenik.

Gazteen erabilerari erreparatuta, bestelakoak dira emaitzak. 5.2. irudian ikusten den bezala, emakumezkoek kontrakzioa erabiltzeko joera indartsuagoa erakusten dute[47]. Gizonezkoen artean, ikasketa-maila altua duten biak (*gg1, gg4*) dira kontrakziodun formak gehien erabili dituztenak.

47 Elkarrizketa egitean horrelako formei buruz galdetuta, emakumezko gazte batek (*eg1* hiztunak) kontrakzioa erabiltzen duela esan du (*semek*, *mendin*).

Analisi estatistikoan, ez generoa, ezta ikasketa-maila ere, ez dira adierazgarri atera, hiztun guztiak batera aztertu direlako. Baina analisia gazteekin bakarrik eginda, generoa adierazgarri atera da (0'00041); emakumezkoak berritzaileago agertu dira.




5.2. irudia: artikuluaren kontrakzioa hizkuntza-aldagaiaren emaitza hiztun gazteengan.

Herriaren eragina neurtu duen aldagai aleatorioaren kasuan, herriaren arabera alde nabarmenak ikusi dira: Arriben bildutako emaitzetan % 40 bakarrik egin dira kontrakziorik gabe, eta Uztegikoetan, berriz, % 95. Dena den, kontuan hartu behar da oso hiztun gutxi direla herri bakoitzean; bi edo hiru Araizko herri bakoitzean (Atallun izan ezik, han ez dugu bakar bat ere) eta sei Betelun. Hauek izan dira emaitzak:

| **Herria** | kontrakzioa ez (N) | kontrakzioa ez (%) | guztira |
|---|---|---|---|
| Arribe | 240 | 40 | 396 |
| Azkarate | 321 | 75 | 194 |
| Betelu | 648 | 72 | 116 |
| Gaintza | 277 | 87 | 39 |
| Intza | 373 | 89,5 | 100 |
| Uztegi | 197 | 95 | 479 |
| guztira | | | 1324 |

5.15. taula: kontrakzio gabeko aldaeraren emaitza, herriz herri.

### 5.5.2. *e / a (mendie / mendia)*

Hizkuntza-aldagai fonologikoa da hau ere eta adibide gehien dituen aldagaia da, 3.609 hain zuzen. Hiztuna eta herria eragile aleatorioekin batera, adina eta generoa aztertuko dira (korrelazioen arazoa saihesteko, adina aztertuko da hemen). Gizarte-eragile horietaz gain, bi

hizkuntza-eragile ditugu aztergai: ingurune morfologikoa bereizten duena batetik, eta hitzen berezitasunak kontuan hartzen dituena bestetik (*5.4.* puntuan azalpen gehiago). Hizkuntza-eragile hauentzat ez dugu hipotesirik; adibide asko eta oso desberdinak dira eta orokortasunak ikustea ez da erraza. Ondorengo taulan bildu dira emaitzak:

| | **a > e _ i / u ondoren** | | | |
|---|---|---|---|---|
| Input probabilitatea | 0,53 | | | |
| N guztira | 3609 | | | |
| Desbideratzea | 2418,95 | | | |
| | *e.p.* | *log-odds* | *%* | *N* |
| **Berezitasunak** | p. < 1,41e-154 | | | |
| dekl. *-ike(n)* | 0,95 | 2,93 | 92 | 49 |
| ez | 0,86 | 1,80 | 83 | 2847 |
| leku-izen | 0,71 | 0,91 | 67 | 118 |
| aurretik *j-* | 0,59 | 0,35 | 47 | 96 |
| dekl. *-ra-* | 0,58 | 0,32 | 51 | 91 |
| *-a* itsatsia | 0,39 | -0,44 | 42 | 156 |
| mailegu berria | 0,09 | -2,29 | 11 | 207 |
| *i/u* berria | 0,03 | -3,58 | 11 | 45 |
| **Ingurunea** | p. < 3,2e-121 | | | |
| 6 adizkia | 0,86 | 1,78 | 94 | 934 |
| 1 *behintzet* | 0,74 | 1,05 | 92 | 82 |
| 2 deklinabidea | 0,56 | -0,22 | 70 | 2362 |
| 5 *-i / -u bet(zuk)* | 0,05 | -3,05 | 25 | 231 |
| **Adina** | p. < 0,000603 | | | |
| adinekoa | 0,78 | 1,28 | 88 | 1107 |
| heldua | 0,4 | -0,41 | 69 | 640 |
| gaztea | 0,3 | -0,87 | 67 | 1862 |
| **Generoa** | p. < 0,0478 | | | |
| emakumezkoa | 0,59 | 0,38 | 81 | 1614 |
| gizonezkoa | 0,41 | -0,38 | 69 | 1995 |
| **Hiztuna** | aleatorioa (random) | | | |
| **Herria** | aleatorioa (random) | | | |

5.16. taula: *e / a (i* eta *u* ondoren) hizkuntza-aldagaiaren analisia.

Hizkuntza-aldagai honetan, aztertu diren eragile guztiak izan dira adierazgarri. Hizkuntza-eragileek adierazgarritasun-maila oso altua agertu dute, hitzen berezitasunen arabera egin dugun multzokatzea aurrena (p. < 1'41e-154), eta inguruneen arabera egindakoa ondoren (p. < 3'2e-121). Horrek esan nahi du, hizkuntza-eragile horiek direla eragile garrantzitsuenak hitz bat *e* edo *a* bokalekin esaterakoan[48].

48 Eta hori, berezitasunen multzoan, kontuan hartu behar ez ziren hitz batzuk daudela: *fila, labatiba, brillantina, makina, rutina, ofizina, pistina, mekanika, elektronika, histerika, balbula, dutxa, ruta, errima, txupa, diska, paliza* (5.5. taulan ere azaldu da hau). Azterketa egin ondoren ikusi dugu hitz hauek ez direla Araitz-Betelun *-e* egiten eta hiztunek ere hala diote. Esan bezala, oso hitz gutxi dira eta gehienetan behin bakarrik erabili dira; 3.600 adibideren parean, hauen eragina arrunt txikia da, beraz.

Berezitasunen hizkuntza-eragileari begiratuta, berezitasunik ez duen multzo handiak eta deklinabideko *-iken* bukaerak (50 adibide inguru bakarrik dira) agertu dute *-e* aldaera gehien erabiltzeko joera, % 83 eta 92an erabili da *-e* hurrenez hurren. Ondotik heldu dira leku-izenak, aurretik *j* bokalerdia duten adibideak, deklinabideko *-ra* atzizkia daramatenak eta *-a* itsatsia dutenak, % 67-42 artean hain zuzen. Maila askoz apalagoan erabili dute *-e* aldaera azken biek, % 11n besterik ez: mailegu berrien multzoa eta *i / u* berria dutenak (*attuna* bezalakoak) dira horiek.

Inguruneen araberako multzokatzean, adizkien ingurunea eta morfema barrukoa (*behintzat*) agertu dira gordetzaileen, *-e* aldaera gehien erabili dutenak alegia, % 90etik goiti hain zuzen. Deklinabidearen ingurunea dator ondoren (% 70) eta, azkenik, diferentziarekin (% 25), *-i / -u bat(zuk)*. Azken ingurune honen azalpen gisa esan daiteke gazteek ez dutela hemen *-e* aldaera inoiz erabili, hau da, beti *-i / -u bat(zuk)* aldaera erabili dutela.

Gizarte-eragileen artean adina ere adierazgarri izan da, adierazgarritasun-maila nahiko altuarekin (0'0006) eta hipotesietan espero izandako hurrenkeran: adinekoek erabili dute bertako *-e* aldaera gehien, ondotik helduek eta gazteek gutxien. Esan behar da, dena den, gazteek ere *-e* aldaera oso maila altuan erabili dutela, gure corpusean erabili dituzten adibideen % 67an hain zuzen. Generoa ere adierazgarri da, gutxigatik bada ere (0'0478), eta interesgarria da hemen gure hipotesi "laboviarra" ez dela bete ikustea. Alegia, emakumezkoak ez dira berritzaile agertu eta ez dute gazteen joerarekin bat egin *-e* gutxiago erabiliz; alderantziz, gizonezkoek baino gehiagotan erabili dute bertako *-e* aldaera. Diferentzia ehunekotan ondokoa da: % 81ean erabili dute bertako aldaera emakumezkoek, % 69an gizonezkoek.

Hizkuntza-aldagai honetan ikasketa-mailaren emaitza ere ikusi nahi izan dugu aparteko analisi baten bidez eta, hemen ere, hipotesia baieztatzen da: ikasketa-maila apalekoek gehiagotan erabili dute *-e* aldaera maila altukoek baino, eta emaitza adierazgarria izan da (0'00558) (ikus 5.17. taula). Badirudi, beraz, *-a* aldaera erabiltzea gehiago dela berritzaileagotzat jo ohi direnen kontua adinari eta ikasketa-mailari dagokionez. Generoan ez, generoan emakumezkoak gordetzaileago agertu dira.

| | *e.p.* | *log-odds* | *%* | *N* |
|---|---|---|---|---|
| **Ikasketa-maila** | p. < 0,00558 | | | |
| apala | 0,77 | 1,19 | 85 | 1298 |
| ertaina | 0,44 | -0,24 | 72 | 1446 |
| altua | 0,28 | -0,96 | 62 | 865 |

5.17. taula: *e / a (i* eta *u* ondoren) ikasketa-mailaren arabera.

Emaitzak hiztunka begiratzea da hurrengo pausoa, eta generoaren eta adinaren arabera gertatzen dena aztertzea. Belaunaldika dauden salto txikiak hobeki ikusteko, hiztun guztiak irudi bakarrean bildu dira:




5.3. irudia: *e / a (i* eta *u* ondoren) hizkuntza-aldagaiaren analisi emaitza hiztunaren arabera.

Aurreneko begiratuan alde handirik ikusten ez bada ere, ezkerretik eskuinera *-a* aldaeraren (berriaren) erabilera pixkanaka goiti doala ikusten da. Progresioan gorabeherak daude, ezin da marra zuzen bat marraztu ezkerretik eskuinera goiti doana. Baina esan daiteke irudian ezkerrean dauden emakumezko heldu eta adinekoek aldaera berria oso gutxi erabili dutela (% 15 edo gutxiago) eta, aldiz, eskuinean dauden gizonezko gazteek nabarmen igo dutela erabilera (% 31-53 artean), *gg2* salbuespen izanik. Ezkerretik eskuinera goazela, goranzko salto handienak gizonezko helduengan ikusten dira (*gh1, gh5*), % 40 inguruan erabiltzen baitute *-a* aldaera. Ondoren, gazteen balioak ez dira oso homogeneoak, bereziki gizonezko gazteen artean, % 15etik 53rako aldea baitago *gg2* eta *gg1* hiztunen artean.

Herriaren eragina neurtu duen aldagai aleatorioari begiratuta, herriaren arabera dagoen aldea ez dela oso handia ikusten da (17 puntuko aldea dago gehien erabili duenetik gutxien erabili duenera), eta erabilera altua dela nonahi: *-e* aldaeraren maiztasun handiena Azkaraten dago % 84arekin, eta apalena Arriben % 67arekin. Hauek izan dira emaitza guztiak:

| **Herria** | *e* aldaera *(%)* | *a* aldaera *(%)* | guztira |
|---|---|---|---|
| Azkarate | 84 | 16 | 587 |
| Intza | 78 | 22 | 458 |
| Betelu | 72 | 28 | 1081 |
| Gaintza | 72 | 28 | 655 |
| Uztegi | 72 | 28 | 430 |
| Arribe | 67 | 33 | 398 |
| guztira | | | 3609 |

5.18. taula: *e / a (i* eta *u* ondoren) hizkuntza-aldagaiaren emaitza, herriz herri.

### 5.5.3. ***o / u* adizkietan**

762 adibide bildu dira gure corpusean hizkuntza-aldagai honetan. Analisi estatistikoa eginda, azpimarragarria da generoa adierazgarri atera dela (0'0123), eta gainera, emakumezkoak izan direla gordetzaile. Hemen, beraz, mendebaldeko ikerketetan espero izaten dena, emakumea berritzaile izatea, ez da gertatu, alderantziz baizik, eta modu nabarmen batean gainera: emakumezkoek % 45ean erabili dute *o* bokal irekidun aldaera, gizonezkoek bakarrik % 12an erabili duten bitartean. Ikasketa-maila ere adierazgarri izan da (0'00254), eta kasu honetan hipotesia bete da: ikasketa-maila apalekoek erabili dute gehiago bertako aldaera, *o* bokal irekiduna.

Hemen, orainaldiko adizki arruntez gain, aztertu nahi izan dugu erlatibozko edo konpletibozko atzizkiak dituzten adizkiak izateak eraginik ote duen, eta horretarako *AtzizkiaBaiEz* hizkuntza-eragilea sortu dugu (azalpen gehiagorako ikusi *5.4.* atala). 762 adibide horietatik 57 izan dira atzizkidunak, nahikoa gutxi. Akaso kopuru eskasagatik, analisian emaitza ez da adierazgarria izan. Dena den, bete da espero genuen joera; atzizkirik gabekoak *o* aldaera erabiltzearekin korrelazionatuta daude, maila apalean bada ere. Beheko taulan dira emaitza guztiak:

| | ***o* aldaeraren erabilera** | | | |
|---|---|---|---|---|
| Input prob. | 0,08 | | | |
| N guztira | 762 | | | |
| Desbideratzea | 460,81 | | | |
| | *e.p.* | *log-odds* | *%* | *N* |
| **Ikasketa-maila** | p. < 0,00254 | | | |
| apala | 0,93 | 2,65 | 53 | 280 |
| ertaina | 0,71 | 0,88 | 25 | 330 |
| altua | 0,03 | -3,53 | 1 | 152 |
| **Generoa** | p. < 0,0123 | | | |
| emakumezkoa | 0,75 | 1,11 | 45 | 421 |
| gizonezkoa | 0,25 | -1,11 | 12 | 341 |
| **AtzizkiaBaiEz** | ez da adierazgarria | | | |
| ez | 0,55 | 0,20 | 30 | 705 |
| bai | 0,45 | -0,20 | 37 | 57 |
| **Hiztuna** | aleatorioa (random) | | | |
| **Herria** | aleatorioa (random) | | | |

5.19. taula: *o / u* hizkuntza-aldagaiaren analisia.

Goiko analisian adina ez da aztertu, korrelazioa saihesteko. Eragile inportantetzat dugunez, adinaren emaitza ere ikusi nahi izan dugu aparteko analisi bat eginez eta, hemen ere, hipotesia baieztatu da: adinekoek gehiagotan erabili dute *-o* aldaera helduek eta gazteek baino (ikus 5.20. taula). Emaitza adierazgarria da, gainera (0'00241). Badirudi, beraz, *-u* aldaera berria bariazionismoan berritzailetzat hartzen direnek erabiltzen dutela gehiago, eragilea ikasketa-maila, generoa nahiz adina izan.

| | *e.p.* | *log-odds* | *%* | *N* |
|---|---|---|---|---|
| **Adina** | p. < 0,00241 | | | |
| adinekoa | 0,84 | 1,67 | 70 | 207 |
| heldua | 0,59 | 0,38 | 31 | 173 |
| gaztea | 0,11 | -2,05 | 9 | 382 |

5.20. taula: *o / u* hizkuntza-aldagaia ikasketa-mailaren arabera.

Emaitzak hiztunaren arabera aurkeztuko dira jarraian. Adizki atzizkidunak ez ditugu kontuan hartuko hemen, emaitzetan izan dezaketen eragina saihesteko (badira hiztun batzuk adibide gutxi eman dituztenak eta horietatik asko atzizkidunak dira). Bi grafiko egin ditugu hiztunen datuak aztertzeko, batean adinekoak eta helduak bilduta, eta bestean gazteak. Adinekoen eta helduen erabilerak adierazten ditu ondorengoak:




5.4. irudia: *o / u* hizkuntza-aldagaiaren emaitza hiztun adindun eta helduengan.

Gorabehera handiak ikusten dira hor, eta oro har gizonezkoek bertako aldaera gutxiago erabili dute, gizonezko helduek bereziki (*gh1, gh5*). 4. emakumezkoak ere *o* aldaera adineko gizonezkoen pare erabili du, % 40ren inguruan; Betelukoa den emakumezko bakarra da.

Gazteek *o* eta *u* bokaldun adizkiak nola erabili dituzten azaltzen duen grafikoa da hurrengoa:




5.5. irudia: *o / u* hizkuntza-aldagaiaren emaitza hiztun gazteengan.

Gazteen artean nabarmena da *u* aldaeraren erabilera, hau da, Tolosaldean nagusi dena eta euskara batuan erabiltzen dena. Bost emakumezko gazteen artean batek (*eg3*) erabiltzen du maiz (% 57an) *o* aldaera, ikasketa-maila ertainekoa eta Araizko Goierriko hiztuna bera. Gainerakoan, bi emakumezkok eta bi gizonezkok erabiltzen dute *o* aldaera (*eg1, eg2, gg2, gg5*), baina maila apalagoan. *gg5* gizonezkoaren kasua nabarmenduko genuke, *o* aldaera erabiltzeagatik (% 26an); Betelukoa eta ikasketa-maila ertainekoa da bera.

Kontuan hartu behar da, dena den, hiztun batzuek oso adibide gutxi eman dizkigutela (10 adibide edo gutxiago), eta kasu horietan ezin dela ondorio ziurrik atera. Lau gizonezkorekin gertatu da hori gure corpusean, *ga3, ga4, gg1, gg4* hiztunekin; hizki lodiz markatu ditugu hiztun horien emaitzak ondorengo taulan. Dena den, badira beste batzuk ere erabilera apal samarra dutenak, *ea3, ga2, eg2, eg3, eg5, gg3* hiztunak hain zuzen ere, 15-30 adibiderekin:

| Hiztuna | *o* aldaera | *u* aldaera | guztira |
|---|---|---|---|
| eh1 | 44 | 2 | 46 |
| ea2 | 57 | 9 | 66 |
| ea3 | 24 | 5 | 29 |
| ea4 | 30 | 25 | 55 |
| gh1 | 4 | 41 | 45 |
| ga2 | 11 | 10 | 21 |
| **ga3** | **3** | **2** | **5** |
| **ga4** | **3** | **6** | **9** |
| gh5 | 3 | 68 | 71 |
| eg1 | 2 | 67 | 69 |
| eg2 | 2 | 13 | 15 |
| eg3 | 12 | 9 | 21 |
| eg4 | 0 | 60 | 60 |
| eg5 | 0 | 23 | 23 |
| **gg1** | **0** | **4** | **4** |
| gg2 | 4 | 74 | 78 |
| gg3 | 0 | 28 | 28 |
| **gg4** | **0** | **10** | **10** |
| gg5 | 13 | 37 | 50 |
| guztira | 212 | 493 | 705 |

5.21. taula: *o / u* hizkuntza-aldagaiaren emaitza, kopuru absolutuetan, hiztunka.

Herriaren arabera, emaitzan alde nabarmenak daude hemen ere. Gaintzan % 75ekoa izan da *o* bokaldun adizkien erabilera, eta beste muturrean, Arriben % 9koa. Datu guztiak ondorengo taulan daude:

| **Herria** | *o* aldaera *(%)* | *u* aldaera (%) | guztira |
|---|---|---|---|
| Gaintza | 75 | 25 | 108 |
| Uztegi | 57 | 43 | 82 |
| Azkarate | 28 | 72 | 112 |
| Intza | 18 | 82 | 109 |
| Betelu | 17 | 83 | 285 |
| Arribe | 9 | 91 | 66 |
| guztira | 31 | 69 | 762 |

5.22. taula: *o / u* hizkuntza-aldagaiaren emaitza, herriz herri.

### 5.5.4. *-ti / -tik* bukaerak

512 adibide bildu dira gure corpusean *-ti / -tik* aldaerak aztertzean. Gure emaitzetan ikusi dugunez, *-ti* erabiltzea adinekoen kontua dela dirudi; gazteek hizkuntza-aldagaia erabili duten aldien % 4a da bakarrik *-ti*. Adinekoek, berriz, gehienetan erabili dute, % 92an, eta helduek % 38an. Adina da eragile adierazgarri bakarra. Ez *Generoa*, ez *Atzizkia*, ez *OndorenBokalKonts,* ez dira adierazgarri izan. Horrek esan nahi du generoak, atzizki motak, eta *-ti / -tik* ondoren bokala, kontsonantea edo etena egoteak ez duela estatistikoki joera adierazgarririk erakutsi. Hara hemen datu guztiak:

| | ***-ti* aldaeraren erabilera** | | | |
|---|---|---|---|---|
| Input probabilitatea | 0,30 | | | |
| N guztira | 512 | | | |
| Desbideratzea | 197,21 | | | |
| | *e.p.* | *log-odds* | *%* | *N* guztira |
| **Adina** | p.< 0,00000295 | | | |
| adinekoa | 0,98 | 3,70 | 92 | 153 |
| heldua | 0,45 | -0,22 | 38 | 154 |
| gaztea | 0,03 | -3,48 | 4 | 205 |
| **Generoa** | ez da adierazgarria | | | |
| emakumezkoa | 0,66 | 0,66 | 53 | 209 |
| gizonezkoa | 0,34 | -0,66 | 32 | 41 |
| **Atzizkia** | ez da adierazgarria | | | |
| noiztik | 0,66 | 0,65 | 41 | 56 |
| nondik | 0,58 | 0,30 | 47 | 340 |
| adberbioa | 0,45 | -0,22 | 13 | 24 |
| zergatik | 0,32 | -0,74 | 23 | 92 |
| **OndorenBokalKonts** | ez da adierazgarria | | | |
| etena | 0,66 | 0,65 | 62 | 26 |
| bokala | 0,57 | 0,26 | 37 | 198 |
| kontsonantea | 0,41 | -0,36 | 38 | 229 |
| g/j kontsonantea | 0,37 | -0,55 | 50 | 59 |
| **Hiztuna** | aleatorioa (random) | | | |
| **Herria** | aleatorioa (random) | | | |

5.23. taula: *-ti / -tik* hizkuntza-aldagaiaren analisia.

5.6. irudiari erreparatuta, gizonezko helduek *-tik* gehiago erabili dutela ikusten da, adinekoekiko eta emakume helduarekiko oso alde handiarekin, gainera. Beraz, gizonezko helduak berritzaile direla ematen du, baina emaitzak ez dira estatistikoki adierazgarri. Gazteen kasuan, 5.7. irudian ikusten den bezala, *-tik* nagusitu da, dirudienez, gizonezko helduen joerari jarraituz; % 100ean erabili dute, emakumezko batek (*eg3*) eta bi gizonezkok (*gg2* eta *gg4*) izan ezik. Ondorengo irudietan argi ikusten da gertatzen dena:




5.6. irudia: *-ti / -tik* hizkuntza-aldagaiaren emaitza hiztun adindun eta helduengan.




5.7. irudia: *-ti / -tik* hizkuntza-aldagaiaren emaitza hiztun gazteengan.

Analisi estatistikoen emaitzekin segituz, *Atzizkia* eta *OndorenBokalKontsonante* hizkuntza-eragileetan zerbait arraroa ikusten da ehunekoen hurrenkeran; ez doaz goitik beheiti beti, okerren bat dagoela dirudi. *OndorenBokalKontsonante* eragilean, beharbada, *etena* eta *g / j kontsonantea* aukeretan adibide gutxi izateagatik gertatu da hori.

*-ti* bukaerak adinekoen kontua dela dirudiela esan dugu. Gure datuetan oso gazte gutxik erabili dute *-ti*, hiruk bakarrik, eta ikasketa-maila ertaina duen eta Goierrikoa den emakumezko gazte batek bakarrik proportzio altuan (*eg3*-k, 12. hiztunak). Bide batez, esango dugu beste ezaugarri batzuetan ere gordetzailea dirudien hiztuna dela. *-ti* erabili den 207 aldietatik gazteek, guztira, 9 aldiz erabili dute. Hara hiztun guztien erabileren taula (ikus emaitzak ehunekoetan erakusten dituzten 5.6. eta 5.7. irudiak goian):

| Hiztuna | *-ti* aldaera | *-tik* aldaera | guztira | *-ti* % |
|---|---|---|---|---|
| eh1 | 55 | 6 | 61 | 90 |
| ea2 | 9 | 2 | 11 | 82 |
| ea3 | 8 | 0 | 8 | 100 |
| ea4 | 32 | 5 | 37 | 87 |
| gh1 | 1 | 52 | 53 | 2 |
| ga2 | 32 | 3 | 35 | 91 |
| ga3 | 28 | 1 | 29 | 97 |
| ga4 | 31 | 2 | 33 | 94 |
| gh5 | 2 | 38 | 40 | 5 |
| eg1 | 0 | 7 | 7 | 0 |
| eg2 | 0 | 25 | 25 | 0 |
| **eg3** | **6** | 12 | 18 | 33 |
| eg4 | 0 | 30 | 30 | 0 |
| eg5 | 0 | 12 | 12 | 0 |
| gg1 | 0 | 41 | 41 | 0 |
| **gg2** | **2** | 19 | 21 | 10 |
| gg3 | 0 | 24 | 24 | 0 |
| **gg4** | **1** | 11 | 12 | 8 |
| gg5 | 0 | 15 | 15 | 0 |
| guztira | *207* | *305* | *512* | *40* |

5.24. taula: *-ti / -tik* hizkuntza-aldagaiaren emaitza, hiztunaren arabera.

Emaitzak herrika begiratuz gero, Goierrian erabili da gehien bertako aldaera, Betelun eta Arriben gutxien:

| **Herria** | *ti %* | *tik %* | guztira |
|---|---|---|---|
| Azkarate | 81 | 19 | 48 |
| Uztegi | 65 | 35 | 85 |
| Intza | 53 | 47 | 68 |
| Gaintza | 47 | 53 | 87 |
| Betelu | 24 | 76 | 146 |
| Arribe | 1 | 99 | 78 |
| guztira | | | 512 |

5.25. taula: *-ti / -tik* hizkuntza-aldagaiaren emaitza, herriz herri.

*-ik* vs. *-iken* aztertzeko (aldaera guztiak barne: *-dik, -tik / -diken, -tiken, -dikan, -tikan*) 512 baino adibide gehiago hartu dira kontuan. Hizkuntza-aldagaia azaltzean esan dugun bezala, ablatiboa eta motibatiboaz gain, beste kasu eta hitz batzuk hartu dira kontuan: partitiboa (*besteik / besteiken*), adberbioak (*bakarrik, geldik, ixilik, oaindik, gañeti* 'gainera'...), eta *baizik* juntagailua. Horiekin batera, guztira 664 adibide bildu dira, eta oso gutxitan *-iken* aldaera; 49 aldiz.

Badirudi gazteen kontua dela *-iken / -ikan* erabiltzea. Izan ere, adin gehiagokoen artean, heldu bakarrak erabili du, beste hizkuntza-aldagai askotan berritzaile agertu den ikasketa-maila ertaineko gizonak. Erabili duen adibide bakarra beste aldaerarekin batera agertu da esaldi berean (*super-token*): *"Guk ZEATIKEN, TOLOSATIK".*

Gainerakoan, gazte batzuek erabili dute *-iken*, denek ez: Azkarateko emakumezko batek (*eg1*), Gaintzako gizonezko batek (*gg1*) eta Beteluko gazteek (*eg4, eg5, gg4, gg5*); bi emakumezkoek eta bi gizonezkoek. Beraz, hamar gazteetatik seik. Maiztasunetan ere aldea dago; askotan erabili du Azkarateko gazteak, % 55ean, Beteluko mutilek % 13-16 bitartean, eta Gaintzako mutilak eta Beteluko neskek % 1en azpitik. Ondorengo taulan aurkezten dira emaitza guztiak:

| Hiztuna | Herria | *-ik* | *-iken* | guztira | *-iken* % |
|---|---|---|---|---|---|
| eh1 | Uztegi | 19 | 0 | 19 | 0 |
| ea2 | Gaintza | 11 | 0 | 11 | 0 |
| ea3 | Azkarate | 18 | 0 | 18 | 0 |
| ea4 | Betelu | 18 | 0 | 18 | 0 |
| gh1 | Arribe | 68 | 1 | 69 | 0,01 |
| ga2 | Gaintza | 29 | 0 | 29 | 0 |
| ga3 | Intza | 17 | 0 | 17 | 0 |
| ga4 | Azkarate | 11 | 0 | 11 | 0 |
| gh5 | Betelu | 46 | 0 | 46 | 0 |
| eg1 | Azkarate | 25 | 31 | 56 | 55 |
| eg2 | Arribe | 42 | 0 | 42 | 0 |
| eg3 | Intza | 35 | 0 | 35 | 0 |
| eg4 | Betelu | 51 | 1 | 52 | 0 |
| eg5 | Betelu | 30 | 3 | 33 | 1 |
| gg1 | Gaintza | 62 | 6 | 68 | 1 |
| gg2 | Intza | 43 | 0 | 43 | 0 |
| gg3 | Uztegi | 48 | 0 | 48 | 0 |
| gg4 | Betelu | 16 | 3 | 19 | 16 |
| gg5 | Betelu | 26 | 4 | 30 | 13 |
| guztira | | *615* | *49* | *664* | *1* |

5.26. taula: *-ik / -iken* aldaeren emaitzak, hiztunaren arabera.

Oso adibide gutxi direla esan dugu *-iken* bukaera daramatenak eta horiek gizonezko heldu batek (behin) eta gazte batzuek erabili dituzte. Gazteen artean, Goierriko bi hiztunek erabili dute eta Beteluko guztiek, batzuek oso maila apalean egin badute ere. Beraz, gaur egun aldaketan dagoela eta gazteen artean sartuz doala dirudien ezaugarria da.

### 5.5.5. ***Izan* aditzaren erroa (*gea / ga, dena / dana*)**

- *gea / ga*

Hizkuntza-aldakortasunari dagokionez, oso hizkuntza-aldagai orekatua dela dirudi lehen begiratuan, gazte, heldu nahiz adinekoek, emakumezko nahiz gizonezkoek bi aldaerak erabiltzen dituztelako. Kontua da adinekoek aditz forma hauek gutxi erabili dituztela gure corpusean (izan *ga* aldaera, izan *gea* aldaera). Batzuek ez dute adibide bakarrik eman, eta horrek ditugun adibideen banaketa oso irregularra izatea eragin du. Adineko askoren daturik ez izatean, ezin dugu ondorio orokorrik atera. Ondorengo taulan eta irudian aurkezten dira hiztunkako emaitzak:

| Hiztuna | *ga* | *gea* | guztira | *ga %* | *gea %* |
|---|---|---|---|---|---|
| eh1 | 1 | 7 | 8 | 13 | 88 |
| ea4 | 1 | 1 | 2 | 50 | 50 |
| gh1 | 2 | 8 | 10 | 20 | 80 |
| ga4 | 0 | 2 | 2 | 0 | 100 |
| gh5 | 17 | 0 | 17 | 100 | 0 |
| eg1 | 2 | 28 | 30 | 7 | 93 |
| eg2 | 4 | 8 | 12 | 33 | 67 |
| eg3 | 17 | 3 | 20 | 85 | 15 |
| eg4 | 3 | 27 | 30 | 10 | 90 |
| eg5 | 2 | 4 | 6 | 33 | 67 |
| gg1 | 1 | 1 | 2 | 50 | 50 |
| gg2 | 9 | 0 | 9 | 100 | 0 |
| gg3 | 0 | 7 | 7 | 0 | 100 |
| gg4 | 15 | 2 | 17 | 88 | 12 |
| gg5 | 1 | 14 | 15 | 7 | 93 |
| guztira | *75* | *112* | *187* | *40* | *60* |

5.27. taula: *ga / gea* aldaeren emaitzak, hiztunaren arabera.




5.8. irudia: *ga / gea* aldaeren emaitzak, hiztunaren arabera.

Bertan ikusten da emakumezko adinekoak eta helduak bi direla, eta gizonezko adinekoak eta helduak hiru. Beraz, bina hiztun falta ditugu talde bakoitzean (emakumezkoak lau dira guztira, gizonezkoak bost).

Adibideen kopuru osoa ere oso apala da; guztira 185 ditugu. Analisi estatistikoa egin dugu, dena den, eta ondorengoa da emaitza:

| | ***ga* aldaeraren erabilera** | | | |
|---|---|---|---|---|
| Input prob. | 0,33 | | | |
| N guztira | 187 | | | |
| Desbideratzea | 119,65 | | | |
| | *e.p.* | *log-odds* | *%* | *N* |
| **Ikasketa-maila** | ez da adierazgarria | | | |
| apala | 0,81 | 1,45 | 86 | 280 |
| ertaina | 0,42 | -0,30 | 27 | 330 |
| altua | 0,24 | -1,14 | 41 | 152 |
| **Generoa** | ez da adierazgarria | | | |
| gizonezkoa | 0,59 | 0,36 | 57 | 79 |
| emakumezkoa | 0,41 | -0,36 | 28 | 108 |
| **Pertsona** | ez da adierazgarria | | | |
| gu | 0,54 | 0,16 | 43 | 705 |
| zu | 0,46 | -0,16 | 32 | 57 |
| **Hiztuna** | aleatorioa (random) | | | |
| **Herria** | aleatorioa (random) | | | |

5.28. taula: *ga / gea* hizkuntza-aldagaiaren analisia.

5.28. taulan ikusi ahal denez, gizarte- nahiz hizkuntza-eragileak ez dira adierazgarriak hizkuntza-aldagai honetan. *Pertsona* hizkuntza-eragileak eragin handirik ez duela ikusten da *eragilearen pisuan (e.p.)* nahiz *log-odds* balioetan. Generoan, zenbaki horietan eragin handiagoa ageri da, baina emaitza ez da adierazgarria. Ikasketa-mailan ehunekoak begiratuz gero, goitik beherako hurrenkera ez dela espero genuena ikusten da: ikasketa-maila ertainekoek erabili dute gutxien bertako aldaera (% 27an) eta ez maila altukoek (% 41), espero izaten den bezala. Gainerakoan, ikasketa-mailak erakusten du lotura handiena *ga / gea* aldagaiarekin, *e.p.* eta *log-odds* zenbakien arabera.

Emaitzak herrika aztertuta ere, datuak urriak dira, batez ere Gaintzan; hiztun bakarra dugu bertan, gizonezko gazte bat, eta oso adibide gutxi ditu, bi bakarrik. Gainerakoetan ere datu gutxi ditugu, Betelun izan ezik. Orokortu daitekeen ondoriorik ezin atera hemendik, beraz. Dena den, esango dugu Uztegin eta Azkaraten erabili dutela gehien *gea* aldaera gure hiztunek, eta Intzan gutxien. Tartean gelditu dira Betelu eta Arribe:

| **Herria** | **hiztunak** | *ga* | *gea* | guztira | *ga %* | *gea %* |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Intza | eg3, gg2 | 26 | 3 | 29 | 90 | 10 |
| Betelu | ea4, gh5, eg4, eg5, gg4, gg5 | 39 | 48 | 87 | 45 | 55 |
| Gaintza | gg1 | 1 | 1 | 2 | 50 | 50 |
| Arribe | gh1, eg2 | 6 | 16 | 22 | 27 | 73 |
| Uztegi | eh1, gg3 | 1 | 14 | 15 | 7 | 93 |
| Azkarate | ga4, eg1 | 2 | 30 | 32 | 6 | 94 |
| guztira | | *75* | *112* | *187* | *40* | *60* |

5.29. taula: *ga / gea* hizkuntza-aldagaiaren emaitza, herriz herri.

- *dena / dana*

Hizkuntza-aldagai honetan aldakortasun gutxi dago; ez dituzte hiztun guztiek erabiltzen *dan, zala* moduko adizkiak, eta gutxiagotan agertzen da *dana* izenordaina. Gehienetan, beraz, *dena* moduko adizkiak eta izenordainak darabiltzate Araitz-Beteluko hiztunek, eta *dana* modukoak erabiltzen dituztenean, adizkiak dira (*dan, zan, dala, zala...*), ez izenordainak. Gizonezko gazteen artean gehiagotan agertu dira *dana* modukoak, *gg1*engan bereziki, baina helduagoek ere noizbait erabili dituzte, batez ere *gh1* hiztunak. Emakumezko adinekoek ez dituzte inoiz erabili, eta emakumezko gazteen artean *eg1*ek erabili du behin eta *eg5*ek maiz samar. Hiztunkako datuak biltzen dituen taula eta irudia hauexek dira:

| Hiztuna | *dena* | *dana* | guztira |
|---|---|---|---|
| eh1 | 46 | 0 | 46 |
| ea2 | 27 | 0 | 27 |
| ea3 | 38 | 0 | 38 |
| ea4 | 39 | 0 | 39 |
| gh1 | 35 | 56 | 91 |
| ga2 | 103 | 0 | 103 |
| ga3 | 62 | 1 | 63 |
| ga4 | 59 | 1 | 60 |
| gh5 | 37 | 0 | 37 |
| eg1 | 54 | 1 | 55 |
| eg2 | 32 | 0 | 32 |
| eg3 | 22 | 0 | 22 |
| eg4 | 46 | 0 | 46 |
| eg5 | 58 | 13 | 71 |
| gg1 | 56 | 16 | 72 |
| gg2 | 28 | 2 | 30 |
| gg3 | 33 | 3 | 36 |
| gg4 | 18 | 0 | 18 |
| gg5 | 43 | 1 | 44 |
| guztira | *836* | *94* | *930* |

5.30. taula: *dena / dana* hizkuntza-aldagaiaren emaitza, hiztunaren arabera.




5.9. irudia: *dena / dana* hizkuntza-aldagaiaren emaitza, hiztunaren arabera.

Adibideen banaketa ez da orekatua, baina adibideak izan badira, 930 hain zuzen ere. Analisi estatistikoa egin dugu, agerian diren emaitza horietan sakontzeko:

| | ***dena* aldaeraren erabilera** | | | |
|---|---|---|---|---|
| Input prob. | 1 | | | |
| N guztira | 930 | | | |
| Desbideratzea | 262,73 | | | |
| | *e.p.* | *log-odds* | *%* | *N* |
| **Aditzalzenordaina** | p. < 5,01e-19 | | | |
| izenordaina | 0,88 | 1,98 | 99 | 281 |
| aditza | 0,12 | -1,98 | 86 | 649 |
| **Adina** | ez da adierazgarria | | | |
| adinekoa | 0,90 | 2,16 | 99 | 330 |
| gaztea | 0,29 | -0,91 | 92 | 426 |
| heldua45-55 | 0,22 | -1,25 | 68 | 174 |
| **Generoa** | ez da adierazgarria | | | |
| emakumezkoa | 0,76 | 1,17 | 96 | 376 |
| gizonezkoa | 0,24 | -1,17 | 86 | 554 |
| **Hiztuna** | aleatorioa (random) | | | |
| **Herria** | aleatorioa (random) | | | |

5.31. taula: *dena / dana* hizkuntza-aldagaiaren analisia.

Analisiaren arabera, *AditzaIzenordaina* hizkuntza-eragilea izan da adierazgarri, modu nabarmen batean gainera (p. < 5'01e-19). Izenordainetan *dena* aldaera askoz gehiagotan agertu da, % 99an, eta eragilearen pisuak eta *log-odds* zenbakiek izenordainaren eragina azpimarratzen dute. Adina[49] eta generoa ere aztertu ditugu analisian eta ez dira adierazgarri atera. Hala ere, aipatzekoa da adinekoek erabili dutela *dena* aldaera gehiagotan eta *e.p.* nahiz *log-odds*-ek nabarmen adierazi dutela adinekoek bertako aldaera agertzearekin duten lotura.

49 Analisia adinarekin egin dugu, aldakortasun gehixeago ikasketa-mailak azaldu badu ere. Ikasketa-mailarekin analisi estatistikoa ezin izan da egin, arazoak eman ditu.

Era berean, helduek gazteek baino gutxiagotan erabili dutela *dena* azpimarratu nahi dugu, nahiz eta *e.p.* eta *log-odds*-etan alde nabaririk ez izan.

Emaitzak herrika aztertuta, herri guztietan antzekoa da emaitza, Arriben izan ezik. Bertan, % 65ean agertu da *dena* aldaera, eta gainerakoetan % 90etik goiti.

| **Herria** | *dena* | *dana* | guztira | *dena %* |
|---|---|---|---|---|
| Azkarate | 151 | 2 | 153 | 99 |
| Intza | 112 | 3 | 115 | 97 |
| Uztegi | 79 | 3 | 82 | 96 |
| Betelu | 204 | 14 | 218 | 94 |
| Gaintza | 186 | 16 | 202 | 92 |
| Arribe | 104 | 56 | 160 | 65 |
| guztira | 836 | 94 | 930 | 90 |

5.32. taula: *dena / dana* hizkuntza-aldagaiaren emaitza, herriz herri.

### 5.5.6. ***Edun* aditzaren erroa (*dot / dut / det*)**

Hizkuntza-aldagai honek berezitasun bat du, esan bezala: hiru aldaera ditu. Hemen erabili den analisi estatistikoa egiteko, aldaera bat beste batekin konparatzen da. Horregatik, bi analisi egin ditugu: batetik, *dot* eta *dut* vs. *det*, eta bestetik, *dot* vs. *dut* (*e* errodun adizkiak kontuan hartu gabe).

Aurreneko analisia egitean, bildu diren adibide guztiak hartu dira kontuan, 350 hain zuzen. Horietatik 186 dira *dot* eta *dut* aldaeren sailekoak (56 *dot* adizkiaren sailekoak, 130 *dut* adizkiarenak) eta 164 *det* aldaeraren sailekoak. Analisia eginda, ikasketa-maila izan da adierazgarria (0'000267) eta, hipotesietan espero zen bezala, ikasketa-maila apalekoek erabili dituzte *dot* eta *dut* aldaerak gehiago. Generoa ez da adierazgarri izan, eta emaitzak ere ez dira oso esanguratsuak. Alde batetik, ehunekoei begiratuz gero, hipotesia betetzen da eta gizonezkoak dira gordetzaileago: proportzio handiagoan erabili dituzte *dot* eta *dut* aldaerak emakumezkoek baino. Beste aldetik, ordea, *e.p.* eta *log-odds* balioei begiratuta, emakumezkoek lotura handixeagoa dute bertako aldaerekin (0'54 *e.p.* eta 0'14 *log-odds*) gizonezkoek baino (0'47 eta -0'14). Lotura horiek oso ahulak dira, dena den, *e.p.* balioak 0'5etik gertu daudelako, eta *log-odds* balioak 0tik gertu. Azpiko taulan bildu dira emaitzak:

| | ***dot+dut* aldaeren erabilera** | | | |
|---|---|---|---|---|
| Input prob. | 0,54 | | | |
| N guztira | 350 | | | |
| Desbideratzea | 232,16 | | | |
| | *e.p.* | *log-odds* | *%* | *N* |
| **Ikasketa-maila** | p. < 0,000267 | | | |
| apala | 0,93 | 2,63 | 90 | 72 |
| ertaina | 0,59 | 0,35 | 65 | 175 |
| altua | 0,05 | -2,97 | 8 | 103 |
| **Generoa** | ez da adierazgarria | | | |
| emakumezkoa | 0,54 | 0,14 | 42 | 166 |
| gizonezkoa | 0,47 | -0,14 | 64 | 184 |
| **Hiztuna** | aleatorioa (random) | | | |
| **Herria** | aleatorioa (random) | | | |

5.33. taula: *dot* + *dut / det* hizkuntza-aldagaiaren analisia.

Bigarren analisia egitean, *dot* vs. *dut*, ezin izan da analisia ikasketa-mailarekin egin. Akatsak ematen zituen, beharbada datu-kopuru txikiak eraginda. Kasu honetan, *det* aldaerak kontuan ez hartzean, 186 adibide izan dira guztira. Ikasketa-mailaren ordez, adina erabili dugu eta bera atera da oraingoan adierazgarri, juxtu-juxtu bada ere, 0'041eko adierazgarritasun-mailarekin. Analisi honetan ere generoa ez da adierazgarri izan, eta ehunekoei begiratuta, hemen emaitza goikoaren alderantzizkoa da: emakumezkoak dira gordetzaileago (*dot* gehiagotan erabili dutenak *dut* baino), eta *e.p.* eta *log-odds* balioekin bat egiten du emaitza horrek.

| | ***dot* aldaeren erabilera** | | | |
|---|---|---|---|---|
| Input prob. | 0,22 | | | |
| N guztira | 186 | | | |
| Desbideratzea | 142,8 | | | |
| | *e.p.* | *log-odds* | *%* | *N* |
| **Adina** | p. < 0,041 | | | |
| adinekoa | 0,86 | 1,81 | 69 | 32 |
| heldua 45-55 | 0,32 | -0,73 | 25 | 53 |
| gaztea | 0,25 | -1,08 | 21 | 101 |
| **Generoa** | ez da adierazgarria | | | |
| emakumezkoa | 0,65 | 0,61 | 48 | 69 |
| gizonezkoa | 0,35 | -0,61 | 20 | 117 |
| **Hiztuna** | aleatorioa (random) | | | |
| **Herria** | aleatorioa (random) | | | |

5.34. taula: *dot / dut* hizkuntza-aldagaiaren analisia.

Hiztun bakoitzak zer erabili duen begiratuz gero, adinaren arabera aldeak argi ikusten dira. Gazte gehienek proportzio altuan erabiltzen dute *det* aldaera (% 60tik goiti), emakumezko batek (*eg3*) eta bi gizonezkok (*gg2* eta *gg5*) izan ezik. Horren ordez, batez ere *dut* erabiltzen dute, ez *dot.* Bertakoenetzat jo dugun *dot* aldaera batez ere adinekoek erabili dute, bereziki emakumezkoek (aurreko taulan ikusi bezala). Hona hemen emaitza guztiak, taula eta irudietan:

| Hiztuna | *dot* | *dut* | *det* | guztira | *dot %* | *dut %* | *det %* | *dot + dut %* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| eh1 | 13 | 3 | 5 | 21 | 62 | 14 | 24 | 76 |
| ea2 | 11 | 1 | 0 | 12 | 92 | 8 | 0 | 100 |
| ea3 | 2 | 3 | 0 | 5 | 40 | 60 | 0 | 100 |
| ea4 | 1 | 1 | 0 | 2 | 50 | 50 | 0 | 100 |
| gh1 | 0 | 4 | 9 | 13 | 0 | 31 | 69 | 31 |
| ga2 | 7 | 2 | 4 | 13 | 54 | 15 | 31 | 69 |
| ga3 | 1 | 0 | 0 | 1 | 100 | 0 | 0 | 100 |
| ga4 | 0 | 3 | 1 | 4 | 0 | 75 | 25 | 75 |
| gh5 | 0 | 33 | 2 | 35 | 0 | 94 | 6 | 94 |
| eg1 | 0 | 3 | 26 | 29 | 0 | 10 | 90 | 10 |
| eg2 | 1 | 5 | 9 | 15 | 7 | 33 | 60 | 40 |
| eg3 | 5 | 17 | 3 | 25 | 20 | 68 | 12 | 88 |
| eg4 | 0 | 2 | 40 | 42 | 0 | 5 | 95 | 5 |
| eg5 | 0 | 1 | 14 | 15 | 0 | 7 | 93 | 7 |
| gg1 | 0 | 3 | 13 | 16 | 0 | 19 | 81 | 19 |
| gg2 | 4 | 18 | 0 | 22 | 18 | 82 | 0 | 100 |
| gg3 | 0 | 5 | 17 | 22 | 0 | 23 | 77 | 23 |
| gg4 | 0 | 0 | 16 | 16 | 0 | 0 | 100 | 0 |
| gg5 | 11 | 26 | 5 | 42 | 26 | 62 | 12 | 88 |
| guztira | *56* | *130* | *164* | *350* | *16* | *37* | *47* | *53* |

5.35. taula: *dot, dut* eta *det* aldaeren emaitzak, hiztunaren arabera.




5.10. irudia: *dot, dut, det* aldaeren emaitzak hiztun adindun eta helduengan.




5.11. irudia: *dot, dut, det* aldaeren emaitzak hiztun gazteengan.

Emaitzak herriz herri aurkeztuko dira jarraian. Gure datuen arabera, Intzan erabili da *det* aldaera gutxien, gainerako herriekiko alde handiarekin: Intzan % 6an erabili dute, eta gainerako herrietan % 40tik goiti. Azkaraten erabili da *det* adizkiaren saila gehien, % 71rekin; hala espero zen, Gipuzkoatik gertuen dagoelako. Gaintzan eta Uztegin erabili dute gehien *dot* aldaera, % 30-45 tartean. 5.36. taulan ikusten den bezala, herri guztietan hiru aldaerak erabiltzen dira, nahiz eta maiztasun desberdinekin izan.

| **Herria** | *dot* | *dut* | *det* | guztira | *dot %* | *dut %* | *det %* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Intza | 10 | 35 | 3 | 48 | 21 | 73 | 6 |
| Gaintza | 18 | 6 | 17 | 41 | 44 | 15 | 41 |
| Uztegi | 13 | 8 | 22 | 43 | 30 | 19 | 51 |
| Betelu | 12 | 63 | 77 | 152 | 8 | 41 | 51 |
| Arribe | 1 | 9 | 18 | 28 | 4 | 32 | 64 |
| Azkarate | 2 | 9 | 27 | 38 | 5 | 24 | 71 |
| guztira | 56 | 130 | 164 | *350* | 16 | 37 | 47 |

5.36. taula: *dot, dut, det* hizkuntza-aldagaiaren emaitza, herriz herri.

### 5.5.7. Pluraleko 3. pertsonako NORK morfema *-e / -te*

Gure corpusean 318 adibide bildu dira, eta horiek ikusita, gehienetan *-e* agertu dela esan dezakegu. Eta emaitza azpimarragarri hau topatu dugu: gizonezkoak dira *-te* forma erabili duten hiztun bakarrak. Hain zuzen ere, hamar gizonetik zazpik erabili dute forma berriago hori; gazte gehienek (bostetik lauk), bi helduek eta hiru adinekoetatik batek. Taula honetan daude emaitza guztiak:

| Hiztuna | *-e aldaera* | *-te aldaera* | guztira | *-e %* |
|---|---|---|---|---|
| eh1 | 19 | 0 | 19 | 100 |
| ea2 | 7 | 0 | 7 | 100 |
| ea3 | 24 | 0 | 24 | 100 |
| ea4 | 23 | 0 | 23 | 100 |
| gh1 | 22 | 1 | 23 | 96 |
| ga2 | 35 | 1 | 36 | 97 |
| ga3 | 16 | 0 | 16 | 100 |
| ga4 | 20 | 0 | 20 | 100 |
| gh5 | 4 | 8 | 12 | 33 |
| eg1 | 29 | 0 | 29 | 100 |
| eg2 | 17 | 0 | 17 | 100 |
| eg3 | 6 | 0 | 6 | 100 |
| eg4 | 8 | 0 | 8 | 100 |
| eg5 | 7 | 0 | 7 | 100 |
| gg1 | 4 | 3 | 7 | 57 |
| gg2 | 26 | 0 | 26 | 100 |
| gg3 | 11 | 5 | 16 | 69 |
| gg4 | 9 | 3 | 12 | 75 |
| gg5 | 6 | 4 | 10 | 60 |
| guztira | 293 | 25 | 318 | 92 |

5.37. taula: *-e / -te* aldaeren emaitzak, hiztunaren arabera.

Adinak eta generoak eragin estatistikoa ote duten ikusteko, analisiaren emaitza aurkezten dugu jarraian. Bertan ikusten denez, bai adina eta bai generoa adierazgarri dira, baina analisi hori egin ahal izateko, *herria* aldagai aleatorioa ez dugu kontuan hartu (bestela arazoak ematen zituen):

| | **-e aldaeraren erabilera** | | | |
|---|---|---|---|---|
| Input prob. | 1,00 | | | |
| N guztira | 318 | | | |
| Desbideratzea | 99,77 | | | |
| | *e.p.* | *log-odds* | *%* | *N* |
| **Generoa** | p. < 0,000797 | | | |
| emakumezkoa | >0,999 | 10,45 | 100 | 140 |
| gizonezkoa | <0,001 | -10,45 | 85 | 178 |
| **Adina** | p. < 0,0334 | | | |
| adinekoa | 0,93 | 2,54 | 99 | 126 |
| gaztea | 0,23 | -1,24 | 87 | 138 |
| heldua | 0,21 | -1,31 | 54 | 54 |
| **Hiztuna** | aleatorioa (random) | | | |

5.38 taula: *-e / -te* hizkuntza-aldagaiaren analisia.

Adinean hipotesia bete da eta adinekoak dira bertako aldaera gehien erabili dutenak. Helduek gazteek baino gutxiagotan erabili dute bertakoa (% 54an helduek, % 87an gazteek), baina *e.p.* eta *log-odds* zenbakiei begiratuz gero, helduak eta gazteak antzeko balioetan daude. Generoari dagokionez, gure emaitzetan dagoeneko ohikoa bihurtu dena ikusi dugu: emakumezkoak dira gordetzaileen; beti erabili dute *-e,* bertako aldaera.

### 5.5.8. Lexikoa

Lexikoan bost hizkuntza-aldagai aztertu ditugu: *biño / baño, ezer / deus, guzi / guzti, ongi / ondo* eta *zerbatte / zeoze.* Guztira 1.248 adibide bildu dira, hau da, Goizuetan bildutakoen erdia baino gehixeago (2.340 adibide bildu dira han). Kontuan hartu behar da Goizuetan hamar hizkuntza-aldagai lexiko aztertu direla, ordea, hemengo bikoitza hain zuzen ere. Araitz-Beteluko lexikoko hizkuntza-aldagaien maiztasunari dagokionez, batetik besterako aldea ez da oso handia, *biño / baño* hizkuntza-aldagaia kenduta. Aldagai hori askotan agertu da corpusean; 915 aldiz (Goizuetan bezalatsu; han 877 aldiz). *Ongi / ondo* aldaera 118 aldiz eta gainerakoak 80tik behera. Aldaera bakoitza zenbatean erabiltzen duten ehunekotan aztertuta ere, ez dago salto handirik: denetan bertakoa % 43-83 tartean erabili da (Goizuetan saltoak handiak izan dira; % 8tik 98raino). Ondorengo taulan bildu ditugu balio horiek guztiak:

| **hizkuntza-aldagaiak** | guztira *N* | bertakoa *N* | bertakoa % |
|---|---|---|---|
| biño_baño | 915 | 602 | 66 |
| ezer_deus | 75 | 62 | 83 |
| guzi_guzti | 79 | 55 | 70 |
| ongi_ondo | 118 | 96 | 81 |
| zerbatte_zeoze | 61 | 26 | 43 |
| guztira | 1248 | 841 | 67 |

5.39. taula: hizkuntza-aldagai lexikoen erabilera.

Gehienek maiztasun gutxi dutenez, *a priori* estatistika eragiketak banaka ezin izango dira egin. Muga hori aldagai lexiko guztiak elkarrekin bilduta saihestu dugu hemen ere. Modu horretan, elkarrekin joerarik erakusten duten ikusi ahal izango dugu. Talde homogeneoa izanda, analisia egokiagoa izango da. Dena den, hizkuntza-aldagai bakoitzaren eragina kontuan hartuko da, analisian *aleatorio* bezala aztertuta. Ondorengo taulan agertzen da hiztun

bakoitzak bertako lexikoa eta lexiko berria zenbatean erabili duen. Gorabehera handiak daude, bertako lexikoaren ehunekoen zutabeari (eskuinekoa) erreparatuz gero. Batzuk bertako lexiko % 90-100en bueltan erabili dute (hizki lodiz markatu ditugu); gainerakoek % 43tik beheiti erabili dute (*ea3* adinekoak izan ezik):

| Hiztuna | *bertako lexikoa* | *lexiko berria* | guztira | *bertako lexikoa %* |
|---|---|---|---|---|
| eh1 | 24 | 36 | 60 | 40 |
| ea2 | 23 | 0 | 23 | **100** |
| ea3 | 32 | 10 | 42 | 76 |
| ea4 | 35 | 1 | 36 | **97** |
| gh1 | 35 | 48 | 83 | 42 |
| ga2 | 48 | 1 | 49 | **98** |
| ga3 | 21 | 0 | 21 | **100** |
| ga4 | 20 | 0 | 20 | **100** |
| gh5 | 60 | 11 | 71 | **85** |
| eg1 | 81 | 8 | 89 | **91** |
| eg2 | 21 | 89 | 110 | 19 |
| eg3 | 58 | 2 | 60 | **97** |
| eg4 | 91 | 12 | 103 | **88** |
| eg5 | 41 | 61 | 102 | 40 |
| gg1 | 18 | 53 | 71 | 25 |
| gg2 | 68 | 2 | 70 | **97** |
| gg3 | 20 | 61 | 81 | 25 |
| gg4 | 59 | 8 | 67 | **88** |
| gg5 | 86 | 4 | 90 | **96** |
| guztira | 841 | 407 | 1248 | 67 |

5.40. taula: hizkuntza-aldagai lexikoen erabilera, hiztunka.

Lexikoaren eragiketa estatistikoa eginda, emaitza da adina (0'00786) bakarrik dela adierazgarri. Adinarekin espero genuena bete da, adinekoak izan baitira bertako aldaera gehien erabili dutenak, eta gazteak gutxien. Generoari dagokionez, azpimarragarria da gizonezkoak direla bertako aldaerak gehiagotan erabili dituztenak (% 70ean, emakumezkoek % 65ean erabili dituzten bitartean). Jarraian analisi estatistikoaren emaitzak aurkezten dira:

| | ***bertako lexikoa* aldaeraren erabilera** | | | |
|---|---|---|---|---|
| Input probabilitatea | 0,89 | | | |
| N guztira | 1248 | | | |
| Desbideratzea | 880,03 | | | |
| | *e.p.* | *log-odds* | *%* | *N* |
| **Adina** | p. < 0,00786 | | | |
| adinekoa | 0,9 | 2,21 | 94 | 191 |
| heldua | 0,26 | -1,06 | 56 | 214 |
| gaztea | 0,24 | -1,15 | 64 | 843 |
| **Generoa** | ez da adierazgarria | | | |
| gizonezkoa | 0,61 | 0,43 | 70 | 623 |
| emakumezkoa | 0,39 | -0,43 | 65 | 625 |
| **Hiztuna** | aleatorioa (random) | | | |
| **Herria** | aleatorioa (random) | | | |
| **AldagaiLexikoa** | aleatorioa (random) | | | |

5.41. taula: lexikoa hizkuntza-aldagaiaren analisia.

Ikasketa-mailak ere emaitza interesgarriak eman ditzakeela-eta, aparteko analisi batean aztertu da. Ondorengo taulan ikusten denez, emaitza ez da espero genuena erabat. Alde batetik, ikasketa-maila apalekoek erabili dute gehien bertako aldaera eta hor bai, hipotesia bete da. Baina, beste aldetik, ikasketa-maila altua dutenek espero genuen gutxien erabiltzea, eta ikasketa-maila ertainekoek bete dute hipotesi hori:

| | *e.p.* | *log-odds* | *%* | *N* |
|---|---|---|---|---|
| **Ikasketa-maila** | p. < 0,0122 | | | |
| apala | 0,87 | 1,93 | 91 | 262 |
| altua | 0,36 | -0,59 | 76 | 330 |
| ertaina | 0,21 | -1,34 | 54 | 656 |

5.42. taula: lexikoa hizkuntza-aldagaia ikasketa-mailaren arabera.

Ikusi dugu *biño / baño* aldagaiak maiztasun handia duela beste aldagaien artean. Analisi estatistikoa egitean *aldagai lexikoa* aldagai aleatorio bezala jarrita aldagai bakoitzaren eragina saihesten saiatu gara. *Aldagai lexikoa* analisian gainerako aldagaiak bezala aztertuta, adierazgarria dela ikusi dugu (p. < 6'95e-16).

Horretaz gain, beste analisi bat egin dugu *biño / baño* gabe zer gertatzen zen ikusteko eta aldea nabaria dela ikusten da. Oraingoan, adina da adierazgarri den eragile bakarra, baina espero ez dugun hurrenkeran: bertako lexikoa gehien adinekoek erabili duten arren, gutxien

erabili dutenak ez dira gazteak izan, helduak baizik. Hau da, helduak izan dira berritzaileenak bertako lexikoari dagokionez, *biño / baño* aldagaia kontuan hartu ez dugunean:

| | ***bertako lexikoa* aldaeraren erabilera (*biño / baño* gabe)** | | | |
|---|---|---|---|---|
| Input probabilitatea | 0,83 | | | |
| N guztira | 333 | | | |
| Desbideratzea | 265,4 | | | |
| | *e.p.* | *log-odds* | *%* | *N* |
| **Adina** | p. < 0,00492 | | | |
| adinekoa | 0,88 | 2,02 | 92 | 71 |
| gaztea | 0,33 | -0,7 | 71 | 193 |
| heldua | 0,21 | -1,32 | 54 | 69 |
| **Hiztuna** | aleatorioa (random) | | | |
| **Herria** | aleatorioa (random) | | | |

5.43. taula: lexikoa hizkuntza-aldagaiaren analisia (*biño / baño* aldagaia gabe).

- Lexikoko emaitzak, hiztunaren barne-aldakortasunari erreparatuta

Lexikoko emaitzak xeheago ikusi nahi ditugu, aldagai lexiko batetik bestera alde handia egon daitekeelako. Hizkuntza-aldagai lexikoen erabilera biltzen duen irudia aurkeztuko dugu aurrena, gehien erabili denetik gutxien erabili denera:




5.12. irudia: bertako lexikoaren erabilera (%), hizkuntza-aldagaika.

5.12. irudian ikusten den bezala, hizkuntza-aldagai lexikoetan bildu ditugun adibideak zenbatuta, hiztunek orokorrean bertako aldaera neurri handian erabiltzen dutela esan dezakegu; gure corpuseko aldagai lexikoetan % 60an baino gehiagotan agertu da bertako aldaera, *zerbatte / zeoze, zerbait* aldagaiaren kasuan izan ezik.

Erabilera orokorra hori izanda, hiztun bakoitzak hizkuntza-aldagai lexikoak nola erabili dituen aurkeztuko dugu ondorengo grafikoetan. Grafiko horiek egitean, *biño / baño* aldagaiaren datuak ez dira kontuan hartu, emaitza gehiegi baldintzatzen dutelako. Izan ere, alde handiz, Araitz-Beteluko corpusean *biño / baño* aldagaia da lexikoan adibide gehien dituena, 915 hain zuzen. Oso kopuru handia da, hizkuntza-aldagaiak guztien adibideak batuta 1.248 direla kontuan hartuta. Alegia, gainerako hizkuntza-aldagai lexikoen adibide guztiak bilduta, 333 besterik ez dira. Horregatik, *biño / baño* aldagaiak *bertako lexikoa / lexiko berria*[50] proportzioan eragin handiegia izan ez dezan, ez da kontuan hartu ondorengo irudietan[51].

Bestalde, bakarrik 333 adibide izateak, emaitzak tentuz interpretatzera garamatza; ondorio pisutsuak ateratzeko kopuru apala da izan ere (Goizuetaren kasuan, adibidez, 2.340 adibide bildu dira; hor ere *biño / baño* aldagaiak maiztasun handia du 852 adibiderekin –lexiko guztiaren % 36–, baina ez du inondik ere hemengo nagusitasuna).

Jarraian aurkeztuko diren grafikoek lau hizkuntza-aldagai lexikoen (*ezer / deus, guzi / guzti, ongi / ondo* eta *zerbatte / zeoze*) aldaera guztien ehunekoak biltzen dituzte, emaitzak hiztunka banatuta. Adinekoen eta helduen emaitzak aztertzen hasiko gara:




5.13. irudia: lexikoaren erabilera hiztun adindun eta helduengan.

5.13. irudian ikusten den bezala, desberdintasun handiak daude hiztun batetik bestera. Desberdintasun horiek adinarekin zerikusia dutela dirudi, lexiko berriaren kolore urdina

50 Nahita ez dugu *bertako* vs. *kanpoko* terminologia erabili, Araitz-Betelukoentzat ez baita lexiko arrotza aztergai dena.

51 Ez dira hizkuntza-aldagaika batezbestekoak ateratzen, beraz, hizkuntza-aldagai bakoitzak ez du pisu bera. Bertako aldaerak gehitzen dira batetik, eta aldaera berriak bestetik. Hori horrela egin da oso adibide gutxi dituzten aldagaien adibide urriek gehiegizko pisua izan ez dezaten.

agertzen den bost hiztunetatik hiru helduak baitira. Adineko emakumezko (*ea3*) eta gizonezko (*ga2*) banak ere erabili dute lexiko berria. Gizonezkoaren kasuan oso gutxitan, % 4an besterik ez (adibide bakarra da). Emakumezkoaren kasuan nabarmenagoa da lexiko berriaren erabilera, % 33an erabili duelako, helduetako baten (*eh1*) erabileratik askoz gora. *eh1* emakumea da eta azpimarratzekoa da helduen artean dagoen emakume bakarra dela eta lexiko berria gizonezko helduek baino askoz gutxiagotan erabili duela. Gainerako hiztunek (lau adinekok, bi emakumezko eta bi gizonezko) ez dute behin ere erabili lexiko berriko aldaerarik.

Gazteek erabili duten lexikoa azaltzen duen irudiari begiratuko diogu jarraian:




5.14. irudia: lexikoaren erabilera hiztun gazteengan.

Bertan askoz ere irudi homogeneoagoa ikusten dugu aurrekoan baino. Gazteek % 20 eta 50aren artean erabili dute lexiko berria, hiru salbuespenekin: bi emakumezko (*eg3, eg4*) eta gizonezko gazte bat (*gg2*). *eg2* eta *eg3* beste hizkuntza-aldagaietan ere gordetzaile agertu dira, eta biek ikasketa-maila ertaina dute eta Intzakoak dira; hala, pentsa daiteke Intzako hizkera gordetzaileagoa dela. Beste emakumezkoak (*eg4*) ere erabilera apal samarra egin du, % 11n erabili du lexiko berria; eta deigarria da, Betelukoa eta ikasketa-maila altukoa dela kontuan hartuta.

Azpimarratzekoa da era berean, gazteen artean gizonezkoek erabili dutela gehienetan lexiko berria (% 40-50 tartean), aipatu dugun intzatarra (*gg2*) kenduta. Laburtuz, esan daiteke lexiko berria, gehienbat, helduek eta gazteek maizago erabili dutela adinekoek baino, adineko baten (*ea3*) eta bi gazteren (*eg3, gg2*) salbuespenarekin.

Hiztunen arteko alde horiek hizkuntza-aldagaiak banaka aztertzean hobeki ulertuko ditugu. Lexikoa batera lantzean aztertu gabe gelditu den aldagaiarekin hasiko gara, *biño / baño* aldagaiarekin.

### 5.5.9. *Biño / baño*

Goian esan den bezala, alde handiz, Araitz-Beteluko corpusean *biño / baño* da lexikoan adibide gehien dituen aldagaia, 915 hain zuzen ere. Oso kopuru handia da, hizkuntza-aldagai guztiak batuta 1.248 direla kontuan hartuta. Horregatik ez dugu besteekin batera aztertu goiko irudietan, azken batean, *biño / baño* aldagaiak eragin gehiegi izango bailuke gainerakoen aldean. Datuetan xeheago sartu aurretik gogoratuko dugu *biño* aldaeraren barnean *beño* ere badagoela (kopuru handia duelako azpimarratzen dugu) eta *baño* aldaeraren barnean *baña* ere badagoela (honetatik oso adibide gutxi bildu dira).

Aldagai honek hiztunka duen banaketa ikusi ahal da ondorengo taulan:

| Hiztuna | *biño* | *baño* | guztira | *biño %* |
|---|---|---|---|---|
| eh1 | 6 | 33 | 39 | 15 |
| ea2 | 19 | 0 | 19 | 100 |
| ea3 | 22 | 5 | 27 | 81 |
| ea4 | 23 | 1 | 24 | 96 |
| gh1 | 27 | 29 | 56 | 48 |
| ga2 | 25 | 0 | 25 | 100 |
| ga3 | 18 | 0 | 18 | 100 |
| ga4 | 7 | 0 | 7 | 100 |
| gh5 | 49 | 1 | 50 | 98 |
| eg1 | 70 | 2 | 72 | 97 |
| eg2 | 4 | 84 | 88 | 5 |
| eg3 | 52 | 2 | 54 | 96 |
| eg4 | 74 | 10 | 84 | 88 |
| eg5 | 16 | 50 | 66 | 24 |
| gg1 | 8 | 45 | 53 | 15 |
| gg2 | 46 | 1 | 47 | 98 |
| gg3 | 9 | 50 | 59 | 15 |
| gg4 | 47 | 0 | 47 | 100 |
| gg5 | 80 | 0 | 80 | 100 |
| guztira | 602 | 313 | 915 | 66 |

5.44. taula: *biño / baño* aldagaiaren erabilera hiztunka.

Zenbaki horiek denak argiago ikusteko grafikoak egin ditugu. Horietan hiru aldaerak bereizi ditugu, *biño, beño* eta *baño*, esan bezala, *beño* aldaerak adibide multzo azpimarragarria duelako *(baña* aldaerak ez bezala). *Biño* eta *beño* bertako aldaerak direla

errazago ikusteko kolore berbera erabili dugu bietan, laranja, bizitasun handiago eta txikiagoen bidez desberdinduz (*biño* ilunagoa, *beño* argiagoa).

Adinekoen eta helduen erabilerari erreparatuko diogu aurrena:




5.15. irudia: *biño, beño / baño* aldaeren erabilera hiztun adindun eta helduengan.

Azpimarratzekoa da salto nabarmena dagoela bi helduen emaitzetan. Aldaera berria (*baño*) gehien erabili dutenak bi heldu horiek izan dira (*eh1, gh1*), biek ikasketa-maila ertaina dutenak. Hirugarren heldua (*gh5*) adinekoen pare agertu da, oso erabilera apalarekin. Beraz, hemen ikasketa-mailak hizkuntza-aldagai honen erabilerarekin lotura duela dirudi, adineko guztiek ikasketa-maila apala dutelako eta ikasketa-maila apala duen heldu bakarrak (*gh5*) *biño / beño / baño* adinekoen antzera erabili baititu. Adinekoen artean *baño* oso maila apalean erabili dute, % 4tik beheiti, emakumezko batek (*ea3*) izan ezik. Beraz, adinekoek bertako aldaerak erabili dituzte nagusiki, *biño* eta *beño*.

Gazteek *biño, beño* eta *baño* aldaerak nola erabili dituzten adierazten du ondorengo irudiak:




5.16. irudia: *biño, beño / baño* aldaeren erabilera hiztun gazteengan.

Hiztun batzuk *baño* (aldaera berria) proportzio altuan erabili dute, % 70etik goiti hain zuzen. Ez dirudi genero kontua denik, bi emakumezko (*eg2* eta *eg5*) eta bi gizonezko (*gg1* eta *gg3*) direlako aldaera berria askotan erabili dutenak, beste hiru emakumezkoek eta hiru gizonezkoek erabilera oso apala egin duten bitartean (% 12tik behera). Ikasketa-mailarekin ere ez dago loturarik: ikasketa-maila ertaina nahiz altua dutenek *baño* proportzio altuan eta apalean erabili dute. Hiztunen herriari begiratuta ere ez dugu lotura zuzenik aurkitu. Dena den, *baño* askotan erabili dutenak Arribekoa, Betelukoa (ama Gaintzakoa du), Gaintzakoa eta Uztegikoa dira. Gainerakoak Azkaratekoa, Intzakoak (bi) eta Betelukoak (hiru) dira. Beraz, esan daiteke Betelukoa edo Intzakoa izateak *biño* eta *beño* (bertako aldaerak) mantentzearekin lotura duela.

*Biño / baño* maiztasun handiko hizkuntza-aldagaia izanik, analisi estatistikoa egin dugu. Horretarako, *biño* eta *beñ*o elkarrekin aztertu dira (bertako aldaerak), eta *baño* eta *baña* bestetik (aldaera berriagoak). Ondorengo taulan agertzen dira emaitzak:

| | ***biño (beño)* aldaeraren erabilera** | | | |
|---|---|---|---|---|
| Input probabilitatea | 0,95 | | | |
| N guztira | 915 | | | |
| Desbideratzea | 463,74 | | | |
| | *e.p.* | *log-odds* | *%* | *N* |
| **Adina** | ez da adierazgarria | | | |
| adinekoa | 0,95 | 2,89 | 95 | 120 |
| gaztea | 0,29 | -0,91 | 63 | 650 |
| heldua | 0,12 | -1,98 | 56 | 145 |
| **Generoa** | ez da adierazgarria | | | |
| gizonezkoa | 0,78 | 1,26 | 71 | 442 |
| emakumezkoa | 0,22 | -1,26 | 61 | 473 |
| **Hiztuna** | aleatorioa (random) | | | |
| **Herria** | aleatorioa (random) | | | |

5.45. taula: *biño / baño* hizkuntza-aldagaiaren analisia.

5.45. taulan ikusten denez, ez dago eragile adierazgarririk. Hala ere, espero ziren hipotesiak bete dira gehienetan: batetik, adinekoak izan dira gordetzaileen (bertako aldaera % 95ean erabili dute). Adinari dagokionez, azpimarratu behar da heldua izan dela berritzaileen, eta ez gazteak, nahiz eta batetik besterako aldea txikia izan (bertako aldaera % 60 inguruan erabili dute). Bestetik, gizonezkoak agertu dira gordetzaileen (bertako aldaera % 71n erabili dute) eta emakumezkoak berritzaileen (bertako aldaera % 61ean).

Hein handi batean, *bertako lexikoa* batera analisi estatistiko batean aztertu dugunean, antzeko emaitza atera zaigu (ikus 5.41. taula). Badirudi, beraz, analisi horretan *biño / baño* aldagaiak eragin handia izan duela, *aldagai lexikoa* eragilearen bidez hori saihestu nahi izan bada ere.

### 5.5.10. *Ezer / deus*

Hemendik aurrera aztertuko diren hizkuntza-aldagaien antzera, *ezer* edo *deus* aldaeren adibide gutxi bildu ahal izan dira gure corpusean: 75 aldiz denera, *ezer* nagusi izanda (62 adibiderekin), *deus* aldaeraren parean (13 adibide). Hizkuntza-aldagai hau berezia da bertako aldaeratzat *ezer* hartu dugulako, erdialdeko euskararen ezaugarria dena; ezaugarri hori duen aldagai bakarra da Araitz-Beteluko zatian (Goizuetakoan *-ikan* bukaera bakarra den bezala). Hori horrela egin da *deus* adinekoek eta helduek ez dutelako erabili gure corpusean. *Ezer* ere gutxitan erabili dute (19 aldiz) eta maiztasun apala kontuan hartuta, emaitza tentuz interpretatu beharko da.

Gazte batzuek bakarrik erabili dute *deus*, gutxitan bada ere: hiru emakumezkok eta bi gizonezkok. Emakumezko gazte batek (*eg2*) behin erabili du *deus* (*ezer* bost aldiz), beste emakumezko gazte batek (*eg4*) beste behin (*ezer* bederatzi aldiz) eta azkenak (*eg5*) sei aldiz (*ezer* sei aldiz). Gizonezkoen artean, *gg1* izendatutakoak hiru aldiz erabili du *deus* (*ezer* behin) eta *gg3*-k bi aldiz (*ezer* lautan). Hona hemen taula datu guztiekin:

| Hiztuna | *ezer* | *deus* | guztira | *ezer %* |
|---|---|---|---|---|
| eh1 | 2 | 0 | 2 | 100 |
| ea2 | 1 | 0 | 1 | 100 |
| ea3 | 6 | 0 | 6 | 100 |
| ea4 | 1 | 0 | 1 | 100 |
| gh1 | 2 | 0 | 2 | 100 |
| ga2 | 3 | 0 | 3 | 100 |
| ga3 | - | - | - | adibiderik ez |
| ga4 | 3 | 0 | 3 | 100 |
| gh5 | 1 | 0 | 1 | 100 |
| eg1 | 5 | 0 | 5 | 100 |
| eg2 | 5 | 1 | 6 | 83 |
| eg3 | 1 | 0 | 1 | 100 |
| eg4 | 9 | 1 | 10 | 90 |
| eg5 | 6 | 6 | 12 | 50 |
| gg1 | 1 | 3 | 4 | 25 |
| gg2 | 2 | 0 | 2 | 100 |
| gg3 | 4 | 2 | 6 | 67 |
| gg4 | 7 | 0 | 7 | 100 |
| gg5 | 3 | 0 | 3 | 100 |
| guztira | 62 | 13 | 75 | 83 |

5.46. taula: *ezer / deus* aldagaiaren erabilera hiztunka.

Datuak argiago adierazteko irudi hau egin dugu hiztunen *ezer* eta *deus* aldaeren erabilerekin (ehunekotan):




5.17. irudia: *ezer / deus* aldagaiaren erabilera hiztunka.

Beraz, aldaeren erabilera adinarekin lotuta dagoela dirudi, eta generoarekin ez dugu loturarik ikusten. *Deus* aldaera gazte batzuk bakarrik erabili dute ordea, eta alde handia dago gazte batetik bestera. *Deus* maiz erabili duten gazteen ezaugarrien artean loturarik ote dagoen aztertu da eta ez dugu loturarik antzeman herriari dagokionez ere. Ikasketa-mailari erreparatuta, ordea, erabilera altuena eman dutenak (*eg5* eta *gg1*) biak dira ikasketa-maila altukoak. *eg1* ere hala da, baina Azkaratekoa da; akaso horrek eragin du erdialdekoagoa den aldaera erabiltzea (Betelukoa eta Gaintzakoa besteak, hurrenez hurren). Faktore askoren gurutzaketaren emaitza antzematen da hizkeran eta, beste behin, ezin gara sakonago iritsi.

Ikasketa-maila generoarekin gurutzatuta ateratzen den irudia da ondorengoa, interesgarria iruditu zaiguna. Bertan ikusten da ikasketa-maila apala dutenek *ezer* erabili dutela beti (emakume nahiz gizon), baina ikasketa-maila altuagoa dutenek *ezer* gutxiago erabiltzen dutela:




5.18. irudia: *ezer* aldaeraren erabilera generoaren eta ikasketa-mailaren arabera.

Generoa adinarekin gurutzatuta, berriz, argi ikusten da adina dela gakoa aldaera baten edo bestearen erabileran: gazteek bakarrik erabili dute *deus* aldaera.




5.19. irudia: *ezer* aldaeraren erabilera generoaren eta adinaren arabera.

Adibideak gutxi izanda, analisi estatistikorik ez da eginen, ez aldagai honetan, ezta ondorengo aldagai lexikoetan ere.

### 5.5.11. *Guzi / guzti*

Aurreko aldagaiaren antzeko kopurua bildu dugu hemen ere: 79 adibide. Horietatik gehiengoa *guzi* bertako aldaera da (55 adibide, % 70a), baina *guzti* aldaerak ere badu presentzia, corpusean bildutakoen ia herena baita (24 adibide). Esan behar da, dena den, *guzti* aldaeraren presentzia hiztun gutxi batzuetara mugatzen dela eta, horrenbestez, aldakortasun gutxi dugula hizkuntza-aldagai honetan. Zehazki, 19 hiztunetatik 9k erabili dute *guzti.* Bertako aldaerak (*guzi*) presentzia gehiago du hiztunen artean, 15ek erabili baitute. Hona hemen erabileraren maiztasunen taula eta portzentaien irudia:

| Hiztuna | *guzi* | *guzti* | guztira | *guzi %* |
|---|---|---|---|---|
| eh1 | 3 | 0 | 3 | 100 |
| ea2 | - | - | - | adibiderik ez |
| ea3 | 1 | 0 | 1 | 100 |
| ea4 | 2 | 0 | 2 | 100 |
| gh1 | 6 | 1 | 7 | 86 |
| ga2 | 10 | 0 | 10 | 100 |
| ga3 | 3 | 0 | 3 | 100 |
| ga4 | 5 | 0 | 5 | 100 |
| gh5 | 2 | 0 | 2 | 100 |
| eg1 | 0 | 4 | 4 | 0 |
| eg2 | 6 | 2 | 8 | 75 |
| eg3 | 1 | 0 | 1 | 100 |
| eg4 | 0 | 1 | 1 | 0 |
| eg5 | 4 | 3 | 7 | 57 |
| gg1 | 2 | 2 | 4 | 50 |
| gg2 | 9 | 0 | 9 | 100 |
| gg3 | 1 | 6 | 7 | 14 |
| gg4 | 0 | 2 | 2 | 0 |
| gg5 | 0 | 3 | 3 | 0 |
| guztira | 55 | 24 | 79 | 70 |

5.47. taula: *guzi / guzti* aldagaiaren erabilera hiztunka.




5.20. irudia: *guzi / guzti* aldagaiaren erabilera hiztunka.

Irudia ikusita, argi dago gazteek gehiagotan erabili dutela *guzti* aldaera. Grafikoaren erdian dagoen *eg1* emakumezko gazteak beti erabili du eta marra berak marrazten du: hortik ezkerrera naranja da nagusi eta, hortik eskuinera, urdina askoz gehiago ikusten da. Generoari dagokionez, *guzti* gehixeagotan erabili dute gizonezkoek, baina ez dago alde handirik. Ondorengo irudietan ikusiko da argiago generoaren kontua.




5.21. irudia: *guzi* aldaeraren erabilera generoaren eta adinaren arabera.

Generoa adinarekin gurutzatuta, emakumezko helduek *guzi* gehixeagotan erabili dutela ikusten da. Hori gizonezko heldu batek *guzti* batzuetan erabili duelako gertatu da, emakumezko heldu bakarrak beti *guzi* erabili duen bitartean. Gazteen artean, erabileren maiztasun guztiak kontuan hartuta, ez dago alde handirik.




5.22. irudia: *guzi* aldaeraren erabilera generoaren eta ikasketa-mailaren arabera.

Generoa ikasketa-mailarekin gurutzatuta, berriz, ikasketa-maila altua dutenengan ikusten da aldea: ikasketa-maila altuko emakumezkoek (*eg1* eta *eg4*) ez dute erabili bertako *guzi* aldaera inoiz ere eta gizonezkoetako batek (*gg1*) batzuetan bai (besteak, *gg4* hiztunak ere, ez du inoiz erabili).

### 5.5.12. *Ongi / ondo*

Hizkuntza-aldagai honek 118 adibide ditu gure corpusean: horietatik 96 *ongi* aldaeraren adibideak dira (bertako aldaera), eta gainerako 22 adibideak *ondo*. Beraz, bertako aldaera erabili da gehien, % 81 hain zuzen. Aldaera berria gutxitan agertu da eta hiztun gutxi batzuren ahotan gainera eta, beraz, aldakortasun gutxi topatu dugu hizkuntza-aldagai honetan orokorrean. Zehazki, bost hiztunek erabili dute, eta haietatik lau gizonezkoak dira: bi helduak (*gh1, gh5*), adinekoa bat (*ga2*) eta gaztea beste bat (*gg3*). *Ondo* erabiltzeak gizonezkoen kontua lirudike, emakumezko batek behin erabili izan ez balu (*eg1*).

Hiztun gehienek *ondo* aldaera *ongi* aldaerarekin batera erabili dute, eta *ondo* oso gutxitan erabili dute *ongi* aldaeraren aldean (gehienek behin bakarrik). Gizonezko heldu bat da salbuespena (*gh1*) beti *ondo* erabili baitu, askotan gainera (16 aldiz). Ondorengo taulan eta irudian ikus daitezke datu guztiak:

| Hiztuna | *ongi* | *ondo* | guztira | *ongi %* |
|---|---|---|---|---|
| eh1 | 13 | 0 | 13 | 100 |
| ea2 | 3 | 0 | 3 | 100 |
| ea3 | 2 | 0 | 2 | 100 |
| ea4 | 5 | 0 | 5 | 100 |
| gh1 | 0 | 16 | 16 | 0 |
| ga2 | 7 | 1 | 8 | 88 |
| ga3 | - | - | - | adibiderik ez |
| ga4 | - | - | - | adibiderik ez |
| gh5 | 5 | 1 | 6 | 83 |
| eg1 | 6 | 1 | 7 | 86 |
| eg2 | 4 | 0 | 4 | 100 |
| eg3 | 4 | 0 | 4 | 100 |
| eg4 | 5 | 0 | 5 | 100 |
| eg5 | 15 | 0 | 15 | 100 |
| gg1 | 6 | 0 | 6 | 100 |
| gg2 | 9 | 0 | 9 | 100 |
| gg3 | 5 | 3 | 8 | 63 |
| gg4 | 4 | 0 | 4 | 100 |
| gg5 | 3 | 0 | 3 | 100 |
| guztira | 96 | 22 | 118 | 81 |

5.48. taula: *ongi / ondo* aldagaiaren erabilera hiztunka.




5.23. irudia: *ongi / ondo* aldagaiaren erabilera hiztunka.

5.23. irudian ez dugu joera homogeneo bat ikusten. Desberdintasunak hiztunaren araberakoak dira; bereziki, aipatutako *gh1* gizonezko helduarengan. Taulan eta irudian antzematen da maiztasun gutxiko ezaugarria dela eta, gainera, bi hiztunen adibiderik ez dugula. Oro har, hala ere, esan daiteke gizonezkoak agertu direla berritzaileago hizkuntza-aldagai honetan. Beste gizarte-eragileei dagokienez, ez dugu lotura handirik topatu *ongi* edo *ondo* erabiltzearekin.

### 5.5.13. *Zerbatte / zeoze*

Gutxitan agertzen den hizkuntza-aldagaia da. Gainera, adibide horiek askotan hiztun bakoitzak gutxitan erabili ditu, lexikoko beste hizkuntza-aldagai gehienetan gertatu zaigun bezala. Behin baino gehiagotan agertu denean, hiztun berak bi aldaerak erabiltzea ere maiz gertatu da, ordea. Beraz, aldakortasun handiko aldagaia da, bere maiztasuna txikia bada ere. Pena ondorio sendoagoak ateratzeko adibide gehiago ez izatea.

Zehazki 61 aldiz agertu da gure corpusean, horietatik 26 aldiz bertako aldaeran (*zerbatte*) eta 35 aldiz aldaera berrietan (*zeoze* 22tan eta *zerbait* 13tan[52]). Beraz, gehiagotan erabili da aldaera berria (% 57an) bertakoa baino; Araitz-Beteluko lexikoko hizkuntza-aldagaietan bakarra da ezaugarri hori duena.

Segidan heldu diren taulan eta grafikoan bildu dira erabileren datuak:

52 *Zeoze* izendatu dugu aldaera berria, *zerbait* eta *zeoze* aldaeren artean adibide gehienak *zeoze* aldaerak ematen dituelako.

| Hiztuna | *zerbatte* | *zeoze* | guztira | *zerbatte %* |
|---|---|---|---|---|
| eh1 | 0 | 3 | 3 | 0 |
| ea2 | - | - | - | adibiderik ez |
| ea3 | 1 | 5 | 6 | 17 |
| ea4 | 4 | 0 | 4 | 100 |
| gh1 | 0 | 2 | 2 | 0 |
| ga2 | 3 | 0 | 3 | 100 |
| ga3 | - | - | - | adibiderik ez |
| ga4 | 5 | 0 | 5 | 100 |
| gh5 | 3 | 9 | 12 | 25 |
| eg1 | 0 | 1 | 1 | 0 |
| eg2 | 2 | 2 | 4 | 50 |
| eg3 | - | - | - | adibiderik ez |
| eg4 | 3 | 0 | 3 | 100 |
| eg5 | 0 | 2 | 2 | 0 |
| gg1 | 1 | 3 | 4 | 25 |
| gg2 | 2 | 1 | 3 | 67 |
| gg3 | 1 | 0 | 1 | 100 |
| gg4 | 1 | 6 | 7 | 14 |
| gg5 | 0 | 1 | 1 | 0 |
| guztira | 26 | 35 | 61 | 43 |

5.49. taula: *zerbatte / zeoze* aldagaiaren erabilera hiztunka.




5.24. irudia: *zerbatte / zeoze* aldagaiaren erabilera hiztunka.

Grafikoan errazago ikusi ahal denez, adinaren arabera ez dago eten garbirik aldaera bat edo beste erabiltzeko garaian: adineko, heldu nahiz gazteek erabiltzen dituzte bertako aldaera eta aldaera berria. Hala ere, izan badago aldea adin-multzo batetik bestera. Rbrul-en bidez analisi estatistikoa eginda, adina agertzen da adierazgarri (0,0294) hain zuzen ere[53]. Nabarmendu daitekeena da helduen artean *zeoze* eta *zerbait* aldaera berriak direla nagusi eta

53 Adibide kopuru murritza dela eta, erroreak dituen analisia da. Beste hizkuntza-aldagai lexikoetan ere egin da analisia, horietan ere erroreekin. Gizarte-eragileak ez dira adierazgarri atera ordea, eta horregatik ez dugu horren berri eman gainerako aldagai lexikoetan.

adinekoen artean bakarrak erabili duela aldaera berria, Azkarateko emakumezkoak, hain zuzen. Esan behar da, dena den, bi adinekoren daturik ez dugula. Gazteei dagokienez, berriz, aldaera berriak gehiago erabili dituzte, nahiz eta badiren hiru hiztun (*eg 4* emakumezkoa eta *gg2* eta *gg3* gizonezkoak) nagusiki *zerbatte* erabili dutenak. Hemen ere bada hiztun bat adibiderik eman ez duena, gordetzaile agertu ohi dena hain zuzen (*eg3*). Bere adibiderik ez dugunez, ezin jakin hemen ere bertako aldaera erabiliko lukeen edo ez.

*Zerbait* aldaeraren gainean esanen dugu 13 aldiz erabili dutela hiztunek, eta ia beti gizonezkoek erabili dutela; emakumezko gazte bat da salbuespena (*eg2*), behin erabili baitu (beste behin *zeoze* eta bitan *zerbatte*). Hiru gizonezko gaztek erabili dute *zerbait* (*gg1*ek bitan, *gg4*k seitan –zazpi adibidetatik– eta *gg5*ek behin) eta gizonezko helduek baita ere (*gh1*ek bitan, *gh5*ek behin). Beraz, gure datuen arabera, *zerbait* gazte eta helduen ahotik jaso dugu, ez adinekoengandik eta ezta oro har emakumezkoengandik ere.

Bukatzeko, *zerbatte* aldaeraren erabilera irudikatzen duten bi grafiko egin ditugu. Batean (5.25.ean), adina generoarekin gurutzatu dugu eta adinaren araberako jauziak nabarmentzen dira. Era berean, helduek bertako aldaera gazteek baino gutxiago erabili dutela ere ikusten da.




5.25. irudia: *zerbatte* aldaeraren erabilera generoaren eta adinaren arabera.

Bestean (5.26.an), ikasketa-maila gurutzatzen da generoarekin eta hor ere jauzi handiak agertzen dira. Azpimarragarria iruditzen zaigu ikasketa-maila altuko emakumezkoek erabili dutela gehien bertako *zerbatte* aldaera eta ikasketa-maila bereko gizonezkoek gutxien. Kontuan hartu behar da, dena den, maiztasun absolutuak hartzen direla kontuan irudi hauetan

eta oso adibide gutxi direla horiek kasu honetan. Eta zehazki, ikasketa-maila altua duen *gg4* gizonezkoak besteek baino adibide gehiago eman izanak bere eragina magnifikatu du (zazpi adibide horietako sei *zerbait* aldaera izan dira). Beraz, ezin da esan irudi hauetan ikusitakoa joera orokorra denik, inondik ere.




5.26. irudia: *zerbatte* aldaeraren erabilera generoaren eta ikasketa-mailaren arabera.

### 5.5.14. Erdarazko esaldiak eta makulu-hitzak

Araitz-Beteluko hiztunen corpusean, 231 erdarazko esaldi eta 499 makulu-hitz bildu dira. Diferentziarekin, makulu-hitzak gehiago dira erdarazko esaldiak baino, Goizuetako corpusean bezala[54]. Goizuetarekin alderatuta, beraz, Araitz-Betelun adibide hauen kopurua altuagoa dela ikusten da, bereziki makulu-hitzena. Araitz-Beteluko corpusean erdarazko esaldi eta makulu-hitzak denak batera hartuta, Goizuetan topatutakoen bikoitza baino gehiago dira: 730 adibide dira denera Araitz-Betelun eta 357 Goizuetan.

Kopuruaz gain, badago beste diferentzia bat bi udalerrien artean: Goizuetan makulu-hitzen aukera murritzagoa da. Hego Euskal Herrian ohikoak direnak dira nagusi: *a ver, es que, hombre, o sea, venga, yasta*. Horietaz gain, oso esamolde gutxi topatu dira Goizuetan, eta oso gutxitan agertu direnak gainera (246 adibidetatik 33 aldiz denera, % 13): *así por así, aunque sea, aparte de que, este, lo que pasa que, entre que, lo que sea, o bien, porque, que si.* Araitz-Betelun berriz, ugariagoa da azken multzo hau eta gehiagotan agertzen dira (499tik 128 aldiz, % 26[55]). Hauek guztiak bildu dira bertan, ohikotzat jo direnez gain (*a ver, es que, hombre, o*

54 Goizuetan 134 erdarazko esaldi ziren, eta 246 makulu-hitz.
55 Maiztasun gutxiko multzo honetatik *porque* ateraz gero, proportzioak oraindik diferenteagoak dira:

*sea*): *asi que, aunque sea, este, esto, en fin, en cambio, lo que sea, lo que pasa (es) que, mecaben la ospa! (*eta antzekoak: *la ospua!, mekauen la ostra!, cagüen la, mecagüen), por ejemplo, por s'acaso, que va, tío, ya que (ta)* eta menpeko esaldien lokailu batzuk (*como, de*[56], konpletibozko *que, si, sino*).

| makulu-hitza | kopurua |
|---|---|
| *asi_que* | 14 |
| *aunque_sea* | 2 |
| *cabenla* | 7 |
| *como* | 7 |
| *de* | 1 |
| *en_cambio* | 2 |
| *en_fin* | 2 |
| *entre_que* | 2 |
| *este* | 3 |
| *esto* | 1 |
| *lo_que_pasa* | 22 |
| *lo_que_sea* | 18 |
| *por_sacaso* | 3 |
| *porque* | 29 |
| *que* | 2 |
| *que_va* | 8 |
| *si* | 1 |
| *sino* | 1 |
| *tio* | 1 |
| *ya_que* | 2 |
| **guztira** | 128 |

5.50. taula: makulu-hitzen erabilera Araitz-Betelun.

Adinaren araberako banaketari erreparatzen badiogu, berriz, aldea txikia da erdarazko esaldietan; gazte nahiz adinekoek kopuru beretsutan erabili dituzte. Makulu-hitzetan aldea handia da, ordea, eta gazteak dira nabarmen makulu-hitzak erabili dituztenak[57].

| Adina | erdarazko esaldiak | makulu-hitzak | guztira |
|---|---|---|---|
| adinekoak (helduak barne) | 110 | 99 | 209 |
| gazteak | 121 | 400 | 521 |
| **guztira** | 231 | 499 | 730 |

5.51. taula: erdarazko esaldien eta makulu-hitzen erabilera, adinaren arabera (I).

Goizuetan 246 adibidetatik 10 aldiz erabili dituzte (% 4an) eta Araitz-Betelun 499tik 99tan (% 20an).

56 Hau da adibidea:*"Umetatik eakutsi diguen tonterie DE Betelukoak Betelukoak die eta Araizkoak Araizkoak".*

57 Makulu-hitzekin antzera gertatzen da Goizuetan, baina erdarazko esaldiak batez ere adinekoek erabili dituzte han.

Adina hirutan banatuta, emaitza are adierazgarriagoa da. Izan ere, multzo bakoitzean dagoen hiztun kopurua kontuan hartuta (helduak hiru dira, adinekoak sei eta gazteak hamar), helduek erdarazko esaldiak eta makulu-hitzak askotan erabili dituzte:

| Adina | erdarazko esaldiak | makulu-hitzak | guztira |
|---|---|---|---|
| adinekoak | 50 | 35 | 85 |
| helduak | 60 | 64 | 124 |
| gazteak | 121 | 400 | 521 |
| **guztira** | 231 | 499 | 730 |

5.52. taula: erdarazko esaldien eta makulu-hitzen erabilera, adinaren arabera (II).

Argiago ikusteko, emaitzak hiztunka aurkezten dira ondorengo taulan. Hiztun batetik bestera aldeak handiak dira eta balio altuak nabarmentzeko (10etik goitikoak) hizki lodiz adierazi dira:

| Adina | Generoa | Hiztuna | Herria | erdarazko esaldiak | makulu-hitzak | guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| adinekoa | emakumezkoa | *2* | Gaintza | 2 | 3 | 85 |
| | | *3* | Azkarate | **18** | 5 | |
| | | *4* | Betelu | **19** | **19** | |
| | gizonezkoa | *6* | Gaintza | 1 | 3 | |
| | | *7* | Intza | 7 | 2 | |
| | | *8* | Azkarate | 3 | 3 | |
| heldua | emakumezkoa | *1* | Uztegi | 8 | **10** | 124 |
| | gizonezkoa | *5* | Arribe | **35** | **21** | |
| | | *9* | Betelu | **17** | **33** | |
| gaztea | emakumezkoa | *10* | Azkarate | 5 | **78** | 521 |
| | | *11* | Arribe | 6 | **48** | |
| | | *12* | Intza | **14** | **39** | |
| | | *13* | Betelu | **17** | **98** | |
| | | *14* | Betelu | **34** | **52** | |
| | gizonezkoa | *15* | Gaintza | 5 | **11** | |
| | | *16* | Intza | 8 | **25** | |
| | | *17* | Uztegi | 6 | **24** | |
| | | *18* | Betelu | **23** | **23** | |
| | | *19* | Betelu | 3 | 2 | |
| **guztira** | | | | 231 | 499 | 730 |

5.53. taula: erdarazko esaldien eta makulu-hitzen erabilera, hiztunaren arabera.

Adinekoen eta helduen artean badago aldea, esan den bezala: helduek gehiago erabili dituzte erdarazko esaldiak eta makulu-hitzak, gizonezkoek bereziki; emakumezko helduak gutxitan erabili ditu. Erdarazko esaldiei begiratuta, ez dago joera markaturik generoari begira, baina adineko emakumezkoen eta emakumezko gazteen artean gaztelania gehiago erabiltzeko joera txiki bat antzematen da.

Makulu-hitzei dagokienez, gazte gehienek (bi gizonezkok izan ezik) makulu-hitzak askotan erabili dituzte, emakumezkoek bereziki. Beraz, gazteen artean badirudi generoak eragina duela makulu-hitzen erabileran. Adinaren eta generoaren arteko lotura aztertzeko bi aldagaiak gurutzatu dira eta emaitza ondokoa da:




5.27. irudia: makulu-hitzen erabilera adinaren eta generoaren arabera.

Herriari dagokionez, esan daiteke aldea ikusten dela Beteluren eta gainerako herrien artean. Betelukoek kopuru altuak eman dituzte bai erdarazko esaldien erabileran, eta baita makulu-hitzenean ere. Salbuespena bakarra da, Beteluko gizon gazte bat (19. hiztuna), oso gutxitan erabili baititu. Arribeko gizonezko helduak ere kopuru altuak eman ditu erdaran eta makulu-hitzetan. Betelun espero zen erdararen erabilera altuagoa, eta hipotesia bete da.

Bukatzeko, erdararen erabilerari buruz Goizuetarekiko topatu diren aldeak adieraziko dira. Goizuetan esanguratsua egin zaigu gaztelania hiztun gutxi batzuk erabili dutela maiz samar (gazteen artean bakar batek). Erabili dutenen artean, adinekoek maileguetan (zenbakiak eta datak) eta besteen esanak adierazteko (txikitan irakasleek edo irakasleei esanak) erabili dute gaztelania askotan. Gazteek berriz, eskola tituluak adierazteko erabili dituzte batez ere (*administración, curso puente, grado superior*...). Araitz-Betelun horrelakoak erabili dira eta, horietaz gain, erdarazko esaldiak txertatu dira. Alegia, Araitz-Betelun maizago aurkitu dugu benetako kode-aldaketa.

## 5.6. ONDORIOAK

Araitz-Betelun aztertutako emaitzen ondoren, horietatik atera ditugun ondorioak azalduko dira jarraian. Aurrena hizkuntza-aldagaiekin lotuta ikusitakoak, ondoren hizkuntza-eragileetan eta gizarte-eragileetakoak, eta azkenik, erdarazko esaldi eta makulu-hitzetan agertu direnak.

### 5.6.1. **Hizkuntza-aldagaietako ondorioak**

Atal honetan hizkuntza-aldagaien bilakaera aztertuko da. Araitz-Betelun aztertu diren hizkuntza-aldagaietan joera desberdinak ikusi ditugu, nahiz eta gehienak norabide berberean joan: gazteek aldaera berriak gehiago erabili dituzte orokorrean. Ondorengo taulan laburbildu dira hizkuntza-aldagaiek adinaren arabera zein joera izan duten. Bertan ikusten denez, gehienetan gazteak izan dira berritzaileenak, batzuetan helduak gazteen aurretik agertu dira (grisez markatuak daudenak), eta batean gorabeherak handi samarrak izan dira joera garbirik ateratzeko (*ga / gea* aldagaia). Hizkuntza-aldagaien maiztasuna ere azaldu da, eta horren bidez ikusten da askotan agertze-kopuru apaleko aldagaiak direla espero ez zen joera (helduak berritzaile agertzea edo gorabeherak izatea) erakutsi dutenak:

| | Hizkuntza-aldagaia | Adinaren araberako joera | Maiztasuna |
|---|---|---|---|
| 1 | artikuluaren kontrakzioa (*semeak* / *semek*) | gazteak berritzaileen | 2056 |
| 2 | *a > e / i, u ___* (*mendie* / *mendia*) | gazteak berritzaileen | 3609 |
| 3 | *o* / *u* adizkietan (*dozo* / *duzu*) | gazteak berritzaileen | 762 |
| 4 | *-di, -ti* / *-dik, -tik* (*-iken, -tio* barne) | gazteak berritzaileen | 664 |
| 5 | *izan* aditzaren erroa (*ga* / *gea*) | gorabeherak | 187 |
| 6 | *izan* aditzaren erroa (*dena* / *dana*) | helduak berritzaileen | 930 |
| 7 | *edun* aditzaren erroa (*dot* / *dut* / *det*) | gazteak berritzaileen | 350 |
| 8 | pluraleko 3. p. NORK morfema (*-e* / *-te*) | helduak berritzaileen | 318 |
| 9 | lexikoa batera (*biño / baño* gabe) | helduak berritzaileen | 333 |
| 10 | *biño, beño* / *baño, baña* | gazteak berritzaileen | 915 |
| 11 | *ezer* / *deus* | gazteak berritzaileen | 75 |
| 12 | *ongi* / *ondo* | helduak berritzaileen | 118 |
| 13 | *guzi* / *guzti* | gazteak berritzaileen | 79 |
| 14 | *zerbatte* / *zeoze* | helduak berritzaileen | 47 |

5.54. taula: hizkuntza-aldagaiak adinaren arabera izan duten joeraren arabera.

Esan bezala, hizkuntza-aldagai batzuetan helduek erabili dituzte gehiagotan aldaera berriak. Horien artean daude *izan* aditzaren *dena / dana* aldagaia, pluraleko 3. pertsonako *-e / -te* morfemak, lexikoa batera aztertu duen hizkuntza-aldagaia (*biño / baño* kontuan hartu gabe), eta baita *ongi / ondo* eta *zerbatte / zerbait* bakarrik aztertu duten aldagai lexikoak ere. *-e / -te* aldagaian, gazteen eta helduen *e.p.* eta *log-odds* balioak antzekoak dira, nahiz eta helduak aurretik joan. Gainerakoetan helduak aurrean doaz nabarmen eta gehienetan hiztun bakarrak eragin du hurrenkera iraultze hori, *gh1* gizonezko helduak, hain zuzen. Izan ere, *gh1* hiztunak erabili ditu aldaera berriak gehiagotan *dena / dana* eta *ongi / ondo* aldagaietan, eta baita lexikoa batera aztertzen duenean ere (*biño / baño* gabe), nahiz eta honetan beste gizon helduak ere joera horrekin bat egin. Hizkuntza-aldagai askotan berritzaile agertu den ikasketa-maila ertaineko gizonezkoa da hori. *Zerbatte / zerbait* aldagaian, berriz, heldu guztiek erabili dute gutxitan bertako *zerbatte* aldaera.

Beste batean ez dugu adinaren araberako joera garbirik antzeman, *izan* aditzaren *ga / gea* aldagaian hain zuzen. Gorabehera asko dituen aldagaia da: adibide gutxi ditu (187) eta, gainera, adibide horiek ez dira hiztun guztienak, batzuk ez baitute adibide bakar bat ere eman. Hau ez da azalpen nahikoa gorabehera horiek azaltzeko, ordea, badirelako hizkuntza-aldagai batzuk egoera berean (adibide gutxirekin eta hiztun guztien adibiderik gabe) hain gorabeheratsuak ez direnak.

Hemen esandakoak ondorengo irudian ikus daitezke. Bertako aldaeren erabilerak adierazten dira, eta *ga / gea* aldagai gorabeheratsuko *ga* aldaera jarri dugu aurrena. Ondoren, aldaketan helduak aurretik doazen aldaerak heldu dira eta, azkenik, aldaketan diren aldagaiek normalean erakusten duten bilakaera dutenak: adinekoek erabiltzen dute bertako aldaera gehien, ondoren helduek, eta gazteek erabiltzen dute bertako aldaera gutxien (eta beraz, aldaera berria gehien). Irudiaren behekaldean, aldaketa biziena daramaten aldaerak agertzen dira, adinekoetatik gazteetara aldaketa handiena dutenak: *guzi, dot-dut,* adizkietako *o* eta *-ti* bukaera. Bertako aldaeren maiztasunak ehunekotan erakusten dituen irudia da ondorengoa, Araitz-Beteluko corpuseko hiztun guztien erabilerak kontuan hartzen dituena:




5.28. irudia: bertako hizkuntza-aldaeren erabilera adinaren arabera (%).

*Ga* aldaerarekin gertatzen dena nabarmendu behar da. Irudia ikusita, pentsa daiteke gainerako aldagaien kontrako noranzkoan doala aldaketa, eta helduak doazela aurretik hemen ere. Alegia, badirudi *ga* aldaera dela berriena edo, behintzat, aldaketan indarra hartzen ari dena. Hemen, beste hizkuntza-aldagai batzuetan gertatu bezala, aldaera berritzat hartu duguna (*gea*) ez da euskara batuan erabiltzen eta, beraz, ez dute bat egiten erdialdeko euskarak eta batuak. Beharbada, hortik heldu da hiztun batetik bestera aurkitu dugun aldea. Horretaz gain, generoa aztertzean ikusiko den bezala, adinaren eta generoaren arabera joera oso desberdinak daude. *Ga* aldaera generoaren arabera banatuta, azaldu dugun alderantzizko joera hori ez da garbi ikusten.

Irudian agertzen ez den *-iken* aldaerarekin ere ustekabea izan dugu. Emaitzetan esan bezala, oso adibide gutxi ditugu *-iken* bukaera daramatenak (664tik 49) eta horiek heldu batek (behin) eta gazte batzuek erabili dituzte. Gazteen artean, Goierriko bi hiztun gaztek erabili dute eta Beteluko gazte guztiek, batzuk oso maila apalean egin badute ere. Beraz, gaur egun aldaketan dagoela eta gazteen artean sartuz doala dirudien erdialdeko ezaugarria da, euskara batuaren eraginez kontrakoa espero bazitekeen ere. Goizuetan ikusi den joerarekin bat egiten

du *-iken* bukaeraren indartze honek.

Hizkuntza-aldagaien irudiari begiratuta, aldaketa badagoela esan daiteke. *Ga / gea* salbuespen izanik, hizkuntza-aldagai guztietan gazteek adinekoek baino gutxiagotan erabili dute bertako aldaera. Aldaketaren abiadura desberdina da aldagai batetik bestera: *ongi / ondo* aldagaian gazteek antzeko erabilera egin dute (gazteek % 93'8an erabili dute bertako aldaera eta adinekoek gehixeago, % 94'4an); gainerakoetan aldeak handiagoak dira, *biño / beño* aldaeran eta hortik beherakoetan bereziki.

Badago beste ondorio garrantzitsu bat: gazteek bertako aldaera adinekoek baino gutxiago erabili arren, aztertu ditugun hizkuntza-aldagaietan bertako aldaera ez da erabat galdu gazteen hizkeran. 5.28. irudian behera goazen heinean, gazteek gutxiagotan erabili dituzten aldagaiak jarri ditugu. Azken biak bakarrik dira gazteen jardunean % 10etik beheiti agertu direnak: *o* adizkiak eta deklinabideko *-di, -ti* bukaerak. Gorago dauden *dot, dut* eta *zerbatte* aldaerak % 40 inguruan erabili dituzte gazteek. Eta gainerakoak % 50 edo gehiagotan erabili dituzte, bereziki irudian goialdean dauden hiru aldaerak: *-e* bukaera, *dena* eta *ongi* aldaerek % 89etik goitiko maiztasuna izan dute.

Eta honekin lotuta dago Goizuetako ondorioetako ideia bat: zergatik aldagai batzuk asko ari dira aldatzen eta besteak ez? Ordukoan otu zitzaizkigun lau eragileak hemen ere aztertuko ditugu, ia zerbaiten aztarnarik ematen diguten:

*1. Adinekoen erabilera.*

Adinekoen erabilera-maila ezagutzea garrantzitsua da gazteen erabilera aztertzeko garaian. Ez da berdin bat-bateko aldaketa ikustea adinekoetatik gainerakoetara edo aldaketa pixkanakoa izatea. Esan bezala, Araitz-Betelun adinekoek askotan erabili dituzte bertako aldaerak eta % 90etik beheitiko erabilera izan duten aldagaiak gutxi dira, eta ez dugu horren araberako eraginik ikusi gazteen erabileran. Aitzitik, taularen behe aldeko hizkuntza-aldagaietan, adinekoek bertako aldaera askotan erabili arren, gazteek erabilera apala egin dute.

Adinekoek gutxiagotan erabili dituzten ezaugarrietan, ordea (*zerbatte* eta *o* adizkietan aldaera), gainerakoek ere gutxi erabili dituzte. *o* adizketan, adinekoek, helduek eta gazteek

erabilera apalenetakoa egin duten aldaera da (% 70, % 31 eta % 9 hurrenez hurren). *Zerbatte* aldaerarekin ere antzeko balioak ditugu adinekoentzat (% 72) eta helduentzat (% 18), baina gazteen erabilera ez da hain apala izan (% 39).

Adinekoek askotan erabili dute bertako aldaera, beraz, eta helduak dira gehienetan aldaketa hasi dutenak. Adinekoek bertako aldaera askotan erabili izanak ez du ziurtatzen gazteek ere erabiliko dutela, ordea, *zerbatte, guzi, dot-dut* aldaeretan eta, bereziki, *-ti* bukaeran ikusi dugun bezala.

*2. Euskara batuan edo erdialdekoan aldaerek duten onarpena.*

Bestetik, aztergai ditugun aldaerak euskara batuan edo erdialdekoan onartuak dauden edo ez gakoetako bat izan daiteke. Honekin esan nahi duguna da aztertzen ari garen bertako aldaerak batuan eta erdialdeko euskaran erabiltzen badira, errazagoa dela horiek euskalkian ere erabiltzen jarraitzea. Eta alderantziz, euskara batuan edo erdialdekoan erabiltzen ez badira, "txarragoak" izan daitezke hiztunentzat. Hipotesi horrekin bat egiten dute adibideok:

- Batuan erabiltzen diren ezaugarri hauek gazteek adinekoen paretsu erabili dituzte: *ga(ra), dena, ongi.*
- Erdialdeko euskaran erabiltzen diren aldaera hauek gazteek askotan erabili dituzte: *-e* (pl. 3. p.), *det*.
- Batuan edo erdialdekoan erabiltzen ez diren aldaera hauek gazteek adinekoek baino gutxiago erabili dituzte: *biño* eta *beño, zerbatte, a > e / i, u* ondoren*, guzi, o* adizkietan, *-ti*.

*3. Hizkuntza-aldagaiaren maiztasuna.*

Lanean zehar aldagaien maiztasuna aipatu da, hiztun guztien adibide kopuru eder bat izatea garrantzitsua delako hizkuntza-aldagaiaren joerak zein diren jakiteko orduan, eta baita analisi estatistikoak egiteko garaian ere. Era berean, inportantea izan daiteke aldaketari dagokionez. Hizkuntzaren aldaketa ezaugarriaren maiztasunarekin lotu izan da: badirudi askotan erabiltzen diren ezaugarriak aldatzea gehiago kostatzen dela, eta alderantziz, gutxitan agertzen direnak errazago aldatzen direla. Gure datuak teoria honekin bat ote datozen aztertuko da segidan.

Beheko taulan, eskuineko zutabean, aldagai bakoitzean zenbateko aldaketa dagoen adierazi da. Balio hori adinekoek eta gazteek bertako aldaera zenbat (%) erabili duten kontuan hartuta atera da, adinekoen balioari gazteena kenduta. Maiztasunaren arabera aurkezten dira hizkuntza-aldagaiak taulan:

| | Hizkuntza-aldagaia | Maiztasuna | Bertako aldaeren aldaketa (%) |
|---|---|---|---|
| 2 | *a > e / i, u* ___ (*mendie / mendia...*) | 3609 | 22 |
| 1 | artikuluaren kontrakzioa (*semeak / semek...*) | 2056 | 35 |
| 6 | *izan* aditzaren erroa (*dena / dana*) | 930 | 8 |
| 9 | *biño, beño / baño, baña* | 915 | 33 |
| 3 | *o / u* adizkietan (*dozo / duzu...*) | 762 | 61 |
| 4 | *-di, -ti / -dik, -tik* | 512 | 87 |
| 7 | *edun* aditzaren erroa (*dot / dut / det*) | 350 | 45 |
| 8 | pluraleko 3. p. NORK morfema (*-e / -te*) | 318 | 10 |
| 5 | *izan* aditzaren erroa (*ga / gea*) | 187 | -12 |
| 11 | *ongi / ondo* | 118 | 1 |
| 10 | *ezer / deus* | 75 | 23 |
| 12 | *guzi / guzti* | 79 | 50 |
| 13 | *zerbatte / zeoze* | 47 | 34 |

5.55. taula: Araitz-Beteluko hizkuntza-aldagaien maiztasuna eta bertako aldaeren aldaketa (%).

Hipotesi horren arabera, taulan behera goazen heinean, aldagaiak azkarrago aldatzen ari direla pentsa daiteke, baina taulan ikusten denaren arabera, ez dago diferentzia garbirik. Alde batetik, gris ilunez markatu ditugu aldaketa nabarmena duten aldagaiak (% 45etik goitikoa), eta horietako batzuk maiztasun altua dute *(o / u* adizkietan eta *-ti / -tik*), 500etik goitikoa hain zuzen. Beste aldetik, aldaketa ertaina dutenak gris argiagoz margotu ditugu (% 20-35 bitartekoak) eta horiek ere taula goian nahiz behean agertzen dira. Azkenik, zuriz utzi dira aldaketa txikia izan dutenak (15etik beheitikoa) eta egia da lau horietatik hiru taularen behaldean daudela (*-e / -te* pl. 3. p., *ga / gea* eta *ongi / ondo*), baina *dena / dana* goian dago, maiztasun altua baitu.

Beraz, hizkuntza-aldagaien maiztasuna ez zaigu oso argigarria izan kasu honetan. Oro har, aldagaien maiztasunak ez du lotura zuzenik adierazi beren aldaketaren abiadurarekin.

### 5.6.2. **Gizarte- eta hizkuntza-eragileetako ondorioak**

Gizarte-eragileei dagokienez, orokorrean hipotesietan espero ziren joerak ikusi dira adina, ikasketa-maila eta herria eragileetan. Generoan, batzuetan emakumeak agertu dira gordetzaileago, besteetan gizonezkoak. Segidan aztertuko dira xeheago gizarte-eragileen ondorioak banan-banan.

- Adina

Adinarekin lotutako ondorioak aurreko puntuan aztertu dira, hizkuntza-aldagaien aldaketari buruz hitz egitean. Laburtuz, esan daiteke hipotesietan espero izandakoa ikusi dugula adinari dagokionez: zenbat eta gazteago izan, orduan eta gutxiago erabili dute bertako aldaera.

Hori hala izan da hizkuntza-aldagai guztietan, *ga / gea* aldagaian izan ezik, kasu honetan alderantzizko joera ikusi dugulako: adinekoak izan dira guk bertakotzat hartutako *ga* aldaera gutxien erabili dutenak. Hortik zalantza sortu zaigu: aldaera hori ote den bertakoa edo ez.

Beste ondorio garrantzitsua da batzuetan helduak izan direla berritzaileenak. Gizon heldu bat da oso berritzailea oro har, eta gainerako bi helduak (emakumezko bat eta gizonezko bat) aldagai batzuetan ere badira (azalpen gehiagorako ikus aurreko atala).

Estatistikoki adierazgarriak zazpi hizkuntza-aldagai direla ikusi ahal izan dugu emaitzen atalean (estatistikoki analizatutako hamarretatik): *a* > *e* (*i, u* ondoren), artikuluaren kontrakzioa, adizkietako *o / u, -ti / -tik , dot-dut / det, -e / -te* pl. 3. p. eta lexikoa (*biño / baño* gabe) aldagaietan. Eta aldiz, ez da adierazgarri izan adina *ga / gea, dena / dana* eta *biño / baño* aldagaietan.

Ikasketa-mailan ere antzeko emaitzak izan dira, korrelazionatuta daudenez, espero genuen bezala. Hala ere, badira alde batzuk, ondorengo atalean ikusiko den bezala.

- Ikasketa-maila

Ikasketa-maila eragilean ikusi diren ondorioak bilduko dira ondorengo lerroetan. Batetik,

esango dugu espero zen joera ikusi dugula hizkuntza-aldagaietan, alegia, ikasketa-maila apalekoek erabili dutela bertako aldaera gehien. Salbuespen bakarra dugu: *ongi* aldaera ikasketa-maila altukoek (% 96) erabili dute adinekoek (% 92) baino gehixeago.

Bestetik, batzuetan ikasketa-maila ertainekoak dira aldaketan aurretik doazenak, eta ez ikasketa-maila apalekoak, gure hipotesietan espero zen bezala. Eta hemen, adinaren kasuan ikusitako gauza beretsua dugu azpimarratzeko. Alegia, adinaren kasuan, helduak dira aldaketan aurretik doazenak hizkuntza-aldagai batzuetan, eta ez gazteak. Paralelismo hori ikusi ahal izateko, ikasketa-mailaren irudia egitean, adina eragilean hizkuntza-aldagaiek zuten hurrenkera mantendu da.

Irudian ikusiko den bezala, 13 hizkuntza-aldagaitatik zortzitan espero zen aldaketa ikusi dugu, hau da, ikasketa-maila apalekoek erabili dute bertako aldaera gehien, ertainekoek gutxiago, eta apalekoek gutxien. Beste bost aldagaietan joerak neurri batean bete dira, eta kasu horietan ikasketa-maila ertainekoak doaz aldaketan aurretik, ikasketa-maila apalekoak joan ordez. Hizkuntza-aldagai hauen kasua da hori: *dena / dana, ongi / ondo, biño / baño, zerbatte / zeoze* eta *ezer / deus*. Aldagai hauen ezkerretara dauden bi aldagaiak eta eskuinera dauden gainerakoetan espero zen joera aurkitu dugu.

Azpimarratzekoa da gure ustez, hemen *ga / gea* eta *-e / -te* pl. 3. p. aldagaiek espero zen joera izan dutela. Izan ere, adina eragilean gertatu denarekin konparatzen badugu, han *ga / gea* aldagaia alderantzizko norantzan ikusi dugu (gazteak bertako aldaera gehien erabiltzen), eta pentsatu dugu gure hasierako hipotesia ez zela zuzena. Ikasketa-mailan, ordea, hipotesia bete da eta ikasketa-maila apalekoak izan dira bertako aldaera gehien erabili dutenak. *-e / -te* aldagaiari dagokionez, adina eragilean helduak zihoazen aurretik, eta hemen ikasketa-maila altukoak, hipotesietan espero bezala.

Estatistikoki adierazgarriak sei hizkuntza-aldagai direla ikusi ahal izan dugu emaitzetan (estatistikoki aztertu diren hamarretatik): artikuluaren kontrakzioa, *a* > *e* (*i, u* ondoren), *o / u* adizkietan, *-ti / -tik, dot-dut / det* eta *biño / baño.* Beraz, adinarekiko duen diferentzia bakarra da *-e / -te* eta lexikoa (*biño / baño* gabe) aldagaietan ez dela adierazgarri izan ikasketa-maila (adina bai) eta, alderantziz, *biño / baño* aldagaian adierazgarri izan dela (eta adina ez).

Ondorengo irudian bertako aldaeren emaitza aurkezten da:




5.29. irudia: bertako hizkuntza-aldaeren erabilera ikasketa-mailaren arabera (%).

- Generoa

Generoari dagokionez, ez dugu joera orokorrik aurkitu. Hipotesian emakumezkoak aldaketan aurretik joatea espero genuen, baina emaitzek erakutsi digute ez dela hala gertatzen hizkuntza-aldagai guztietan. Hain zuzen, 13 hizkuntza-aldagaietatik seitan emakumezkoak gordetzaileago agertu dira, modu nabarmen batean gainera. Gizonezkoak bost aldiz agertu dira gordetzaileago (beste bi adibideetan antzeko datuak eman dituzte, bi puntu gorabehera). Beraz, hipotesia ez dela bete esan dezakegu. Gainera, adierazgarritasunari begiratzen badiogu, alde hauek hiru kasutan izan dira adierazgarri eta hiruretan emakumezkoak izan dira gordetzaileago, hizkuntza-aldagai hauetan hain zuzen: *o / u* adizkietan (0'0123 adierazgarritasun-mailarekin), *-e / -te* pl. 3. p.-eko bukaeretan (0'000799) eta *e / a* (*i, u* ondoren) (0'0478).

Horretaz gain, artikuluaren kontrakzioa aldagaian, analisi estatistikoa gazteekin bakarrik eginda, generoa adierazgarri izan da (0'00041), baina kasu honetan emakumezkoak berritzaileago agertu dira. Pentsatzen dugu aldagai guztiekin eragiketa hau eginez gero, gehiagotan agertuko zela generoa adierazgarri, uste dugulako joera desberdinak daudela adinaren arabera. Beharbada, askotan horregatik ez da agertu generoa adierazgarri. Joera horiei erreparatuko diegu jarraian irudi bidez[58].

58 Kontuan hartu irudi horretan hiztunen adibide guztiak batera bilduta ateratako ehunekoak agertzen

Irudian ezkerretara jarri dira espero genuen aldaketa erakutsi duten aldagaiak: gazteak berritzaileen agertzen direnak. Horiek dira *ezer, guzi,* adizkietako *o* eta *dot-dut* aldaeretan ikusten dena. Adizkietako *o* aldaeran adineko gizonezkoek dagoeneko aldaketa hasi dutela ematen du, adin bereko emakumezkoekiko alde handiarekin gainera. Antzeko gauza gertatzen da *dot-dut* aldaerarekin: adineko gizonezkoek emakumezkoek baino gutxiagotan erabiltzen dute bertako aldaera. Helduek joerarekin jarraitzen dute eta, gazteen artean, emakumezkoek hartu dutela aldaketaren lidergoa ematen du.

Ondorengo aldaeretan gizonezko helduek hasten dute aldaketa gure datuetan: *-ti* aldaeran nabarmena da gizon helduek eta gazteek gainerakoekiko egin duten jauzia. Adinekoek eta emakume helduak ia beti erabili dutena gainerakoek ez dute ia erabili ere egin; beraz, bertako aldaeratzat hartutakoa oraindik galdu ez bada ere, norabide horretan doa. Gizonezko helduek[59] hasten dituzten gainerako aldaketak aldaera hauetan gertatzen dira: *-e* pl. 3. p., *dena*, *ongi, a* > *e* (*i, u* ondoren) eta artikuluaren kontrakzioa. Bost aldaera hauetan, gazteen artean, gizonezkoek emakumezkoek baino gutxixeagotan erabiltzen dute bertako aldaera, artikuluaren kontrakzioan izan ezik. Azken honetan, gizonezko gazteek zaharragoen joera mantentzen dute eta kontrakzioa gutxitan egiten dute.

Hurrengo bi aldaeretan emakumezko heldua da aldaketa nabarmena egin duena: *zerbatte* aldaera ez du erabili eta *biño, beño* ere arrunt gutxi, adinekoekiko jauzi handia eginez.

Azkena jarri dugu *ga* aldaera, gorabehera asko dituelako eta adineko oso gutxiren datuak. Beraz, adineko emakumezkoak gordetzaileago ikustean ezin dugu jakin guztien joera den. Hizkuntza-aldagai honen emaitzak aztertzean, heldu eta gazteei dagokienez ere gorabeherak ikusi dira hiztun batetik bestera. Beraz, denak batera bilduta ikusten den emaitza (emakumezko helduak eta emakumezko gazteak agertu dira berritzaileen) tentuz hartuko dugu.

---

direla. Beraz, hiztun bakoitzaren joera ez da ikusten eta hiztun batzuen erabilera gehiegi adierazten da (helduen kasuan bereziki, hiztun gutxi direlako).

59 "Gizonezko helduaren" esan behar genuke hainbat kasutan, azaldu den bezala, bietako batek egin duelako jauzi nabarmena gehienetan.




5.30. irudia: bertako hizkuntza-aldaeren erabilera generoaren arabera (%).

- Herria

Herria gizarte-eragilearen arabera ez dugu joera nabaririk aurkitu. Emaitzetan esan dugun bezala, Arribe agertu zaigu berritzaileen eta Intza gordetzaileen askotan, baina lanean zehar azpimarratu den bezala, bakoitzean hiztun berritzaile eta gordetzaile bana daude eta horien eragina handia da hiztun gutxi direlako herri bakoitzean (bi Arriben eta Uztegin; hiru Azkaraten, Gaintzan eta Intzan; eta sei Betelun). Arriben beraz, bi bakarrik dira eta Intzan hiru, eta hiztun berritzaile eta gordetzaileek pisu handia dute emaitzetan.

Bertako batzuek *Beierri* eta *Goierri* deitzen diete herri horiei, behean edo goian daudela adieraziz. Eta ikusi dugu alde txiki bat hizkuntza-aldagaiak erabiltzeko moduari dagokienez: berritzaileago agertu dira Beierrikoak diren Betelu eta Arribe (Atalluko daturik ez dugu), eta gordetzaileago Goierriko Intza, Gaintza, Azkarate eta Uztegi. Hiztunen erabilera herrika irudian adieraztean, Goierriko herriak jarri dira ezkerrean, eta Beierrikoak eskuinean, herri gordetzaileenetik berritzailenera ordenatzen saiatuta.




5.31. irudia: bertako hizkuntza-aldaeren erabilera herriaren arabera (%).

Aldakortasunari buruzko hipotesia eraikitzean, herriaren tamaina, errepidearekiko hurbiltasuna eta Gipuzkoarekiko hurbiltasuna hartu dira kontuan. Denekin lotura ikusten dugu, izan ere, alde batetik, Betelu eta Arribe dira herririk handienak eta errepidetik gertuen daudenak, eta hizkuntza-aldagai batzuetan beraiek doaz aurretik aldaketan.

Beste alde batetik, Gipuzkoatik hurbil dauden Goierriko herriak (Azkarate eta Uztegi) ere hizkuntza-aldagai batzuetan aurretik doaz aldaketan, erdialdeko euskararantz doazen aldagai hauetan adibidez: *ga / gea*, *zerbatte / zeoze*, *guzi / guzti, dot-dut / det.* Aldagai horietan guztietan bertako aldaera gainerako herrietan baino gutxiagotan erabili da Azkaraten eta Uztegin. Eta alderantziz, bertako aldaeratzat hartutako *-di, -ti* aldaerak askotan erabili dituzte Araizko Goierriko herri horietan. Aztertzeke dugu Gipuzkoan mugakide dituzten Goierriko herrietan erabiltzen diren aldaerak ote diren.

Ondoko herri gipuzkoarretatik, Bedaio eta Amezketatik, gertuen dagoen herria da Azkarate (Uztegi ondoren dago, Gaintzatik oso gertu). Badirudi, beraz, Gipuzkoarekiko hurbiltasun geografiko hori gaur egungo hizkeran ere antzematen dela, Zuazoren lanean ere irakurri daitekeen bezala (2013: 361-362). Bertan esaten da Azkaraten euskara giputzaren eragin biziagoa ikusten dela: *gea, zea* moduko adizkiak jartzen dira adibidetako. Beste ondorio honekin ere bat egiten dugu: Goierriko hizkerak baduela bere nortasuna, gordetzailegoa delako. *"Beierrian lehenago egin diren aldakuntzak geroago iritsi dira hara"* (Zuazo 2013: 361).

Beheko mapan herriak non dauden ikusten da (Uztegi da markatua dagoen puntua):

5.32. irudia: Araitz-Beteluko herrien kokagunea.

Gipuzkoarekiko hurbiltasuna neurtzean, gaur egun egoera aldatu egin da: joan-etorriak errepidez egiten dira. Hala, Gipuzkoarekin mugakide izateak sortutako eragina lehengo kontua izatea espero genuen eta gaurko hizkeran Araitz-Beteluko herri batekoa edo beste batekoa izatea ez zela nabarituko. Baina gure emaitzen arabera, lehengo joerek bizirik dirautela ikusten da.

- Hizkuntza-eragileak

Gure lanean, hasiera batean, gizarte-eragileetan zentratu gara horien eragina aztertzeko. Bibliografia irakurtzean ohartuak ginen hizkuntza-eragileei ematen zitzaien garrantziaz, eta lanean hasita konturatu gara beren eragina handia izan daitekeela. Hizkuntza-aldagaietan hizkuntza-eragileak sortu ditugu hizkuntzaren barneko joerak ikertzeko. Bederatzi hizkuntza-eragile izan dira Araitz-Betelun eta horietatik bost agertu dira adierazgarri, adierazgarritasun-maila oso altuarekin, gainera. Adierazgarri izan direnak maiztasun handiko hizkuntza-aldagaietakoak izan dira, ondorengo taulan ikus daitekeen bezala:

| hizkuntza-eragileak | adierazgarritasun-maila | hizkuntza-aldagaien maiztasuna |
|---|---|---|
| 1. *e / o* amaierak (e / o) (artikuluaren kontrakzioa hizkuntza-aldagaian) | p. < 1,13e-27 | 2056 |
| 2. Inguruneak (1 / 2 / 5 / 6) (*e / a* hizkuntza-aldagaian) | p. < 3,2e-121 | 3609 |
| 3. Berezitasunak (*-a* itsatsidun hitzak / *j* bokalerdia aurretik / mailegu berriak / *i* eta *u* berriak / deklinabideko *-ra* eta *-ike(n)* / leku izena / berezitasunik ez) (*e / a* hizkuntza-aldagaian) | p. < 1,41e-154 | 3609 |
| 8. AditzaIzordaina (aditza / izenordaina) (*dena / dana* hizkuntza-aldagaian) | p. < 5,01e-19 | 930 |
| 9. Aldagai lexikoa (*biño_baño / ezer_deus / guzi_guzti / ongi_ondo / zerbatte_zeoze*) (*lexikoa* hizkuntza-aldagaian) | p. < 6,95e-16 | 1235 |
| 4. Atzizkia bai / ez (atzizkia bai / atzizkia ez) (*o / u* hizkuntza-aldagaian) | ez da adierazgarri | 762 |
| 5. Atzizkia (*noiztik* kasua / *nondik* kasua / *zergatik* kasua / adberbioak) (*-ti / -tik* hizkuntza-aldagaian) | ez da adierazgarri | 512 |
| 6. Ondoren bokala / kontsonantea (bokala, kontsonantea (*j / g* ez besteak), *j / g* kontsonantea eta etena) (*-ti / -tik* hizkuntza-aldagaian) | ez da adierazgarri | 512 |
| 7. Pertsona (*gu / zu / zuek*) (*ga / gea* hizkuntza-aldagaian) | ez da adierazgarri | 187 |

5.56. taula: hizkuntza-eragileen adierazgarritasun-maila eta maiztasuna.

Ez dakigu kointzidentzia den edo maiztasun handiagoa beharrezkoa den. Dakiguna da hizkuntza-eragile asko sortu ditugula Araitz-Betelun, Goizuetan baino gehiago. Eta hipotesirik gabeko hizkuntza-eragileak izan direla, kasu gehienetan. Horrekin esan nahi da, eragileak izan zitezkeela sumatu arren, zein norabidetan eragingo ote zuten ez genuela argi. Eraginik ba ote duten ikusi nahi izan da eta kasuen erdian baino gehiagotan hala izan da, nabarmen gainera.

### 5.6.3. **Kualitatiboki aztertutako aldagaietako ondorioak**

- Erdarazko esaldiak eta makulu-hitzak

Araitz-Betelun erdarazko esaldiak eta makulu-hitzak aztertuko dira atal honetan. 231 erdarazko esaldi eta 499 makulu-hitz bildu direla esan dugu emaitzak azaltzean, Goizuetan topatutakoen bikoitza, gutxi gorabehera.

Erdarazko esaldiei dagokienez, gorabeherak daude eta hiztunetik hiztunera aldea dago, baina esan daiteke gero eta gehiago erabiltzen dela erdara. Aldaketa ez da bat-batekoa eta adinekoetatik gazteetara ez dago alde handirik, orokorrean. Pertsonen arabera doa alde nabarmenena: adineko emakumezko batzuek, gizonezko helduek (bereziki beste hizkuntza-aldagai askotan ere berritzaile agertu dena) eta gazte batzuek erabili dute gaztelania gehiago (hiru emakumezkok eta gizonezko batek), 10 adibidetatik goiti.

Goizuetarekin konparatuz, han nabarmena egin zaigu gaztelania hiztun gutxi batzuek erabili dutela maiz samar (adineko emakumezko batek, 60-65 urteko gizon eta emakumezko banak, eta gizonezko gazte batek) eta, erabili denetan, adinekoek maileguetan (zenbakiak eta datak) eta besteen esanak adierazteko (txikitan irakasleek edo irakasleei esanak) erabili dute gaztelania askotan; gazteek eskola tituluak adierazteko erabili dute gaztelania (*administración, curso puente, grado superior*...). Araitz-Betelun, adinekoen eta helduen artean egoera berdintsua da, baina, gazteen artean, gaztelaniaren erabilera handiagoa da. Goizuetan erabilitako esamoldeez gain, erdarazko esaldi osoak txertatu dira, Goizuetako gazteengan agertu ez dena. Alegia, Araitz-Betelun maizago aurkitu dugu benetako kode-aldaketa eta, gainera, gazteek adinekoen eta helduen joerarekin jarraitzen dute, eta erdara gehixeago erabiltzen dute. Adibide batzuk jartzeko, Beteluko emakumezko gazte batek (*eg4*) esandako esaldi hauek dakartzagu: *"Esan nun, bua, ostras! Beño, DIJE, ez, ez, ez, ze gorra"* eta *"erlek zebiltzela Y YO, joe, QUE ASCO".* Kode-aldaketari buruzko informazio gehiagorako euskaran fenomeno hori aztertu duten lanak kontsulta daitezke (Muñoa 2002, Epelde eta Oyharçabal 2010, Ibarra 2011, Lantto 2012 eta 2015).

Makulu-hitzei begiratuta, espero izandakoa aurkitu dugu: helduek eta gazteek erabili dituzte bereziki makulu-hitzak eta, beraz, nahiko joera berria da makulu-hitzak erabiltzea, Goizuetan ikusi bezala. Beteluko adineko emakumezko batek ere erabili ditu makulu-hitzak maiz samar, beste hizkuntza-aldagai batzuetan ere nahikoa berritzaile agertu den hiztunak hain zuzen.

Makulu-hitzen nolakotasunari begiratuta, Goizuetan baino adibide desberdin gehiago aurkitu ditugu. Hau da, Goizuetan makulu-hitz gutxi batzuk izan dira askotan erabili direnak (*hombre, a ver, es que, o sea*) eta beste batzuk gutxitan eta hiztun batzuen ahotan bakarrik entzun ditugu (*o bien, lo que pasa que, esto, aparte de que, porque, que si, asi por asi*). Araitz-Betelun, berriz, ohikotzat jo direnez gain, askoz ugariagoa da bigarren multzoa osatzen duten makulu-hitzen zerrenda: *asi que, aunque sea, este, esto, en fin, en cambio, lo que sea, lo que pasa (es) que, mecaben la ospa!* (eta antzekoak: *la ospua!, mecauen la ostra!, caguen la, mecaguen*), *por ejemplo, por s'acaso, poque, que va, tío, ya que (ta)* eta menpeko esaldien lokailu batzuk (*como, de,* konpletibozko *que, si, sino*).

Araitz-Beteluko herrien emaitzei begiratuta, aldea ikusi dugu Beteluren eta gainerako herrien artean: Betelukoek kopuru altuak eman dituzte bai erdarazko esaldien erabileran, eta baita makulu-hitzenean ere, orokorrean. Beraz, hipotesia bete da eta Betelun erdararen erabilera altuagoa aurkitu dugu. Are gehiago, hipotesia bete da Araitz-Beteluren eta Goizuetaren artean aurrikusitakoari dagokionez ere: Araitz-Betelun Goizuetan baino erdarazko esaldi eta makulu-hitz gehiago erabili dira.

## 5.7. LABURPENA

Araitz-Betelu aukeratzean, Goizuetaren antzeko egoera duen ingurua izatea bilatu da: Gipuzkoarekin muga egiten duen Nafarroako udalerria da hau ere, oso euskalduna eta antzeko biztanle kopurua duena. Gainera, Araitz-Betelun ere gainbehera demografikoa egon da, nahiz eta gaur egun biztanle-kopurua mantentzen ari den. Horretan diferente da Goizuetaren aldean, han galera demografikoak segitzen baitu.

Beraz, Araitz-Betelun, galera demografiko handia egon da, baina orain biztanleria mantentzen ari da eta badirudi gai horrek ez diela kezka handirik sortzen. Hizkeraren hautemateari dagokionez, bertako hizkeraren ezaugarriez ohartzea zailagoa dela uste dugu, bertako hizkeratik ingurukoetara ez dagoela salto handia (ezta euskara batura ere) eta, beraz, hizkera errazago urtu edo nahas daitekeela da gure hipotesia. Beraz, gure hasierako hipotesiaren arabera, biztanleria mantentzen ari delako eta bertako hizkeraren ezaugarriez ohartzea zailagoa delako, Araitz-Beteluko hizkuntza-aldagaietan Goizuetan baino aldaketa gehiago topatzea espero genuen.

Hizkuntza-aldagaiei dagokienez, aurreneko ondorioa da hizkuntza-aldagai batzuetan ohikoa den aldaketa aurkitu dugula: adinekoek erabili dute gehien bertako aldaera, helduek gutxiago eta gazteek gutxien. Hizkuntza-aldagai horiek dira *ezer / deus, e / a* (*i, u* ondoren), artikuluaren kontrakzioa, *guzi / guzti, dot-dut / det, -o / -u* adizkiak eta *-ti / -tik.* Beste hizkuntza-aldagai batzuetan, aldaketan aurretik doazenak helduak dira, gazteak izan beharrean. Datuak hiztunka begiratuta, gorabeherak daude ordea, eta askotan gizonezko heldu batek eragindako joera dela ikusi da. Hizkuntza-aldagai horiek dira *-e / -te, dena / dana, ongi / ondo, biño / baño* eta *zerbatte / zeoze.* Bigarren ondorioa da, beraz, Araitz-Betelun datuek gorabeherak handiagoak dituztela hiztunetik hiztunera Goizuetan baino eta beti ez dugula aurkitu aurretiaz esandako joera.

Lehen begiratu batean, Goizuetan gertatu dena ikusten da hemen ere: gazteek (eta helduek) oro har adinekoek baino gutxiago erabili dituzte bertako aldaerak[60]. Era berean, adinekoetatik gazteetara badago aldea, baina alde hori txikia da hizkuntza-aldagai batzuetan

60 Salbuespen bat bada hemen ere: *ga / gea* aldagaia. Kasu honetan, badirudi gazteek bertako aldaera adinekoek baino gehiago erabili dutela, gizonezkoek bereziki, baina adinekoen artean datu gutxi dituen aldagaia da eta ezin izan dugu joera hori baieztatu.

(*-e / -te* pl. 3. p., *dena / dana, ongi / ondo*) eta handiagoa gainerakoetan. Ez dago hizkuntza-aldagairik gazteetako inork erabili ez duenik (Goizuetan *-koz, gunun* eta *eskuara* aldaeretan ikusi genuena), baina adizkietako *o* eta *-ti* aldaerak oso gazte gutxik eta oso gutxitan erabili dituzte.

Aldaketa aztertzean, adina, ikasketa-maila eta herria gizarte-eragileek aldaketaren nondik norakoa ikusten lagundu digute hainbat hizkuntza-eragiletan, eta horiekin lotuta egin diren hipotesiak askotan bete dira. Horrela, adinekoak, ikasketa-maila apalekoak eta Goierrikoak izan dira gordetzaileen, orokorrean, eta gazteak, ikasketa-maila altukoak eta Beierrikoak berritzaileen. Generoari dagokionez, egindako hipotesia gure datuek ez dute baieztatu, eta dagoeneko hipotesia aldatu beharko genuke: emakumezkoa agertu da gordetzaileago, analisi nagusietan generoa adierazgarri izan den hiru hizkuntza-aldagaitik hirutan.

Goizuetako eta Araitz-Beteluko hizkuntza-aldagaien joerak biltzen dituzten irudiak dakartzagu berriz, orain artean egindako konparaketak errazago ikusi ahal izateko. Irudi hauei erreparatzean kontuan hartu behar da ezaugarri horiek direla, maiztasun handia dutenen artean, aldaketa nabarmenean daudela sumatu ditugunak. Zentzu horretan, espero baino aldaketa gutxiago topatu dugu, bereziki Araitz-Betelun.




5.33. irudia: Goizuetako eta Araitz-Beteluko aldaeren erabilera, adinaren arabera (%).

# 6. ONDORIO OROKORRAK

Araitz-Betelu eta Goizuetan aztertu ditugun hizkuntza-aldagaiak kontuan hartuta, orokorrean esan dezakegu hizkuntza aldatzen ari dela bi udalerrietan, eta aldaketa hori antzekoa dela, guk aztertutako hizkuntza-aldagaiak kontuan hartuta, behintzat. Hizkuntza-aldagai batetik bestera alde handia dago aldaketaren abiaduran; hau da, adinekoetatik gazteetara asko apaltzen da bertako aldaeraren erabilera hizkuntza-aldagai batzuetan, eta oso gutxi besteetan. Denetarik dago eta hizkuntza-aldagaika begiratu behar da bakoitzean gertatzen dena. Labur esanda, ordea, Goizuetan eta Araitz-Betelun aldaketa tarte berean ibili dira aztertutako hizkuntza-aldagaiak eta antzeko aldaketa-maila ikusi dugu.

Beheko taulan, eskuineko zutabean, aldagai bakoitzean zenbateko aldaketa dagoen adierazi da. Balio hori adinekoek eta gazteek bertako aldaera zenbat (%) erabili duten kontuan hartuta atera da, adinekoen erabilerari gazteena kenduta.

| **Bertako aldaeren aldaketa (%)** | | | |
|---|---|---|---|
| Goizueta | | Araitz-Betelu | |
| 15) *gunun* | -85 | 4) *-di, -ti* | -87 |
| 7) *-koz* | -80 | | |
| 10) *benpe* | -62 | 3) *o* adizkietan | -61 |
| 17) *zerbette* | -48 | 12) *guzi* | -50 |
| 4) *-en* | -48 | 7) *dot*, *dut* | -45 |
| 13) *eskuara* | -38 | | |
| 9) *bakotxa* | -38 | 1) artikuluan kontrakziorik ez | -35 |
| 16) *patu* | -36 | | |
| 14) *eztikit* | -36 | 13) *zerbatte* | -34 |
| 8) *arrunt* | -34 | 9) *biño, beño* | -33 |
| | | 10) *ezer* | -23 |
| 5) *izan* | -21 | 2) *a* > *e* (*i, u* _) | -22 |
| 1) *aferesia* | -17 | 8) *-e* pl. 3. p. | -10 |
| 6) *edun* | -8 | 6) *dena* | -8 |
| 11) *biño* | -4 | | |
| 12) *deus* | -3 | | |
| 2) /j/ | -1 | 11) *ongi* | -1 |
| 3) *-ikan* | 16 | 5) *ga* | 12 |

6.1. taula: bi udalerrietako hizkuntza-aldagaietan, bertako aldaera zenbat aldatu den (%).

Taulan hiru multzo egin dira. Batetik, % 45etik goitiko aldaketa izan duten ezaugarriak, Goizuetaren kasuan bost hizkuntza-aldagai (bertako aldaera *gunun, -koz, benpe, zerbette* eta *-en* dira) eta Araitz-Betelun lau (bertako aldaera *-ti,* adizkietako *o, guzi* eta *dot-dut*). Tarte hori bitan banatu da, % 60tik goitikoak kolore ilunagoz margotuta. Bestetik, % 30-40 bitarteko aldaketa izan dutenak (Goizuetan *eskuara, bakotxa, patu, eztikit, arrunt*; Araitz-Betelun artikuluko kontrakzio eza, *zerbatte* eta *biño-beño*) eta, hirugarren multzoan, % 25etik beheitik aldaketa izan dutenak (Goizuetan *izan,* aferesia, *edun, biño, deus,* /j/ eta *-ikan*; Araitz-Betelun *ezer, a* > *e* egitea *i, u* ondoren, 3. pertsona pluraleko *-e, dena, ongi* eta *ga*). Hirugarren honetan ere, kolore bidez, % 8tik goitiko aldaketa izan dutenak gainerakoetatik bereizi dira. Taula honen arabera, esan bezala, antzeko aldaketa-maila ikusi dugu Goizuetan nahiz Araitz-Betelun.

Hasiera batean, espero genuen Araitz-Betelun Goizuetan baino aldaketa gehiago aurkitzea. Aztertu diren hizkuntza-aldagaietan aldea ez da oso nabaria izan udalerri batetik bestera, ordea, eta ezin dugu esan gure hipotesia bete denik. Beraz, beste ondorioa da Araitz-Betelu espero baino gordetzaileago agertu dela.

Oro har, ondorioa hori bada ere, xeheago begiratuta, badira udalerri batetik besterako alde txikiak, ondorengo lerroetan azaltzen saiatuko garenak. Gainera, kontuan hartu behar da gure datuak mugatuak direla. Alde batetik, egin dugun konparaketa lekutik lekura diferente diren hizkuntza-aldagaien artean egin dugu gehienetan eta, beste aldetik, 6.1. taulako emaitzak hiztunaren barne-aldakortasuna kontuan hartu gabe ateratakoak dira, alegia, adinekoen eta gazteen erabilera guztiak batera hartuta ateratakoak. Egokiagoa litzateke, seguru asko, hiztun bakoitzaren eragina kontuan hartu ahal izatea, baina taula horretan eta lanean zehar egindako irudietan ez dugu jakin hori egiten.

Xeheago begiratuta, aldea ikusten dugu udalerri batetik besterako hizkuntza-aldagaien artean (ondorengo lerroetan heldu diren konparazioetarako, 6.1. taulaz gain, 5.33. irudia hartu da kontuan). Goizuetan, gazteek bertako aldaera adinekoen kopuru berdintsuetan erabili dute 17 aldagaietatik 9tan, eta aldaera horietan gazteen erabilera erdialdeko euskararen (eta gehienetan, baita euskara batuaren) joeretatik aldentzen da: /j/ (-1)*, deus* (-3)*, biño* (-4)*, edun*

(-8), aferesia (-17), *izan* (-21), *eztikit* (-36), *patu* (-36), *bakotxa* (-38). Azken hiruretan aldaketa handi samarra da adinekoetatik gazteetara, baina kontuan hartu behar da gazteek, hala ere, % 60tik goiti erabili dituztela. /j/, *deus* eta *biño* aldaerak adinekoen pare erabili dituzte, ia % 100ean. Aferesia eta *izan* aldaerak gutxiago erabili dituzte gazteek, % 50 inguruan. Erabilera hori bera egin dute *zerbette* eta *-en* aldaeretan ere, baina hauetan adinekoekiko aldea handiagoa da, ia beti erabili dituztelako adinekoek.

Bestalde, bost aldaeratan gazteek oso gutxi erabili dute bertakoa (% 5etik beheiti) edo ez dute erabili: *arrunt* (-36), *eskuara* (-38), *benpe* (-62), *-koz* (-80) eta *gunun* (-85) dira horiek. Ezaugarri guztietan adinekoekiko duten aldea handi samarra da parentesien arteko balioetan ikusten den bezala, bereziki, azken hiruretan. Hemen erdialdeko euskararekin (eta euskara batuarekin) egiten du bat gazteen joerak. Horretaz gain, erdialdeko euskaran ere erabiltzen den *-ikan* aldaeran gertatutakoa dugu: gazteek adinekoen antzeko erabilera izan dute, baina haiek baino gehiagotan erabili dute (+16).

Araitz-Beteluri dagokionez, han aztertu diren 13 hizkuntza-aldagaietatik bitan bakarrik ikusi dugu gazteek adinekoen paretsu erabili dituzten aldaerak erdialdeko euskararen joeretatik aldentzen direla. *Ongi* (-1) eta *dena* (-8) aldaerak dira horiek, eta gazteek adinekoen antzeko erabilera izan dute (*ongi* aldaera % 94an erabili dute gazte nahiz adinekoek; *dena* % 99 adinekoek, % 92 gazteek). Tartean, helduek erabilera askoz apalagoa egin dutela esan behar da (% 51 *ongi* aldaeran, % 68 *dena* aldaeran), baina berritzaile agertu den gizonezkoaren (*gh1*) ondorioz, bereziki. Gizonezko heldu horrek erdialdeko euskararen eragina erakusten du aldagai hauetan eta beste zenbaitetan.

Araitz-Betelun *biño* (-33) eta *zerbatte* (-34) aldaerek aldaketa gehiago izan dute; hemen ere erdialdeko euskararanzko eta baturanzko joera da gazteen artean ikusi duguna. Helduek gazteek baino erabilera apalagoa egin dutela esan behar da, gainera, eta hemen hiru helduek erabili dituzte *baño* eta *zeoze* aldaera berriagoak gehiagotan. Balio horiek nabarmentzekoak dira, bereziki *zerbatte / zeoze* aldagaiaren kasuan: *biño* %95 adinekoek, % 56 helduek, % 62 gazteek; *zerbatte* % 72 adinekoek, %18 helduek, % 39 gazteek. Helduen erabilera alde batera utzita ere, *zerbatte* aldaera % 40tik beheiti erabili dute gazteek ere.

Gazteek adinekoen antzera erabili dituzten *a* > *e* (*i, u* ondoren) (-22) eta pluraleko 3. pertsonako *-e / -te* (-10) aldagaietan, aldaketa euskara baturanzkoa dela esan behar da: batuaren eragina ikusten dugu gazteek *a* > *e* gutxiago egitean eta pluraleko 3. pertsonan *-te* gehiago erabiltzean (*-te* aldaerari dagokionez, oroitu gizonezkoek bakarrik erabili dutela gure corpusean, helduek eta gazteek bereziki). Alegia, pentsa daiteke ezaugarri hauek ez direla asko aldatu erdialdeko euskararen eraginez, erdialdeko euskararen ezaugarria baita bertako aldaeratzat hartu duguna. Gainera, ezaugarri hauetan, azpimarratzekoa iruditzen zaigu beste kontu hau: bertakotzat jo ditugun *e* aldaerak (*'haundie'* eta *'due'*) Leitzan gazteen artean ere bizi-bizi dauden ezaugarriak dira eta gaur egun Araitz-Beteluko gazte asko hara joaten dira ikastera. Hango eragina ere izan daiteke ezaugarri hauek asko ez aldatu izana.

Gainerako hizkuntza-aldagaiak dira aldaketa gehien izan dutenak (% 45etik goiti) eta azpimarragarria da guztietan aldaera berria erdialdeko euskarako (eta, batzuetan, euskara batuko) ezaugarria dela eta gazteek hein handi batean aukeratu dutela: *det*[61] (eta ez *dot-dut*), *guzti* (eta ez *guzi*) eta adizkietan *u* (eta ez *o*) aldaerak erabiltzean hori ikusten dugu. Goizuetan antzekoa ikusi dugu *zerbette* (-48), *-en* (-48), *benpe* (-62), *-koz* (80) eta *gunun* (-85) aldaeretan.

*-ti* aldaeran gertatzen dena ez dugu argi: bertan dago aldaketa nabarmenena (-87). Euskara batuan erabiltzen ez den aldaera da, eta horren eragina ikusten dugu batetik. Bestetik, Gipuzkoako inguruko eskualdeetan erabiltzen den ez dakigu (Zaldibin adinekoek behintzat bai), baina pentsatzen dugu, izatekotan, adinekoek bakarrik erabiliko dutela eta ez gazteek.

Alegia, badago desberdintasunik Goizuetan eta Araitz-Betelun gehiago mantendu dituzten ezaugarrien nolakotasunean. Bereziki, Araitz-Betelun gazteek ere maila altuan erabili dituzten hizkuntza-aldagaietako batzuk erdialdeko euskaran ere erabiltzen dituztenak dira.

Bi udalerrietan berdinak diren hizkuntza-aldagaiei erreparatuko diegu jarraian. *Biño / baño* hizkuntza-aldagaia da horietako bat, eta honetan, Goizuetan oso aldaketa gutxi egon da

61 *det* erabiltzean garbi ikusten da erdialdeko euskararen eragina, kasu honetan, badirudi Tolosaldeko hizkerak batuak baino eragin handiagoa duela.

adinekoetatik gazteagoetara: adinekoek eta helduek % 100ean erabili dute *biño,* gazteek % 96. Araitz-Betelun, gehiago: adinekoek % 95ean, helduek % 56 eta gazteek % 62. Bat egiten duten beste aldagai batean, kontuak bereziak dira. Goizuetan *biño* aldaerarekin ikusi berri duguna gertatzen da *deus* aldaerarekin ere: gutxixeago erabili dute gure grabazioetan gazteek: % 97 (adinekoek eta helduek % 100). Araitz-Betelun alderantzizko hipotesia egina dugu aldagai honetarako, izan ere, adinekoek eta helduek *ezer* erabili dute beti. Kasu honetan, deigarria egiten zaiguna da gazteek *deus* erabili izana kasuen % 33an. Leitzan erabiltzen den aldaera da eta, beharbada, horren eragina ikusten da hemen. Azkarateko gazte batek hala dio bertako hizkeraren ezaugarriez galdetuta: *"Ni adibidez Leitzan hasi nintzenean, hainbeste aitzen nun 'eztot' eta 'dot' eta 'deusez' da holako hitzek, ze azkenen pegatu itten dizula"* (10. AEGA1O-4). Nahiz eta bestela hizkera ez zaiola aldatu esaten duen, 'deusez' pegatu zaiola dio, hori bakarrik. Tolosara ikastera joan den kuadrilako bati buruz, berriz, hango hizkera pixka bat itsatsi zaiola dio.

*Zerbette / zeoze* aldagaian gauzak berdintsuak direla esan daiteke, ordea: Goizuetan eta Araitz-Betelun, bietan dago alde nabarmena. Goizuetan erabilera-maila oro har handiagoa da, baina adinekoen erabilera oso handia zen: % 100ean erabili dute *zerbatte* bertako aldaera nafarra. Helduek[62] % 75 eta gazteek % 52. Beraz, aldea % 48koa da adinekoetatik gazteetara. Araitz-Betelun adinekoen erabilera dagoeneko apalagoa zen, % 72koa. Helduek % 18 erabili dute eta gazteek % 39. Adinekoetatik gazteetara dagoen aldea Goizuetan dagoena baino txikiagoa da, % 33koa; adinekoetatik helduetara dagoena % 54koa, ordea.

Badira beste aldagai batzuk Araitz-Betelun aztertu direnak eta Goizuetan ez. Goizuetan ez aztertzeko arrazoia da han ez dagoela aldaketarik; ez genuen sumatzen eta gure elkarrizketetako datuek era hala erakutsi dute. Goizuetarrek *ga* 'gara'*, dute, dena, guzi, ongi* esaten dute, eta ez *ge(r)a, due, dana, guzti, ondo.* Araitz-Betelun azken aldaera hauek bertakoak ere badirela esan daiteke, adineko nahiz gazteek erabiltzen dituztelako, maila batean edo bestean. Goizuetan, berriz, oso arraroa, arrotza, egingo litzaieke bertako hiztunei herrikide batek horrelakoak erabiltzea.

62 Oroitu Goizuetan heldutzat hartu direnak 60-65 urte artean dituztela, eta Araitz-Betelun gazteagoak direla (45-55). Horrek eragin handia izan duela datuetan ematen du, Araitz-Beteluko helduak Goizuetakoak baino oraindik berritzaileago baitira.

Gizarte-eragileei dagokienez, adierazgarriak izan dira askotan, bereziki adina, ikasketa-maila eta erdialdekoekin harreman-maila (Goizuetan). Gainera, hipotesietan espero izandako joerak ikusi dira emaitzetan, adierazgarri izan ez direnetan ere. Beraz, ikerlan hau egin ondoren, beste ondorio bat da, euskara aztergai hartuta, ikerketa bariazionista bat egitea interesgarria dela. Oro har ikusi dugu mendebaldeko gainerako ikerketetako emaitzekin sintonian doazen emaitzak aurkitu ditugula hemen ere: gazteek eta ikasketa-maila altukoek aldaera berriagoak erabiltzeko joera dute. Generoarekin lotutako emaitzak ez doaz ildo beretik, ordea, emakumezkoa berritzaileago izatearen hipotesia ez baita bete. Goizuetan eta Araitz-Betelun emakumeek gordetzaile izateko joera erakutsi dute hainbat aldaeratan, adinekoek bereziki. Emaitza hauek Haddicanek (2003, 2005) Oiartzunen aurkitu zituenekin bat doaz, hizkuntza-ezaugarri batzutan gizonezkoak berritzaile agertu baitziren erdialdeko euskararanzko aldaketan.

Generoa adinarekin gurutzatuta desberdintasunak agertu dira hizkuntza-aldagai batzuetan gazteen eta adinekoen artean: emakumezko adinekoak gordetzaileago izan dira eta gazteak berritzaileago. Denetarik aurkitu dugu, ordea, besteak beste, gizonezko adinekoak izatea bertako aldaera gutxiago erabiltzen hasi direnak, hizkuntza-aldaketa hasi dutenak. Beraz, generoari dagokionez ez dugu joera orokorrik topatu, hizkuntza-aldagaitik aldagaira diferente diren emaitzak baizik.

Adinarekin lotuta, Goizuetan beste orokortasun bat ikusi dugu, honela laburbildu daitekeena: adinekoek erabili dute gehien bertako aldaera, helduek gutxiago eta gazteek gutxien. Gainera, adinaren araberako multzo bakoitzean ehuneko beretsuak erabili dituzte; hiztunak tarte berean ibili dira gehienbat. Araitz-Beteluko datuak, berriz, ez dira izan hain homogeneoak.

Ondorio horiez gain, Goizuetari dagokionez, esan dezakegu, aldaketa dagoen arren, aldaera zaharrak ere erabiltzen dituztela gazteek oro har, batzuek adinekoek bezainbeste, bertako aldaerei eutsiz eta erdialdeko euskararen joeretatik aldenduz. Hizkuntzarekiko kontzientzia eta leialtasun handia sumatzen dugu Goizuetan eta horretarako arrazoi nagusiak herriaren ezaugarri hauetan egon daitezke:

- Oso herri euskalduna da, arnasgunea (Bengoetxea 2012). Euskara bizirik dago eta prestigioduna da Goizuetan.
- Bertako hizkera ere prestigioduna da bertan, gazteen artean bereziki.
- Goizuetak ez du inmigraziorik jaso, galera baizik. Horrek bertakoarekiko leialtasun sentimendua sortu duela uste dugu (Laboven 1972ko Martha's Vineyardekin lotura ikusten dugu hemen).
- Bertako izatearen esanahia; "bertako" identitateak hizkerarekin lotura handia du.

Araitz-Betelun ere aldaketa dagoen arren, aldaera zaharrak erabiltzen dituzte gazteek, batzuetan adinekoen pare. Hori, ordea, erdialdeko euskararen joeretatik aldenduz egitea hizkuntza-aldagai gutxitan ikusi dugu, bakarrik *ezer / deus* eta *ga / gea* aldagaietan. Araitz-Beteluko azterketa eginda, udalerriari buruzko ondorio hauek atera ditugu:

- Herrien euskalduntasunari dagokionez, aldea dago goian dauden herritik behean daudenetara; bereziki Betelun entzun dugu erdara gehien, Araitz-Beteluarren artean ezaguna den bezala. Araitzen euskararen ezagutza-datuak Goizuetakoen pare daude, eta aldea nabaritu egiten dela dirudi. Esan daiteke, beraz, Goierriko herriak arnasguneak direla baita ere eta euskara oso bizirik dagoela han.
- Araitz-Betelun azkenaldian ez dago biztanle galerarik, bertako gazte asko bertan bizitzen gelditzen da, eta gai horrek ez du kezka handirik sortzen bertakoen artean. Hemen Goizuetarekiko aldea dago, han galera sentsazio bat dagoelako.
- Oro har, Goizuetakoek beren hizkera markatuagoa dela sentitzen dute Araitz-Betelukoek baino, gure ustez. Horrek ondoriorik sortzen ote duen ez dugu gure datuetan ikusi ahal izan.
- Araitz-Beteluko herriei dagokienez, aldea ikusi dugu Goierri eta Beierriren artean: batzuetan, Goierrikoak gordetzaileago agertu dira, eta Beierrikoak berritzaileago. Beste ezaugarri batzuetan, ordea, Gipuzkoatik hurbil dauden Goierriko herriak (Azkarate eta Uztegi) doaz aurretik aldaketan, eta erdialdeko euskararantz doazen aldaera hauek gehiago erabili dituzte: *gea*, *zeoze*, *guzti* eta *det.*

- Azken urteetan Araitz-Beteluko gazte gehienak Leitzara ikastera joaten dira 14 urterekin (lehen Tolosaldera batez ere). Honek eragina izan dezake bertako gazteen hizkerarengan, eta nafarrerantz aldatzen doazen aldaeretan horren eragina egon daiteke. Gauza bera gertatu da Goizuetan ere: lehen Gipuzkoan ikasten zuten gazteek 14 urtetatik aurrera (Hernani edo Donostian gehienbat) eta orain gehienak Leitzara doaz ikastera. Goizuetaren kasuan ez dugu sumatu alderik horri dagokionez.

Bertako hizkera mantentzearekin lotuta, Haddicanek Oiartzungo ikerketan hauxe ikusi zuen: Oiartzungo hizkera erabiltzearen aldeko iritziak zirela nagusi ikerketan parte hartu zutenen artean, eta ez batua (Haddican 2005: 92-95). Horrela azaltzen du berak oiartzuarrek bertako hizkerarekiko erakutsitako leialtasuna: *"How, then, can this strong sense of dialect loyalty be explained? I propose that Oiartzuners' dialect loyalty is at least partly a reaction to changes in town life discussed above, and in particular to a perceived weakening of community identity and participation in collective life. That is, Oiartzuners' nostalgia for traditional practices and more dense local social networks is manifested as loyalty to the local dialect"* (Haddican 2005: 98-99). Ideia hauekin lotura handia ikusten dugu Goizuetan gertatzen denarekin, ez hainbeste Araitz-Betelun. Jatorriz Araitz-Betelukoak ez izanik, desberdin sentitu dugu batean eta bestean gertatzen dena, seguru asko.

Laburtuz, esan dezakegu Goizuetako eta Araitz-Beteluko hizkera erdialdeko euskararen eta euskara batuaren eraginez aldatzen doan arren, ez dagoela erabateko etenik adinekoen eta gazteen artean.

# 7. AURREKO IKERKETEKIN KONPARAKETA

Gure lanaren ekarpena metodologia bariazionista euskarazko datuak ikertzeko erabiltzea izan da, azken urteetan hasi den joerarekin bat eginez (Haddican 2003 eta 2005, Aurrekoetxea 2004, 2006 eta 2008). Metodologia horren bidez, ikerketa-galdera hau erantzun nahi izan da: baturanzko berdintze bidea antzekoa da herri euskaldun guztietan? Atal honetan, gure laneko emaitzak Euskal Herrian hizkuntza-aldakortasuna aztertu duten ikerketa batzuekin alderatuko dira. Horrela, tesi-lan honen ikerketa-galderari erantzun zabalagoa ematen ahaleginduko gara.

Haddicanek Oiartzungo hizkeran oinarrituta egin zuen hizkuntza-aldakortasunari buruzko tesia (2005). Oso ikerketa zehatz eta aberatsa da, gure lanerako abiapuntu garrantzitsua izan dena. Elkarrizketatutako 40 hiztunen artean, 20 emakumezko eta 20 gizonezko daude, eta hiru adin-tarte: adinekoak (60 urtetik gorakoak), helduak (38-50 urte) eta gazteak (20-29). Oiartzun osatzen duten auzo desberdinetako hiztunak izan zitezen ere kontuan hartu zen hiztunak aukeratzean. Bost hizkuntza-aldagai aztertzen ditu, bat fonologikoa (/t/-ren bustidura), hiru morfologiko (*izan / izandu, naiz / naz* eta *izan* aditzaren *a* erroko formak *-ga / gea-*), eta sintaktiko bat (datiboaren lekualdatzea) (Haddican 2005: 116). Hizkuntzaz kanpoko faktoreak (gizarte-eragileak: adina, elkarrizketa-egilea eta sexua) eta barruko faktoreak (hizkuntza-eragileak) aztertu ditu.

Ikusten du helduen belaunaldiak adinekoetatik aldaketa handia egin duela euskara baturantz eta ez zuela espero dio, kontuan hartuta eskola gaztelaniaz jaso zutela (heldu batek izan ezik) eta euskal irrati-telebistak 1982an sortu zirela (2005: 121). *Izandu* eta /t/-ren bustidura aldaeretan ikusi du hori eta, beste bi aldaeratan, oraindik indartsuagoa da joera hori: *naz* eta datiboaren lekualdatzea gazteek baino gehiago erabili dituzte estandarreko formak, datiboan bereziki. *Ga / gea* aldagaian, berriz, *gea* helduek erabili dute gehien, baina kasu honetan, *ga* forma anbiguoa da eta bi joera erakus ditzake: batetik, nafarrerarako ezaugarria izan daiteke eta, bestetik, batuaren eragina egon daiteke atzean (Haddican 2005: 170). Tresna estatistikoen bidez egindako analisien ondoren, *ga* aldaera*, naz* eta datiboaren lekualdatzea aldaera enblematikoen pare jokatzen ari dela ikusten du eta gazteen artean bertako hizkera

mantentzeko ahalegina ikusten dela (2005: 172). /t/ palatalizazioa eta *izandu* aldaera, ordea, ez dira bertako hizkeraren ezaugarri enblematiko eta aldaketan daude.

Hiru hizkuntza-aldagai horietan gazteek helduekiko duten jarrera desberdina (helduek gazteek baino bertako forma gutxiago erabili baitituzte), honela azaltzen du Haddicanek (2005: 172-176): *"I would like to suggest that this difference is related to the unique way that economic development and social change have borne on young Oiartzuners' lives and sense of identity as Oiartzuners (...). One possible interpretation, then, of the linguistic behavior of younger speakers as reflected in the above data, as well as many of their comments lamenting the loss of dialectal features, is as a reaction to these changes. That is, younger speakers' dialect loyalty is a way of staking claim to an Oiartzuner identity imperiled by recent social and economic changes including housing development".*

Ikasketa-mailaren eta adinaren arteko korrelazioaren gaia ere lantzen du Haddicanek (2005: 154-160), berak ere hizkuntza-aldagaien aldaketak azaltzerakoan bien arteko loturarekin egiten baitu topo. Ikasketa-maila kontuan hartuta egindako eragiketa estatistikoen bidez, adinak aldaketa hori hobeki azaltzen duela ikusten du.

Bere ikerketan, generoa faktore adierazgarria da estatistikoki. Hizkuntza-aldagaien arabera joera desberdinak aurkitu ditu, ordea: emakumea gordetzaileago agertu da *izandu* eta *ga* aldagaietan, eta gizonezkoa gordetzaileago /t/-ren bustiduran. Desberdintasun horien azterketa sakona egiten du Echeverriaren (2000) lana kontuan hartuz besteak beste. Eta hau da Haddicanen ondorioa (2005: 194-195):

> Echeverria (2000) proposes that masculinity is iconically linked to informal forms through their association with "traditional" rural Basque spheres. I have suggested that this proposal is only partly correct. Ethnographic data and multivariate analyses of sociolinguistic interview data collected for this project support the essence of Echeverria's analysis -that gendered constructions of "authentic" Basqueness bears on language use. The data presented here, however, suggest little support for the claim that this ideology recurs as a formal-informal distinction per se. Crucially, data on dialect-contact-induced change from High-Navarran to Gipuzkoan variants of present tense forms of the copula *izan* support previous findings that men are leading this prestige-driven process of change.

Aurreko lan batean (Haddican 2003) eta oraingoan, beraz, hizkuntza-ezaugarri batzutan gizonezkoak berritzaile agertu dira Oiartzunen, erdialdeko euskararanzko aldaketan buru izanez. Dena den, aldaketa ez da hizkuntza-aldagai guztietan gertatzen ari eta Oiartzuneko egoera Nafarroa ipar-mendebalekoaren pare ikusten dugu zentzu horretan (2003: 32): "Relatively little evidence exists for a strong effect of the new standard variety on the speech of younger speakers".

Haddicanek azterketa sakona egin du Oiartzunen, 40 hiztun han bertan elkarrizketatuz, batetik, eta hiru adin-tarte aztertuz, bestetik. Udalerri berean hiztun asko aztertu izanak ziurtasuna ematen du haien hitz egiteko joerei dagokienean eta, erdiko belaunaldiak konparaketarako hirugarren hanka ematen du.

Ondoren argitaratutako lanean (2007: 702), helduen belaunaldiaren jokaera azaltzerakoan, Urlaren ikuspegia gehitzen du (1987, 1993):

> Jaqueline Urla observes (...), these patterns of variation are also likely to reflect another kind of social change absent in the Martha's Vineyard case. In particular, the intergenerational difference may also be related to the changing sociolinguistic distribution of Batua and its shifting meaning over the past 30 years. The middle-aged speakers in this study (aged 38–50) would have been in their teens and early twenties in the late 1970s and early 1980s when Batua, in its early life, was the language of grassroots Basque language maintenance efforts and radical politics (Urla 1987, 1993). By contrast, the Batua that the young people in the present sample have grown up with is an institutional variety: the language of schools, media, public institutions and the labor market. (The older speakers in this study were all middle-aged by the fall of the dictatorship, and the language might be expected not to have influenced the vernacular
>
> of these speakers to the same extent as today's middle-aged speakers.) The changing meaning of speaking Batua over the past generation, then, might further explain why younger speakers – to a greater extent than middle-aged speakers – are more likely to make use of the dialect / standard opposition as a linguistic resource for expressing discontent with development and housing speculation.

Aurrekoetxeak Arratian eta Goierrin egin zuen lanaren arabera (2004) badirudi joera desberdinak daudela batean eta bestean. Goierrin aldagai fonologikoak eta morfologikoak hein

handi batean mantendu dira heldu (40 urtekoak) nahiz gazteen (16-18 urte) kasuan: % 97-98an mantendu dira ezaugarri fonologikoak eta % 84an morfologikoak. Arratian, aldiz, asko jaitsi da bertako ezaugarrien erabilera alor linguistiko horietan gazteen artean, helduen % 87tik 64ra fonologian eta % 100etik 51ra morfologian.

Alor lexikoan, ordea, egindako galdetegiaren arabera, bertako ezaugarriak gutxiagotan erabiltzen dituzte helduek (% 60an) nahiz gazteek (% 40an) Goierrin. Arratian, ordea, gehiago erabili dituzte: helduek % 94, gazteek % 51. Arratian helduen erabileratik gazteenera jauzi handia dagoela esan behar da, dena den; aldaketa handia dago beraz.

Emaitza horiek bilduz, Goierrin bertako hizkera eta estandarraren arteko bateratze-prozesua pixkanakakoa dela dirudi: % 88an eusten diete bertako aldaerei helduek, % 74an gazteek. Diman, aldiz, gazteek % 52an baino ez diete eusten bertako ezaugarriei. Beraz, bertako hizkeraren eta estandarraren arteko bateratze-joera bizia da (Aurrekoetxea 2004: 55). Ez da asmatu bertako hizkerei gehiago gorde ahal izateko lekua ematen, izan hezkuntzan edo izan beste alorretan (Aurrekoetxea 2004, 2006).

2006ko lanean Dimako datuei Arratiako gainerako herrienak gehitzen zaizkie, eta heldu eta gazteez gain, adinekoen datuak ere biltzen dira. Besteak beste, azpimarragarria da 16 urteko gazteek (Dimako gazteek eta Lemoako hiztun gazteenak) erakutsi duten estandarrerako joera: % 40an erabili dituzte estandarreko ezaugarriak Dimakoek, eta % 46an Lemoako gazteak, gainerakoek batez beste % 22an erabili dituzten bitartean (% 38tik 17ra bitartean). Datu horien arabera, pentsa daiteke 16 urte inguruko gazte horiek oso berritzaile direla. Gure ikerketan ez dugu hori frogatu ahal izan, 20 urtetik goitikoak direlako hiztun gazteenak.

Ondorio argia plazaratzen du Aurrekoetxeak: Arratian, belaunaldi batetik bestera, gutxi gorabehera % 10ean galtzen dela bertako hizkera. Beste ondorio garrantzitsu bat da ondorengoa: gazteen artean, hizkuntza-aldaketaren aitzindaritza datu morfosintaktikoek erakusten dute (Artea herrian izan ezik), ondoren heldu da lexikoa (Diman salbu), eta azkenik fonologia. Maiz hala uste izaten den arren, kasu honetan behintzat lexikoa ez da izan aldaketa gehien izan duena (Aurrekoetxea 2006: 144).

Gure ikerketan ere denetarik ikusi dugu: badira ezaugarri lexiko batzuk asko aldatu direnak eta beste batzuk batere aldatu ez direnak. Goizuetan aldaketa gehien izan duten aldaeren artean daude aldagai lexiko batzuk (*patu, zerbette, arrunt, benpe, eskuara, gunun*) eta baita morfologiko batzuk ere (geroaldiko *-en* eta kausazko *-koz*). Araitz-Betelun, berriz, gehien aldatu diren aldagaiak morfologikoak (*-ti / -tik, dot-dut / det* ) eta fonologikoak (adizkietako *o / u*) dira, nahiz eta lexikoko batzuk ere aldaketa handi samarra izan duten adinekoetatik gazteetara (*guzi, zerbatte, biño*). Gehien mantendu diren aldagaien artean, ezaugarri fonologiko, morfologiko nahiz lexikoak ditugu (fonologikoen artean bakarra, baina proportzioan ere gutxi zirela esan behar da). Goizuetan, fonologiako /j/, morfologiako *-ikan, edun* eta *izan* eta lexikoko *deus* eta *biño* adinekoen kopuru beretsutan erabili dituzte gazteek. Araitz-Betelun, morfologiako *ga* eta 3. pertsona pluraleko *-e*, eta lexikoko *dena* eta *ongi* izan dira adinekoetatik gazteetara aldaketa gutxien izan dutenak. Beraz, gure ikerketan ez dugu joera orokorrik aurkitu alor linguistikoari dagokionez.

Aurrekoetxeak 2008an Diman egin zuen lanean, 55 urteko hiztun heldu baten eta 24ko gazte baten emaitzak aztertzen dira (biak dira baserri girokoak, nahiz eta ez diren lan horretatik bizi). Alde handia ikusten da hiztun batetik bestera erabiltzen dituzten aldaeren artean, are gehiago kontuan hartzen bada bien arteko adin-tartea belaunaldi batekoa dela.

Corpusa biltzeko hemen ere galdesorta erabili du, kasu honetan lexikoa, morfologia eta sintaxiari buruzko 202 galderatako galdesortaren bidez. Honen ondorioz, erregistro informala jaso nahi izan arren, erregistro erdi-formala jasotzen dela esaten du autoreak (2008: 18).

Lanaren emaitzei erreparatuta, lexikoari dagozkion 120 galderetan bi belaunaldien artean % 50ean erantzun bera jaso da eta beste horrenbestetan erantzuna desberdina izan da. Datu ikaragarritzat jotzen du autoreak, *"eta aldi berean, oso adierazgarria euskararen hizkera desberdinetan gertatzen ari den hizkuntza aldaketa garrantzitsua era gordinean azaltzen duelako"* (2008: 19). % 50eko aldea desberdintasun guztiak kontuan hartuta ateratzen da, ordea. Alegia, hiztun helduak eman duen erantzuna gaztearenera zerbaitetan aldatzen bada (fonologikoki, morfologikoki etab.). Aldaera fonologikoak, morfologikoak etab. alde batera utzita, eta hertsiki aldaera lexikoei erreparatuta, % 16ra jaisten da aldaketa.

Helduen artean gertatutako deskulturalizazioaren ondorioz, honako hitz mailegatuak

erabili dituzte, jada propiotzat hartuta: *sur, remolino, arkoiris, junio, inundasiño, arbol, enbudo, mantekilla, binagre, sien, tuerto, kostunbre, asul*... Aldiz, belaunaldi gazteak, euskaraz eskolatua eta kulturizatua izanak, hitz horien ordez euskal ondareko hitzak erabili ditu: *egoaixea, aixesirinbola, ostadarra, ekaña, uriolak, suaitzak, tutue, guriñe, garune, begibakarra, oiturea, urdin*... Erantzun hauetan hizkera horren "oinarri dialektologikoa"ri dagozkion hitzak biltzen dira, aldaera estandarraren eragin nabarmena erakutsiz (Aurrekoetxea 2008: 19). *"12 kasutan belaunaldi gazteak euskara estandarreko hitz edo aldaerak erabili ditu (%10). Ondorioz, esan genezake belaunaldi batean %10ean sartu dela euskara estandarra hizkera dialektal bateko lexikoan"* (2008: 20).

Izen morfologian % 23an eman dute emaitza desberdina helduak eta gazteak. Eta gaztearen aukera hizkuntza estandar kultutik hurbilago dago helduarena baino. Aditz morfologian heldu eta gaztearen arteko erantzunen artean desberdintasun handia dago, 40 erantzunetatik 22 desberdin direlako. Esan behar da desberdintasun horietako asko sistema beraren aldaera fonologikoak direla edo hizkeraren barnekoak, ez estandarraren aldaerak; aldaera estandarren eragina %10ekoa da. Izen eta aditz morfologia batera hartuta, % 63an izan dira desberdin heldu eta gaztearen erantzunak.

Sintaxiari dagokionez, emaitzak antzekoak dira, % 65eko desberdintasuna dagoelako helduaren eta gaztearen erantzunen artean (62 erantzunetatik 39tan desberdin), baina euskara estandarraren erangina handiagoa ikusi da hemen, % 40koa.

Laburtuz, aditz morfologian eta sintaxian aurkitu da aldaketa gehien helduen eta gazteen artean (% 60-65 bitartean), lexikoan eta izen morfologian gutxien (%16-23 bitartean).

Aurrekoetxearen arabera, hau ere datu harrigarria da *"uste guztien arabera, lexikoa bada ere hizkera batean lehenik eta gehien aldatzen dena, datu hauen arabera gutxien aldatzen den parametroa da (%16)"* (2008: 23).

2015 bukaeran defendatu zuen Ariane Ensunzak *"Busturialdeko euskararen hizkuntza-aldakortasuna denboran eta espazioan"* izenburua duen tesia. Busturialdeko 20 herriak izan ditu aztergai eta, adinaren araberako aldakortasunarekin batera, aldakortasun geografikoa ere aztertu du; hizkuntza-aldakortasuna maila diatopikoan (geografikoan).

Gure lanarekin antzekotasun handiak ditu, desberdintasunekin batera: biek marko teoriko berbera eta programa estatistikoak erabili ditugu eta antzeko hiztun kopurua aztertu dira bi lanetan. Busturialdeko 20 herrietako bakoitzean bi hiztun aztertu dira, 40 guztira. Interesgarria da aztertu diren hiztunak emakumezkoak izatea, orain artean gizonezkoen hizkera aztertzea hobestu denean. 40 lagunek itzulitako 125 esaldik osatzen dute Ensunzaren corpusa (guztira 7789 erregistro). Gure kasuan, 38 hiztunen 30 minutuk (guztira ia 20 ordu). Itzulpen eta interpretazio bidezko galdetegia erabili du Ensunzak, horrela, aztertu nahi ziren hizkuntza-aldagaiak biltzea ziurtatzeko: *"batetik, erantzunak zehatzak direlako eta, gainera, beti dagoelako aukera hiztunari momentuan galdetzeko benetan horrela esaten duen edo beste modu batera ere esango ote lukeen; eta bestetik, konparagarriak diren datuak eskaintzen dituelako"* (2015: 26). Guk elkarrizketa-gidatua aukeratu dugu, hizkera naturala biltzeko ahaleginean. Horregatik hizkuntza-aldagaiek maiztasun handikoak izan behar zuten, jarraitu dugun metodoan ohikoa den bezala.

Aztertu diren hizkuntza-aldagaiak 19 dira Busturialdeko ikerketaren herri guztietan (gurean 19 Goizuetan eta 15 Araitz-Betelun). Gizarte-eragileei dagokienez, Busturialdeko ikerketan, herria, adina eta ikasketak (non egin diren) aztertu dira. Gure ikerketan adina, ikasketa-maila eta generoa hartu dira kontuan Goizueta nahiz Araitz-Betelun, erdialdekoekin harreman-maila Goizuetan eta, hizkuntza-aldagaiaren arabera, hizkuntza-eragile batzuk. Laburtuz, erabilitako metodologia eta tresnak antzekoak dira, eta ezaugarri batzuk desberdinak, ikerketa bakoitzaren helburuek markatuta hartutako erabakien arabera.

Emaitzei dagokienez (Ensunza 2015: 193-194), Busturialdean ere hizkuntza-aldagaiak aldatzen ari direla ikusten da eta aldakortasuna handia dela. Hizkuntza-aldagai batzuk baturantz doaz nabarmen: *i_a* gehiagotan erabili dute gazteek adinekoek nagusiki *i_e* erabiltzen duten lekuan. Berdin *eu / au* eta *a > e / a > a (i, u__)* aldagaietan ere; gazteek batuko aldaera gehiago erabili dute. Aldaketa nabaria dago *liburu bi / bi liburu* aldagaian ere: gazteek askotan erabili dute *bi liburu,* adinekoek beti *liburu bi* esaten zuten lekuan. *-ind / -ild* bustidura gabe gehiagotan erabili dute gazteek helduek baino. Hain nabaria ez bada ere, aldaketa ikusten da baita ere *hau gizona / gizon hau* aldagaian: gazteek euskara batuko forma gehiagotan erabili dute.

Badago kontrako joera erakusten duen aldagairik ere (gure ikerketan *-ikan* aldaerarekin ikusten genuenaren antzera): *-kin* eta *-kaz* aztertzen dituen aldagaian, *-kaz* gehiagotan erabili dute gazteek adinekoek baino (estatistikoki ez da adierazgarria); edota *lar* gehiagotan erabili dute gazteek helduek *-egi* erabiltzen zuten lekuan.

Beste batzutan aztertu den aldakortasunean ez dago aldaerarik euskara batukoa edo erdialdeko euskararena, eta berrikuntza bertako aldaera berri baten alde egiten da. Adibidez, *i_V* aldagaian helduek *z* (frikari sabaiaurreko ahostuna) aldaera erabiltzen dute nagusiki eta gazteek *s*. Bestalde, *aitzitze* erabiltzen hasi dira gazteak, helduek *aitxitxe* edo *aittitte* esaten zuten lekuan.

Emaitzak herrika alderatuta, Ensunzaren ondorioetako bat hauxe da: *"argi ikusten da helduen kasuan herri batetik bestera dagoen desberdintasuna ez dela gazteen hizkeran dagoena bezain handia"* (2015: 217). Alegia, batuaren eraginez gazteen artean espero genuen konbergentziarako joera ez da antzeman Busturialdean, alderantziz baizik. Gertatutako honela azaltzen du ikertzaileak (2015: 219-220):

> *"Gure datuek erakusten dutenez, helduen garaia egonkorragoa zen hizkera aldetik; izan ere, aldagai bakoitzak zituen aldaerak murritzagoak ziren eta, bestetik, erabiltzen ziren aldaerak finkatuago zeuden geografikoki. Gazteen hizkeran, ostera, desegonkortasuna handiagoa da, aldaerak ez daude hain finkaturik geografikoki eta, ondorioz, aldakortasuna nabarmenagoa da (...). Euskara estandarraren eraginagatik, beraz, euskalkiak elkarrenganantz hurreratzen doaz; baina gaur egun oraindik erabat finkatu barik daude aldaerak, bilakabidea gauzatu gabe dago eta Busturialdeko hizkerak, behintzat, egoera erdi-egonkor batetik aldakortasun handiko egoerara iragan dira. Euskara estandarraren eraginez aldakortasuna areagotu egin da, aldaera zaharrak berriekin leihan sartu direlako; hala ere, euskalkien batasunerantz doan aldakortasuna da, batez ere, gaur egun daukaguna.*
>
> *Hala ere, ikusi dugunez, hizkera batzuetan euskalkiaren nortasuna oso nabarmena da eta helduen hizkeran finkatu gabe zeuden aldaerak muturreraino eraman dira gazteen hizkeran, hizkeraren bereizgarritzat harturik"* [*-kaz* eta artikuluaren asimilazioa].

11 hizkuntza-aldagaitan helduetatik gazteetara aldaketa handia dagoela ikusten du Ensunzak (estatistikoki adierazgarria) eta beste 25etan aldaketa ez da adierazgarria

estatistikoki (2015: 220-221). Herriko eskolan ikasi izanak edo beste herri bateko eskolara mugitzeak hizkera aldatzearekin loturarik ez duela ikusi du, hizkera gehien aldatu zaien herrietako gazteek bertako eskoletan ikasi baitute (2015: 222).

Bi ikerketetan antzeko egoerak ikusi ditugu helduei dagokienean: gazteak hartu ohi dira aldakortasun handiko taldetzat, baina helduak hizkuntza kontuan oso aldakorrak izan daitezkeela ikusi dugu bi lanetan. *"Ikerketa honen prozesuan, batez ere helduen grabazioetan piztu dira gisa horretako zalantzak (...). Egindako bigarren grabazioetan, hipotesiak baieztatu egin dira gehienetan: lekukoa ez zen herriko hizkeraren ordezkari egokia. Helduen kasuan, batzuetan adin mugatik gertuegi egoterakoan helduaroan euskara estandarra ikasitakoa izan da eta, beraz, egoera formalean batutik hurrago dauden formak erabiltzen izan ditu. Beste batzuetan, lana ondoko herrian egitearen ondorioz, bertako formak eta herrikoak nahasian erabiltzen izan ditu"* (Ensunza 2015: 29).

Aurrekoetxeak (2008: 19) azaldutakoa lagungarri da gertatzen dena ulertzeko: *"Ikerketa honetan erabili diren lekukoen belaunaldien erradiografia eginez euskararen eremu osoan orokorra den ezaugarri bat dugu aurrean: belaunaldi heldua hizkuntzaren ahultze fase batean hezitakoa den bitartean, belaunaldi gaztea, oro har, hizkuntzaren indartze fase batean bizi dena dela (...) helduena deskulturizazio-belaunaldia den bitartean gazteena kulturizazio-belaunalditzat jo behar dugula"*. Horrek azal dezake helduek espero baino aldakortasun gehiago azaltzea Busturialdeko, Goizuetako nahiz Araitz-Beteluko datuetan.

Badirudi zalantza batzuk egon direla gazteei dagokienez: *"Gazteen kasuan ere, herri batzuetan euskara estandarreko edo Gernikako euskararen eragin handiegia hauteman denez, grabazioa errepikatu egin da (...). Gazteen kasuan, ostera, herri horietan Gernika-Lumoko euskararen eragina eta batuarena baieztatu dute bigarren grabazioek eta, beraz, lehenengo grabazioetan bildutako datuen oso antzekoak bildu dira bigarrenetan ere"*. Beti daude zalantzak, ez baita erraza behatzailearen paradoxari ihes egitea ikerketa hauetan. Horiek maila batean saihesteko, herriko eta adin-tarteko hiztun bat baino gehiago elkarrizketatzea egokia izan daiteke, Guy-k proposatzen duen bost hiztuneko kopurua erabiliz (1980, *in* Chambers eta beste 2002: 29) edo, gutxienez, talde bereko bi hiztun elkarrizketatuz.

Gernika-Lumoko alor fonologikoa sakonago aztertu zuen Ensunzak aurretik egindako lanetan (2012, 2014). 100 galdera egin zitzaizkien 63 hiztuni eta hiztunek ezaugarri hauek zituzten: bost adin-taldetan banatu ziren (11-20 urte bitartekoak, 21-30, 31-46, 47-59 eta 60tik gorakoak) eta emakumezkoak eta gizonezkoak ziren (2012: 194). Bost aldagai fonologiko aztertu ziren eta ondorioa garbia da: aldagai horietan hizkuntza asko ari da aldatzen eta faktorerik esanguratsuena adina da: *"izan ere, hizkuntza-aldagai denetan adin-taldeen araberako desberdintasuna nahiko ondo definituta dago"* (Ensunza 2014: 132). Horretan bat egiten dute atal honetan aztergai diren azterketa guztiek.

Generoa ere gizarte-faktore esanguratsua da: hizkerari dagokionez, Gernika-Lumoko gizonezkoak emakumezkoak baino gordetzaileago direla dirudi, eta alderantziz, emakumezkoak berritzaile. Honetan, gure ikerketako emaitzak desberdin dira. Ensunzaren emaitzek mendebaldeko ikerketa-lanetako joerekin egiten dute bat emakumezkoak berritzaileago agertuz. Gurean, ez dugu joera orokorrik aurkitu eta, izatekotan, emakumezkoak gordetzaileago agertu dira. Baliteke aldea hiria (edo herri hazia) eta herri txiki / baserri-eremua izatearekin lotua egotea eta leku bakoitzean joerak desberdin izatea.

Azkenik, ikasketa-zentroaren arabera ere aldea dagoela ikusi da, nahiz eta desberdintasun hori ez izan beti norabide berean: *"ez dago ikasketa-zentro bat erabat berritzaile edo erabat gordetzaile denik; izan ere, aldagai batzuetan ikasketa-zentro batzuk berritzaile ageri dira eta gordetzaile beste batzuetan"* (Ensunza 2014: 137). Baina ikasketa-zentroaren araberako desberdintasuna ere ikusi du, *"oro har, ikastola pribatuetakoak eskola publikoetakoak baino kontserbatzaileago ageri baitira"* (2014: 144).

2.3. atalean esan bezala, aldakortasunari buruzko ikerketak ugaritzen ari dira azkenaldian. Ez dira hemen azaldu haietan esandako guztiak, baina adierazgarriak egin zaizkigun bi lan ekarri ditugu: batetik, Bizkaiko eskualde berean jarraituz, Bermeoko gazteek bertako aditza nola ari diren aldatzen aztertu zuen Hualdek (2000). Berak dio Bermeoko gazteek aditz-sistema guztiz berregituratu dutela eta, ondorioz, *saran* 'zinen', *naien* 'nintzen' gisako adizkiak sortu dituzte iraganerako (adinekoek *sinen*, *nitzen*).

Bestetik, Nafarroaren ekialdean, Ipar Euskal Herriarekin mugan den Luzaideko hizkuntza-aldakortasuna aztertu du Santaziliak (2009). Haren esanetan, euskalkia galtzen ari da

Luzaiden eta egitura eta lexikoaren pobretzea eta euskalkiaren trinkotzea nabarmena da.

Laburtuz, esan dezakeguna da aldaketa Euskal Herri osoan gertatzen ari dela, baina erritmoak desberdinak direla ematen duela leku batean eta bestean. Zehazki, Aurrekoetxearen eta Ensunzaren lanen emaitzak irakurrita, badirudi Arratian eta Busturialdean gehiago aldatu dela hizkera Goierrin, Goizuetan eta Araitz-Betelun baino[63]. Horren arabera, ematen du gehiago ari direla aldatzen euskara batutik urrunago dauden hizkerak (kasu honetan, Bizkaikoak), euskara batutik hurbilago daudenak baino (Gipuzkoa eta Nafarroa ipar-mendebalekoak). Pentsa daiteke euskara estandarraren izaerak paper garrantzitsua betetzen duela tokian tokiko hizkerak mantentzeari edo aldatzeari dagokionez. Euskara batua hizkera jakin batetik oso desberdina baldin bada, badirudi zailagoa dela hori norberaren hizkeran pixkanaka integratzen joatea eta orduan, bat edo beste, bertako hizkera edo batua dikotomia errazago gertatzen dela.

Hipotesi hau hala den jakiteko, beste lekuetan gertatzen ari dena zehatzago ezagutu beharko genuke. Badirudi Zuberoan ere bertako hizkerak euskara batuaren eragin handia duela. Davantek Zuberoan idatzitakoa aztertuta honela esaten du: *“Batuaren eragin nabarmena du gaurko zubererak hiztegian eta grafian, belaunaldi nahiko berrietan bederen”* (1996: 534).

Euskaldunen kopurua ere euskalkia errazago mantentzearekin edo galtzearekin lotua ikusten dugu: alegia, euskara adinekoek nahiz gazteek zenbat eta gutxiago hitz egin, orduan eta errazagoa da hizkera horren berezitasunak galtzea. Nafarroa ipar-mendebaldeko hizkerak aztertzean Apalauzak ere lotura hori ikusi zuen (2010: 127): *"Oro har, euskarak gehien iraun duen herrietan dago gazteen euskara osasuntsuen, eta oraindik ere beren herriko euskararen ezaugarriak gordetzen dituzte gazte batzuek".*

Euskaldunen kopurua oso altua da atal honetan aztertu diren herri gehienetan, baina adibidez, Busturialdeko udalerri handietan, Bermeo eta Gernika-Lumon kopuru horiek apalagoak dira (% 70 ingurukoak). Hori ere sakonago aztertzea interesgarria litzateke.

63 Esan behar da, dena den, ez dela erraza konparaketak egitea: desberdintasunak daude azterketatik azterketara (hizkuntza-aldagaietan, metodologian eta abar) eta hizkuntzaren zati batzuk aztertzen dira, hizkuntza-aldagai zehatz batzuk.

Bestalde, interesgarria da hizkuntza-aldagaien emaitzak hizkuntza-arloka aztertzea. Aurrekoetxearen lanetan, aldagai sintaktikoak dira gehien aldatu direnak. Gure lanean ez dago aldagai sintaktikorik, erabilitako metodologian maiztasun handia duten aldagaiak ikertu ohi direlako eta ez garelako ohartu ba ote den aldakortasunean dagoen ezaugarri sintaktikorik. Dena den, azkenaldian bariazionismoan aldagai sintaktikoak ere aztertzen dira eta ikergai emankorra dira (Haddican eta Plunkett 2010, Erker eta Guy 2012).

Aldatzea kostatzen den zerbait da. Aldatzen bagara, zerbaitetarako da, zerbait hobea lortzeko, adibidez. Bizitzako edozein arlotara ekar dezakegu baieztatze hori, eta baita hizkuntzara ere. Gure hitz egiteko modua aldatzeak kostu bat du eta onura bat lortzeko egiten dugu, modu kontziente edo inkontziente batez. Euskara batua sortzea aldaketa handi bat izan zen eta lan asko egin zen horretarako. Euskara batua gure hizkeraren ordez erabiltzen dugunean, gurea den zerbait (identitatea?) uzten dugu alde batera. Egoera batzutan, errazago ulertzen du solaskideak, ordea. Euskara utzi eta erdara erabiltzen duenak ere gehiago edo gutxiago kostata eginen du aldaketa. Eta beretzat une horretan ona den zerbait lortuko du: adierazkortasuna, publiko zabalagoa, onarpena, anonimotasuna... beharbada.

Arreta deitu nahi izatea edo oharkabean pasa nahi izatea oso desberdina da hitz egiteko garaian ere. Hizkera neutroagoa erabili nahi izanez gero, hizkuntzaren bide batzuk saihestuko ditu hiztunak, eta beste batzuk aukeratuko, eta alderantziz. Helburuaren arabera, hizkuntzaren tresna bat edo beste erabiliko dugu, eta gure hizkerak ematen ez badigu, beste hizkera batera egin daiteke salto, eta baita beste hizkuntza batera ere. Ikerketan beti gabiltza kausak bilatzen eta hori interesgarria bada ere, uste dugu helburuaren edo intentzioaren dimentsio hau kontuan hartzea oso baliagarria dela hizkuntzaren nondik norakoa ulertzeko. Ildo beretik doa Caminoren aipu hau (1998b: 114):

> Kulturari eta hizkuntzari buruz diharduen etnolinguistikaren arabera hizkuntza kultur objektua da (...). Hizkuntz aldaketak termino funtzional eta kulturalen bidez azaldu daitezke soilik, ez inola ere temino kausalen bidez. Hitzen gainbeheran, esaterako, baloreen, ohituren eta erabilpen funtzionalen aldaketak sumatzen ahal ditugu (...). Kultur objektuen azterketak ez

ditu onesten izadiaren munduan gertatzen diren bezalako planteamendu soilki kausalak; planteamendu finalistetan bilatu behar dira azalpenak. Kultur gertakarien arrazoi eta zio nagusia gizakiaren askatasuna da; kultur gertakariok zerbaitetarako sortzen ditu gizakiak.

Normalean txikitik handirako aldaketaz aritzen gara, euskalkitik euskara baturantz edo erdialdekorantz, euskaratik erdarara. Alderantzizko norantzan ere egin daiteke aldaketa, noski, batutik euskalkira, edo erdaratik euskarara. Eta hemen ere berdin, onura bat izan behar du aldaketa egiten duenak, aldaketa egitearen kostua berdinduko duena.

Ikerketa honetan ikusi da hizkerak aldatzen ari direla Euskal Herrian barrena eta aldaketa hori ez doala beti erritmo berean. Aldaketa handiegia den kasuetan mingarria eta dramatikoa izan daiteke. Aldaketa nola gertatzen den ere garrantzitsua da, beraz, eta oreka behar da jarraiduraren eta irekiduraren artean (Sarasua 2013). Bizitzak berekin dakarrena omen da aldaketa, hila dena bakarrik ez omen da aldatzen. Segi dezala gure euskarak denbora luzez aldatzen eta bizitzen.

# 8. LANAREN MUGAK ETA AURRERA BEGIRAKOAK

Azken atal honetan lanean agertu diren mugak azalduko dira, aurrera begirako lanetan horiek kontuan hartzea baliagarri delakoan.

Hizkuntza-aldagaiei dagokienez, batzuetan adibide kopuru txikia eta desorekatua eskuratu dugu analisi estatistiko fidagarriak egin ahal izateko; bereziki, aldagai lexiko batzuen kasuan gertatu da hori. Hori bada gure lanaren mugetako bat.

Bestetik, hizkuntza-ezaugarri gehiago gelditu dira bidean aztertu gabe, esaterako, *izan* eta *eduki* aditzak. Azterlan hau egitean konturatu gara Goizuetan behintzat aditz horiek elkarrekin truka daitezkeela. Adibidez: *'laroei gazta iol EUKITZEN ginittun aurretuk'* edo *'bos behi IZATEN ginittun'*. Bi adibideotan *eduki* nahiz *izan* aditzak, bietako edozein erabil daiteke esaldiari esanahia aldatu gabe. Ez dakiguna da bakoitza zein eremutan erabiltzen den eta eremu horiek dialektologikoki bereizketarik egiten ote duten, ekialdean *izan,* mendebaldean *eduki*, adibidez.

Hizkuntzaren aldaketa aztertzeko garaian, bada zerbait adineko eta gazteen hizkera nabarmen bereizten dituena: bokalak ahoskatzeko modua, eta tonua, azentua. Diferentzia dago bai Goizuetan eta bai Araitz-Betelun, adinekoek eta gazteek duten ahoskeran eta azentuan. Aldaketa hori Euskal Herrian orokorra dela esanen genuke, batuaren eta, beharbada, gaztelaniaren (Hegoaldean) eta frantsesaren (Iparraldean) eraginez gertatzen dena. Orokortasun hori zehazten saiatu ginen Goizuetako azterketarekin hasi ginenean eta zaila egin zitzaigun aldaketa hori nola neurtu asmatzea. Gainera, gutxitan antzeman genituen azentu aldaketa nabariak eta estatistikoki aztertzeko maiztasun gutxi izango zutela pentsatu genuen. Araitz-Betelun are zailagoa zen guretzat diferentzia horiek sumatzea. Azentua aztertuz hasi zen ikerketa-ibilbide hau (Lujanbio 2013), baina bidean gelditu da (azentuaren gaiaz gehiago jakiteko lan hauek irakur daitezke: Hualde 1994 eta 1997, Elordieta eta beste 1998, Gaminde 1998). Beraz, ez dugu asmatu aldaketa ezaugarri guztietan neurtzen eta gure inpresioa da kontuan hartu ez dugun aldaketa badagoela, oro har.

Gizarte-eragileei dagokienez, batzuk elkarrekin korrelazionatuak daudela ikusi eta azaldu dugu lanean: *adina, ikasketa-maila* eta *erdialdeko euskaldunekin harreman-maila* gizarte-eragileekin gertatu da hori. Bestalde, hasiera batean aztertu nahi izan diren gizarte-eragile batzuk, azkenean ezin izan dira nahi bezala aztertu, estatistikarekin egiten ez dugulako asmatu batzuetan, eta denbora gehiago beharko genukeelako besteetan; estatistikaren nahiz geure mugengatik, azken batean. Goizuetan azkenean aztertu gabe gelditu diren eragileak dira Goizuetan bizitzeko nahia, kanpoko elkarrizketa-egilea, besteak beste; Araitz-Betelun elkarrizketa-egilea. Horrekin lotuta, Araitz-Betelun beti elkarrizketa-egile bakarra ez erabiltzeak ez dakigu zenbaterainoko eragina izan duen. Hori bada gure lanaren mugetako bat.

Gizarte-eragile garrantzitsuetako bat da adina eta erdiko belaunaldia askotan espero baino berritzaileago agertu da. Sakonago aztertzekoa da, kontuan hartuta Euskal Herrian egin diren beste ikerketa batzuetan ere antzeko joera sumatzen dela (Haddican 2005).

Arlo honetan ohikoa den bezala, ikerketa honetan ere ezin izan da *behatzailearen paradoxa* saihestu: Araitz-Betelun nahiz Goizuetan gure grabazioetako corpusean ikusitakotik atera dira emaitzak eta ondorioak. Grabazioak edo elkarrizketa-egileak eragindakoak hemen daude, ez baita berdin mikrofono baten edo ezezagun baten aurrean hitz egitea, edo mikrofonorik gabe eta lagunarekin mintzatzea. Egoera horiek bereziki hiztunarentzat markatuak edo enblematikoak diren hitzetan eragiten duela uste dugu; ikerketan zehar batzuetan iruditu zaigu hiztunak ez duela berdin jokatzen beretzat hizkuntza-aldagai bat markatua denean eta ez denean. Zaila da beti horretaz ohartzea, baina ikerketak sortzen duen egoera nahigabe berezi horretan, uste dugu ezaugarri batzuk mikrofono edo ezezagunik gabe erabiliko ez zituzketen moduan erabili dituztela hiztunek.

Estatistika da lan honen osagai nagusietako bat. Asko ikasi dugun arren, estatistika ez dugu menperatzen eta askotan mugatuak sentitu gara. Dena den, tresna baliagarria iruditzen zaigu aldaketan ari diren hizkerak aztertzean argia egiteko.

Era berean, erabilitako metodologiaren bidez maiztasun handiko ezaugarriak bakarrik azter daitezkeenez, udalerri bakoitzerako argazki oso bat ezin izan da egin. Hala ere, beste herrietan azterketak eginez gero, joera diferenteak ikusteko eta bakoitzaren arrazoietan sakontzeko aukera aukera dagoelakoan gaude.

Udalerri euskaldun batzuetan egindako azterketa izan da hau. Hurrengo pausoa izango litzateke galdetzea zer ari den gertatzen beste herrietan, euskaldunetan eta hain euskaldunak ez direnetan, beste euskalki batzuk dituztenetan, eta abar. Ondorengo lanetarako helduleku baliagarria baldin bada honakoa, pozik gara.

# BIBLIOGRAFIA


AMORRORTU, Estibaliz. 2000. *Linguistic attitudes in the Basque Country: The social acceptance of a new variety.* UMI: University of Southern California.

AMORRORTU, Estibaliz. 2001. "Unibertsitate-ikasleen euskalki eta batuarekiko jarrerak". In BARRUSO, Ane eta beste. *Euskalkia eta hezkuntza*: 61-81. Bilbo: Mendebalde Kultur Elkartea.

AMORRORTU, Estibaliz. 2003. "Hizkuntza aldakortasuna eta identitatea". In GAMINDE, Iñaki; GOIKOETXEA, Juan Luis; SARRIUGARTE, Iñaki (arg.). *Ahozkotasuna aztergai*. Bilbao: Mendebalde Kultura Alkartea (157-167. or.).

APALAUZA, Amaia. 2010. *Nafarroako ipar-mendebaleko hizkeren egitura geolinguistikoa*. Doktore-tesi argitaratu gabea.

APALAUZA, Amaia. 2012. *Nafarroako ipar-mendebaleko hizkeren egitura geolinguistikoa*. Iruña: Nafarroako Gobernua; Bilbo: Euskaltzaindia.

ARIZTIMUÑO, Borja. 2010. "Tolosako eta Ataungo hizkerak. Hizkuntz bariazioa eta konbergentzia-joerak". *Uztaro* 72: 79-96.

AURREKOETXEA, Gotzon. 1995. *Bizkaieraren egituraketa geolinguistikoa*. Leioa: Argitarapen Zerbitzua, Euskal Herriko Unibertsitatea.

AURREKOETXEA, Gotzon. 2004. "Estandar eta dialektoen arteko bateratze-joerak (ikuspuntu teorikotik begirada bat)". *Uztaro* 50: 45-57.

AURREKOETXEA, Gotzon. 2006. "Hizkuntza estandarraren eta dialektoen arteko bateratze joerak". *ASJU* 40-1/2: 133-160.

AURREKOETXEA, Gotzon. 2008. "Bariazio soziolinguistikoa Dimako euskaran". *Euskalingua* 12: 17-26.

AURREKOETXEA, Gotzon. 2009. "Bariazio sinkronikoak aztertzeko metodologiak". *Lapurdum* XIII: 43-59.

AURREKOETXEA, Gotzon; ORMAETXEA, Jose Luis. 2006. *Euskararen atlas sozio-geolinguistikoa ikerketa-proiektua*. Bilbo: Euskalingua, Mendebalde Kultura Elkartea.

AZURMENDI, M.J.; MARTINEZ DE LUNA, I. 2011. "Success-failure continuum of Euskara in the Basque Country". In FISHMAN, J.A.; O. GARCIA. *Handbook of language and ethnic identity*. New York: Oxford University Press (323-335. or).

BAAYEN, R.H. 2008. *Analyzing linguistic data. A practical introduction to statistics using R*. Cambridge: Cambridge University Press.

BENGOETXEA, Xabier. 2012. “Arnasguneak. Ezaugarriak. Zenbait arnasguneren egoeraren behaketa”. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 85: 75-121.

BOERSMA, P.; D. WEENINK. 2009. *Praat: doing phonetics by computer (Version 5.1) [Computer program]*. http: //www.praat.org/ [2010eko urrian webgunetik jaitsia].

BORREGO, Julio. 1981. *Sociolingüística rural. Investigación en Villadepera de Sayago*. Salamanca: Universidad de Salamanca.

CALERO, Mª Angeles. 1993. *Estudio sociolingüístico del habla de Toledo*. Lleida: Universitat de Lleida.

CAMINO, Iñaki. 1997. *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.

CAMINO, Iñaki (arg.). 1998a. *Nafarroako hizkerak: Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardunaldietako agiriak, Iruñea, 1997ko azaroa (24-28)*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.

CAMINO, Iñaki. 1998b. “Zer dago dialektologiaren gibelean?”. In CAMINO, Iñaki (arg.). *Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardunaldietako Agiriak*. Bilbao: Udako Euskal Unibertsitatea (111-145. or.).

CAMINO, Iñaki. 2004. *Hego-nafarrera*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.

CAMINO, Iñaki. 2009a. *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*. Donostia: Elkar.

CAMINO, Iñaki. 2009b. “Hizkuntza-aldakortasunari Amiküzetik so”. *Lapurdum* XIII: 61-80.

CEDERGREN, H.; D. SANKOFF. 1974. “Variable rules: Performance as a statistical reflection of competence”. *Language* 50-2: 333-355.

CHAMBERS, J. K. 2003. *Sociolinguistic Theory: Linguistic Variation and Its Social Significance.* Oxford, UK; Cambridge, US: Blackwell.

CHAMBERS, J. K.; TRUDGILL, Peter; SCHILLING-ESTES, Natalie. 2002. *The handbook of language variation and change*. Oxford: Blackwell.

COULMAS, Florian. 2005. *Sociolinguistics. The study of speakers' choice.* New York: Cambridge University Press.

DALESZYNSKA, Agata. "Analysing linguistic variation with Rbrul – a step-by-step guide". http://www.danielezrajohnson.com/daleszynska_rbrul.pdf [2015eko martxoan erabilia].

DAVANT, J.L. 1996. "Euskalkien eta euskara batuaren arteko harremana nolakoa den Iparraldean". *Euskera* 41-3: 531-539.

ECKERT, Penelope. 2000. *Linguistic Variation as Social Practice*. Malden Mass: Blackwell.

ELORDIETA, Gorka; GAMINDE, Iñaki; HUALDE, José Ignacio.1998. "Euskal azentua gaur eta bihar". *Euskera* 43-2: 399-423.

ENSUNZA, Ariane. 2012. "Gernika-Lumoko euskararen aldakortasuna: aldagai fonetiko zenbait". *ASJU* 46-2: 177-244.

ENSUNZA, Ariane. 2014. "Gernika-Lumoko euskararen aldakortasuna: aldagai fonetiko zenbait". *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 90: 123-149.

ENSUNZA, Ariane. 2015. *Busturialdeko euskararen hizkuntza-aldakortasuna denboran eta espazioan*. Doktore-tesi argitaratu gabea.

EPELDE, I.; OYHARÇABAL, B. 2010. "Perpaus barneko hizkuntza lerratzeak (HL) ekialdeko euskal elebidunetan". *ASJUren gehigarriak* 52: 55-64.

ERIZE, Xabier. 1997. *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa (1863-1936): soziolinguistika historikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.

ERKER, Daniel; Gregory R. GUY. 2012. "The role of lexical frequency in syntactic variability: Variable subject personal pronoun expression in Spanish". *Language* 88-3: 526-557.

ETXABE, Karmele. 2010. "Kode alternantzia lagunarteko gazte hizkeran. Zaldibia eta Ordiziako kasuak". HIZNET graduondoko sakontze-egitasmoa.

ETXABE, Karmele; GARMENDIA, Larraitz. 2003. *Zaldibiako euskara: bertako bizimodua, ohiturak eta pasadizoak*. Zaldibia: Zaldibiako Udala.

ETXEBARRIA, Maitena. 1985. *Sociolingüística urbana: el habla de Bilbao*. Salamanca: Universidad de Salamanca; Deusto.

ETXEBARRIA, Maitena. 2000. *Variación sociolingüística en una comunidad bilingüe*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

ECHEVERRIA, Begoña. 2000. *Basque Schooling: What is it Good For?* Doktore-tesia. UCSD.

EUSKALTZAINDIA. 1979. “Euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak”. *Euskera* 24: 103-106.

EUSKALTZAINDIA. 1995. "Euskalkien erabilera Administrazioko 1. eta 2. hizkuntz eskakizunetan". *Euskera* 40: 1019-1024.

FIELD, Andy; MILES, Jeremy; FIELD, Zoë. 2012. *Discovering Statistics Using R*. London: Sage.

FISHMAN, Joshua A. 1988. *Sociología del lenguaje*. Madril: Cátedra.

FRAILE, Idoia; FRAILE, Ainhoa. 1996. *Oiartzungo hizkera*. Oiartzun: Oiartzungo Udala, Kultura Batzordea.

GAMINDE, Iñaki. 1998. *Euskaldunen azentuak*. Bilbao: Labayru Ikastegia.

GAMINDE, Iñaki eta A. ROMERO. 2011. “Generoa eta adina Bermeoko berbaldiaren fonemen eta hotsen frekuentzian”. *FLV* 113: 115-138.

GAMINDE, Iñaki; A. ROMERO; H. LEGARRA. 2012. *Gramatika eta hizkuntza bariazioa Bermeon*. Bermeo: Bermeoko Udala.

GAMINDE, Iñaki. 2003. “Mungialdeko herskarien eta afrikatuen txandaketaz”. *Euskalingua* 2: 10-17.

GAMINDE, Iñaki. 2009. “Hiztunen generoaren eta adinaren pertzepzioaz”. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 71: 151-164.

GAMINDE, Iñaki. 2010. "Bilboko gazte euskaldunen ezaugarri linguistikoez". In *Bilbon Mundua Ikusi. XIV. jardunaldiak*. Bilbo: Mendebaldeko Euskal Kultur Alkartea (35-59. or.).

GAMINDE, Iñaki; A. ROMERO. 2011. “Generoa eta adina Bermeoko berbaldiaren fonemen eta hotsen frekuentzian”. *FLV* 113: 115-138.

GAMINDE, Iñaki; A. ROMERO; H. LEGARRA. 2012. *Gramatika eta hizkuntza bariazioa Bermeon*. Bermeo: Bermeoko Udala.

GANDARIAS, Leire. 2012. “Azentu bariazio soziogeolinguistikorako lehen hurbilpena Kortezubin, Lekarotzen eta Tolosan”. HIZNET graduondoko sakontze-egitasmoa.

GARMENDIA, Larraitz. 2001a. “Soziolinguistikaren inguruko hainbat kezka: metodoen ezaguera”. UPV-EHUko ikergaitasun-lana. Tesina argitaratu gabea.

GARMENDIA, Larraitz. 2001b. “Zaldibiako hizkeraren azterketa soziolinguistikoa”. UPV-EHUko ikergaitasun-lana. Tesina argitaratu gabea.

GARMENDIA, Larraitz; ETXABE, Karmele. 2004. *Ordiziako euskara: garai bateko bizimodua eta gaurko euskara.* Ordizia: Ordiziako Udala.

GARMENDIA, Larraitz. 2008. “Hizkuntza aldakortasuna Zaldibiako euskaran: ikuspegi soziolinguistikoa”. In *Euskalgintza XXI. mendeari buruz. Euskaltzaindiaren nazioarteko XV. Biltzarra, 2001.* Bilbo: Euskaltzaindia (1-2. or.).

GONZALEZ FERRERO, J. C. 1991. *La estratificación lingüística de una comunidad semiurbana: Toro (Zamora)*. Salamanca: Universidad de Salamanca.

GUY, Gregory R. 1980. "Variation in the group and the individual: The case of final stop deletion." In LABOV, William (arg.) *Locating language in time and space.* New York: Academic Press: 1-36.

HADDICAN, Bill. 2003. “Dialect Contact in a Southern Basque Town”. *Language Variation and Change* 15(1): 1-35.

HADDICAN, William F. 2005. *Aspects of language variation and change in contemporary Basque*. Doktore-tesi argitaratu gabea.

HADDICAN, Bill. 2007. “Suburbanization and language change in Basque”. *Language in Society* 36: 677-706.

HADDICAN, Bill; Bernadette PLUNKETT. 2010. “Formalising syntactic variability in contemporary theory: context and issues”. *Lingua* 120: 1057-1061.

HOLMQUIST, Jonathan. 1985. “Social correlates of a linguistic variable: a study in a Spanish village”. *Language in Society* 14: 191-203.

HUALDE, José Ignacio. 1991. *Basque phonology*. London: Routledge.

HUALDE, José Ignacio. 1994. “Euskal azentuak eta euskara batua”. *Euskera* 39: 1549-1568.

HUALDE, José Ignacio. 1997. *Euskararen azentuerak*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

HUALDE, José Ignacio. 2000. “Bizkaiko kostaldeko hizkerak atzo, gaur eta bihar”. In ZUAZO, Koldo. (arg.) *Dialektologia gaiak* (12-25. or.).

HUALDE, José Ignacio; LUJANBIO, Oihana. 2008. “Goizuetako azentuera”. In ARTIAGOITIA, Xabier; LAKARRA, Joseba A. (arg.). *Gramatika jaietan: Patxi Goenagaren omenez*. EHUko Argitalpen Zerbitzua (341-358. or.).

HUALDE, José Ignacio; LUJANBIO, Oihana; TORREIRA, Francisco. 2008. “Lexical tone and stress in Goizueta Basque”. *Journal of the International Phonetic Association* 38: 1-24.

HUALDE, José Ignacio; LUJANBIO, Oihana. 2009. “Goizuetako azentuaz zerbait gehiago: oharmena”. In GOMEZ, R.; ETXEPARE, R.; LAKARRA, J.A. *Beñat Oihartzabali gorazarre - Festchrift for Bernard Oyharçabal*. *ASJU* 43-1/2: 485-502.

HUALDE, Jose Ignacio; LUJANBIO, Oihana; ZUBIRI, Juan Joxe. 2010. “Goizueta Basque”. *Journal of the International Phonetic Association* 40: 113-128.

IBARRA, Orreaga. 1994. *Ultzamako hizkera: inguruko euskalkiekiko harremanak.* Iruñea: Nafarroako Gobernua.

IBARRA, Orreaga. 1997. *Ultzamako hizkera: Ultzama, Anue, Atetz, Basaburu Nagusia, Imotz, Odieta eta Lantz.* Lekunberri: Plazaola Partzuergo Turistikoa.

IBARRA, Orreaga. 2000. *Erroibarko eta Esteribarko hizkera*. Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

IBARRA, Orreaga. 2006. “Hiru hizkuntzaren arteko ukipena: frantsesa, gaztelania, euskara, Piriniotako ibar batean”. *Oihenart. Cuadernos de lengua y literatura* 21: 179-193.

IBARRA, Orreaga. 2008a. “Apuntes sobre interferencia castellano-vasca en el lenguaje juvenil actual: léxico, calcos y transferencia lingüística”. *Oihenart. Cuadernos de lengua y literatura* 23: 219-240.

IBARRA, Orreaga. 2008b. “Alternancia lingüística en el euskera coloquial de los jóvenes vascoparlantes navarros: algunas razones para su uso”. *I. Congreso Internacional de Interacción Comunicativa y Enseñanza de Lenguas* biltzarrean aurkeztutako komunikazioa. Valentzia, 2008ko irailaren 18-20.

IBARRA, Orreaga. 2011. *Nafar euskaldun gazteen ahozko diskurtsoa.* Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

INTZA, Damaso. 1921. “Naparro'ko aditz-laguntzallea zuketazko esakeran”. *Euskera* II: 3-35 eta *Euskera* III: 65-92.

JAUREGI, Oroitz; EPELDE, Irantzu. 2013 (agertzeke). “Hasperenaren galera iparraldeko euskaran”. In GÓMEZ, Ricardo; Joaquín GORROCHATEGUI; Joseba A. LAKARRA; Céline MOUNOLE (arg.). *3rd Conference of the Luis Michelena Chair - Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra - III Congreso de la Cátedra Luis Michelena ("Koldo Mitxelena" Katedraren Argitalpenak, 5)*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHUren Argitalpen Zerbitzua.

JOHNSON, Daniel Ezra. 2009. "Getting off the GoldVarb standard: Introducing for mixed-effects variable rule analysis". *Language and Linguistics Compass* 3-1: 359-383.

JONSHON, Daniel Ezra. 2010. “Rbrul manual”. http://www.danielezrajohnson.com/Rbrul_manual.html

JUARISTI LARRINAGA, Patxi. 2003. *Gizarte ikerketarako teknikak*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

KOERNER, K. 1991. “Toward a history of modern sociolinguistics”. *American Speech* 66-1: 57-70.

LABOV, William. 1963. “The social motivation of a sound change”. *Word* 19: 273-309.

LABOV, William. 1966. *The Social Stratification of English in New York City*. Washington, DC: Center for Applied Linguistics.

LABOV, William. 1972a. *Sociolinguistic Patterns*. Philadelphia: University of Pennsylvania Press.

LABOV, William. 1972b. "Some principles of linguistic methodology". *Language in Society* 1: 97-120.

LABOV, William. 1990. “The intersection of sex and social class in the course of linguistic change”. *Language Variation and Change* 2: 205-254.

LABOV, William. 2001. *Principles of linguistic change: social factors. Volume 2*. Malden eta Oxford: Blackwell.

LANTTO, Hanna. 2012. “Code-switching, swearing and slang: The colloquial register of Basque in Greater Bilbao”. *International Journal of Bilingualism* 0-0: 1-16. [DOI: 10.1177/1367006912457274]

LANTTO, Hanna. 2015. “Conventionalized code-switching: Entrenched semantic-pragmatic patterns of a bilingual Basque–Spanish speech style”. *International Journal of Bilingualism* 19-6: 753-768.

LÓPEZ MORALES, H. 1983. *Estratificación social del español de San Juan de Puerto Rico*. México: UNAM.

LUJANBIO, Oihana. 2012. “Hizkuntza-aldakortasuna Goizuetako euskaran”. *Uztaro* 80: 77-97.

LUJANBIO, Oihana. 2013 (agertzeko). "Goizuetako azentu-hiztegia". *ASJU* 48-2: 1-86.

LUJANBIO, Oihana. 2014. “Hizkuntza-aldakortasuna Goizuetako euskaran: emaitza gehiago”. In ADURIZ, Itziar; URIZAR, Ruben (arg.). *Euskal hizkuntzalaritzaren egungo zenbait ikerlerro.* Eibar: UEU.

MARTÍNEZ, F. M. 1983. *Fonética y sociolingüística en la ciudad de Burgos*. Madril: CSIC.

MARTÍNEZ DE LUNA, Iñaki; Pablo SUBERBIOLA; Asier BASURTO. 2009. *Ikasleen eskola-giroko hizkuntza-erabileraren azterketa. Arrue programa: 2003-04 ikasturtetik 2006-07 ikasturtera egindako azterketa-lana.* Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

MATSUDA, M. J. 1991. “Voices of America: Accent, antidiscrimination law, and a jurisprudence for the last reconstruction”. *The Yale Law Journal* 100: 1329-1407. [DOI: 10.2307/796694]

MILROY, James. 1992. *Linguistic variation & change*. Oxford: Blacwell.

MILROY, Lesley; Matthew GORDON. 2003. *Sociolinguistics. Method and interpretation*. Oxford: Blackwell.

MORENO FERNÁNDEZ, Francisco. 1990. *Metodología sociolingüística*. Madrid: Gredos.

MORENO FERNÁNDEZ, Francisco. 1994. "Sociolingüística, estadística e informática". *Lingüística* 6: 95-154.

MOYA, J. A.; E. J. GARCÍA, 1995. *El habla de Granada y sus barrios*. Granada: Universidad de Granada.

MUÑOA, Inma. 2002. “Zergaitik eta zertarako erabiltzen ditugu euskara eta gaztelera solasaldi berean?”. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 42: 53-63.

ORMAETXEA, Txipi. 2002. *Aramaioko euskara*. Aramaio: Aramaioko Udala.

ORMAETXEA, Jose Luis. 2006. *Aramaioko Euskara (azterketa dialektologikoa)*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

ORMAETXEA, Jose Luis. 2008. “Otxandioko hizkera: adinaren araberako bariazioa”. *FLV* 108: 249-262.

PAOLILLO, J.C. 2002. *Analyzing linguistic variation. Statistical models and methods*. Standford: CSLI Publications.

PÉREZ LANDA, Edurne. 2006. “Bokal-elkarketak beratarren hizkeran”. *Uztaro* 57: 49-64.

PERISSINOTTO, G. 1975. *Fonología del español hablado en la ciudad de México: Ensayo de un método sociolingüístico*. México: El Colegio de México.

POPLACK, Shana. 1980. “Sometimes I'll start a sentence in Spanish Y TERMINO EN ESPAÑOL: toward a tipology of code-switching”. *Linguistics* 18: 581-618.

REKALDE, Paskual; IÑIGO, Patxi. 2004. “Euskara batua eta euskalkiak Nafarroako administrazioan eta hezkuntzan: inkesta baten emaitzak, kezkak eta ondorioak”. *Euskera* 49-1: 115-200.

RODRIGUEZ-ORDOÑEZ, Itxaso. 2013. “Contact-induced phenomena in Gernika Basque: the case of dative over-marking”. *Selected Proceedings of the 15th Hispanic Linguistics Symposium*. Somerville, MA: Cascadilla Press (236-251. or.).

SAGARZAZU, Txomin. 2005. *Hondarribiko eta Irungo euskara*. Irun: Alberdania.

SAMPER, J. A. 1990. *Estudio sociolingüístico del español de Las Palmas de Gran Canaria*. Las Palmas de Gran Canaria: Caja de Canarias.

SANKOFF, David. 1988. “Sociolinguistics and syntactic variation”. In NEWMEYER, F.J. (arg.). *Linguistics: the Cambridge survey.* Cambridge: Cambridge University Press (4. liburukia: 140-161. or.).

SANKOFF, Gillian (arg). 1980. *The social life of language*. Philadelphia: University of Pennsylvania Press.

SANTAZILIA, Ekaitz. 2009. “Luzaideko hizkuntz bariazioa”. *FLV* 111: 219-248.

SARASUA, Jon. 2013. *Hiztunpolisa. Euskaltasunaren norabideaz apunteak*. Iruñea: Pamiela.

TAGLIAMONTE, Sali A. 2006. *Analysing sociolinguistic variation*. Cambridge: Cambridge University Press.

TAGLIAMONTE, Sali A. 2012. *Variationist sociolinguistics: change, observation, interpretation*. Malden, MA: Wiley-Blackwell.

TAGLIAMONTE, Sali A.; BAAYEN, R.H. 2012. “Models, forests and trees of York English: *Was / were* variation as a case study for statistical practice”. *Language variation and change* 24-2: 135-178.

TRUDGILL, Peter. 1974. *The social differentiation of English in Norwich.* Cambridge: Cambridge University Press.

TRUDGILL, Peter. 2002. *Sociolinguistic Variation and Change*. Edinburgh: Edinburgh University Press.

UNAMUNO, Lorea. 2010. “Adinaren araberako bariazioa Gizaburuagako hizkeran”. *Euskalingua* 16: 41-48.

URIA, Larraitz. 2009. *Euskarazko erroreen eta desbideratzeen analisirako lan-ingurunea. Determinatzaile erroreen azterketa eta prozesamendua*. Doktore-tesi argitaratu gabea.

URLA, Jaqueline. 1987. *Being Basque, speaking Basque: The politics of language and identity in the Basque Country.* University of California: Berkeley.

URLA, Jaqueline. 1993. “Contesting modernities: language standardization and the production of an ancient/modern Basque culture”. *Critique of Anthropology* 13: 101-118.

URLA, Jaqueline. 1995. “Outlaw language: creating alternative public spheres in Basque radical youth culture”. *Pragmatics* 5: 245-262.

VILLENA, Juan Andrés. 2001. *La continuidad del cambio lingüístico: tendencias conservadoras e innovadoras en la fonología del español a la luz de la investigación sociolingüística urbana*. Granada: Universidad de Granada.

WOLFRAM, W. 1993. “Identifying and interpreting variables”. In PRESTON, D. (arg.). *American dialect research.* Amsterdam; Philadelphia: John Benjamins (193-221. or.).

WOLFRAM, W.; SCHILLING-ESTES, N. 2006. *American English.* Malden eta Oxford: Blackwell.

WOOLARD, K.A. 1985. "Language variation and cultural hegemony: toward an integration of sociolinguistic and social theory". *American Ethnologist* 12-4: 738-748.

ZARRAGA, Arkaitz eta beste. 2010. *Soziolinguistika Eskuliburua*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza; Soziolinguistika Klusterra.

ZELAIETA, Edu. 2008. *Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa*. Iruñea: Nafarroako Gobernua; Bilbo: Euskaltzaindia.

ZUAZO, Koldo. 1997. “Oiartzungo hizkeraren kokagunea”. *FLV* 76: 397-426.

ZUAZO, Koldo. 1998a. “Nafarroako euskal hizkerak”. In CAMINO, Iñaki (arg.). *Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardunaldietako Agiriak.* Bilbao: Udako Euskal Unibertsitatea (1-22. or.).

ZUAZO, Koldo. 1998b. “Euskalkien mapa”. In CAMINO, Iñaki (arg.). *Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardunaldietako Agiriak*. Bilbao: Udako Euskal Unibertsitatea (22. or.).

ZUAZO, Koldo. 1998c. “Euskalkiak, gaur”. *FLV* 78: 191-233.

ZUAZO, Koldo. 2000. *Euskararen sendabelarrak*. Irun: Alberdania.

ZUAZO, Koldo. 2001. “Ohar zenbait euskara normaltze aldera”. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 40: 69-72.

ZUAZO, Koldo. 2005. *Euskara batua: ezina ekinez egina*. Donostia: Elkar.

ZUAZO, Koldo. 2008. *Euskalkiak: euskararen dialektoak*. Donostia: Elkar.

ZUAZO, Koldo. 2012. *Arabako euskara*. Donostia: Elkar.

ZUAZO, Koldo. 2013. *Mailopeko euskara*. Bilbo: UPV/EHUren Argitalpen Zerbitzua.

ZUAZO, Koldo. 2014. *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.

ZUBILAGA, Haizea; Iñaki GAMINDE. 2010. “/t/ren palatalizazioa Lekeitioko euskaran”. *Ikastorratza* 3: 1-9.

ZUBIRI, Juan Joxe; PERURENA, Patziku. 1998. *Goizueta eta Aranoko hizkerak*. Iruñea: Nafarroako Gobernua; Goizuetako eta Aranoko Udalak.

ZUBIRI, Juan Joxe. 2000. “Arano eta Goizuetako hizkera”. In ZUAZO, Koldo (arg.) *Dialektologia gaiak.* Gasteiz: Arabako Foru Aldundia (85-120. or.).

# ERANSKINAK

## 1. ERANSKINA:
## Kodetzearen adibide bat: *ea1* hiztunak aferesia nola erabili duen

| AFERESIA | AditzaIzena | AurretikBokalKonts | | ESALDIA |
|---|---|---|---|---|
| EZ | ekarri | kontsonantea | 43 | tzizuten, ekarri... Bueno |
| EZ | emakume | bokala | 15 | nere edadeko emakumek, baserrin |
| EZ | eman | kontsonantea | 19 | giñan klasek emattera. Eta arraselden |
| EZ | eman | kontsonantea | 41 | tzian, notak ematten zittuzten |
| EZ | eman | kontsonantea | 88 | zera bat ematten dute. |
| BAI | eman | bokala | 80 | paiaso matten do,, ta |
| BAI | esan | bokala | 17 | in tzun, eta san nahi dizut |
| BAI | esan | kontsonantea | 19 | libre", oain saten den bezala |
| BAI | esan | bokala | 25 | Ni saten nun: ni ze |
| BAI | esan | bokala | 33 | .., ta san tzuten, bueno |
| BAI | esan | bokala | 35 | bezela sango dizut, bukatu |
| BAI | esan | kontsonantea | 37 | Eta in tzian san (11:00): "Aittu |
| BAI | esan | bokala | 41 | Bueno, sango dizut, lehemiziko |
| BAI | esan | bokala | 41 | Irunera, san dizut, Batxillergo |
| BAI | esan | kontsonantea | 45 | Irakaslek, san dizut, denak |
| BAI | esan | bokala | 48 | leheno san dizuana. Tipo |
| BAI | esan | kontsonantea | 48 | zuzendarik saten zian: "Pero |
| BAI | esan | bokala | 48 | puedo". Beti saten niten: "Yo |
| BAI | esan | kontsonantea | 52 | ,. Pues saten dizut, hiruroita |
| BAI | esan | bokala | 72 | bat o, satetikan ez? Hora |
| BAI | esan | bokala | 80 | o bueno. Eta saten dut, eta |
| BAI | esan | kontsonantea | 90 | .. bestek saten ai dia. Osea |
| BAI | esan | kontsonantea | 90 | duanen, sango da bai, eskerrak |
| BAI | esan | kontsonantea | 96 | harrek saten ttiu gauz |
| EZ | etorri | bokala | 37 | Eta etorri zen diputazioko |
| EZ | etorri | bokala | 48 | Goizutara re etorri zen zea |
| BAI | etorri | bokala | 15 | gutxio tortzen dia, gutxi |
| BAI | etorri | kontsonantea | 15 | gutxi xamar tortzen dia [elektrogailu |
| BAI | etorri | bokala | 25 | nunen yon ta torrin ibiltzeko |
| BAI | etorri | bokala | 25 | gisa, bado torre bat hola |
| BAI | etorri | bokala | 25 | eta torri re bueltan |
| BAI | etorri | kontsonantea | 25 | ta harrekin torri. Ta beti |
| EZ | ibili | kontsonantea | 25 | ta torrin ibiltzeko ta ordun |
| EZ | ikusi | kontsonantea | 13 | nik ikusten ttut iual |
| EZ | ikusi | kontsonantea | 15 | oain ikusten ttut nere |
| EZ | ikusi | kontsonantea | 80 | bat ikusten duana, |
| BAI | ikusi | bokala | 33 | lanen, miño kusi zutenen.. |
| BAI | ikusi | bokala | 68 | )//Telebista kusten dut,, bi |
| BAI | ikusi | kontsonantea | 76 | euskaraz kusten ttu. Beste |
| EZ | izan | kontsonantea | 11 | bakotxak izango tto bere |
| EZ | izan | bokala | 11 | lotura izango dula, auzokidek |
| EZ | izan | kontsonantea | 11 | auzokidek izango dute ba |
| EZ | izan | bokala | 25 | ez nun monja izan nahi! Ta, |
| EZ | izan | kontsonantea | 27 | yomar izandu giñun Zaragozako |
| BAI | izan | kontsonantea | 17 | bat zango zun ta in |
| BAI | izan | bokala | 25 | konturatu zango, miño da |

## 2. ERANSKINA: transkripzio irizpideak

Hauek dira gure lanean transkribapenak egiteko garaian jarraitu ditugun irizpideak (Etxabe 2010: 29-30):

- Gaia edo testuinguruaren azalpenak: batuan eta parentesi artean.
- Zerbait entzuten ez bada, [XXX] markatuko dugu.
- H euskara batuan agertzen denetan agertuko da.
- Transkribatu gabeko zatiak honela adieraziko ditugu: (...)
- -n + b > m: *kaskarrekomat* " kaskarrekoren bat", *balimazea* "baldin bazara"
- ERE beti bereizita, edozein dela ere forma: *re, e* (*oaiñ e, Josune re)*
- EZEZKOAK elkartuta idatziko ditugu (*ezto* "ez du", *ezkea* "ez gara"). Baina aldaketa fonetikorik gabekoak bereizita (*ez gendun, ez giñen*).
- ETA kopulatiboa bereizita, edozein delarik ere forma: *a, da, ta, eta* (*Josu ta Katrin, Katrin da ni)*. Baina multzoa adierazi nahi duenean, edota menpeko kausalak egiteko partikula denean, marratxoarekin (*amak-eta oi esan tzuen*).
- ADIZKI PERIFRASTIKOAK apostrofearekin idatziko ditugu aldaketa fonetikoren bat baldin badago edo hizkiren bat galdu bada: *esate'o, ezautu'et, itte'o, erretze'izu*. Salbuespenak izango dira: *ustet, ikustet*...( e + det > et).
- N galtzean argi ulertzen bada, bereizita eta beste ezer gabe (*esate gendun, ikuste zan*). Bestela, "n" kortxete artean jarriko dugu (*ju[n] nitzen, i[n] non, iza[n] nitzen*).
- *n + b, p > n: inportante, kanpon, hainbeste*... Inoiz ez da euskaraz ingurune horretan "n" ahoskatzen, "m" baizik, baina idazkera batuan horrela erabakita dago eta horri eutsiko diogu.
- OMEN eta bere aldaerak (*men, emen*) bereizita idatziko ditugu: *ikusi men do, etorri emen tzan.*
- BAT zenbatzailea bereizita idatziko dugu: *pare aten*... Salbuespena *majiñat* "makina bat" izango da.
- GABE eta bere aldaerak (*be, pe*) bereizita idatziko ditugu (*etorri be*).
- Hitzak elkartzen direnean aldaketa fonetikoa dagoenean eta esanahia ulertzea zaila denean, kortxetea jarriko dugu: *gu[k] tauku* "guk daukagu", *aundi[k] tie* "handiak dira", *eztai[t] pa* "ez dakit bada".
- BUSTIDURA adierazi egingo dugu beti *ñ, ll* eta *tt* -ren bidez (*gaiñen, baiño, itteko*).
- /x/ hotsa 'j' hizkiarekin adieraziko dugu eta /j/ hotsa 'y' hizkiarekin (*Jainkoa, yokoa*).

## 3. ERANSKINA: Goizuetako galdetegia

### GIZARTE-ALDAGAIAK ESKURATZEKO GALDETEGIA

**1. Adina**

1.1. Noiz jaio zinen?
1.2. Orduan, zenbat urte dituzu?
1.3. Non jaio zinen? Ze auzotan? Zenbat urtez bizitu zinen bertan?
1.4. Herriko auzo batean edo bestean bizi, badago alderik?

**2. Ikasketa-maila**

2.1. Ze ikasketa egin dituzu (maila)? Zenbat urte arte ikasi zenuen? Titulorik?

**3. Hizkuntza-eraginak** (arauarekin harremana eta harreman-sarea)

3.1. Ze hizkuntzatan? Euskaraz, gaztelaniaz, edo bietara egin dituzu?
3.2. Non? Nongoak ziren irakasle eta ikasleak? Ze hizkuntza erabiltzen zuten? (euskara erabiltzen bazuten, ze euskara?)
3.3. Beste hizkuntzaren batean egin dituzu ikasketak?
3.4. Beste hizkuntzaren bat badakizu?
3.5. Beste zerbait ikasiko al zenuke?
3.6. Eta zure lanbidea zein da? Lana non egiten duzu? Beste nonbait egon zara lanean? Zenbat urte bakoitzean? Ze hizkuntza erabiltzen duzue han?
3.7. Bidaiatzea gustatzen zaizu? Non barrena ibili zara? Bizitzen egon zara kanpoan?
3.8. Irakurtzea gustatzen zaizu? Zenbat irakurtzen duzu (egunero, astean behin, hilean behin...)? Ze hizkuntzatan irakurtzen duzu (euskaraz gehiago, bietatik berdin, erdaraz gehiago)?
3.9. Irratia aditzen duzu? Zenbat (egunero, astean behin, hilean behin...)? Ze hizkuntzatan (euskaraz gehiago, bietatik berdin, erdaraz gehiago)?
3.10. Telebista ikusten duzu? Zenbat (egunero, astean behin, hilean behin...)? Ze hizkuntzatan (euskaraz gehiago, bietatik berdin, erdaraz gehiago)?
3.11. Gurasoak Goizutakoak al dira? (baiezkoa bada) Herrikoak / baserrikoak?
(ezezkoa bada) Nongoak? Euskaraz badakite? Erabiltzen dute (zurekin)?
3.12. Lagunak nongoak dituzu, Goizutakoak gehienak? Beste ingurutakoak ere bai? Nongoak? Eta bikotea? Zenbatero egoten zara beraiekin?

**4. Bi galdera xelebre:**

- Munduko edozein lekutan bizitzeko aukera emanez gero, non bizitzea gustatuko litzaizuke? (Goizutan erantzunez gero: Goizutan hobeki bizitzeko, ze aldatu hobetu beharko litzateke?)
- Inoiz egon zara, istripu batengatik (akzidente) heriotza berta duzula pentsatu duzun une batean? (baiezkoa erantzunez gero: "Zer gertatu zen?") (Labov 1966: 71).

Goiko galdera osatzeko: Non bizitzea gustatuko litzaizuke? Zergatik? Goizuetatik kanpora biziko zinateke? Ze baldintza betez gero biziko zinateke Goizuetan? Zein dira Goizuetan bizitzearen alde onak eta txarrak? Goizuetaren etorkizuna nolakoa imaginatzen duzu?

**5. Hikari buruzko galderak:** hika erabiltzen badakizu? Zeinekin erabiltzen duzu? Motikokin eta neskekin berdin? Neskena eta motikoena bereizteko izenik badakizu? Banaka banaka begiratuko dugu (iturria: Etxabe eta Garmendia 2003: 297-299).

| **FAMILIA** | BETI | NORMALEAN | BATZUETAN | EZ |
|---|---|---|---|---|
| Aitari | | | | |
| Amari | | | | |
| Gizonari | | | | |
| Andreari | | | | |
| Semeari | | | | |
| Alabari | | | | |
| Aitonari | | | | |
| Amonari | | | | |
| Bilobari (motikoa) | | | | |
| Bilobari (neska) | | | | |
| Anaiari | | | | |
| Ahizpari | | | | |
| Arrebari | | | | |
| Osabari | | | | |
| Izebari | | | | |
| Ilobari (motikoa) | | | | |
| Ilobari (neska) | | | | |
| Lehengusuari (m) | | | | |
| Lehengusuari (n) | | | | |
| **BAKARRIZKETA** | BETI | NORMALEAN | BATZUETAN | EZ |
| Emakumea bada: noka edo toka? | | | | |

| **ANIMALIAK** | BETI | NORMALEAN | BATZUETAN | EZ |
|---|---|---|---|---|
| Arrei | | | | |
| Emeei | | | | |
| **FAMILIAZ KANPO** | BETI | NORMALEAN | BATZUETAN | EZ |
| Nagusiari | | | | |
| Langileari | | | | |
| Ikaskideari<br>*Neska*<br>*Mutikoa* | | | | |
| Ezezagunari<br>*Neska*<br>*Mutikoa* | | | | |
| Ezagunari<br>*Neska*<br>*Mutikoa* | | | | |
| Kuadrillakoari<br>*Neska*<br>*Mutikoa* | | | | |
| Lagunari<br>*Neska*<br>*Mutikoa* | | | | |

Hikaren erabilerari buruzko iritzia:

- Zer iruditzen zaizu seme-alabek gurasoei hika egitea?
- Eta kalean gazteago batek zuri hika egitea?
- Ezezagun batek hika egitea zer iruditzen zaizu?
- Uste duzu hika baserrian gehiago egiten dela kalean baino?
- Lagun batekin ari zarela, hikatik zukara (edo ald.) aldatzen duzu gaiaren arabera?

Sintaxia:

- No creo que venga
- No le he dicho que vendrá Andoni
- Si viene quiero verle
- ¿Qué harás si viene?
- ¿Ha venido Mikel?
- Cuando venga dile que me llame
- El que ha llegado ahora es mi tío
- No ha venido porque no quería
- No se si vendrá

Elkarrizketa motz gelditu bada, beste gai batzuk:

- (adinekoei) Lehengo eta oraingo bizimoduaren arteko diferentzia, gazte-garaia, jolasak / ipuinak / kantak, eskola, janaria (taloak), arropa, gaixo jartzea, erremedioak / belarrak (pomada/ukendua), gerra-garaia, kontrabandoa, apostua, artzantza, baserri-lana, auzolana, artazuriketa, jorra, ilargia, sorteunak, tenporak, zerri-hiltzea, feria, tratua, olak, Goizuetako ofizio gehiago, kanta zaharrak, jaiak, erromeriak...
- (gazteei) Goizuetako festak (Amabirjinak, inauteriak, feriak, Txino auzoko jaiak...), ume-garaia, jolasak / ipuinak / kantak, parranda, aisialdia, ehiza, bidaiak, lana, etorkizuna...

**6. Hizkuntza eta hizkerei buruzko galderak**

a) Euskararen / gaztelaniaren erabilera

6.1. Egunean zehar, zein hizkuntza erabiltzen dituzu (euskara gehiago, erdara gehiago, biek berdin)?

6.2. Egoera batzuetan erosoago sentitzen zara euskara erabiliz (familia, lagunekin...)?

6.3. Egoera batzuetan erosoago sentitzen zara erdara erabiliz?

6.4. Adibidez, Donostiako denda batera joan eta langile ezezaguna da. Ze hizkuntzatan egiten diozu?

6.5. Nabaritzen al da, ikusita hutsa, langile hori euskalduna den edo ez?

6.6. Eta herriaren arabera, diferente egiten al duzu, zure ustez?

- Adibidez, Iruñean egoera berean, denda batera joan eta langilea ezezaguna baduzu, ze hizkuntzatan hitz egiten diozu?
- Adibidez, Leitzan egoera berean, langilea ezezaguna baduzu, ze hizkuntzatan hitz egiten diozu?
- Adibidez, Hernanin egoera berean, langilea ezezaguna baduzu, ze hizkuntzatan hitz egiten diozu?

b) Goizuetako hizkerarekiko iritzia

6.7. Goizuetako hizkera gustatzen zaizu?

6.8. Uste al duzu kanpokoei gure hizkera gustatzen zaiela? Zergatik?

6.9. Zure ustez, Goizutan ongi hitz egiten al da? Denak berdin hitzegiten al dute (gazteek / helduek, emakumeek / gizasemeek, ikasketaren arabera...)?

6.10. Zein dira Goizuetako hizkeraren ezaugarriak?

6.11. Zerbait bereziki gustatzen zaizuna ba al da? Eta gustatzen ez zaizuna?

6.12. Beste herrietara joaten zarenean, hizketarengatik Goizuetakoa zarela nabaritzen al dizute? Inporta al zaizu nabaritzea?

6.13. Aldatzen al duzu zure hizkera herritik kanpokoekin hitz egiterakoan? Edo egoera konkreturen batean?

6.14. Aimarrek eta Axierrek nola hitzegiten dute telebistan, goizuetarreraz? Ze iruditzen zaizu?

c) Nafarrerarekiko iritzia

6.15. Nafarroako herrien hizkera gustatzen al zaizu?

6.16. Ze herritakoa gustatzen zaizu gehien? Zeinetakoa gutxien? Beste herriren batekoa ezagutzen duzu?

c) Erdialdeko euskararekiko iritzia

6.17. Eta Gipuzkoako euskara? Ze herritakoa gustatzen zaizu gehien? Zeinetakoa gutxien? Beste herriren batekoa ezagutzen duzu?

d) Batuarekiko iritzia

6.18. Eta batua? Ba al dakizu erabiltzen? Noiz erabiltzen duzu?
6.20. Batua eskolan ttikitatik erakutsi behar dela uste al duzu?
6.21. Ze diferentzia nabaritzen duzu gipuzkeraren eta batuaren artean?
6.22. Euskaraz, ze hizkera gustatzen zaizu gehien? Zergatik? Eta gutxien? Zergatik?

**7. Hizkuntza-aldagaien erabilerari buruzko galderak, estigmatizatuta dauden ikusteko**

| | | Nola esaten? | Zein erabili gehiago? | Zein zuzenagoa? |
|---|---|---|---|---|
| Aferesia | karri/ekarri, man/eman | | | |
| Dekl. kontrakzioak | semek/semeak<br>mendin/mendian | | | |
| Laguntzaileak | do/dago<br>ttut/ditut<br>diazo/didazu | | | |
| 0/g | launa/laguna<br>suea/sugea | | | |
| Geroaldia | izain/izango<br>join/jongo | | | |
| Izan/egon lekuzko perpausetan | hemen da/hemen do<br>lanen da/lanen do | | | |
| Mintzatu/hitz egin | Mintzatu/hitz egin | | | |
| Arrunt/oso | Arrunt/oso ongi | | | |
| -ko(t)z/-ko[64] | delako(t)z/delako | | | |

64 Zerrendan bukaeran gehitu da eta gutxi batzuei galdetu zaie.

## 4. ERANSKINA: Araitz-Beteluko galdetegia

### GIZARTE-ALDAGAIAK ESKURATZEKO GALDETEGIA

**1. Datuak**

- Izen-abizenak
- Nongoa

**2. Adina**

- Noiz jaio zinen?
- Orduan, zenbat urte dituzu?
- Non jaio zinen? Ze auzotan? Zenbat urtez bizitu zinen bertan?
- Goierri eta beierri bereizten dituzue? Batekoa edo bestekoa izan, ze alde dago?

**3. Ikasketa-maila**

- Ze ikasketa egin dituzu (maila)? Zenbat urte arte ikasi zenuen? Titulorik?

**4. Hizkuntza-eraginak (arauarekin harremana eta harreman-sarea)**

- Ze hizkuntzatan? Euskaraz, gaztelaniaz, edo bietara egin dituzu?
- Non? Nongoak ziren irakasle eta ikasleak? Ze hizkuntza erabiltzen zuten? (euskara erabiltzen bazuten, ze euskara?)
- Beste hizkuntzaren batean egin dituzu ikasketak?
- Beste hizkuntzaren bat badakizu?
- Beste zerbait ikasiko al zenuke?
- Eta zure lanbidea zein da? Lana non egiten duzu? Beste nonbait egon zara lanean? Zenbat urte bakoitzean? Ze hizkuntza erabiltzen duzue han?
- Bidaiatzea gustatzen zaizu? Non barrena ibili zara? Bizitzen egon zara kanpoan?
- Irakurtzea gustatzen zaizu? Zenbat irakurtzen duzu (egunero, astean behin, hilean behin...)? Ze hizkuntzatan irakurtzen duzu (euskaraz gehiago, bietatik berdin, erdaraz gehiago)?
- Irratia aditzen duzu? Zenbat (egunero, astean behin, hilean behin...)? Ze hizkuntzatan (euskaraz gehiago, bietatik berdin, erdaraz gehiago)?
- Telebista ikusten duzu? Zenbat (egunero, astean behin, hilean behin...)? Ze hizkuntzatan (euskaraz gehiago, bietatik berdin, erdaraz gehiago)?
- Gurasoak Araitz-Betelukoak al dira? (baiezkoa bada) Herrikoak / baserrikoak? Goierrikoak / Beierrikoak?
- (ezezkoa bada) Nongoak? Euskaraz badakite? Erabiltzen dute (zurekin)?
- Lagunak nongoak dituzu, Goizutakoak gehienak? Beste ingurutakoak ere bai? Nongoak? Eta bikotea? Zenbatero egoten zara beraiekin?

**5. Beste gai batzuk:**

- Denbora librean zer egitea gustatzen? (mendira, irakurri, zinea, bidaiak, ehiza...)
- Parrandarako bertan badago giroa? Kanpora joatekotan, nora ateratzen zarete?
- Ttikitako garaia: eskola garaia, jolasak...
- Zure etorkizuna nola irudikatzen duzu?
- Zein alde dago garai batetik hona? Asko aldatu al da Araitz / Betelu?

## HIZKUNTZA-ALDAGAIAK ESKURATZEKO GALDETEGIAK

**6. Herrian / kanpoan bizitzeko nahia**

- Munduko edozein lekutan bizitzeko aukera emanez gero, non bizitzea gustatuko litzaizuke? Zergatik?
- Araizkoa / Betelukoa izateak zer esan nahi du zuretzat? Araizkoak talde bat eta Betelukoak bereiz? Araitz-Beteluren arteko lotura nolakoa ikusten duzu; zuretzat Betelukoa dena zure talde berekoa izatea da (eta alderantziz)?
- Araitz-Betelutik kanpora biziko zinateke?
- Zein dira Araitz-Betelun bizitzearen alde onak eta txarrak?
- Araitz-Betelun hobeki bizitzeko, ze aldatu, hobetu beharko litzateke?
- Araitz-Beteluko etorkizuna nolakoa imaginatzen duzu?

**7. Hikari buruzko galderak:** hika erabiltzen badakizu? Zeinekin erabiltzen duzu? Mutilekin eta neskekin berdin? Neskena eta mutilena bereizteko izenik badakizu? Banaka banaka begiratuko dugu (Etxabe eta Garmendia 2003: 297-299).

| **FAMILIA** | BETI | NORMALEAN | BATZUETAN | EZ |
|---|---|---|---|---|
| Aitari, amari | | | | |
| Gizonari, andreari | | | | |
| Semeari, alabari | | | | |
| Aitonari, amonari | | | | |
| Bilobari (neska + m) | | | | |
| Anaiari | | | | |
| Ahizpari/arrebari | | | | |
| Osabari, izebari | | | | |
| Ilobari (n+m) | | | | |
| Lehengusuari (n+m) | | | | |
| **BAKARRIZKETA** | BETI | NORMALEAN | BATZUETAN | EZ |
| Emakumea bada: noka edo toka? | | | | |
| **ANIMALIAK** | BETI | NORMALEAN | BATZUETAN | EZ |
| Arrei, emeei | | | | |
| **FAMILIAZ KANPO** | BETI | NORMALEAN | BATZUETAN | EZ |
| Nagusiari | | | | |
| Langileari | | | | |
| Ikaskideari<br>*Neska + mutikoa* | | | | |
| Ezezagunari<br>*Neska + mutikoa* | | | | |
| Ezagunari<br>*Neska + mutikoa* | | | | |
| Kuadrillakoari<br>*Neska + mutikoa* | | | | |
| Lagunari<br>*Neska + mutikoa* | | | | |

Hikari buruzko iritzia:

- Zer iruditzen zaizu seme-alabek gurasoei hika egitea?
- Eta kalean gazteago batek zuri hika egitea?
- Ezezagun batek hika egitea zer iruditzen zaizu?
- Uste duzu hika Goierrin gehiago egiten dela behean baino?
- Lagun batekin ari zarela, hikatik zukara (edo ald.) aldatzen duzu gaiaren arabera?

**8. Hizkuntza eta hizkerei buruzko iritziak**

a) Euskararen / gaztelaniaren erabilerari buruzko iritzia

- Egunean zehar, zein hizkuntza erabiltzen dituzu (euskara gehiago, erdara gehiago, biek berdin)?
- Egoera batzuetan erosoago sentitzen zara euskara erabiliz (familia, lagunekin...)?
- Egoera batzuetan erosoago sentitzen zara erdara erabiliz?
- Batuan hitz egin behar duzunean, eroso?
- Adibidez, Donostiako denda batera joan eta langile ezezaguna da. Ze hizkuntzatan egiten diozu?
- Nabaritzen al da, ikusita hutsa, langile hori euskalduna den edo ez?
- Eta herriaren arabera, diferente egiten al duzu, zure ustez?
- Adibidez, Iruñean egoera berean, denda batera joan eta langilea ezezaguna baduzu, ze hizkuntzatan hitz egiten diozu?
- Adibidez, Lekunberrin egoera berean, langilea ezezaguna baduzu, ze hizkuntzatan hitz egiten diozu?
- Adibidez, Tolosan egoera berean, langilea ezezaguna baduzu, ze hizkuntzatan hitz egiten diozu?

b) Bertako hizkerarekiko / nafarrerarekiko iritzia

- Araitz eta Beteluko hizkera gustatzen zaizu? Ba al dago alderik, hizkeran, Araizko herrien artean? Betelukoa diferentea da?
- Uste al duzu kanpokoei gure hizkera gustatzen zaiela? Zergatik?
- Zure ustez, Araitzen eta Betelun ongi hitz egiten al da? Denak berdin hitzegiten al dute (gazteek / helduek, emakumeek / gizasemeek, ikasketaren arabera...)?
- Zein dira Araizko eta Beteluko hizkeraren ezaugarriak?
- Zerbait bereziki gustatzen zaizuna ba al da? Eta gustatzen ez zaizuna?
- Beste herrietara joaten zarenean, hizketarengatik Araizkoa / Betelukoa zarela nabaritzen al dizute? Inporta al zaizu nabaritzea?
- Aldatzen al duzu zure hizkera herritik kanpokoekin hitz egiterakoan? Edo egoera konkreturen batean?
- Nafarroako herrien hizkera gustatzen al zaizu?
- Ze herritakoa gustatzen zaizu gehien? Zeinetakoa gutxien? Beste herriren batekoa ezagutzen duzu?

c) Batuarekiko / erdialdeko euskararekiko iritzia

- Eta Gipuzkoako euskara? Ze herritakoa gustatzen zaizu gehien? Zeinetakoa gutxien? Beste herriren batekoa ezagutzen duzu?
- Eta batua? Ba al dakizu erabiltzen? Noiz erabiltzen duzu?
- Batua eskolan ttikitatik erakutsi behar dela uste al duzu?
- Ze diferentzia nabaritzen duzu gipuzkeraren eta batuaren artean?
- Euskaraz, ze hizkera gustatzen zaizu gehien? Zergatik? Eta gutxien? Zergatik?

**HIZKUNTZA-ALDAGAIEN ERABILERARI BURUZKO GALDERAK, ESTIGMATIZATUTA DAUDEN IKUSTEKO**

| | | Nola esaten? | Zein erabili gehiago? | Zein zuzenagoa? |
|---|---|---|---|---|
| Geroaldia | izanen/izango<br>joanen/joango | | | |
| Izan/egon lekuzko perpausetan | hemen da/hemen dau<br>lanean da/lanean dau | | | |
| izanen erroa | gu ga(ra) / gu gea | | | |
| *Edun/eduki | hemen dut/hemen dauket | | | |
| *edun-en erroa | dut, duzu / dot, dozo / det, dezu | | | |
| NOR-NORI-NORK saileko erroa | dazkizut / dizkizut<br>dazkit / dizkit | | | |
| Pluraleko 3. pertsonako NORK | -e (*due, naue, gattue*...) vs. *-te* (*dute, dakite*...) | | | |
| | *Baño, baña* vs. *biño* | | | |
| | *behintzat, bintzet* vs. *benpin* (eta *berenilo*?*) | | | |
| | *ezer* vs. *deus* | | | |
| Aferesia* | karri/ekarri, man/eman | | | |
| Dekl. kontrakzioak | semek/semeak<br>mendin/mendian | | | |
| Arrunt*/oso | Arrunt/oso | | | |

*Ez dituztela erabiltzen esan dute hiztunek.

## 5. ERANSKINA: transkripzioak

## a) Goizuetako adineko gizonezkoa (8.GGZB1O)

### Lehengo bizimodutik gaur egunerako aldeak

Ta gero, baserritarrak, ze lanak itten tzian! Labrantza lanen san nahi dot: artoa, ba[b]erna eta patata ta. Gero, azindakiñ ta baserriko gauzakiñ nola bizitzen tzen. Ta gaur, neurrek ikusten dut ta. Gero saten dute, lehengo zaharrak, «ezto itxen lan[a] in nahi ta…» Normala iduitzen tzit. Zengatikan elitteke bizi re. Ordun bizitzen zen nola, azindak e diru[a] itten tzun. Ta, gaur elitteke gazte bat, senar-emaztek eta bi ume, baserri hubenen e ez littazke atere. Ez. Ta ezto gañera ta arrazoi dute, no-hala lane[ra] yon beharra. Difentzi horik tor diala bai. Ta holoko kontu asko, postura askotara difentzik die.

Leheno re, leheno, iun [egun] bat o yai bat huts in gabe elizara lasterka yoten giñan ta gaur, elizan ondokok e, asko yoten ez tianak die. Huriek ze difentzia hortan e, torri den? Ta holoko kontu asko, esaten hasiz keoz, nik konpaziora sain dut, oaiñ hiruroitamar urtetikan nik ezauera badut, hamar urtetako bastante ikasten baita. Ta zaharrari ekusiz, o erakutsiz o ikasten da ta handik honara difentzi asko dola, hori dudik ezto. Gañekon berriz, gaur difentzi haundin kusten duana, ta arrunt ongi do. Leheno umek eziñ, lehengok iziñ mantendu. Eta zortzi ume, hamar umekok e baserritan asko. Ze, ze difentzi, e? Ta gaur bi eta arrunt ongi harrapatzen du[t] ni[k] hori, e? Ta hora behintzat, nik eztikipa! Beste posturak ta, pekatu men tzela, eztikize badakize ta. Umea umen gañen, bat siaskan, bestea tripen, ta hainbeste ume! Baserritar amonak ze kusi te izein te dian! Ta gure amak eta denak, arrebak e bai, e? Hemen talok erretzen. Hainbesteko familia... Gaurko difentzia, nahiz baserrin izan, gaur talo'at ezta erretzen baserrin. Ta herrin bezalxe, dena uikiñ eta ume gutxio. Ta baserri askotan berriz aleik ez. Baserritan umea oso gutxi do uaiñ, banaka-banaka batzuk (…).

Hora, hora ikiaragarri zen, zengatikan, zengatikan, iñondik irao eziñez… Ezta baserriko gauz hutsakin haimeste ume! Oaiñ, eskola etzela ibiltzen. Hor, gu re, oso gutxi. Lana zen demon, udan lana zela, neun demo txarra zela, ta gabeko eskolan ibili... ta hantxe, ixtanteko soldado yomarra, ta hamasei, hamazazpi, hemezortzi urtetan bi ordu iraotzen ginttun, gabeko zortzitikan hamarrak bittarte! Ta hantxe pixkot ikasi gunun. Ta holxe ibiltzen giñan. Hortan difentzi ikiaragarria ta gero gaur berriz, herriko[a] bezalaxe. Atera ondon autousa yoten da, han hartu, gero bueltan berriz e…

## b) Goizuetako emakumezko heldua (5.GEZB3O)

**Auzolana**

Auzo bakotxak bere berexitazunak batto. Eztikit nola esan e. Auzo batzuk dia unittuok ere bai, hemen bakotxak baserritik baserrira unittuk. Beste batzuk perriz badia, bere airera aitzen dianak. Ta gu hor zaten giñan baserri o auzo hortan, bata besteri launduz ibiltzen giñan. Bueno, gaur zollarik dia, bueno zollen; gaur gorozkatan edo, edo belarren edo. Bata besteri launduz. Gure demon. Oan ya ez, e? Oan ya lanak e, eztikit, yende gutxio re do ta lanak beste tipora, màkinakin ta hola itten da, biño leheno hori asko. Gu yoten giñan pues, gorotza atetzera re bai, hora oso politta zaten tzen gañera, hola saskia bizkarren hartu, gorotzaken, ta nik besteri man, ta harrek besteri, ta hala aietzen tzen behar tzen lekura, gorotz hori.

*Lurrari buelta ematen*

Hori lurra bueltzen. Boldek nola itten do? Hori [i]zaten tzen hiru hortzeko aitzurra bazala, biño kiderrakin. Hiru hortzeko bat hartu ta denak baten aitzen giñan hola: klask! eta atere, klas! sartu ta atere, itten tzen trozo osoa eramatten tzen, bost o sei laun, zera bakoitzen, zerrenda bakoitzen. Ta oi, gaur zollarik dia halako baserrin, ta hara. Ta hurrungo eun baten: bueno, gure itxen dia baserriko halako ta halako eunen, e? Haiek tortzen tzian ta hola, alkarrekin itten tzen lana.

*Gorozkatarik*

Gorozkatarik saten tzen, gorotz hori imar tzen demon, jenealen iual tortzen tzian batzuk, o ezaunak, o familikok o, ta bildduko giñan, pues hoei iol. Ta hoei saski, ta soton attonak o hola eoten tzian normalen, xartxiok, ta haik betetzen tzuten saskia, ematten tziuten bizkarrera, ta guk eramatten gunun besteri, ta harrek besteri, ta hori alletzen tzen behar tzen lekuño. Hori, askotan hola ibillik zaten ga gu.

*Auzolanaren berri emateko*

Bai, bai, san itten tzen. Eta san itten tzen edo... Gorden baldin bazen baserri hori san itten tzen. Biño, baldin bazen bixtan, patzen tzen mandire bezala zuri bat eta "hara! Holoko baserrin gaur dia gorozkatarik o, zollarik edo hola". Ta ya mandire hora kusten tzen demon ya baganakin zertako zen, tenporada. Bueno, lurra irauli do muittu bar baldin bazen, pues zango zian zollarik, do gorotza atetzeko bazen, ordun gorotz atetzeko euna da, halako lekun. Ta bate besteri hola adizitzen tzen. Etzen zaten telefonoikan eta horrekin moldatzen tzen. Ni gaztea nitzala hori. Nik zango nittun, pues... hamabost, hamasei... Denbo haitan, tipo hortara lan asko itten tzen baserrin.

**Bertako hizkera kanpokoekin**

Ez, batzutan igual bai biño, normalen etzit gustatzen [aldatzea]. Ezin badut adizi, pues ordun pixkot gipuzkokona itten dut biño, eztut nahi-zaten. Haik beira-beira yartzen baldin bazkitzo ez dutela ierritzen nik ze-saten duan, ordun ya maten dit Gipuzkoko zera bat, biño eztut nahi. Eztikit gañera ta.

**Lehengo erosketak**

A, hori bai. Jolin, alde, konpazio erra do! Nik goseik eztut sentittu, biño pobrezia, eziña bai baserrin. Ume kozkorra nitzala. Biño pobrezia haundia, e? San dizut ba. Sei arrautzakin iol tortzen giñan enkarguk ittera herrira. Ta hain gauza eraman, ta hola. Esnea re bi litro, do hiru do. Behiak e esne gutxi-zaten tzuten ta hora re saldu ta hain dirukin enkarguk itten tzian. Ta eramaten tzian, pues bi txokolte pastilla iual, eta tomatea ta ardo pixkot, eta ui bat o bi. Ta holako gauz berexi batzuk.

*Jakiak eramateko edukiontziak: "zianbrerak".*

Ya, biño ordun eramatten tzen kantide pixkan. Tomatea re itten tzuten bidoi haundi bat ireki. Ta guk karri zera, zianbrera do ta han, hora bete arte pixkot hartu ta hora eramatten gunun. Etzen pote kilokoik ta holakoik eramatten. Dena hola.

## c) Goizuetako gizonezko gaztea (17.GGGE2O)

**Lehengo bizimodutik gaur egunerako aldeez**

Ba, eztikit, yendea hiritara asko yon da. Gero, garai bateko ohittura asko galtzen ai dia ba, leno animalikin ta gehio zeatzen tzen, tratua gehio zon. Oan dirua zo irabazi barra ta animalik eta diru gutxio mate'ute. O eztikit. Baratzatikan e asko ibiltzen tzen. Leno, pobrezia haundioa zon ta besteik etzenen ba, hortikan bizitzen tzen yendea, ez? Ta oan ya, lanpostu baten billa yoten tza ta… Komodidadea re bada, ez? Ba lana gutxio zo in barra ta, ba… ofizio bat ikasten bazo ba… mendin etzo ofizio hori itteko aukerikan ta yendea, ba… hiritara ta hola yon da ta… Nik uste horregatikan (...).

Leno re herriko difentea zela, san nahi zo, baserritarrakin konpatuta? Bai, miño nik uste leno antza gehio zutela, e? Oan difentzia askoz e gehiora zetu da, nere ustez. Oan edozin kalekumeri sate dizo iratzea mozten dela o ardiri belarra zetzeko, yateko, moztu in bar dela ta lehortu bar dela ta… Hori leno denak zikiten. Oan edozin kalekumek eztiki hori ta… Eztikit. Zea gehio zon leno. Lotura gehio zon leno baserrikin oan miño. Oan ya, nik eztikit. Oan yende askok esnea tetrabriketikan atetzen dela uste do ta, pentsatu.

**Zahagi-dantza**

Ikatza itten tzuten yendek oso gutxi yesten tzian herrira ta haik izaten tzuten zahia o ardoa eukitzeko zen... zaten tzen zahia. Ordun hora hustutzen tzutenen tortzen tzian herrira ta… herrira tortzen tzian betetzera hori ta, de paso, pues itten tzuten ardoa eran ta mozkortu. Ta emakumek ta nola mendin ta gutxi [i]kusten tzuten, honara torrita, mozkortzen tzianen, ba… berotzen zain tzian ta… emakume ezkondun atzetikan ta hola hasten tzen ta… ordun, herriko gizonezkok ba, mendira bialtzen tzuten zeakin, makillakin aurren hartuta. Ta hortik heldu dela uste'ut. San hala itten da. Ta arpeia zikiña horreatik izate'ute, ikazkiñangatikan ta. Hoik esplikaziok, kar-kar!

**Azentuera eta hizkera**

Nik uste, pixko gehio... azento gehio zetzen dutela, esajeratzen dútela. Tonua fuerteo maten dítela. Segun ez? Nik uste ez dela baserrikoa ta zea, herrikoa baitare. Gero famili batzutatik bestera re difentzia badola sain nuke nik. Famili batzutan nabaitzen da azento gehio maten ditéla ta beste batzuk garbio hitzein o… zeago, lasaio bezala o… Beste batzuk aurogo hitzeitten dute. Hori nik eztikit zeren arabera izain den, miño… Herri ttikia ga miño, ttikia da miño, badia zea difentek. Hizkéra difenteko o hitzeitteko forma difentek.

*Aldea adinekoetatik gazteetara*

Zaharratatik gaztetara? Eztikit nik. Gaztek igual uan… Zaharrak garai baten igual zea gehiokin hitzeitten tzuten? Sal[to], zea horik, azento oandikan e gehio markatuz o… Nik eztikit. Garai bateko yendekin oandik tratu haundiik eztu euki ta… Zaharrakin eoten naiz miño eztikit. Nik uste, gehinak e ioltsu hitzeitten dula. Holoko difentzia re ezto. Iual, pertsona batek o iual bai, pertsona yakin batek "ostra! Harrek zea hitzeitten do, nahiko pronuntziatua", miño… gehinak jeneralen iualtsu hitzeitten du, nik uste. Bat o beste bada hola pixkot esajeratzen duna, miño, eztikit zérrengatik izain den (…).

Guk pixkot nahasioa ibiltzen du, euskara batukin pixkot zeatua. Ta gero kanpora yoten tza ta baitare kanpon ezin tzo goizutar-goizutarra hitzein. Ordun, saiatzen tza hitzak batukin o nahasten, enteintzeko. Bestela denak: "e? e?" hola hasten da ta, azkenen, zuk zo zetu barra. Amore [e]man barra o…

*Beste euskalkiekin ulermena*

Bai, nik hairi bai. Nik… Gipuzko aldera yoten banaiz behintzat denari enteintzen ditet. Bizkai alden ya zailxioa da, haik battuzte beran hitz berexik baitare ta Iparralden e, ze [e]sanik ez. Iparralden ya askoz galduo.

*Euskara batua*

Hombre, euskera batua da, hameste forma ezberdin daude hitzeitteko ba, hori sortu zen Euskal Herriko yende guzia elkar enteintzeko, ez? Nik uste. Ta pixkot saiatu zian, alde guzitako hitzakin ba, zea bat itten. Hizkéra bat, pupurri bat bezela o, hartu ta hizkéra bat atetzen, ez? Euskera batun beran e badia krixton hitzak nik oain enteinttuko enittuzkenak o ze [e]san nahi duten eztikianak. Hiztegia hartu ta han beitu barko nukenak, baitare. Osea, hori re arrun zabala da. Euskerak arrun zea zabala do. Eremu zabala do, nere ustez.

## d) Araizko emakumezko heldua (1.AEZE1K)

**Elur-itoak Mailoetan**

Elurre eoten da izoztue, normalean izoztutako elurre, eta ordun eoten da gor-gora. Ona. Gañean jute zea ta ongi (...). Oso ongi gora iyo, baño geo behera jetsi behar dozo (...). Ta iuzki ta egualdi onakin ya elur-itoak hasten die ya gotti behera ta ordun, pixka bat hankaakin muitze bakar-bakarrik e ya hasten da pelota bat itten, gotti behera, gotti behera. Ta ordun hola, egualdi onean elurre daunean hotsa aitzen dozo, hostotsa balitz bezelaxe, eta ikuste zo nola heldu'en gotti behera...

Da lehengo negun e kotxeakin banien da, hotsa: trrrrrrrrr. Ezta ba oaiñ hostotsa holako egualdi onean da, beittu ta goitti behera nola etortzen den, dena zuri-zurie, biño dena segidan segidan segidan etortzen da. Ez, ez, die mendi ttikik eta aldi batean haundik balie bezalaxeko... Eta hoi, jendea asko engañatzen do horrek (…). Negun tokatzen bazea, hola beittu Malloe eta kusiko zu hola arrastoak bezala goitti behira, hola, markatue bezela eoten da.

**Behiak**

Oañ asko aldatu da bizimodue. Ta ordun, famili'et aurrea ateatzezkeo, in beharra aukezo beste era atea jokato (...). Bai, jeztea re bai, jeztea re bai ya makinakiñ, hoi re aurrerapire haundie izandu zen (...).

Ba behie zaintzea dauke ba lotue geatzen tzeala. Jetzi beha ittozo goizean, e? Esne-behiek daukena, eta gabean e bai. Da jana eman behar diezo, ba ezin dozo utzi iun bateti besteara, hola bost ieunean eman gabe. Konpaziora, o san tzaun [beste lan batzutan], nik oan itte eztotena o atsaldean ingot o gabean ingot. Baño azindai hoi ezin diozo iñ. Igual, ba bueno, eun betean jana o goizean gehixao eman da geo beanduxeao, biño beti eon beha zo ordu batzutan han beakiñ eta ongi daon o gaizki daon o errape miñe dauken o beti... Lotue. Bai, bai, da hor ein behar zaizo gustatu. Bat e hor bizitzezkeo, horrekin batean eta mundu hortan, azinda gustatu in behar tzaizo. Gustatu eta hartze'iozo kariño'at bezala, o nik hitzeiñ itte'iet eta ben izenak dauzkie eta lasai. Batzutan amorrazten due de, baño gustoa. Baño gaurko eunean hortati bizimodue ateatzeko hola ezin da, ezin da, ezin da. Era horta ezin da, izango litzeke pues beste zea batea. Izango huke ya denak pillen jarri da, ya denai segidan jana eman da...

**Euskara eta erdara**

Zeatik guk gaztetan eskolan da erdaraz ikasi giñun. Guk galazita giñaukun euskaz hitzeittea. Da bueno, ordun ikasi giñun ba dakiun erda. Eta bueno, ba euskea beti etxean eutsi diun horrena. Oaiñ gazteak bai, gazteak ya ikasi due bai euskeaz da ya...

## e) Beteluko gizonezko heldua (9.BGZB4K)

### Euskararen eta erdararen erabilera

Nei iruitzen zait nahiko gaudela ya, pues, igual telebista medio, umeak ere bai, ya eskolan euskera, guk erderaz eman giñun eskola... Saski nahaski bat, beti idatzi, eta beti irakurri erderaz, eta etxeko euskera, pues hoi, atte ta amakin ta hola.

Bueno, oain bueltatzen ai da pixkon bat nik uste [euskara]. Bai, bai, bai. Biño nik uste maixuk zútela, maixuk eta apeza (...). Biño eur haundie eman tzun. Bai. Eta gero, eztakit horrengatik zen, edo etzen, ta gero gurasoak, euskaraz dakitenak biak eta gero (...) anai-arreban artean askotan saltatzen gara erderara. Eztakit zergatik, biño bueno (...). Biño bai, bai, Betelun hoi asko, nere adiñekotan asko. Lo que pasa que ya jendeak lehenago, nere adiñekoak ere igual hitzeitte etzuna, oain bueltatu da berriro saiatzea edo...

Eta nik uste ohartuz ere bai. Joe, tontokeri bat da jakinda ez hitzeittea eta... ta gero jendeak zu bezalako batekin igual beti, o sea, igual Beteluko batek saltatuko du euskeraz lasai arren ta hitzegingo du euskeraz lasai arren, ta geo esate zu nerekin igual erderaz, ez? Kostunbre txar hoik, [XXX] eurre ematen diu hortan.

Eta gero ohartzen tzara badakiela. Ni biño gazteoak ere erderaz erabat itten dute ta gero hitzeitten jartzen die beste batekin euskeraz eta esate'ut, joe pues, ni biño hobeki daki ta. Bai, bai, askotan hoi izaten da. Anai-arreba artean ere, familli berean ezautzen ttut: batek ez du hitzeingo. Ta euskaldune sentitzen da ta... Miño esan nahi dut, ta bere anaiak beti, anai gazteak beti euskeraz nerekin, beti.

### Araitz eta Betelu

Zeatik beti izandu da Betelu ta Araitz ta Araitz ta Betelu ta beti kaka hoi (...), biño bueno oraindik ere pixko bat dau kutsu hoi. Nik uste, gazte... bere, gure illoakin eta jenerazio... Ekusten det hobeto, alde hortatik. Talde bat dago, gero bere zeak izango itto, bere... Eztie pikatzen ni pa dios, bakizu, oango gazteak nola dien, ez? (...)

Zea, Arribekoa da. "Pero los jóvenes de ahora sobrevivirán a pesar de los padres", itten du, itten zun harrek oain dela urte asko ta askotan esaten dut, pues igual arrazoi du. Azkenean, "a pesar de los padres" esaten zun. Azkenean... kar kar!

## f) Araizko emakumezko gaztea (10.AEGA1O)

**Araitz-Betelu eta eskola**

Hok die herri txiki-txikik ta ordun biltze gea... Betelue juten zea ta eztezu, o sea, eztezu mundue ikusten. Edo denak die antzekoak, edo eztakit. Juten gea Betelue ta Betelutiken etxea, ta etxetiken Betelue. Ta bertan gaude, gu adibidez klasez zazpi giñen ta zazpi bakarrik, ba, azkenen ezautzen zea, edo jende antzekoa gea. Gero Leitzea jun da geo esaten giñun: "buo, hogeitahiru klasean", gutzako zen ya... fff, oso haundie ta jendea de bai gehigo, jende era desberdiñetakoa ta gutzako zen pixkat, hasieran kortea, ostra, pixkat (…).

Bai, hala izan zen. Eta geo Leitzetiken Donostie de bai. Baño azkenen ohittu itten zea, ta gañea onura da netzako. Oso, oso onura da. Azkenen, hasi zea herri ttiki batean, ez dezu iñor ezautzen, hemen gañea baserri giroan, gero jute zea Iruñ-Donostie ta gehigo ezautzen zu, jendeakin, iriki itte zea re bai gehio, ta mesedegarrie da.

*Baserria eta herria*

Bai, bai, Goizuetakok hala esaten zuen (…) dela herrie, eta gero eskiñetan baserri... Bueno, hemen, es que herrin e bai baserrik daude, asi que, o sea, dena, dena dau, bueno, junttoa edo bai. Intza da igual aparte. Es que Intza herrin, lurren azpin ure da, ure eondu'a. Ta ordun ezin da edozin lekutan in etxea, ta ordun oso separatuk daude. Intza, biño besteak oso gertu.

*Euskara eta erdara*

Oan gehigo bai, ta lehen, o sea, nere gurason garaien e bai, esaten tzuen, hemen dena euskeraz izan, o sea, aittu izan da. Bueno, ikasi ez, e? Ikasi erderaz. Biño gero Betelue joan da izaten tzela beaiek distinto; herri ttikitakok dena euskeraz da Betelun erderaz. Ta oañ e bai, e? Seitzen due. Nere anaiek zortzi urte dauzke ta bere klasekoak dena erderaz asko ta nere anaie de bai asko erderaz soltatzen da. Ta gure klasen adibidez, ez, gure klasen dena euskeraz.

Eztakit, gurasona, eztakit. Guraso asko re bai etorri da kanpotiken. Bai, torri da, bai, Betelu aldea, ta ordun gurasok erdaldunek izatean, seme-alabak e bai. Bai, eta bai, hemen e bai, e? Oain, guraso gazteak batez e, ume ttikik dauzkienak, eta. Ez, o sea, nere edaden, berroitamar urtekok ez, miño hola gazteak dienak, hoitamabost o hola, erdaldunek geo ta gehigo esango nuke nik. Ta Lekunberri bai, Lekunberri erdera, dena, bai. (...)

Euskalduna, oso euskalduna [Leitza]. Netzako bai. Jo, ni Betelun attu nitzenen dena euskeraz, oain ai da erdera gehigo sartzen, anaien da klasen ikuste't, beño Leitzen dena euskeraz, bai, bai. Es que Leitze bai, ta Goizueta re bai. Hor de erderakin prolema gehigo igual, ez? (…)

Ta entendittu ta bai, bai, entendittu ta [erdara]. Ni txikia, bueno, gaztegoa nitzenen hamabi urtekin da: "jo, zuk ba al dakizu erderaz"? Ta jo, nik entendittu ta dena oso oso ongi, biño gero hitzeitten kostatu itten zait ateatzea (...). Eta gañea asko itten du praktikak, e? Iual joaten tzea lekun batea, udalekun batea, ta igual han erderaz ta errextasuna hartzen dezu. Beño gero ez bazu ibiltzen, ya berriz e, torpetzen da ta.